



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko maiatzaren 24an

43 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak ([2. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2000ko otsailaren 28ko 20 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilariak 2000ko urtarrilaren 24an igorritako Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektuaren testua Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak gai berari buruzko aurkeztutako lege proposamen bat izapidetzen ari zela ezagutu zuen Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak. Gure ustez, ez du balio Nafarroako farmazien sektoreak dauzkan arazoei konponbidea emateko, ez du sustatzen botiken erabilera egokia eta eraginkorra, eta ez du bermatzen farmazi laguntza aratzearen arloan gizarteak behar duen aurrerapena eginen denik.

Farmazi berriak jartzeko murrizketa; farmazien eskaintza ordutegien erabilera berriekin eta kontsumo lekuetatik bat ez etortzea, zenbait produktu farmazietan baizik ez saltzea...; farmazia berriak jartzeko oztopoak erabiltzeko abusuzko jokoak; eskualdatzeak eta lekualdatzeak aprobetxatuz espekulaziozko salementak egitea; sektorearen judizializazio gehiegizkoa; farmaziako lizentziatuei lanbidera sartzeko murrizketa izatea... Horiek guztiak gaurko farmazien ereduaren arazoak dira, eta

Nafarroako Gobernuak bidalitako testuan ez zaie konponbiderik ematen.

Arrazoi hauek eta sozialisten bozeramaileak Biltzarreko otsailaren 16ko osoko bilkuran, Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzeari buruzko eztabaidan –non UPN-ren aurkako botoarekin eta EHren abstentzioarekin ez baitzen aintzat hartu–, emandako arrazoiak oinarri harturik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak osoko zuzenketa aurkeztu dio Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektuari.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa proiektua Gobernuari itzultzeko.

Konstituzioaren 149.1.16 artikuluan ezarritakoaren babesean, medikamentuei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legea eman zen. Lege oinarritzkoa zen, oro har, eta farmazi laguntza eta farmazien antolamendua, farmazietan medikamentuak ematea, ospitaleetako farmaziak eta beste alderdi asko arautu zituen. Hori dela eta, medikamentuei buruzko eta haiei loturiko osasun jarduerari buruzko araurik garrantzitsuena da.

Farmazien antolamenduari buruzko arauak osatzeko, jendearentzako farmazi zerbitzua zabalteari buruzko urtarrilaren 17ko 11/1996 Errege Lege-dekretu eman zen, zeina Farmazien zerbitzua arautzeko apirilaren 25eko 15/1997 Legearen bitartez indarririk gabe geratu baitzen. Azken horretan ezarri ziren farmazien antolamenduari buruzko estatuko oinarriak.

Autonomia erkidegoek farmazien antolamenduari buruzko arloan dauzkaten araugintza-eskumenak estatutuetan ezarritako barne osasunaren eskuarantz du oinarria, betiere alorrari buruz Estatuak

ematen dituen oinarriak begiratzuz (149.1.16 art.EK). Hala aitortu dute oro har Jendearentzako farmazi zerbitzua zabaltzeari buruzko uztailaren 17ko 11/1996 Errege Lege-dekretuak, zeina Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legeak indarrik gabe utzi baitzuen. Hori, gainera, osasunaren alorreko eskumen eskusibok erabiliz nahiz legegintzako garapena erabiliz farmazi antolamendua arautu duten lege autonomiko ugariak (148.1.21 artikulua) berretsi dute.

Beraz, estatuko oinarriko arauak ezinbesteko tresna dira, farmazi jarduera antolatzeari dagokionez, arlo honi buruz autonomiek dauzkaten eskumenak garatzeko orduan. Horrela, bada, asmo berritzaile guztiak hark mugatutako lekuan baizik ezin dira sartu; bestela, autonomi arauak Konstituzioaren aurkakoak izan daitezke.

Zehazki, Estatuko legedi oinarrikoak, Farmazien zerbitzua arautzeari buruzko apirilaren 25eko 16/1997 Legearen 2.1, 2.2, 2.5, eta 6. artikuluen bitartez, sektorearen edozein liberalizazio zaildu ezezik, plangintza irizpideak ezartzearekin -hau da, hura erabakitzearekin- oztopoak ere jartzen ditu erkidegoek beharizan kolektiboetarako egoikiagoa izan den farmazi antolamendu egoikiagoa egin dezaten.

Elkarlehia Defendatzeko Auzitegiak, farmaziei buruzko bere 1995eko Txosten, Balantze eta Proposamen izeneko agiria V. kapituluaren 5. artikuluan, Estatuak eta Gorte Nagusiek egin beharreko lege mailako neurriak eta aldaketak proposatu zituen. Haien artean, "Medikamentuei buruzko Legea aldatzea, plangintza gutxienekoen lege bat izan dadin, eta ez gehienekoen lege bat"; "farmaziak irekitzeko eta ixteko ordutegiak liberalizatzea"; "...gutxieneko distantzietan buruzko aipamenak eta biztanleen kopuruari buruzko aipamenak kentzea, farmaziak irekitzeko beharrezko baldintza gisa. (Medikamentuei buruzko Legea aldatzea)"; "Gizarte Segurantzak farmaziekin ituna egitea, libreki atxikitzea. Bertan finkatuko dira Gizarte Segurantzak atzera ordaintzeko diren medikamentuen prezioak eta horiek ordaintzeko epeak", eta abar.

Aipatutako neurriak eta aldaketak "de lege ferenda" erakoak dira, eta Elkarlehia Defendatzeko Auzitegiak berak aitortu zuenez, kasuan kasuko multzo normatiboan, -batez ere, oinarriko legediaz eratutakoa- aldaketak egitea exigitzen dute.

Gobernuak igorritako Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege Proiektuak badirudi gomendio horiek jarraitu dituela bi helburu hauei dagokionez: sektorearen liberalizazioa farmaziak ezartzeari dagokionean, eta, farmazi prestazioetatik

heldu diren kostuen murrizketa, itunpetze bateratuaren ordezkari banakakoa ezarri.

Hori guztia egiterakoan, baina, ez du kontuan hartu Foru Komunitatearen eskumen mugatua, Estatuko oinarriko legediaren garapenari egokitu behar baitzaio. Halaber, ez du kontuan hartu erabiltzaileei ematen dien tratamendu diskriminatzaileak medikamentuak erosteko aukerak mugatzean, ez eta horiek saltzeko mugek dakartzaten maila guztietako ondorioak ere.

Horregatik guztiagatik Nafarroako Parlamentuari proposatzen diogu Nafarroako Gobernuari Farmazi Laguntzari buruzko Foru Legea itzultzeko erabakia bere egin dezala.

3. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Farmazi laguntzari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa. Ordezko testua proposatzen da.

Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilariak 2000ko urtarrilaren 24an igorritako Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektuaren testua Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak gai berari buruzko aurkeztutako lege proposamen bat izapidetzen ari zela ezagutu zuen Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak. Gure ustez, ez du balio Nafarroako farmazien sektoreak dauzkan arazoei konponbidea emateko, ez du sustatzen botiken erabilera egokia eta eraginkorra, eta ez du bermatzen farmazi laguntza aratzaren arloan gizarteak behar duen aurrerapena egiten denik.

Farmazi berriak jartzeko murrizketa; farmazien eskaintza ordutegien erabilera berriekin eta kontsumo lekuetatik bat ez etortzea, zenbait produktu farmazietan baizik ez saltzea...; farmazia berriak jartzeko oztopoak erabiltzeko abusuzko jokoak; eskualdatzeak eta lekualdatzeak aprobetxatuz espekulaziozko salementak egitea; sektorearen judizializazio gehiegizkoa; farmaziako lizentziatuei lanbidera sartzeko murrizketa izatea... Horiek guztiak gaurko farmazien ereduaren arazoak dira, eta Nafarroako Gobernuak 2000ko urtarrilaren 17an onetsitako testuan ez zaie konponbiderik ematen; sozialisten taldeak 1999ko azaroaren 9an biltzarran aurkeztu zuen lege proposamenean, berriz, gure ustez, konponbide egokia ematen zaie.

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak uste du Nafarroako Parlamen-

tuak Farmazi Laguntzari buruz eztabaidatu behar duen lege proiektuaren testuak zehaztasunez ekin beharko diola farmazi eredu aldatzeari, ondoko funtsezko helburuei dagokienez:

- Herritarrentzat, egun baino eskurago jartzea farmazi zerbitzua, hainbat farmazia gehiago sortuz bai hirietan bai herrietan.

- Farmazietako profesionalak behar diren berrimekin eman dezatela osasun-zerbitzu hau.

- Beste profesional batzuei ere uztea farmazien titulartasuna lortzen; publikotasuna, gardentasuna eta lanbide-merezimenduak zein merezimendu akademikoak objektiboki baloratzea izanen dira hori lortzeko irizpideak.

- Nafarroan farmaziak sortzeari segurtasun juridikoa ematea.

- Osasun eskualde oinarrizkoak oinarri gisara harturik, osasun plagintzaren printzipioa errespetatzea. Baina farmazia bati dagokion biztanle kopurua gutxitu egin behar da, farmazi laguntza gehiago zabaltzeko; horrek ez du ekarri behar, inola ere, farmaziek ekonomikoki aurrera ez egitea, baizik eta etekinak hobeto banatzea eta hiritarrari emandako laguntzaren kalitatea hobetzea.

- Liberalizaziorako bidea hastea, Europako Batasuneko zuzentzauei jarraiki, baina farmazi ordenamenduaren irizpideak ahaztu gabe. Izan ere, orain arte zurrunezia izan da sektore hau, eta zurruntasun horrek profesional batzuen monopolioa ekarri du.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak uste du aipatu arazoek konponbidea Lege Proiektuaren ordezkotestuan dagoela, erantsi dugun horretan, eta ez Nafarroako Gobernuaren testuan.

Arrazoi hauek eta sozialisten bozeramaileak Biltzarreko otsailaren 16ko osoko bilkuran, Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proposamena aitnat hartzeari buruzko eztabaidan –non UPN-ren aurkako botoarekin eta EHren abstentzioarekin ez baitzen aintzat hartu–, emandako arrazoiak oinarri harturik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak osoko zuzenketa, ordezkotestuekin, aurkeztu dio Farmazi Laguntzari buruzko Foru Lege proiektuari. Eranskinean jarri dugu testu hori.

Farmazi laguntzari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezten den ordezkotestua

ZIOEN AZALPENEA

I

Espainiako 1978ko Konstituzioko 149.1.16 artikulua arabera, Estatuarena da eskumen osoa honako arlootan: “Kanpo osasuna. Osasunaren oinarriak eta koordinazio orokorra. Farmazi produktuei buruzko legedia”. Bestalde, autonomia erkidegoek “osasun eta higiena” arloetako eskumenak hartu ahalko dituztela ezartzen du 148.1.21 artikulua.

Lehenik aipatu den xedapen horretan ezarritakoaren babesean, Osasunari buruzko Lege Orokorra –14/1986 Legea– eman zen, 1986ko apirilaren 25ean, eta, geroago, Sendagaiei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legea. Bi legeon bidez egin da konstituzio garapena, bereziki Konstituzioko 43. artikulua; artikulua horrek osasuna babesteko eskubidea onartzen du.

Nafarroaz denaz bezainbatean, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak zera dio: “Barne osasuna eta higiena alorretan, gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak dagozkio Nafarroari eta, gainera, Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea”. Horretarako, “bere lurraldearen barnean, Nafarroak aitzineko idazatiak aipatzen duen gaiari dagozkion zerbitzu guztiak antolatu eta administratzen ahal ditu eta haiekin ikusteko duten erakunde, entitate eta fundazio guztien tutoretza egiten du”. Arau horiek, bada, eskumen-esparru misto bat erakusten dute, bitariko eskumenak lotzen dituen: erro historiko-foralak dituzten eskumenak eta autonomikoak. Farmazi laguntzaren arloko aurrekari historiko-foralei dagokienez, aipatzekoa da foru erakundeek partidu farmazetiko batzuk itxi zituztela, biztanle kopuruagatik; 1925eko azaroaren 4ko Lege Dekretuaren eta Nafarroako Udal Administrazioarako erregelamenduaren –1928ko otsailaren 3koaren– babesean itxi zituzten, eta osasun partiduak normalizatzeko prozesuaren baitan burutu zen egintza hau.

Abuztuaren 1eko 1697/1985 Errege Dekretuaren bidez, osasun arloko zerbitzu batzuk eskualdatu ziren Estatuaren administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera; horien artean ondoko hauek (Transferentzien Batzordeak 1985eko uztailaren 2an hartutako erabakiaren eranskina, 2. idatzatia, 1. zenbakia, h letra): “baimena ematea osasun arloko edozein motatako zentroak, zerbitzuak

nahiz establezimenduak sortu, eraiki, aldatu, egokitu edo deusezteko, baita irekitzeko eta funtzionatzeari uzteko ere; hemen sartzen dira ondoko hauek ere: bainu-etxeak eta aseguru askeko entitateak –laguntza mediko-farmazeutikokoak–, farmaziak eta Zirkulazio Kodean (265.2.b, 269.2 eta 272.1.d artikuluetan) aipatzen diren gaitasun agiriak luzatzeko baimena duten zentroak.”

Urte batzuk geroago, Osasun Institutu Nazionalaren –INSALUDaren– arloko zerbitzuak eskualdatu ziren Estatuaren administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera, besteak beste, abenduaren 28ko 1680/1990 Errege Dekretuaren bidez. Eta, azkenik, farmazi produktuei buruzko Estatuko legediaren exekuzioaren arloko eginkizun eta zerbitzuak eskualdatu ziren Estatuaren administrazioetik, abuztuaren 1eko 1318/1997 Errege Dekretuaren bidez.

Horren ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateak, arlo honetan dituen bidezko eskumenak erabiliz, farmazi jardueraren azpisistemaren arau propioak ezarri ditu, foru lege honen bidez; jarduera hori osasun sistemaren baitakoa da eta sistema horri estuki lotuta dago.

Farmazi zerbitzuaren egungo eredia azaroaren 14ko 909/1978 Errege Dekretutik dator, horren bidez farmazien baimena eman, farmaziak ezarri, transmititu eta integratzeko prozesuak arautu baitziren. Denbora igaro ahala, herritarren eskaerekin bat ez datorren egoera sortu du errege dekretuak, estatikoa delako eta Osasunari buruzko Lege Orokorraren osasun plangintza baino lehenagoko kontzeptuak darabiltzalako.

Egoera hobetzen hasi zen, honako bi arauak aldarrikatu ondoren: ekainaren 17ko 11/1996 Errege Dekretua eta apirilaren 25eko 16/1997 Legea, Farmazien Zerbitzua arautzen duena. Estatuko oinarritzko legedia hori Konstituzioko 149.6 artikulua babesean eman zen.

Estatuko oinarritzko legedia honek ez du izan gaur arte eraginkortasunik Nafarroan; izan ere, Foru Komunitatean farmazia zerbitzuaren behin-behineko araubidea ezartzen zuen irailaren 9ko 321/1996 Foru Dekretua eta hori osatzeko arauak aldarrikatu ondoren, 539/1999 Foru Dekretuaren bidez horren ezarpena eten egin zen. Eta, Nafarroako Gobernuaren iritziz, 909/78 Errege Dekretua indargabetuta dago, hirietan beste farmazia batzuk sortzeari dagokionez.

Horregatik guztiagatik, beharrezko da, Nafarroako errealitate sozio-ekonomiko eta demografikotik abiaturik, Estatuaren oinarritzko legedia errespetatzen eta garatzen duen legedi bat ematea.

Aginte publikoek hartu duten erantzukizun politikoa islatzen du lege honek; hots, berdintasuna, sartzeko erraztasuna eta laguntzaren kalitatea harturik irizpide gisara, zerbitzuak bermatu eta hobetzeko erantzukizuna. Legearen funtsezko xedea da farmazi laguntzaren maila guztietan eragitea, laguntzaren kalitatea hobetu eta bermatzeko, eta farmazi zerbitzua herritarrengana hurbiltzeko.

Osasun eskualde oinarritzkoak erreferentziazat harturik, beste plangintza-irizpide batzuk ezarrita lortzen da herritarrengana hurbiltzea: biztanle gune guztietan, utzi egiten da farmaziak ezartzen; farmazia bakoitzeko gehieneko biztanle kopurua txikiagotu eta farmazien arteko distantziak ere txikitu egiten dira. Arreta berezia eskaintzen zaie biztanle gutxien duten osasun eskualde oinarritzkoek, gune txikitik sakabanatutako biztanleak dauzkaten landa-eskualdeek; farmazia bat egon behar da 1.500 biztanleko, 5.000 biztanle baino gehiagoko guneetan zein osasun eskualde oinarritzkoetan; kontuan hartzen da Nafarroako osasun eskualde oinarritzkoek zenbait udal dituztela beren baitan, eta farmazia bat baino gehiago izateko moduko tamaina eta biztanleria dauzkatala udal horiek.

Nahitaez farmazia gehiago ekarriko dituzten oinarri hauei jarraiki, Osasun Administrazioak lan egin behar du, farmazien kokapenak, betiere, farmazi laguntza egokia berma dezan gure udalerrietan.

Ezinbestekoa da, jakina, zerbitzu publiko hau berme eta kalitate onekin eskaintzea. Horregatik, herritarrak zerbitzu honetan dituen eskubideak definitzen ditu legeak, lehen aldiz; orobat, farmaziariei onartu egiten die osasun-eragile garrantzitsuak direla, eta haiek akreditatzeko aukera sartu du, motibatze eta sustatzeko tresna gisa.

Farmaziek dauzkaten funtzioak egoki bete ahal izateko, ezinbesteko baldintzak dira bai farmazi laguntza etengabea izatea, eta baita farmazilaria han egon eta bere jardun profesionala gauzatzea ere.

Farmazia berriak egonen direnez gero, beste profesional batzuk sartuko dira arlo honetan; baina, hau jarduera planifikatua, mugatua eta administrazio baimenaren mendekoa izanik, sartzeko horretan baldintza batzuk bermatuko dira: lehia eta publizitatea egonen dira, eta titulartasunaren transmisioaren printzipioei jarraikiko zaie, nahiz eta profesional askeak izan.

Farmaziak arautzea garrantzitsua denez, legeak farmazi antolamendua osorik hartzen du, eta farmazi laguntza ematen deneko esparru guztiak

aipatzen ditu: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun laguntza, ospitaleak, zentro soziosanitarioak, banaketa-biltegiak eta albaitari-sendagaiak emateko baimena duten establezimenduak; horietan guztietan funtsezkoa da farmazi zerbitzu bat egotea, sendagaiaren erabilera egokia eta eraginkorra bermatuko bada.

II

Foru legeak 65 artikulua dauka, zazpi titulutan banatuta; gainera, bost xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu.

Lehen tituluak legearen xedea zehazten du, farmazi laguntza zer den definitu, herritarren eskubideak agertu, farmaziako profesionalaren jardura definitu (Administrazioarekin lankidetzan diharduen osasun-eragilea da) eta funtzionamendu-arauak ematen ditu.

Bigarren tituluak farmazi laguntza arautzen du, oinarrizko osasun laguntzaren esparruan; garbi bereizten ditu farmazietan ematen den laguntza eta, osasun zerbitzu nazionalan, oinarrizko osasun laguntzaren egituretan ematen dena. Farmazia osasun zentro bat da, eta han interes publikoko zerbitzua eskaintzen du profesional aske batek; farmaziak lotuta daude bai plangintza bati bai alde aurretik lortu beharreko baimenari. Ahalbideratu egiten da biztanle gune guztietan farmaziak ezarri ahal izatea, eta biztanleen kopurua gutxitu egin da -1.750etik 1.500era-, osasun eskualde oinarrizko bateko gehienez ere zenbat farmazia egon daitezkeen zehazteko, kontuan izanik eskualde bakoitzeko biztanleen sakabanaketa eta kontzentrazioa.

Zenbait printzipio ezartzen dira: farmazia bakar baten -ez gehiagoren- titularra izan daiteke pertsona bat; lehiaketa publikoaren bidez lortuko da titulartasuna, berdintasun printzipioari jarraiki; titulartasuna ezin da transmititu.

Baimena ematen da, farmaziarik ezartzen ez den gune urrundueta botikinak jartzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuez denaz bezainbatean, xedatzen da nahitaezkoa dela osasun eskualde oinarrizko bakoitzeko, gutxienez, farmazia bat egotea; hori arduratuko da gordailuez eta sistema publikoaren oinarrizko osasun laguntzaz.

Hirugarren tituluak ospitaleetako farmazi zerbitzuak arautzen ditu; nahitaezkoa izanen da ehun edo ehun baino ohe gehiago dauzkaten zentro guztiek farmazi zerbitzua izatea; sendagaien gor-

dailuak ere arautzen dira, bai ospitaletako solairuetakoak bai, nahitaezko izan gabe, zentroetan daudenak. Orobat, tituluak xedatzen du zentro soziosanitario guztietan kontrolatuko direla sendagaiak; hori egitea nahitaezkoa izanen da 200 plaza baino gehiago -horietatik 100 lagunduak direla- dauzkatenetan.

Laugarren tituluak banaketa biltegiez dihardu: horien baldintzak zehaztu eta agintzen du beharrezko dela farmazi zuzendaritza izatea.

Albaitari-sendagaiak ematea arautzen du bosgarren tituluak: erabakitzen du zein establezimendutan eman daitezkeen; farmazi zerbitzuen bidez, kontrola bermatzen du; eta agintzen du albaitari errezeta nahitaezkoa dela, errezeta behar duten sendagaiak emateko.

Seigarren tituluak bateraezintasunen sistema ezartzen du, ezen ekidin egin behar baita elkarren aurkako interesek ondorio txarrak izatea farmazi laguntzan eta laguntza horren kalitatean zein profesionaltasunean.

Azkenik, zazpigarren tituluak zehapenen araubidea ezartzen du.

Laburtzeko, esan dezagun legeak kalitatezko farmazi laguntza ekarriko duela; laguntza hori herritar guztien eskura egonen da eta farmaziako profesionalak zuzenean hartuko du parte, ahalegiak eginez sendagaiak behar direnean erabil daitezten.

I. TITULUA Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA Helburua

1. artikulua. Foru lege honen helburua.

1.- Foru lege honen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean herritarrei eman behar zaien farmazi laguntza arautzea. Nafarroak dauzkan eskumenak erabiliz eman da lege hau, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 53.1 artikuluan xedatutakoaren babesean.

2.- Nafarroako Foru Komunitateari dagokio bere lurralde-esparruaren barruan farmazi laguntza emanen dela bermatzea; horretarako, arautu eta planifikatu egingen du, Estatuko oinarrizko legediaren irizpideei jarraiki.

II. KAPITULUA

Farmazi laguntza

2. artikulua. Farmazi laguntza

1.- Farmazi laguntza da sendagaiak eta farmaziako bestelako produktuak, era egokian, herritarren eskura jartzeko prozesua; ahalegina egin behar da osasun arloko profesionalak eta gizabanakoek sendagaiak behar denean eta eraginkorki erabil ditzaten, eta gaixotasunari aurre hartu eta osasuna sustatu behar da, pertsonen eta komunitatearen osasuna zein bizi kalitatea hobetu eta babestearren.

2.- Farmazi laguntzako prozesu honetan, beraz, farmazilariak gaixoarekin eta beste profesional batzuekin egiten du lan, gaixoen tratamendu farmakologikoa diseinatu, ezarri eta monitorizatzeko, horren bidez emaitza terapeutiko ahalik eta onenak lor daitezten.

3.- Osasun sistemako maila guztietan eskainiko da farmazi laguntza, artikulua honetan ezartzen diren establezimendu eta zerbitzuen bidez; hauek elkarren arteko koordinazioa izanen dute, herritarrei farmazi laguntza integrala ematearren.

4.- Beraz, farmazi laguntza guztion intereseko zerbitzua da, laguntzen eta osasun publikoaren arloko jarduketak biltzen dituena. Indarrean dagoen legediari lotu behar zaizkio jarduketa horiek, betiere farmazilari baten erantzukizunaren pean eta honako farmazi establezimendu eta zerbitzu hauetan:

Oinarrizko osasun laguntzaren mailan, legeak ezarritakoari jarraiki herritarrentzat sortutako farmaziek eta botikinek eskainiko dute farmazi laguntza; baita oinarrizko osasun laguntzako osasun egituretako farmazi zerbitzuek ere.

Ospitale-laguntza espezializatuaren mailan, berriz, ospitaleetan eta zentro psikiatrikoetan eskainiko da, betiere farmazi zerbitzuen eta sendagaien gordailuen bidez.

Zentro soziosanitarioetan.

Honakook ere lege honetan arautzen dira:

- Sendagaiak eta farmazi produktuak handizka banatzen dituzten farmazi biltegiak.
- Albaitari-sendagaiak emateko baimena daukaten establezimenduak.

3. artikulua. Herritarren eskubideak

Osasunari buruzko legeak eta Sendagaiei buruzko legeak, oro har, osasun laguntzaren alorrean eta, bereziki, farmazi laguntzaren alorrean onartzen dituzten eskubideez gain, honako esku-

bide hauek dituzte herritarrek, farmazi laguntzaren alorrean:

- Etenik gabe, farmazi laguntza izateko eskubidea.
- Nork bere osasuna zaintzeko, osasuntsu irauteko eta sendatzeko behar dituen sendagaiak eta osasun produktuak eskuratzeko eskubidea, legeetan ezarritakoaren arabera.
- Zein farmazitarra joan libreki hautatzeko eskubidea.
- Jendea hartzeko orduetan, farmazilariaren zuzeneko laguntza eskatzekoa.
- Farmazilariaren aholkua jasotzekoa, pribatasuna zein konfidentzialtasuna errespetatuz eta dohainik.
- Farmazilariaren aholkua garbi jasotzekoa, eta, eskatuz gero, idatziz hartzekoa.
- Farmazian nork hartzen duen eta pertsona horrek zer maila profesionala duen jakiteko eskubidea.
- Bere historia farmakoterapeutikoan dauden datuen berri izan eta horiek begiratu ahal izateko eskubidea.

4. artikulua. Kontzientzi eragozpena.

Farmaziako profesionalaren kontzientzi eragozpenak ez luke mugatu edo baldintzatu behar hiritarren eskubidea –osasuna izateko eskubidea–; osasun administrazioa arduratu egingen da hori gerta ez dadin. Halako egoerarik sortuz gero, Osasun Departamentuak ezohiko neurriak hartu ahalko ditu, osasuna izateko eskubide hori bermatzeko, kontzientzi eragozpenerako eskubidea urratu gabe.

5. artikulua. Definizioak.

Lege honetan, hurrengo kontzeptuak honela definituko dira:

“Sendagaiak ematea”: publikoari sendagaiak eskuratzea da; farmazilariak egiten du hori, edo farmazilariaren erantzukizunaren pean egiten da, farmazia batean, botikin, farmazi zerbitzu edo sendagaien gordailu batean, aldez aurretik, baimendutako mediku batek errezeta eginik edo haren iritzi profesionalari jarraiki (horretarako baimena duen kasuetan).

“Farmazia”: interes publikoko osasun establezimendu baimendu bat da; bertan, farmazilariaren gidaritzapean, 18. artikuluan deskribatzen diren eginkizunak betetzen dira.

“Botikina”: farmazia baten mendeko osasun establezimendua da; baimena dauka, foru lege honetan zehazten diren baldintzei jarraiki.

“Oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzua”: oinarrizko osasun laguntzaren baitako farmazi laguntzako unitatea da, eta baliabide materialak zein giza-baliabideak dauzka; atxikitako farmazilariak beren eginkizunak betetzen dituzte bertan.

“Ospitaleko farmazi zerbitzua”: ospitalearen baitako unitatea da, eta baliabide materialak zein giza-baliabideak dauzka; atxikitako farmazilari espezialistek beren eginkizunak betetzen dituzte bertan.

“Sendagaien gordailua”: farmazia baten edo farmazi zerbitzu baten mendean dagoen sendagai erreserba bat da, eta beste espazio fisiko batean dago: ospitale, zentro soziosanitario edo osasun etxe batean, edo oinarrizko osasun laguntzako zein osasun laguntza espezializatuko egitura batean.

“Farmazilariaren laguntza”: farmazilariak egiten dituen jarduketak dira, horien helburua delarik farmazi prestazioa zuzena izan dadila eta sendagaiak behar direnean erabil daitezela segurtatzea, osasun sistemako maila guztietan, sendagaiak zaindu, kontserbatu eta emateko ardurak duten farmazi zerbitzuen eta establezimenduen bidez; jarduketa horietan, honakootan ezarritakoa bete behar da: lege honetan, Osasunari buruzko Lege Orokorreko –14/1986 Legeko– 103. artikuluan eta Sendagaiei buruzko 25/1990 Legean.

“Farmazilariaren aholkua”: farmaziako profesional batek egindako gomendio teknikoak eta osasun-gomendioak dira, berak profesionalki diharduen establezimenduko farmazi kontsultan egindakoak, gaixoak emandako eta jasotako informazioa betiere konfidentziala delarik.

“Zentro soziosanitarioa”: zentro publikoa da, itunpekoa edo pribatua, eta laguntza ematen die zaharrei, minusbaliatuei eta beste gizatalde batzuei, pertsona horiek, osasun arazoak dituztenez, zentroak eskaintzen dizkien gizarte laguntzez gain osasun laguntzaren bat behar baitute.

III. KAPITULUA Baimenak

6. artikulua. Administrazio baimenak.

Farmazi laguntza eskaintzen duten farmaziak, botikinak, eta zentro soziosanitarioetako zerbitzuak administrazio baimenari lotuta daude; halatan, baimen hori beharrezkoa da haietako bat

sortu, ezarri, ireki eta funtzionatzen jarri, handitu, aldatu, lekualdatu nahiz ixteko.

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentua da organo eskuduna, hots, lehen zenbakian aipatutako baimenaren espedienteaz arduratuko dena, eta espediente hori tramitatu eta ebatziko duena.

Baimena emateko prozedurak arau hauei lotuko zaizkie: foru lege honi, administrazio prozedurako arau orokorreari eta ezartzen diren erregelamenduei.

Ireki eta funtzionatzen hasteko, instalazioa aldatzeko eta lekualdatzeko baimena eman aurretik, dagokion erakundeak ikuskatze bisita egingen du, ezarritako beharkizunak oro betetzen direla egiaztatzearen, eta ikuskaritza akta egingen du.

Lege honetan ezarritako beharkizunak betetzen ez dituztenean, 2. artikuluan aipatutako establezimendu eta zerbitzuei emandako baimena eten edo baliogabetu ahalko da, baina ez da inoiz ere zehapentzat joko.

Baimena eteteko edo baliogabetzeko erabakia zehazki arrazoitu behar da. Erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, azalduz zein diren bidezko errekurtsioak, eta zer organotan eta zer epetan aurkeztu behar dituen.

7. artikulua. Eginbide orokorrak.

Foru lege honek arautzen dituen establezimenduetako eta zerbitzuetako titularrak behartuta daude eskatzen dizkieten sendagaiak eskuratu edo ematera, legeetan edo erregelamenduetan ezarritakoaren arabera.

Orobat, osasun administrazioak eskatzen dizkien informazioa zein osasun estatistikak prestatu eta eman egin behar dizkiote.

Lege honek arautzen dituen establezimenduak eta zerbitzuak lotuta daude honako hauei:

Erregistroa eta katalogazioa.

Ebaluazioa, ikuskaritza eta kontrola.

8. artikulua. Sendagaiak ematea.

1. Sendagaiak zaindu, kontserbatu eta ematea ondoko arauotan ezarritakoari jarraiki egingen da: Osasunari buruzko apirilaren 25eko Lege Orokorreko –14/1986 Legeko– 103. artikuluan, Sendagaiei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legean eta lege honetan bertan.

2. Saltzaile ibiltariak ezin izanzen dituzte saldu pertsonak hartzeko sendagaiak eta albatari-sendagaiak.

3. Erregelamendu bidez arautzen denari jarraiki, farmaziek sendagaiak igorri ahalko dituzte korreoz nahiz –norberaren edo besteren– mezulari-zerbitzu baten bidez, baldin eta gaixo kronikoek, egoera bereziak direla medio, sendagai horiek behar badituzte aldian-aldian, betiere preskripzioa medikuaren errezeta baten bidez bermatuta dagoenean eta farmazian lehen ere sendagai hori eman bazaie.

4. Farmazilariak emanen ditu sendagaiak edo, bestela, hark gainbegiratuta emanen dira.

5. Foru lege honetako 71. artikuluan zehazten diren establezimenduetan emanen dituzte farmazi zerbitzuek albaitari-sendagaiak.

6. Baimendutako establezimenduek eman behar dizkiote publikoari sendagaiak, eta irabazasmoa daukaten pertsona, entitate edo enpresek debeku dute bitarteko gisa jardutea.

9. artikulua. Funtzionamenduko baldintzak.

1. Lege honek arautzen dituen establezimenduek eta zerbitzuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Farmazi laguntza egokia eskaintzeko behar diren espazioa, banaketa funtzionala, ekipamendu materiala eta giza baliabideak eduki.

b) Farmazilari baten erantzukizun teknikoaren mende funtzionatu.

c) Lege honek ezartzen dituen erregistroak eta zehazten diren gainerakoak izan.

10. artikulua. Publizitatea.

1. Estatuko legedian xedatuta dagoenak arautuko ditu farmaziako espezialitateen iragarkiak.

2. Osasun Departamentua ahalegindu eginen da sendagaien eta osasun produktuen informazioa, sustapena eta publizitatea legez ezarritakoaren arabera izan daitezen.

IV. KAPITULUA **Jarduketak**

1. atala

Osasun administrazioaren jarduketak

11. artikulua. Farmazi laguntza bermatzea eta jarduketa-printzipioak.

1.- Nafarroako Gobernuari dagokio bere lurralde-esparruan farmazi laguntza bermatzea.

2.- Farmazi laguntzaren alorrean osasun administrazioak eginen dituen jarduketetan, ondorengo printzipioak izanen dira nagusi: zerbitzua orotara

zabaltzea, herritarrengandik hurbil egotea, eskura edukitzea eta kalitatezkoa izatea; segurtasuna; eta baita eraginkortasuna, azkartasuna, ekonomia eta malgutasuna ere. Era berean, farmazilarietan berdintasunezko baldintzak izatea bultzatuko da, eta, orobat, lanbidean sartzeko esparru egonkor eta zehatza sortzea.

12. artikulua. Osasun administrazioaren jarduketak.

Foru Komunitateko osasun administrazioak ondorengo jarduketa orokorrak sustatuko ditu:

- Azterlan farmako-epidemiologikoak eta sendagaien erabilerari buruzko azterlanak egitea; horretarako, sendagaiak preskribitzeari eta emateari buruzko informazioa jaso eta aprobetxatzeko sistema antolatu bat garatuko da, baita, finkatzen diren baldintzen pean, osasun profesionalen eskura jarri ere.

- Etengabeko prestakuntzako programak ezartzea farmaziako profesionalentzat.

- Zenbait programa sustatzea: sendagaiak behar direnean erabiltzea bermatzeko programak, horien erabilera zientifikoki baloratzekoak eta osasun arloko profesionalen informazio farmakoterapeutikoa emateko programak.

- Farmaziako profesionalen eskuhartzea Administrazioaren osasun arloko jarduketetan eta ekimenetan, alegia, sendagaiekin zuzenean loturikotetan.

13. artikulua. Oinarrizko osasun laguntzako farmazi laguntzako jarduketak.

Osasun administrazioak honako jarduketak eginen ditu oinarrizko osasun laguntzako farmazi laguntzan:

Jarduketa orokorrak. Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuek ondoko gaiei buruzko programa orokorretan sistematikoki parte har dezaten sustatzea: osasun hezkuntza, osasuna sustatzea, gaixotasunari aurre hartzea eta osasun arazoak atzematea, farmazi laguntzaren kalitatea eta sendagaiak behar direnean erabiltzea.

Berariazko jarduketak. Establezimendu eta zerbitzu horiekin lankidetzan aritzeko programa espezifikoak garatzea, ondoko gaion inguruan: drogamenpekotasunei eta alkoholismoari aurre hartzea eta horien tratamendua, sendagai asko hartu behar dituzten gaixoen bateraezintasunak atzematea eta horiei aurre hartzea, HIESa, famili plangintzako programak, gaixoen tratamenduak egiteari buruzko programak, etxeko ospitalizazio farmazi laguntzari buruzko programak, senda-

gaiak zaintzeari buruzko programak eta ezartzen diren gainerakoak.

Osasun-akreditazio sistema bat ezarriko da farmazientzat, honako printzipio hauetan oinarriturik:

– Establezimenduek beren borondatez parte hartzea.

– Kalitate-estandarrak zehaztuko dituzte osasun administrazioak eta farmaziako profesionalek.

– Estandarrak eta emandako akreditazioak aldian-aldian berrikusiko dira.

– Zenbait akreditazio-maila egonen dira.

Osasun arloko pizgarriak eta onurak izanen dituzte akreditaturiko farmaziek. Pizgarri eta onura horiek erregelamendu bidez ezarriko dira.

2. atala

Farmaziako profesionalen jarduketak

14. artikulua. Jarduketa koordinatua.

Lege honetako 2. artikuluan aipatutako establezimenduek eta farmazi zerbitzuek era koordinatuan jardun beharko dute, farmazi laguntza egokia eta sendagaiak behar direnean erabiltzea bermatzearen.

15. artikulua. Lankidetzak.

Farmaziako profesionalek esku hartu egin beharko dute osasun administrazioak sustatzen dituen programetan, honako gai hauei buruzkoetan: farmazi laguntzaren kalitatea bermatzea, oro har osasun laguntzaren kalitatea bermatzea, osasuna sustatu eta babestea, gaixotasunei aurre hartzea, osasun hezkuntza, eta sendagaiak behar direnean erabiltzea; programa hauen artean, lege honetako 13. artikuluko programa orokorrak eta berariazkoak egonen dira (Administrazioak ezarriko ditu eta erregelamendu bidez zehaztuko dira baldintzak).

16. artikulua. Farmazilariaren aholkua.

Farmaziako profesionalek aholkuak emanen dizkiete hori eskatzen duten bezeroei. Hargatik, establezimenduaren barruan espazio bereizi bat izanen dute farmazi kontsultarako. Erregelamendu bidez ezarriko dira farmazi kontsultaren oinarritzko baldintzak.

Farmazilariak emandako aholkua ez da inoiz diagnostiko klinikoa izanen.

17. artikulua. Historia farmakoterapeutikoa.

Farmazi laguntzako establezimenduek erabiltzaileen historia farmakoterapeutikoa egin ahalko

dituzte, beren osasun-eginkizunak hobeto bete-tzearen. Historia horien oinarritzko baldintzak ezarri eginen dira. Farmazilaria –osasun arloko profesionala– izanen da horren edukiaren eta konfidentzialtasunaren erantzulea.

Erabiltzaileek historia farmakoterapeutikoarekiko edukiko dituzten eskubideak, historia klinikoa-erekiko dauzkatena berak izanen dira.

II. TITULUA

Farmazilariaren laguntza, oinarritzko osasun laguntzaren mailan

1. atala

Farmaziak.

18. artikulua. Farmazia interes publikoko osasun-establezimendua da, eta bertan farmazilari batek edo gehiagok ondorengo eginkizunak betetzen dituzte:

a) Hartu, zaindu, kontserbatu eta ematea pertsonentzako zein animalientzako sendagaiak eta osasun produktuak; orobat, aurreko horiek aplikatzeko diren beste zenbait tresna eta osasun produktu –farmazi erabilera izan dutenak edo farmazian egon izan direnak.

b) Maisu-formulak eta farmazi prestakinak prestatu eta ematea, ezarritako prozedurei eta kalitate-kontrolari jarraiki.

c) Sendagaien banan-banako erabilera kontrolatzen laguntzea, gertatzen diren erreakzio txarren berri izan eta sendagaiak zaintzen dituzten erakundeak jakinarazteko.

Osasun administrazioarekin edo Farmazi Korporazioarekin lankidetzan aritzea, sendagaiak behar direnean erabiltzearen inguruko prestakuntza eta informazioa emateko bai erabiltzaileei bai gainerako osasun profesionalei.

e) Emandako errezetak zaindu, kontrolatu eta gordetzea.

Gainerako osasun profesionalekin eta gaixoa-ekin batera, gaixoen osasuna eta bizi kalitatea hobetu eta zaintzeko ardura izatea; horretarako, farmazi laguntza egokia emateko behar diren estrategiak eta tresnak erabiliko ditu: bere eskualdeko osasun taldeekin lankidetzan aritzea, gaixoari osasun-informazioa eta -heziketa ematea, sendagaiak eten gabe behar dituzten gaixo kronikoen protokolo farmakoterapeutikoa prestatu eta erabiltzea, sendagaiak hartuta gertatzen diren erreakzio txarrei buruzko erregistroa eta gaixoek egin kontsulta terapeutikoen erregistroa baliatzea.

Erabiltzaileei aholkuak ematea.

Erabiltzaileen historia farmakoterapeutikoak egitea. Erabiltzailearen tratamenduaren bilakaera aztertzea eta medikazioari buruzko informazioa ematea hari.

Errezetak eta osasun-agiriak kontrolatu eta zaintzea.

Farmazietan, beste lanbide- nahiz osasun-eginkizun batzuk ere bete ahal ditu farmazilariak, bai tradizioz egin izan dituelako bai arau zehatzetan agertzen direlako, betiere farmazilariak daukan titulazioarekin eta espezialitatearekin bat etorrituz.

19. artikulua. Farmazilariaren etengabeko laguntza.

Farmazietan farmazilariak herritarrei ematen dien laguntzak etengabea behar du izan.

Farmaziek askatasuna eta malgutasuna izan behar dute ordutegiak eta lanaldiak ezartzeko, baina, herritarrek farmazilariaren etengabeko laguntza izan dezaten, Osasun Departamentuak –farmazilariaren elkargo ofizialari entzun ondoren– jendea hartzeko gutxieneko ordutegia ezarriko du.

Gutxieneko ordutegi horretaz kanpo, larrialdietako zerbitzua eskainiko da txanda-sistema baten bidez, farmazi laguntza bermatzeko; txandak Osasun Departamentuak ezarriko ditu.

Larrialdietako farmazi zerbitzuari buruzko informazioa farmazia guztietan eta Administrazioak zehaztutako beste hainbat lekutan egon behar du.

Farmaziek lana egiteari utzi ahalko diote opor garaian, baina betiere farmazi laguntza bermatu egin behar du. Oporretako txandak, osasun administrazioak banatuko ditu oporraldia izan nahi duten farmazilariaren artean.

Ezohiko arrazoiak direla medio, osasun administrazioak –farmazilariaren elkargo ofizialari entzun ondoren– farmaziak aldi baterako –gehienez ere 2 urtetarako– ixteko baimena eman ahalko du, baldin eta, betiere, farmazi laguntzaren arloko beharrik asetzen badituzte irekita dauden farmaziek.

20. artikulua. Farmazien titulartasuna.

1.- Publikoarentzako farmazia baten titulartasuna farmazilari bati dagokio. Farmazilari horrek farmazia sortzeko eta ezartzeko baimena lortu behar du, eta berea izan behar du bertan egindako zereginen –aurreko artikuluetan deskribatutako– erantzukizuna.

2.- Farmazilari bakoitza farmazia bakarraren titularra izan behar du.

21. artikulua. Bertan egon beharra eta jarduketaren profesionala.

18. artikuluan deskribatutako eginkizunak betetzeko, beharrezkoa da farmazilari titularra bertan egotea eta profesionalki jardutea. Haren jarduketaren profesionala honako arau hauei lotuko zaie: foru lege hau, Sendagaiei buruzko Legea, Osasunari buruzko Lege Orokorra eta zuzen lan egiteari buruz onztat eman izan diren arauak.

Farmazilariak eta farmazian lan egiten duten gainerakoek, zerbitzua eskaintzen dutenean, identifikazio profesionala jarrita eduki behar dute, erabiltzaileak erraz ikusteko moduan.

Farmaziek bermatu egin behar dute establezimenduari atxikitako farmazilaria edo farmazilariak bertan egon behar direla, eten gabe, jendea hartzeko ordutetan; foru lege honetako 27. artikuluan xedatutako kasua izan behar da salbuespena.

22. artikulua. Giza-baliabideak.

1.- Farmazilari titularraz gain, honako figura hauek egon daitezke:

a) Bitarteko farmazilaria. Lege honetan zehaztutako diren kasuetan, titularra ez den farmazilari bat egoten ahalko da; bitarteko farmazilari honek titularren eginkizun eta erantzukizun berak izan behar ditu bere gain.

b) Farmazilariaren ordezkaria. Titularren edo bitartekoaren ordezkari arituko da farmazian lanean, lege honetan zehaztutako diren kasuetan; farmazilari titularren eginkizun eta erantzukizun berak izan behar ditu bere gain.

c) Farmazilari laguntzailea. Farmazilari titularrekin, bitartekoarekin edo ordezkarekin batera egiten du lana, titulartasuna besterena den farmazia batean; bere tituluar dagozkion eginkizunak eta erantzukizunak ditu bere gain.

d) Laguntzaileak. Farmaziako profesionalekin batera egiten dute lan, haien kontrolpean.

23. artikulua. Bitarteko farmazilaria.

Administrazio-baimena foru lege honetako 34. artikuluan xedatutakoari jarraiki iraungitzen denean, bitarteko farmazilari bat izendatuko da, farmaziak segitu ahal dezan farmazi laguntza eskaintzen.

Administrazio-baimena iraungi eta 10 eguneko epean, bitartekoa izendatzeko eskaera egin behar du interesdunek.

Bitarteko farmazilaria izendatzeko baimena Osasun Departamentuak eman behar du.

Administrazioak erabakia hartu arte –bitartekoa izendatzeko eskaera ontzat ematen duen ala ez–, farmazia irekita eduki ahalko da, farmazilari laguntzaile batek edo ordezkari batek egiten duela lana.

24. artikulua. Farmazilariaren ordezkaria.

Ondorengo kasuetan izendatuko da farmazilariaren ordezkaria: titularrak alde egin beharra duenean, dela 3 egun baliadun baino gehiagorako dela egin behar militarrengatik, kargu publikoengatik nahiz bere lanbidearekin zerikusia duten ikasketengatik; farmazilari titularrak desagertzen denean, legezko absentzia dakarten inguruabarrak agertzen ez diren bitartean edo, absentzia-egoera horretan, bitarteko farmazilaria izendatzen ez den bitartean.

Farmazilariaren ordezkaria titularrak proposatuko du edo, bestela, haren ordezkari legalak, eta Administrazioak emanen dio baimena.

25. artikulua. Farmazilari laguntzaileak.

Farmaziak zenbateko jarduera duen, ordutegia nolakoa den edo bertan zer jarduketa mota egiten diren kontuan izanik, farmazilari laguntzaile bat edo bat baino gehiago izan beharko dira. Farmazia bakoitzak zenbateko jarduera duen zehaztuko du, urtero, Osasun Departamentuak, urteko lehen hiruhilekoan, kontuan izanik aurreko urtean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari egindako fakturazioa. Farmaziak, gutxienez ere, farmazilari laguntzaile bat izan beharko du urtebetean etortzen zaizkion Osasunbidearen hamabost mila errezetako.

Beren kualifikazioari eta lanbide-prestakuntzari dagozkien eginkizunak izanen dituzte farmazilari laguntzaileak.

26. artikulua. Laguntzaileak.

Titulazio espezifikorik behar ez den eginkizunetan laguntzeko, behar beste laguntzaile izanen dituzte farmazilariak, onartuta dituzten eginkizunak bete ahal izateko.

Farmazilari titularraren ardura izanen da farmaziako laguntzaileak prestatzea, kontuan izan gabe haiek zer titutu daukaten.

Farmazilari titularren, bitartekoen edo ordezkarien ardura izanen da farmaziako laguntzaileak prestatzea.

27. artikulua. Justifikatutako absentiak.

Justifikatutako absentiak dira farmazilariaren betebeharrak profesionalek edo betebeharrak saihestezinek –personalek zein publikoek– eragindakoak, baldin eta farmazian egotea eragozten badiote.

Betebeharrak saihestezinak 3 egun baliadun baino gehiagoko absentzia ekarriko duela aurreikusanean, farmazilari titularrak edo bitartekoak ordezkari bat izendatu beharko du absentsialdi osorako. 3 egun baliadun baino gehiagoko absentiak jakinarazi egin beharko dizkio titularrak osasun administrazioari.

Farmazilari laguntzaileak ez daukaten farmazietan, justifikatutako absentsiaren berri eman beharko du farmazilariak, farmazian oharra paratuz, erraz ikusteko moduko lekuan.

28. artikulua. Eginkizunak bertan behera uztea.

3 egun baliadun baino gehiagoko tarte batean eta justifikatu gabe, titularrak, bitartekoa, ordezkaria edo laguntzailea ez badaude farmazian, farmazilariak bere eginkizunak bertan behera utzi dituela esan da.

29. artikulua. Farmazietako erregistroak eta kontrolak.

Farmaziek erregistro eta kontrol hauek izan behar dituzte:

Erregistroak:

– Sendagaiak eta substantzia sorgogorriak erosi eta emateari buruzko erregistroa.

– Psikotropoak eta medikuntzako kontrol berezia behar duten sendagaiak emateari buruzko erregistroa.

– Maisu-formulen eta farmazi prestakinen erregistroa.

Nahi izanez gero, informatikako metodoak baliatuz egin ahalko dira erregistro hauek, erregelamendu bidez zehaztuko diren baldintzei jarraiki.

Kontrolak:

– Sendagaiei eta produktuei epea noiz bukatzen zaizen; epea bukatua duenik ez da egonen apalategietan.

– Tenperaturaren kontrola, tenperaturaren eraginez galtzen diren produktuak baitaude. Sendagaiak emandakoan jasotako errezeten kontrola.

30. artikulua. Farmazian bakarrik saltzen direnak.

Farmazi produktuei buruzko Estatuko legediari jarraiki berariazko baimena daukaten produktuak dira farmazian bakarrik saltzekoak; horiek eta ez besterik.

Nahiz eta egileak produktu edo aparatu bat aurkeztean adierazi gaixotasuna zein sintomak sendatzeko, arintzeko edo horiei aurre hartzeko

dela, ezin izanen da farmazi laguntzako establezimenduetan saldu, ez badago sendagai edo osasun tresna zein produktu gisa kalifikatuta.

31. artikulua. Lokalen beharkizunak.

Farmazi laguntza egokia eskaintzeko behar diren higiene- eta osasun-baldintzak bete beharko dituzte farmazien lokalek eta instalazioek.

Farmaziek sarrera zuzen, aske eta egonkorra izanen dute bide publikotik; gainera, ez da sarrean arkitektura oztoporik egonen.

Foru lege honek indarra hartu ondoren baimentzen diren farmaziek, gutxienez ere, 70 metro koadroko azalera erabilgarria izanen dute; eta, gutxienez, gune funtzional hauek edukiko dituzte:

- Erabiltzailea hartzeko eta hari sendagaiak emateko gunea.
- Sendagaiak eta osasun-produktuak jaso, aztertu eta biltegitratzeko gunea.
- Maisu-formulak eta farmazi prestakinak aztertu eta egiteko gunea.
- Banan-banako harrera egiteko gunea egotea aurreikusi behar da.
- Bainu-gela, dutxa eta guzti.

Egun diren farmaziek hiru urteko epea edukiko dute artikuluko honetan ezarritako beharkizunetara egokitzeko; bada ezohiko salbuespen bat: salbuespenak izanen dira egokitzapen hori egiteko ezintasuna justifikatzen dute farmaziak.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira farmazien beharkizun teknikoak, materialak eta tresneria, baita azalaren banaketa nolakoa izanen den ere.

Farmazien fatxadetan eta sarrera nagusian, "Farmazia" hitza ezarriko da leku agerian.

Farmazia bakoitzak kalitateari eta farmazi laguntzari buruzko plan bat izanen du, Osasun Departamentuak onetsia, eta funtzionamendu egokiaren bermea izanen da. Foru lege honek indarra hartu eta irekitako farmaziek hiru urteko epea edukiko dute osasun administrazioan plan hori tramitatzeko.

2. atala

Baimenak eta farmazi planifikazioa.

32. artikulua. Administrazio baimenak.

Farmaziak administrazio baimen hauei daude lotuta:

- a) Sortzeko eta instalatzeko baimena.

- b) Irekitzeko eta funtzionatzeko baimena.

- c) Lekualdatzeko baimena.

- d) Instalazioak aldatzeko baimena.

- e) Ixteko baimena.

33. artikulua. Baimentzeko prozedura.

1. Beste farmazia batzuk baimentzeko prozedura ondoko hauei lotuko zaie: artikuluko honetan ezartzen denari, administrazio prozedurako arau orokorrei, publizitatearen eta gardentasunaren printzipioei, interesdunen segurtasun juridikoa errespetatu beharri eta erregelamendu bidez gai honi buruz ezartzen denari.

2. Prozedura hasteko erak:

- a) Farmazilari batek galdaturik.
- b) Dagokion farmazilarien elkargo ofizialak galdaturik.
- c) Farmazia izatea dagokion toki entitateak galdaturik.
- d) Osasun Departamentuak bere kabuz hastea.

3. Osasun Departamentuaren ardura da beste farmazia batzuk baimentzea; berak tramitatuko ditu baimenak, eta, gehienez ere, prozedura hasi eta sei hilabeteko epean ebatzi beharko ditu.

Lehiaketa publikoaren bidez emanen dira baimenak, erregelamendu bidez –foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean– ezarriko diren prozedurari eta merezimenduen baremoari jarraiki.

4. Osasun Departamentuak merezimenduen baremoa onetsiko du, farmazilarien elkargo ofizialei eta lana eskatzen duten farmazilarien elkarteei entzun ondoren. Baremo horrek ondorengo irizpideak izanen ditu kontuan:

- Lanbide-esperientzia.
- Merezimendu akademikoak.
- Lizentziatura ondorengo prestakuntza.
- Kalitateari eta farmazi laguntzari buruzko plana.

5. Lanbide-esperientziaren merezimenduengatik ez da lortuko, inoiz ere, baremoaren guztizko puntuazioaren ehuneko hogeita hamabost baino gehiago; eta, farmazia baten titulartasunagatiko merezimenduez den bezainbatean, bakarrik baloratuko dira foru lege honek indarra hartu ondoren emandakoak.

6. Farmazia berri bat adjudikatzeko prozeduran ezin izanen dute parte hartu biztanle-gune berean edo osasun eskualde oinarrizko berean beste farmazia bat duten farmazilariak; ezta prozedura hasi aurreko sei hilabeteetan farmazia baten titularrak izan direnek ere; ezta prozedura hastean 65 urte baino gehiago dauzkatenek ere.

7. Lehiaketaldian, Kalitateari eta farmazi laguntzari buruzko plan bat aurkeztu beharko da, eta horrek baremoaren ehuneko hogeita hamar hartuko du, gutxienez. Eskatzailearen farmazi laguntzaren proiektua justifikatuko du plan horrek; kokapenari buruzko xehetasunak bereziki azalduko dira; izan ere, lehentasuna izanen dute biztanleak zahartzen edo gutxitzen ari direneko inguruetakoek, herrigunetik urruti daudenek, auzo berrietakoek eta biztanleei farmazi laguntza hobea eskaintzea dakarten gainerako kokapenek. Honakook ere azaldu beharrekoak dira: ordutegia; laguntzaren kalitatea, kontuan izanik bertan zenbat farmazilari egiten duen lan; farmazian izanen diren baliabide materialak; eta sendagaiak behar direnean erabiltzeari eta osasun hezkuntzari buruzko programetan esku-hartzea.

8. Farmazia berriak sortzeko espedienteetan adjudikazio hartzaile gertatzen direnek alegaturiko merezimenduak, ezin izanen dira kontuan hartu farmaziak sortzeko hurrengo espedienteetan.

9. Farmazia baten titularra den farmazilari bati, administrazio bidean, ebazpen irmo baten bidez beste berri bat adjudikatzen bazaio, lehen farmaziaren baimena galduko du automatikoki, nahiz eta adjudikatu zaion farmazia berriari uko egin.

Zernahi dela, adjudikazio-ebazpenaren kontra errekurtsioa aurkezten bada auzibidean, galdutako farmazia ez da lehiaketan eskainiko epai irmoa eman arte; baina, dena den, administrazioak herritarrentzako farmazi laguntza bermatu egiten du betiere. Administrazio bidean emandako adjudikazioa baliogabetzen badu epai horrek, lehenagoko farmazia zuzenean adjudikatuko zaio titular izandakoari.

10. Erregelamendu bidez zuhertasunezko neurriak ezarriko dira, farmazia berriak baimentzeko prozedura edo baimendutakoak irekitzea inork oztoka ditzan saihesteko.

34. artikulua. Administrazio baimenak.

1. Nafarroan farmazia berriak instalatzeko Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen administrazio baimenek ezaugarriok izanen dituzte:

– Norberarenak izanen dira; hots, baimendutako farmazilariarenak.

– Ezin dira besterendu.

– Ondorengo kausa hauengatik irautziko dira: titularrak uko egitea, jubilatzea, heriotza, lanbiderako ezgaitzea, eginkizunak behin betiko etetea, ezintasun iraunkor osoa edo erabatekoa, epaileak deklaraturiko absentzia, titularraren bateraezintasun legala eta beste biztanle gune batean farmazia bat irekitzeko baimena lortzea.

2. Lokalak eta gainerako tresnak beste zerbituetan erabiltzeko lagatzea, traspasatzea edo saltzea ez daude lege honetan xedatutakoari lotuta: kasu horietan aplikatzeko den araubide juridikoaren mende daude.

35. artikulua. Baimenen deialdi publikoa.

1. Foru lege honek indarra hartu eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak Foru Komunitatean farmaziak adjudikatzeko lehiaketa publikoa deituko du bere kabuz; alegia, foru lege honetan zehaztutako planifikazio-irizpideen ondorioz sortzen direnak adjudikatzeko. Aurreko artikuluan ezarri adjudikazio-irizpideei eta Osasun Departamentuak erregelamendu bidez emanen duen baremari jarraiki erabakiko da lehiaketa publiko hori.

2. Urtero, lehen seihilekoan, aurreko urtean izandako biztanle gehikuntzak kontuan izanik, beste farmazia batzuk adjudikatzeko lehiaketa publikoa deituko du Osasun Departamentuak bere kabuz, udal erroldak berrikusteko datuen berri izan ondoren; edo, bestela, aditzera emanen du ez dela bidezko farmazia berriak sortzea.

36. artikulua. Farmaziak lekualdatzea.

1. Osasun eskualde oinarrizko beraren baitan lekualdatzeko bakarrik emanen da baimena, betiere erregelamendu bidez zehazten diren baldintzen pean.

2. Farmaziak lekualdatzeko, administrazio baimenaren prozedurari jarraiki behar zaio, eta baita erregelamendu bidez zehazten diren baldintzei eta beharkizunei ere. Hiru motatakoak izanen dira lekualdatzeak: ezinbestekoak, behin-behinekoak eta borondatezkoak.

Ezinbesteko lekualdatzeak behin betiko dira; halakoetan, farmaziak ezin du segitu dagoen lokal berean zerbitzua eskaintzen, eta ez dago lokal horretara itzultzeko aukerarik, bai instalazioen baldintza fisiko eskasengatik bai titularrak lokal horren disponibilitate juridikoa galdu duelako.

Eraikin batean obrak egin, eraikina erori edo eraistearen ondorioz gertatzen dira behin-behineko lekualdatzeak, baldin eta farmaziaren instalazio horiek behin-behinekoz ixten badira. Aldi bate-

rako baimena ematen da, beste instalazio batzuetan funtzionatzeko, eta, erregelamendu bidez zehazten den epean, lehen zegoen lekura itzuli behar da farmazia; hori egiteko konpromisoa hartzen du titularrak eta behartuta dago itzultzera.

Emadako epea igaro eta farmazia ez bada lehengo lekura itzuli, behin-behineko kokapena den lokala itxi eginen da. Bestalde, presako prozedura arautu ahalko da, behin-behineko lekualdatzeak egiteko baimena emateko.

Gainerako guztiak borondatezko lekualdatzeak dira, baldin eta farmaziaren titularrak eskaturik egiten badira.

3. Borondatezko eta ezinbesteko lekualdatzeetan, foru lege honetako 41.5 artikuluko baldintzak bete beharko ditu farmazia jartzen den lekuak. Behin-behineko lekualdatzeetan, berriz, 41.5 artikuluan aipatzen den gutxieneko distantzia laburtu eginen da: ehun metrokoa izanen da.

4. Osasun Departamentuak arduratu egin behar du, aldi baterako ixteak ukitutako herritarrek farmazi laguntza izan dezaten.

37. artikulua. Nork bere borondatez ixtea.

1.- Farmazia nork bere borondatez ixteko, nahitaezkoa izanen da administrazio baimena.

2.- Farmazilarien elkargo ofizialei entzunda, farmazia gehienez ere bi urtetarako ixteko osasun baimena eman ahalko da, salbuespenez, baldin eta irekita dauden farmaziek behar den farmazi laguntza era egokian eskaintzen badute.

3.- Epe hori ez da aplikatuko, baldin eta administrazio zehapena, edo titularrak lanbiderako desgaitzea, desgaitze penala nahiz bestelakoa dela medio gertatzen bada ezinbesteko ixtea.

38. artikulua. "Inter vivos" eskualdatzea.

1.- Foru lege honek indarra hartu eta gero lehiaketa bidez adjudikatutako farmaziak ezin izanen dira eskualdatu.

2.- Foru lege honek indarra hartu aurretik lortutako farmaziak eskualda daitezke –osorik edo haien zati bat– "inter vivos" egintzen bitartez; erregelamendu bidez ezartzen diren prozedurari, baldintzei eta beharkizueni lotuta egonen da eskualdatze hori.

39. artikulua. "Mortis causa" eskualdatzea.

1.- Foru lege honek indarra hartu aurretik lortutako farmazia baten titularrak hiltzen bada, oinordekoek beren nahia jakinarazi beharko diete osasun agintariei, farmaziarekin segitzeko asmoa duten ala hura behin betiko itxi nahi duten.

Jakinarazpen hori, gehienez ere, hogeii eguneko epean eginen da, eta bitarteko farmazilaria izendatzeko proposamena erantsiko zaio. Epe eta modu horretan egin ezear, osasun administrazioak farmazia ixteko espedientea hasiko du bere kabuz.

2.- Aurreko puntuan aipatutako bitartekotzak hamabi hilabete iraunen du, gehienez ere. Baldin eta epe hori farmazia eskualdatzea edo ixtea eskatu gabe igarotzen bada, administrazio baimena irautsi eginen da, eta farmazia ixteko espedientea tramitatzeari ekinen dio administrazioak bere kabuz.

3.- Farmazilari titularrak hiltzen bada, ezkonlagunak edo lehen mailako oinordeetako batek segitu ahalko dute farmaziarekin, baldin eta farmazilariak badira eta eskatzen diren beharkizun guztiak betetzen badituzte.

4.- Orobat, ezkonlagunak edo lehen mailako oinordeetako batek segitu ahalko dute farmaziarekin, baldin eta farmazia ikasten aritu eta ikasketak bost urteko epean bukatzen badituzte. Epe horretan, bitarteko farmazilari bat arduratuko da farmaziaz.

40. artikulua. Eskualdatzeak dauzkan mugak.

1.- Foru lege honek indarra hartu aurretik lortutako farmaziak ezin izanen dira eskualdatu, titularrak beste farmazia bat irekitzeko baimena eskatu edo farmazia bat adjudikatzeko lehiaketa publiko batean parte hartzen duenetik aitzina. Ezintasunak bere horretan segituko du, harik eta, irekitzeari buruzko espedientea dela eta, administrazio bidea agortu arte edo, auzibidera joz gero, bide horretan behin betiko erabakia eman arte.

2.- Baldin eta lege honek indarra hartu aurretik lortutako farmazia baten titularrak beste farmazia bat irekitzeko baimen irmoa lortzen badu, lehen baimena irautsi eginen da, automatikoki, eta farmazia eskualdatzeko eskubidea galdu eginen du.

3.- Baimen bat irautsitzeko eta, horren ondorioz, farmazia bat ixteak ez dute eraginen lokalei, instalazioei eta tresnei aplikatzeko den legera araubidean, legedi zibilean xedatutakoari jarraiki.

4.- Baldin eta administrazio zehapenaren ondorioz, edo titularrak lanbiderako desgaitzearen, desgaitze penalaren edo bestelakoaren ondorioz gertatzen bada ezinbesteko ixtea, farmaziak itxita segitzen duen bitartean titularrak ezin izanen du eskualdatu.

41. artikulua. Plagintza irizpideak.

1. Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko farmazi plagintza eginen du, erreferentzi marko

gisara osasun eskualde oinarrizkoak hartuta; Nafarroa Osasun Eskualdetan Banatzeari buruzko 22/1985 Foru Legean eta Osasunari buruzko 10/90 Foru Legean ezarri ziren osasun eskualde horiek.

2. Artikulu honetatik datorren planifikazioaren arabera behar duten farmazi laguntza izanen dute osasun eskualde oinarrizko guztiek. Foru lege honetan aipatutako farmazi plangintza bete ondoren, Nafarroako udal eta kontzeju guztietan farmazia bat egoten ahalko da, gutxienez.

3. Nafarroako egoera soziogeografikoa kontuan izanik, eta foru lege honen helburuak lortzeko, ondorengo moduluak ezarri dira farmazien kopurua finkatzeko, foru lege honetako plangintzari jarraiki:

a) 5.000 biztanle baino gutxiagoko osasun eskualde oinarrizkoak: farmazia bat 1.500 biztanleko.

b) 5.000 biztanle baino gehiagoko osasun eskualde oinarrizkoak: farmazia bat 1.750 biztanleko.

Foru lege honetan aipatutako deialdi publikoa egin eta biztanle-moduluei dagokien kopurua bete ondoren, beste farmazia bat jarri ahalko da, baldin eta modulu hori gainditzen bada.

4. Farmazia berri bat irekitzeko edo ezarrita dagoen bat lekualdatzeko baimena ematean, osasun administrazioak kontuan izan beharko ditu bai gunearen geografiko- eta biztanle-sakanaketa eta baita populazio-dentsitatea nahiz asistentzi eskasera ere; gainera, administrazioak baimendutako kokapenak bermatu egin beharko du herritarrek farmazi zerbitzu egokia izan dezatela.

5. Egun dauden farmazien edo ezartzen direnen arteko distantzia ez da 150 metro baino txikiagoa izanen.

6. Farmazia bat –dela instalatu behar den berri bat, dela lekualdatu behar den bat– ezin izanen da ezarri osasun zentro publiko baten –finanziazio publikokoa edo itunpekoa den baten– ondoan: gutxienez ere, 150 metro egon beharko dira bien artean. Biztanle gunee bategan farmazia bakarra baimendu badaiteke, ez da besterik ezartzen ahalko.

42. artikulua. Aipamenak.

Foru lege honetan biztanleak aipatzen direnean, eskaera aurkeztean indarrean dagoen udal erroldako biztanle-kopurua izan behar da kontuan.

Distantziak aipatzen direnean, bide urbanizaturik edo errepedierik laburrena izan behar da kontuan.

Erregelamendu bidez zehaztuko da zein prozedura erabiliko den farmazien arteko distantzia, eta farmazien eta lege honetako 41.6 artikuluan aipatu zentroen arteko distantzia neurtzeko.

2. atala Botikinak

43. artikulua. Baimena zein kasutan emanen den eta funtzionamendu baldintzak.

Biztanle guneren bati ez bazaio eskaintzen behar besteko farmazi zerbitzua, biztanleak sakanbanatuta dauden tokietan, salbuespenezko kasu horietan botikin bat ezartzeko baimena eman ahalko du Osasun Departamentuak, berdintasunaren irizpideari jarraiki, Estatuko oinarrizko legegian eta foru lege honetan xedatutakoaren arabera. Farmazi laguntza bermatzea izanen da helburua, eta botikina farmazia bati lotuta egonen da.

Botikin bat ezartzeko ekimena hauetako edozeini dagokio: toki entitate interesdunei, kasuan kasuko osasun eskualde oinarrizkoaren osasun kontseiluari, publikoarentzat irekitako farmazia baten jabe-titular interesdunari eta Osasun Departamentuari berari.

Farmazia horretan lan egiten duen farmazilari bat –dela titularra dela beste bat– arduratuko da botikinaz. Titularrak bi establezimenduetako zerbitzua bermatu egin beharko du, ordutegiak konbinatuz edo behar beste langile baliatuz.

Banan-banan finkatuko dira botikinen ordutegiak, eta ordu horietan nahitaezkoa izanen da farmazilari bat bertan egotea.

Erregelamendu bidez arautuko dira botikinak ezartzeko eta funtzionatzeko baldintzak.

3. atala Oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzuak

44. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Osasun etxeetan eta oinarrizko osasun laguntzako egituretan, oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzuen bidez emanen da farmazi laguntza.

2. Osasun eskualde oinarrizko bakoitzak oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzu bat izanen du, berez dituen eginkizunak betetzeko.

3. Farmazi zerbitzua ezartzen ez den osasun etxeetan eta oinarrizko osasun laguntzako egituretan, farmazi zerbitzu horren mendeko sendagai gordailuak egoteko baimena ematen da.

4. Erregelamendu bidez ezarriko dira oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzuek izan beharreko baldintza material eta teknikoak.

45. artikulua. Eginkizunak.

1. Oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzuek hainbat eginkizun eta jarduera egiten dituzte; horien helburua da sendagaiak behar direnean erabiltzea bultzatzea.

2. Hona oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzuen eginkizunak:

- Erantzukizun teknikoa izatea honako lanotan: sendagaiak lortu, zaindu, kontserbatu eta beren mendeko gordailuei ematea; eta sendagaiak ematea, zerbitzuaren barruan edo osasun sistema publikoko oinarrizko osasun laguntzako egituren baitan erabil daitezten.

- Maisu-formulak edo farmazi prestakinak prestatzea, oinarrizko osasun laguntzako egituretan eta osasun etxeetan erabil daitezten.

- Gordailuetako sendagaiak ekartzeko, zaintzeko eta banatzeko sistema eraginkor eta segurua ezartzea.

- Osasun eskualde oinarrizkoaren osasun kontseilueetako kide izatea, haien ezagupenak balio-garriak izan badaitezke.

- Osasun barrutiko gida farmakoterapeutikoa egiten, eguneratzen eta zabaltzen laguntzea.

- Barrutiko osasun-profesionalei sendagaien gaineko informazioa ematea.

- Sendagaiei buruzko osasun heziketa.

- Barrutiko farmaziekin eta farmazi zerbitzuekin lankidetzan jardutea.

- Barrutian sendagaiak nola erabiltzen diren aztertzea.

- Sendagaien ondorio txarrak atzemateko lanean jardutea, sendagaiak zaintzeko sistemarekin elkarlanean.

- Beren zerbitzuan eta beren osasun barrutian, sendagaiak behar direnean erabiltzea bultzatzea.

- Beren osasun barrutian, sendagaiak behar direnean erabiltzeari buruzko programak sustatu edo horietan elkarlanean jardutea.

- Osasun administrazioak bultzatzen dituen programetan laguntzea.

- Oinarrizko osasun laguntzako ekipoekin elkarlanean jardutea, osasun programak egin eta burutzeko nahiz tratamendu protokoloak egin eta aztertzeko lanetan.

- Ikerketa programetan eta entseiu klinikoetan parte hartzea.

- Erregelamendu bidez ezartzen den beste edozein eginkizun.

46. artikulua. Giza baliabideak.

Farmazilari batek izanen du oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzuaren zuzeneko ardura. Haren presentzia eta lanbide-jarduna nahitaezkoa izanen dira, 45. artikuluan zehaztutako eginkizunak betetzeko.

Osasun eskualde oinarrizko bakoitzak farmazilari bat izanen du, gutxienez. Osasun eskualde oinarrizkoan ez badago behar adina biztanle, Osasun Departamentuak, bi eskualde oinarrizkotan edo gehiagotan, oinarrizko osasun laguntzako egituren farmazi laguntza batu ahalko du, arrazoiak emanez; baina, betiere, laguntza jasotzen duten biztanleak ez dira 30.000 baino gehiago izanen.

Osasun Departamentuak oposizioetarako deialdiak eginen ditu, osasun eskualde oinarrizko bakoitzak behar dituen langileak izan ditzan, lege honetako 45. artikuluan aipatutako eginbeharrak betetzeko.

47. artikulua. Erregistroak.

1. Legez ezarrita dauden erregistroez landa, farmazi zerbitzuek, lanean dihardutela, ondorengo erregistro hauek izan beharko dituzte:

- Substantzia sorgogarriak, psikotropoak eta medikuaren kontrol berezia behar duten sendagaiak erosi eta emateari buruzko erregistroa.

- Iraungitze-datena.

- Prestatutako maisu-formulen eta farmazi prestakinena.

- Tenperaturen egunez eguneko erregistroa.

2. Informatikako baliabideak erabili ahalko dira erregistro horiek egiteko.

III. TITULUA**Ospitaleetako eta zentro soziosanitarioetako farmazi laguntza****1. atala****Xedapen orokorrak**

48. artikulua. Ospitaleetako eta zentro soziosanitarioetako farmazi laguntza

1.- Ospitaleetan eta osasun zerbitzuak dauzkaten zentro soziosanitarioetan, farmazi zerbitzuen eta sendagai-gordailuen bidez eskainiko da farmazi zerbitzua.

2.- Lege honetan, zentro soziosanitariotzat jotzen dira zaharrei, minusbaliatuei, espetxeetan preso daudenei eta beste pertsona batzuei laguntza ematen dietenak, pertsona horiek, osasun arazoak dauzkatez, zentroak eskaintzen dizkien gizarte laguntzez gain osasun laguntzaren bat behar baitute.

Bigarren atala**Ospitaleetako eta zentro soziosanitarioetako farmazi zerbitzuak**

49. artikulua. Nahitaezkoa izanen da honako hauetan farmazi zerbitzua ezartzea:

a) Ehun ohe edo gehiago dauzkaten ospitaleetan.

b) Bertan egoteko 200 plaza edo gehiago dituzten zentro soziosanitario guztietan, baldin eta, gutxienez ere, 100 badira lagunduriko pertsonak.

c) Ehun ohe baino gutxiago dituzten ospitale batzuetan eta lagundurikoentzat 100 plaza baino gutxiago dituzten osasun zerbitzuen osasun etxe batzuetan; hots, tipologia eta laguntza lanen kopurua kontuan izanik, erregelamendu bidez zehaztuko direnetan.

50. artikulua. Eginkizunak.

Farmazi zerbitzuek honako eginkizun hauek izanen dituzte:

- Zentroak jaso behar dituen sendagaien eta osasun produktuen hautapen prozesuan parte hartzea, eraginkortasuna, segurtasuna, kalitatea eta kostua izanik, betiere, jarduteko irizpideak.

- Ospitaleak eskuratutako sendagaiak jasotzez eta emateaz arduratzea, teknikoki; orobat, beharrei erantzuteaz, biltegiatzeaz, balioaldiaz, kontserbatzeaz, zaintzeaz eta banatzeaz arduratzea.

- Maisu-formulak eta farmazi prestakinak presatu, kontserbatu, zaindu eta ematea; ongi prestatzeko arauak betez, horien kalitatea bermatu egindako.

- Sendagaiak zentroan banatzeko sistema eraginkor eta seguru bat ezartzea, sendagaiak egokiro administratzea ziurtatzeko arauak ezarriz.

- Sendagaiak eman eta kontrolatzea, establezimendu hauen baitan hartu eta erabil daitezzen; osasun laguntzako disziplina anitzeko taldeak bereziki zaindu, gainbegiratu eta kontrolatu beharreko sendagaiak eman eta kontrolatzea.

- Ospitalean, laguntzaren kalitatea kontrolatzeko programetan esku hartzea, farmazi zerbitzu hauen ezagupenak baliagarriak diren batzorde edo lantaldeetan sartuz.

- Bete eta betearaztea indarra duten arauak honakoon erabilerari buruz ezarritako baldintzak; hots, sorgogorriak, psikotropoak eta murrizketa bereziki mendeko beste substantzia batzuk erabiltzeko baldintzak, eta klinikan ikertzen ari diren substantziez eta produktuez baliatzeko baldintzak.

- Sendagiei buruzko informazioaren sistema bat ezartzea; orobat, sendagaiak zaintzeko sistema bat, ospitale guztietan lan egiten duena.

- Oinarrizko osasun laguntzako eta osasun laguntza espezializatuko egiturekin batera lan egitea sendagaiak behar direnean erabil daitezzen.

- Ikerketa programak garatzea; entsegu klinikoetan esku hartzea.

- Farmakozinetika klinikoaren esparruko jarduerak burutu edo halakoetan parte hartzea.

- Beste edozein eginkizun, sendagaiak eta osasun produktuak hobeto erabiltzen laguntzen duena.

51. artikulua. Farmazilarien beharkizunak.

1.- Farmazilari espezialistaren titulua eduki beharko dute ospitaleko farmazi zerbitzuaren arduradunak eta zerbitzu horretan lan egiten duten gainerako farmazilariak.

2.- Ospitale publikoetako laguntza zentroetan artikulua honi jarraiki bete behar diren lanpostuetarako deialdia egiten du Osasun Departamentuak.

Hirugarren atala**Ospitaleetako eta barnetegi erregimena duten gizarte laguntzako zentroetako sendagai gordailuak**

52. artikulua. Bai ehun ohe baino gutxiagoko ospitaleek bai lagundurikoentzat 75 plaza baino

gutxiago dauzkaten gizarte laguntzako zentroek (barnetegi erregimenekoek) sendagaien gordailu bat izanen dute, baldin eta, beren borondatez edo foru lege honetako 49.c artikuluan sartzen ez direlako, ez badute farmazi zerbitzu bat. Gordailu hauek farmazi zerbitzu bati edo farmazia bati egonen dira loturik; farmazi zerbitzu edo farmazia hori osasun eskualde oinarritzko berekoa izatea hobe.

53. artikulua. Eginkizunak.

Ospitaletako eta barnetegi erregimena duten gizarte laguntzako zentroetako sendagaien gordailuak farmazilari baten erantzukizunaren pean egon beharko dira; farmazilari horrek honako egiteko hauek izanen ditu, gutxienez:

- Sendagaiak eta osasun produktuak hautatzeko eta lortzeko prozesuan parte hartzea.
- Sendagaiak banatu, eman eta kontrolatzeko sistema arrazionalak ezartzea.
- Sendagaiak zaintzeko sistema ezarri, eta osasun arloko profesionaleri eta gaixoei zuzendutako informazio jarduerak egin.
- Sorgogarriei eta psikotropoei buruzko lege-dia betetzen dela zaindu.
- Beste edozein eginkizun, sendagaiak eta osasun produktuak hobeto erabiltzen laguntzen duena.

IV. TITULUA Banaketa biltegiak

54. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Zilegi izanen da handizkako biltegien bitartekotzaz baliatzea farmaziako espezialitateen eta sendagaiak osatzeko substantzien banaketa errazteko; alegia, sortzen dituzten laborategietatik zein inportatzaileetatik legezko baimena duten farmazia nahiz farmazi zerbitzuetara iristea errazteko eta, bestalde, alibaitari-sendagaiak emateko baimena duten establezimenduetara ailegatzea errazteko.

2. Farmaziako espezialitateen eta sendagaiak osatzeko substantzien banaketan bitarteko gisara jardutea libre eta borondatezkoa da handizkako biltegiarentzat.

55. artikulua. Administrazio baimenak.

1. Nafarroan dauden biltegi guztiak, Foru Komunitatean ez badihardute ere, ondorengo administrazio baimenei loturik egonen dira:

- a) Sortu eta ezartzeko baimena.
- b) Ireki eta funtzionatzeko baimena.

- c) Lekualdatzeko baimena.
- d) Instalazioak aldatzeko baimena.
- e) Ixteko baimena.

2. Banaketa biltegi baten baimenak ez du ematen ahalmenik jendeari sendagaiak saltzeko.

3. Farmazi biltegi baten titulartasuna aldatzean, hori jakinarazi egin behar zaio osasun administrazioari, 30 eguneko epean.

56. artikulua. Giza baliabideak.

Farmazi biltegiek zuzendari tekniko bat –farmazian lizentziatua den bat– izan behar dute zentro bakoitzean.

Farmazi biltegiek lan asko ala gutxi egiten duten kontuan izanik, zuzendari teknikoaz landa beste farmazilari batzuk ere izan beharra arautuko da erregelamendu bidez.

Lokalen zuzendari teknikoaren eginkizunak eta izakinak zein banaketa biltegien funtzionamenduko beste alderdi batzuk erregelamendu bidez arautuko dira.

V. TITULUA

Alibaitari-sendagaiak emateko baimena duten establezimenduez

57. artikulua. Xedapen orokorrak.

Alibaitari-sendagaiak emateko beharrezkoa da Osasun Departamentuak berariaz luzatutako baimena edukitzea; hori gabe inork ere ezin izanen ditu eduki edo bere kontrolpean izan, industri eta merkataritza helburuetarako, alibaitari-sendagaiak edo alibaitari-sendagai gisara erabil daitezkeen substantzia anabolizatzaileak, infekzioen kontrakoak, parasitoen kontrakoak, hanturen kontrakoak, hormonalak edo psikotropikoak, edo osasunarentzat arriskutsu izan daitezkeenak. Osasun Departamentuak baimena eman aurretik Nekazaritza Departamentuak aldeko txostena egin behar du.

Debeku da alibaitari-sendagai gisara aurkeztu bai baina legez halakotzat onartuta ez dauden produktu eta prestakinak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu, banatu, merkaturatu, hartzeko agindu, eman eta erabiltzea.

58. artikulua. Alibaitari-sendagaiak.

Lege honetan, alibaitari-sendagaitzat joko dira Estatuko legeriak halakotzat hartzen dituen guztiak.

59. artikulua. Sendagaiok ematen dituzten establezimenduak.

Nafarroan albaiari-sendagaiak emateko baimena duten establezimenduak –betiere dagozkien farmazi zerbitzuen kontrolpean jardungo dutenak– ondokoak dira:

- Farmaziak.
- Abeltzaintzako entitateak edo elkarteak.
- Merkataritzako establezimendu xehekariak.
- Larrialdietako botikinak, larrialdietan edo, bestela, urruntasuna dela medio albaiari-sendagaiak emanen dituztenak, erregelamendu bidez zehazten den moduan.

Erregelamendu bidez zehaztuko dira sendagaiok ematen dituzten establezimenduen ezaugarriak eta baldintzak. Era berean zehaztuko da nola kontrolatuko den albaiari profesionalek sendagaiak lortu eta uztea, larrialdi bat delako, urruntasunagatik edo, legeak hala agintzen duenez, profesionalak berak eman behar duelako nahiz berak zuzenean gidatu eta kontrolatuta eman behar delako; jarduera hauek ez dira merkataritzako jarduera izanen.

Beraz, handizkako biltegiek eta albaiari-sendagaiak prestatzen dituzten laborategien gordailuek ez dute ahalmen hau izanen; horien helburua izanen da sendagaiok ematea bai handizkako beste biltegi batzuei bai sendagaiok emateko legezko baimena duten establezimenduei.

Albaiari-sendagaiak betiere bere hartan emanen dira, hots, jatorrizko ontziak ukitu gabe.

VI. TITULUA **Bateraezintasunen araubidea**

60. artikulua. Xedapen orokorrak.

Foru lege honetako 2. artikuluan deskribatutako establezimendu eta zerbitzuetan farmazilariak profesionalki jardutea baterazina da ondoko hauekin (baina hau guztia ez da eragozpen izanen indarrean dauden bateraezintasun orokorrak ezartzeko):

Establezimendu eta zerbitzu horien arteko bateraezintasuna; botikinak eta sendagaien gordailuak dira salbuespena. Bateraezintasun hau ez zaie aplikatuko lanaldi partzialeko kontratua duten farmazilariei.

Medikuntza, odontologia, erizaintza eta albaiaritzako jarduera klinikoarekin.

Lege honetan aipatzen ez den edozein lan jarduerarekin, baldin eta lan horrek galarazten badu

farmazilaria bertan egotea dela ordutegi arruntean dela larrialdietako zerbitzuaren txandetan.

Farmazi laborategietan zuzeneko edozein interes ekonomiko izatearekin.

Sendagaien edo osasun produktuen egintzan esku hartzen duten enpresetan edozein lan jarduera izatearekin.

Berriazko legediak zehazten duen eran, funtzio publikoan jardutearekin.

VII. TITULUA **Zehapenen araubidea**

61. artikulua. Arau-haustea.

1.- Foru Lege honetako eta hau garatzeko emanen den araudiko arauak hausteagatik administrazio zehapena izanen da, dagokion zehapen-prozeduraren instrukzioa egin ondoren; dena dela, honek ez ditu baztertuko egon daitezkeen erantzukizun zibilak, penalak edo beste maila batekoak.

2.- Arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, ondorengo irizpide hauei jarraiki: osasunarentzat arriskutsua izatea, legez kanpo lortutako etekinaren zenbatekoa, nahita egin den ala ez, sortutako aldaketak gizartean zenbaiterainoko eragina duen, eta arau-hausleak lehendik ere halako arau-haustek egin dituen ala ez.

3.- Honakoak arau-hauste arinak izanen dira:

- Zein baldintzaren arabera eman zen baimena, baldintza horietako edozein aldatzea titularrak.

- Ezarritako moduan eta epean, osasun administrazioari ez ematea eskatutako datuak edo entitateek zein pertsona arduradunek –osasun, teknika, ekonomi, administrazio eta finantza-arrazoiak direla medio– eman beharreko datuak.

- Real Farmacopea Española-ren eta Formulario Nacional-aren ale bat falta izatea horiek izatera behartuta dauden establezimenduetan, edo lanean jarduteko beharrezkoa den bestelako dokumentazioa ez edukitzea.

- Sendagaiak banatzen eta ematen dituzten entitateek ez izatea behar beste sendagai egoki; alegia, beren ohiko zerbitzuak emateko behar adina ez izatea; eta ezarrita dauden gutxieneko izakinak ez edukitzea.

- Ikuskatzaileen lana oztopatzea, haien lana eragozten duen edo atzeratzen duen edozein egintzaren edo ez-egiteren bidez.

- Errezetaren balioaldia igaro eta sendagaiak ematea.

- Errezeta normalizatuak izan behar dituzten datuak eta gaztiguak zuzen ez betetzea.
 - Posible denean, farmazi espezialitate bat beste batez ordeztzea, baldin eta horretarako ezarritako dauden baldintzak betetzen ez badira.
 - Sendagaiak ebaluatu eta kontrolatzeko, osasun administrazioarekin elkarlanean aritu beharra ez betetzea.
 - Lege honetan eta hau garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzak, eginbeharrak edo debekuak ez betetzea, baldin eta, artikulua honetan ezarritako irizpideen arabera, arintzat hartzea merezi badu, edo ez bada bidezko arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartzea.
 - Sendagaien ekoizpenean, egitean eta merkaturatzean zuzeneko edo zeharkako interesak dituen pertsonak zuzenean edo zeharka edozein pizgarri, hobari edo opari ematea sendagaien preskripzioan, ematean eta administrazioan esku hartzen duten osasun profesionaleri.
- 4.- Honakoak arau-hauste larriak izanen dira:
- Nahitaezkoa den baimena izan gabe, pertsona fisiko nahiz juridikoek sendagaiak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu eta banatzea.
 - Sendagaiak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu eta banatzean ez egitea osasun-legeriak agindutako kalitate-kontrolak, edo baliozkotu gabeko prozeduren bidez egitea fabrikazioa edo kontrola.
 - Sendagaiak egin, fabrikatu eta banatzen diharduen entitate batek ez izatea zuzendari tekniko bat, izendatua eta lanean; kasu bakoitzean behar diren gainerako langileak ez edukitzea.
 - Farmazi zerbitzuek eta farmaziek lanean jardutea farmazilari arduraduna bertan izan eta bertan lan egin gabe; foru lege honek arautzen dituen establezimenduetan, farmazilarien jardun profesionalari lotutako eginbeharrak ez betetzea.
 - Zuzendari teknikoak eta gainerako langileak ez betetzea beren karguei dagozkien eginbideak.
 - Behar bezala akreditaturiko ikuskatzaileen jarduna eragozteko, sendagaiak egin, fabrikatu, banatu eta ematen dituzten zentroetan.
 - Legez ezarritako baldintzak bete gabe prestatzea maisu-formulak eta farmazi prestakinak.
 - Agindutakoak bete gabe banatzea edo kontserbatzea sendagaiak; aldatuta, egoera kaxkarrean edo, balioaldia adierazi denean, hura igarota saltzea sendagaiak.
 - Administrazio baimenik izan gabe, entsegu klinikoak egitea.
 - Baimena duten establezimenduetan ez beste batzuetan, txertoak eta alergenok banan-banan prestatzea.
 - Baimena duten establezimenduetan ez beste batzuetan, sendagaiak ematea.
 - Arrazoi egoki bat izan gabe sendagaiak ukatzea, eta sendagaiak errezetarik gabe ematea edo preskripzio mota horretan eskatzen diren baldintzak eta berariazko murrizketak exijitu gabe ematea.
 - Farmazi espezialitateak ematean ordezkaketa egitea Sendagaiei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legeko 90. artikuluan xedatutakoa urratuz.
 - Erabiltzaileak farmazia aukeratzeko duen askatasuna urratzen duen egintza edo ez-egite oro.
 - Errezetak eta medikuaren aginduak tramitatzeko, konfidentzialtasuna eta gaixoen intimitatea ez zaintzea osasun langileek, hori eginbeharrekoa baitute.
 - Baimendu gabeko sendagaien sustapena eta publizitatea egin edo informazioa ematea; edo, egintza horiek gauzatzean, ez lotzea merkaturatzeko baimenean ezarritako baldintzei, Sendagaiei buruzko Legean xedatutakoari eta publizitateari buruzko legerian araututakoari.
 - Entitate batek ez izatea farmazi zerbitzua, hori nahitaezkoa denean foru lege honen arabera.
 - Arau-hauste arinetan berrerortzea; baita arintzat hartu diren arau-hausteetako bat egitea ere, baldin eta artikulua honetako bigarren idatz-zatian aipatzen diren inguruabarrak era larrian agertzen badira.
 - Osasun araudi orokorrean edo berariazkoan larritzat jotako beste edozein egintza.
- 5.- Honakoak arau-hauste oso larriak izanen dira:
- Sendagai gisara aurkezten diren arren, legeak halakotzat onartu ez dituen produktu eta prestakinak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu, banatu, merkaturatu, preskribitu eta ematea.
 - Nahitaezko osasun baimena lortu gaberik, sendagaiak merkaturatzea.
 - Gizakiaren odola, jariakinak, guruinak zein ehunak, eta horien osagaiak zein deribatuak inportatu eta esportatzea, alde aurreko baimena izan gabe.

- Osasun agintari eskudunek, osasun publikoaren inguruko arrazoi larria dela-eta, sendagaiei buruz hartutako zuhurtasunezko neurriak eta behin betiko neurriak ez betetzea.

- Zein protokolatan oinarritu ziren entsegu klinikoetarako baimena emateko, protokolo horien edukari ez jarraitzea entsegua burutzean; edo, bestela, entseguko subjektua izanen den pertsonaren edo haren ordezkariaren baiezkorik gabe jardutea, edo subjektu gisara parte hartzen duen horri entsegu klinikoari buruzko informaziorik ia batere ez ematea, informazioa eman beharra baitago.

- Erremedio sekretuak prestatzea.

- Hobariak, opariak, sariak, lehiaketak edo antzekoak eskaintzea, foru lege honetan arautzen diren produktuak sustatzeko eta saltzeko metodo gisara.

- Arau-hauste larrietan berrerortzea; baita larritzat hartu diren arau-hausteetako bat egitea ere, baldin eta artikulua honetako bigarren idatz-zatian aipatzen diren inguruabarrak era larrian agertzen badira.

- Osasun araudi orokorrean edo berariazkoan oso larritzat jotako beste edozein egintza.

62. artikulua. Zehapenak.

1. Sendagaiei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legeko 109. artikuluan ezarritakoari jarraiki zehatuko dira foru lege honetan aipatutako arau-hausteak; mailakatze bat eginen da (txikiak, erdikoak eta handiak) arau-hauste mota bakoitzaren baitan, kontuan izanik arduragabekeria, nahita egin den ala ez, elkar hartzea edo iruzurra edo emandako gaztiguak ez betetzea gertatu den, entitatearen negozioen zenbatekoa, eragindako kaltea, ukitutako pertsonen kopurua, arau-haustearekin lortutako etekinak, eta arriskuak iraunkorrak ala iragankorrak diren.

Arau-hauste arinak:

Txikiak: 100.000 pezeta bitarte.

Erdikoak: 100.001 pezetatik 300.000 pezetara bitarte.

Handiak: 300.001 pezetatik 500.000 pezetara bitarte.

Arau-hauste larriak:

Txikiak: 500.001 pezetatik 1.150.000 pezetara bitarte.

Erdikoak: 1.150.001 pezetatik 1.800.000 pezetara bitarte.

Handiak: 1.800.001 pezetatik 2.500.000 pezetara bitarte; zenbateko hori gainditu egin daiteke, arau-haustearen objektu izan diren produktuen edo zerbitzuen balioaren boskoitzera iritsi arte.

Arau-hauste oso larriak:

Txikiak: 2.500.001 pezetatik 35.000.000 pezetara bitarte.

Erdikoak: 35.000.001 pezetatik 67.500.000 pezetara bitarte.

Handiak: 67.500.001 pezetatik 100.000.000 pezetara bitarte; zenbateko hori gainditu egin daiteke, arau-haustearen objektu izan diren produktuen edo zerbitzuen balioaren boskoitzera iritsi arte.

2. Sendagaien arloko arau-hausteetan, araua urratzearen ondorioz lortutako legez kontrako etekina konfiskatu eginen da, eta Nafarroako Foru Ogasunari eman; kasu honetan, administrazio ebazpenak zehaztuko du legez kontrako etekina zenbatekoa izan den. Hau guztia, hala ere, ez da eragozpen izanen jarri beharreko isuna ezartzeko.

3. Arau-hauste arinak eta arau-hauste larri txikiak Osasun zuzendari nagusiak zehatuko ditu; arau-hauste larri erdikoak eta handiak, Osasun kontseilariak; eta oso larriak, Nafarroako Gobernua.

4. Gainera, arau-hauste oso larria denean, Nafarroako Gobernuak erabaki ahalko du establezimendua edo zerbitzua, gehienez ere, bost urtetarako ixtea.

5. Lehen adierazitako zenbatekoak eguneratu egin ahalko ditu Nafarroako Gobernuak, foru dekretu baten bidez.

63. artikulua. Zehatzeko prozedura.

Osasun Departamentuko organo eskudunak hasiko du zehatzeko prozedura, eta urtarrilaren 22ko 48/1996 Foru Dekretuan araututakoari jarraiki tramitatuko da, horren bidez onetsi baitzen osasun arloko arau-hausteak zehatzeko prozedura. Prozedura horren instrukzioa egin ondoren zehatuko dira administrazio arau-hausteak. Aplikatu beharreko prozedura-arau espezifikorik ez bada, ondorengo legeria aplikatuko zaie espediente horiei: abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretua –dekretu horren bidez onetsi zen zehatzeko ahalaz baliatzeko prozeduraren erregelamendua–, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea eta aplikatu beharreko diren gainerako xedapenak.

64. artikulua. Preskripzioa eta iraungitzea.

1.- Lege honetan arintzat hartu diren arau-hauste eta zehapenen preskripzioa urtebete igaro ondoren etorriko da; larritzat hartu direnen preskripzioa, berriz, bi urte igaro ondoren; eta oso larritzat hartu direnena, bost urte igarota.

2.- Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbatuko da arau-haustearen preskripzio-epea; eta, prozeduraren baitan, ustezko arau-hauslearengana zuzendu eta interesdunak horren berri duenean, epe hori eten eginen da.

Zehatzeko ebazpena irmo bihurtu den egunaren biharamunetik hasiko da kontaktzen zehapenaren preskripzio-epea.

3.- Arau-hausteen kontra aritzeko egintza iraungi eginen da, baldin eta Administrazioak arau-haustearen berri izan, gertakariak argitzeko jarduketak bukatu eta urtebete igaro bada agintari eskudunak prozedura hasteko agindua eman gabe.

65. artikulua. Farmazi establezimenduak, zentroak eta zerbitzuak ixtea.

Establezimenduak, zentroak eta zerbitzuak ixteko erabakia har dezake Osasun Departamentuak –baina ez da hori zehapena izanen–, baldin eta nahitaezko baimenak edo erregistroak ez badauzkate, edo haien jardunak herritarren osasunari kalte egiteko arriskua badago; gainera, haien funtzionamendua eten egin dezake edo jarduerak debekatu, harik eta akatsak zuzendu edo ezarritako beharkizunak bete arte.

Xedapen iragankorrak

Lehena.- Foru lege honek indarra hartu aurretik irekitako farmazietan, farmazi aholkuak emateko espazioa ez da nahitaezkoa izanen, lekualdatzen ez diren bitartean.

Bigarrena.- Osasun Departamentuak, foru lege honetako 35. artikuluari jarraiki, lehiaketaren deialdia egin eta ebazten ez den bitartean, Foru Komunitatean farmazi berria ezartzeko baimena izateko eskaerak, banan-banakoak, ez dira tramitatuko.

Hirugarrena.- Foru lege honek indarra hartzen duenean, administrazio bidean oraindik behin betiko ebatzi ez diren baimen-prozedurak lege honetan aipatutako lehiaketetan sartuko dira, hemen ezarritakoari jarraiki ebatz daitezzen.

Laugarrena.- Foru lege honek indarra hartu ondoren ematen bada epaia (aurreko legedia aplikatuz eman ere) eta, horren ondorioz, farmazia irekitzeko baimena, establezimendu horiek ez dira

kontuan izanen lege honek ezarritako irizpideak aplikatu eta zenbaketak egiterakoan.

Bosgarrena.- Lege honek indarra hartu aitzin zeuden botikinez denaz bezainbatean, aurretik zer farmaziari zeuden atxikirik, hari atxikita jarraituko dute, botikinak ixten ez diren bitartean, eta egoera hori ez da aldatuko, nahiz eta delako farmaziaren titularra aldatu.

Xedapen indargabetzailea

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, oso-osorik edo horien zenbait zati; zehazki honako hauek: Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 82. artikulua; irailaren 9ko 321/1996 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko farmazi zerbitzuaren behin-behineko araubidea ezartzen duena; 539/1996 Foru Dekretua, 321/1996 Foru Dekretuaren indarraldia eta ezarpena bertan behera uzten dituena; apirilaren 11ko 98/1996 Foru Agindua, Osasun kontseilariak emana, Farmazi Antolamenduaren Batzorde Aholku-emaile Teknikoa eratzen duena; eta maiatzaren 3ko 113/1996 Foru Agindua, Osasun kontseilariak emana, farmazia berriak irekitzeko prozeduran Osasun Departamentuaren eta Farmazilarien Elkargo Ofizialaren jarduketak arautzen dituena.

Azken xedapena

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege honen exekuziorako eta garapenerako behar diren erregelamenduzko xedapenak eman ditzan, bereziki, 41. artikuluan arautzen den farmazi plangintzari dagozkionak.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA

I. TITULUA
Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA
Farmazien antolamendua eta farmazi laguntza

1. artikulua. Legearen xedea
2. artikulua. Farmazien antolamendua
3. artikulua. Farmazi laguntza

II. KAPITULUA

Farmazi establezimenduak eta farmazi zerbitzuak

4. artikulua. Farmazi laguntzako establezimenduak eta zerbitzuak
5. artikulua. Medikamentuak ematea. Debe-kuak.
6. artikulua. Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuen baldintzak eta betebeharrak.
7. artikulua. Baldintza orokorrak.
8. artikulua. Larrialdi sistemak

II. TITULUA

Farmazi laguntzako establezimenduak eta zerbitzuak

I. KAPITULUA

Farmaziak

Lehen atala

Kontzeptua. Eginkizunak eta zerbitzuak

9. artikulua. Kontzeptua eta eginkizunak
10. artikulua. Medikamentuak erostea
11. artikulua. Medikamentuak ematea
12. artikulua. Maisu formulak eta farmazi prestakinak
13. artikulua. Medikamentuei buruzko informazioa
14. artikulua. Jarraipen farmakoterapeutikoa
15. artikulua. Farmaziako zainketa
16. artikulua. Osasunaren prebentzioa eta sustapena
17. artikulua. Osasun barrutiekiko koordinatzea

Bigarren atala

Baldintza tekniko eta sanitarioak

18. artikulua. Titulartasuna
19. artikulua. Presentzia eta lanbide jarduketa
20. artikulua. Bitarteko farmazilaria
21. artikulua. Ordezko farmazilaria
22. artikulua. Farmazilariaren ondokoak

23. artikulua. Farmazietako langileak izendatzeko eta kargutik kentzeko baldintzak

24. artikulua. Farmazietako languntzaile teknikoak.

25. artikulua. Lokalak, instalazioak eta identifikazioa

26. artikulua. Ordutegiak eta guardiako zerbitzuak

27. artikulua. Farmazien publikotasuna

Hirugarren atala

Farmazien plangintza

28. artikulua. Farmazien plangintza
29. artikulua. Populazio moduluak
30. artikulua. Distantziak
31. artikulua. Irekitzeko baimenerako prozedura
32. artikulua. Lizentziak

Laugarren atala

Lekualdatzeak

33. artikulua. Lekualdatze motak
34. artikulua. Borondatezko lekualdatzeak
35. artikulua. Nahitaezko lekualdatzeak
36. artikulua. Lekualdatzeetarako baimenak

Bosgarren atala

Eskualdatzeak eta bitartekotasuna

37. artikulua. Inter vivos eskualdatzea
38. artikulua. Mortis causa eskualdatzea. Bitartekotasuna
39. artikulua. Eskualdatzeetarako eskubidearen mugak
40. artikulua. Eskualdatzeei eta bitartekotasunari buruzko bestelako kasuak

Seigarren atala

Lokalak eta instalazioak aldatzea

41. artikulua. Obrak
- Zazpigarren atala. Bulegoak ixtea
42. artikulua. Ixtea

II. KAPITULUA

Botikinak

43. artikulua. Botikinak

III. KAPITULUA

Farmazi zerbitzuak eta medikamentuen gordetegiak oinarrizko osasun laguntzako egituretan

Lehen atala
Farmazi zerbitzuak

44. artikulua. Definizioak eta antolamendua
45. artikulua. Eginkizunak

Bigarren atala
Medikamentu-gordetegiak

46. artikulua. Medikamentu-gordetegiak

IV. KAPITULUA

Farmazi zerbitzuak eta medikamentuen gordetegiak ospitaletako, zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako eta espetxeetako medikamentu-gordetegiak.

Lehen atala
Farmazi zerbitzuak

47. artikulua. Farmazi zerbitzuak
48. artikulua. Eginkizunak

Bigarren atala
Medikamentu-gordetegiak

49. artikulua. Medikamentu-gordetegiak

V. KAPITULUA

Gizakientzako medikamentuen eta osasun produktuen banaketa

50. artikulua. Farmazi produktuak banatzeko zentroak
51. artikulua. Funtzionamendu baldintzak
52. artikulua. Osasun arloko agintariekiko lan-kidetza

VI. KAPITULUA

Animaliek erabiltzeko medikamentuak banatu eta ematea

53. artikulua. Albaitaritzako medikamentuen banaketa
54. artikulua. Albaitaritzako medikamentuak ematea
55. artikulua. Albaitariak erabiltzeko medikamentuak banatu eta emateko baldintzak
56. artikulua. Larrialdietarako botikinak

III. TITULUA

Farmazietako profesionalak

57. artikulua. Prestakuntza etengabea
58. artikulua. Bateriaezintasunak

IV. TITULUA

Medikamentuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea

59. artikulua. Medikamentuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea

V. TITULUA

Zehapen araubidea

60. artikulua. Arau-haustea
61. artikulua. Zehapenak
62. artikulua. Zehapenak jartzeko eskudunak diren organoak
63. artikulua. Kautelazko ixteak
64. artikulua. Iraungipena

Xedapen gehigarriak

Xedapen iragankorrak

Xedapen indargabetzaileak

Azken xedapenak

ZIOEN AZALPENAK

— I —

Azken urte hauetan Foru Komunitatean izan den bilakaera sozial eta ekonomikoak eragina izan du farmazi laguntzan. Hura lehenbailehen egokitu behar da indarra duten oinarrizko arauetara; ezin gara egon Estatuan egun indarrean dagoen farmazi antolamenduaren eredua legez noiz aldatuko duten zain, ez eta arauetan oinarritu gabeko esperimenduak egiten ere. Ezin da ahaztu farmazi jarduerak eragin zuzena duela medikamentuak erabili beharreko laguntza-zainketak behar dituzten herritar guztiengan.

Europar sartzek berak ere botere publikoak behartu ditu osasuna babestera bideraturiko jarduera guztien araubidea harmonizatzerara, herritar guztiak Konstituzioaren arabera (43. artikulua) duten eskubidea gauzatzeko, osasun publikoa antolatuz eta zainduz prebentzio neurriekin, prestazioekin eta zerbitzuekin, betiere uneoro osasuna kudeatzeko egokienak diren formulak aplikatuz

eta inplikatu guztien eskubideak eta betebeharrak ere ezarriko dituzten legeak eginez.

Osasun arloko politikaren barruan, herritar guztiei medikamentuak eta osasun produktuak aukera berdintasunez eskuratzeko modu eraginkor eta arrazionala bermatu beharko da. Medikamentuen eraginkortasuna eta erabilera arrazionala, Osasunaren Mundu Erakundearen iritziz, ondokoetan datza: medikamentu seguru eta eraginkorrak ematean, haiek prezio onean eskuratzeko aukeran eta haiek zuzen ematean. Betiere, medikamentu eraginkorrez eta kalitatekoez ari gara.

Farmazi laguntza osasun politikaren kontzeptu zabalagoaren baitan kokatu behar da, eta garrantzi handiko pauso bat da osasuna babesteko helburuak erdiesteko bidean. Hori dela eta, lege honen bitartez lortu nahi den farmazi antolamenduak helburu du farmazi laguntza zeharo arautzea. Delako laguntza hori Foru Komunitateko Administrazioak bermatu beharko du laguntza-maila eta lurralde guztietan.

Alor honi buruzko araupetzea zeharo atzeraturik geratu da Foru Komunitatean, Estatu osorako oro har ezarri diren oinarritzko araupetze desegokiak ondorioz, bai eta hemen sozioekonomiaren eta osasunaren ikuspuntutik daukagun errealitate propioaren ondorioz ere. Autonomietan arau ugari eman dira farmazi laguntzari eta farmazien antolamenduari lege maila emateko; Nafarroan, berriz, ez da halakorik eman, alor honetako eskumenak edukita ere.

Autonomia erkidegoek farmazien antolamenduren arloan dauzkaten araugintza-eskumenak estatutuetan ezarritako "barne osasuna" eskurantzian du oinarria, betiere alorrari buruz Estatuak ematen dituen oinarriak begiratuz (149.1.16 art.). Hala aitortu dute oro har Jendearentzako farmazi zerbitzua zabaltzeari buruzko urtarrilaren 17ko 11/1996 Errege Lege-dekretuak, zeina Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legeak indarrak gabe utzi baitzuen. Hori, gainera, osasunaren alorreko eskumen eskusiboak erabiliz nahiz legegintzako garapena erabiliz farmazi antolamendua arautu duten lege autonomiko ugariak (148.1.21gn artikulua) berretsi dute.

Nafarroako Foru Komunitateak osasun alorrean duen eskumenak –eta hartan sartzan da farmazi antolamendua– arrazoi historiko bat du, legegintzako garapenera eta Estatu oinarritzko legeak betetzera ere zabaltzen dena (LORAFNaren 53.1 artikulua), Gizarte Segurantzarekin gertatzen den bezalaxe (LORAFNaren 54.1 artikulua). Eskumen hori LORAFNaren 58.1.g) artikuluan

oinarrituta eztabaidatu da, hain zuzen ere Nafarroaren esku uzten baitu "establezimendu eta farmazi produktuei" buruzko Estatu legeak beteaztea. Hala eta guztiz ere, "barne osasunari" buruzko eskumenari eman zaion zentzu zabalagoan (LORAFNaren 53.1 artikulua), sartu behar da, gainerako erkidegoetan egin den bezala, Estatu oinarritzko legearen legegintzako garapenerako eta beteazteko eskumena. Hori, gainera, ondokoek berretsi dute: abuztuaren 1eko 1697/1985 Errege Dekretuak, zeinak Estatuak Komunitateari egin beharreko transferentzietan sartu baitzuen farmaziak ireki, aldatu eta kentzeko baimenak ematea; Osasun Institutu Nazionalaren zerbitzuak Nafarroari eskualdatu zizkion abenduaren 28ko 1680/1990 Errege Dekretuak; eta farmazi produktuei buruzko Estatu legediaren beteazpena eskualdatu zuen 1318/1997 Errege Dekretuak.

Nafarroako Foru Komunitateak osasun arloko arauak eta farmazien antolamenduari buruzkoak eman dizkio bere buruari. Horrela, bada, eman zen Osasun Barrutiak arautzen dituen azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legeak Nafarroa Osasun Erregio gisa egituratzen du; erregio hori osasun barrutiek osatuta dago, eta osasun barruti horiek osasun eskualde oinarritzkoek osatzen dituzte. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, zeinak osasun jarduera publiko eta pribatuak arautu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua sortu baitzuen, hain zuzen ere osasuna babestua izateko konstituzio eskubidea gauzatzeko.

Farmazien antolamenduari dagokionez, irailaren 9ko 321/1996 Foru Dekretuak Foru Komunitatearen farmazi zerbitzuaren behin-behineko araubidea ezarri zuen; haren indarra urriaren 14ko 539/1996 Foru Dekretuak eten zuen. Nafarroako Gobernuaren 1997ko ekainaren 16ko erabakiaz apirilaren 25eko 16/1997 Legea aplikatzeko interpretazio-irizpideak ezarri ziren. Osasun kontseilariaren uztailaren 1eko 92/1997 Foru Aginduak 1993ko ekainaren 16koa aldatu zuen, farmazietan gutxienez eskuragarri egon behar duten medikamentu eta osasun produktuei dagokienez. Kotseilari beraren 93/1997 Foru Angiduak hori bera ezarri zuen farmazi produktuen banaketa-biltegiei dagokienez. Irailaren 1eko 214/1997 Foru Dekretuak osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak sortu, aldatu eta lekualdatzeko eta haien funtzionamendurako baimenen araubidea ezarri zuen. Irailaren 15eko 252/1997 Foru Dekretuak 4. artikuluan farmaziak osasun zentro gisa sailkatzen ditu. Irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretuak zenbait medikamenturen Foru Komunitatearen

fondoan kargurako prestazio osagarria ezarri zuten.

– II –

Osasun, medikamentu, atentzio eta farmazien antolamenduaren arloko Estatuko oinarriko legeek eskumen-tituluetan dute oinarri (149.1.1, 16 eta 17. art.). Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, “arauen bitarteko erregulazio uniforme bat da, nazio osoan indarra duena; horrexek bermatzen du –autonomia erkidego baten interesen gaineko interes orokorrak erdiestearren– arau-oinarri komun bat izatea. Hortik abiatuta, erkidego bakoitzak, interes orokor propioaren defentsan, nahi dituen berezitasunak ezarri ahal izanen ditu” (1982-1-28ko epaia). Oinarriko markotik abiatuta, autonomia erkidegoek “erregulazio anitz” (Konstituzio Auzitegiaren 1982-11-4ko epaia) ezar ditzakete, “politika propio baten arabera gobernu jardueran” (Konstituzio Auzitegiaren 1982-6-14ko epaia); betiere, amaierako erregulazioa “Estatuaren eta autonomia erkidegoen baterako jardueraren emaitza izanen da” (Konstituzio Auzitegiaren 1982-12-23ko epaia).

Farmazien zerbitzuak arautzeari dagokionez, 1855eko Osasunari buruzko Legeak, Farmaziari buruzko 1860ko Ordenantzek eta 1904ko Osasunari buruzko Instrukzio Orokorrak honela sailkatu zuten farmazi jarduera: medikamentuak ematea monopolio gisa duen osasun lanbidea, askatasunez ezartzeko araubidea duena baina Administrazioaren kontrolaren menpe, hain zuzen ere baimen eta ikuskapenen bitartez.

1941eko urtarrilaren 24ko Dekretuak erabateko aldaketa egin zion aurreko araubideari askatasunez ezartzeari dagokionez. Dekretu hori Farmaziei buruzko 1944ko osasun arloko lege nazional orokorraren XVI. oinarrian jaso zen. Azken horrek “nazioko lurraldean arautu eta mugatu zuten farmazien ezarpena, baita behar diren amortizazioak eginez ere; betiere, jabearen interesak gordeko dira”. Lege hori 1957ko maiatzaren 31ko Dekretuaren bitartez garatu zen. Geroago, apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretuaren bitartez, indarririk gabe geratu zen dekretu hura. Azkenik, 1979ko azaroaren 21ean gai honi buruzko Ministerio Agindu bat eman zen. Apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren 4. artikulua medikamentuak eta osasun produktuak aipatu zituen. Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak Osasun Sistema Nazionala ezarri zuten oinarri gisa, eta harekin batera partikularren osasun jarduerari, farmazi produktuei eta farmazi laguntzari eta antolamenduari buruzko arauak ere eman zituen. Gizarte Segurantzaren arloan, maiatzaren

30eko 2065/1974 Dekretuak Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onetsi zuten; lege horren medikuntza eta farmazi prestazioei buruzko 103. artikulutik 108. artikulura bitartekoek indarrean darraite, nahiz eta ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegileak hura indarririk gabe utzi.

Estatuko eskumen tituluen babesean, medikamentuei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legea eman zen. Lege oinarrikoa zen, oro har, eta farmazi laguntza eta farmazien antolamendua, farmazietan medikamentuak ematea, ospitaleetako farmaziak eta beste alderdi asko arautu zituen. Hori dela eta, medikamentuei buruzko eta haiei loturiko osasun jarduerari buruzko araurik garrantzitsuena da. Farmazien antolamenduari buruzko arauak osatzeko, jendearentzako farmazi zerbitzua zabaltzeari buruzko urtarrilaren 17ko 11/1996 Errege Dekretu-Legea eman zen, zeina Farmazien zerbitzua arautzeko apirilaren 25eko 15/1997 Legearen bitartez indarririk gabe geratu baitzen. Azken horretan ezarri ziren farmazien antolamenduari buruzko estatuko oinarriak.

Apirilaren 25eko 16/1997 Legeak farmazien antolamenduaren oinarriak arautzen ditu eta Espainiako Zuzenbidearen plangintzaren eta antolamenduaren sistema tradizionala mantendu du; sistema horrek populazio moduluak, establezimenduen arteko distantzia eta eskualdatu daitekeen titulartasun pribatuaren jarduerarako administrazio baimena ditu zutabe nagusiak. Autonomia erkidegoen esku uzten zuten osasun unitate oinarrikoak ondokoan arabera antolatze-ko berariazko irizpideak ezartzeko eskumena: dentsitate demografikoa, ezaugarri geografikoak eta populazioaren dispersioa. Antolamendua egiteko tresnak, berriz, Legeak ezarritako populazioaren oinarriko moduluen kopurua eta zenbaketa, eta farmazien arteko distantzia izanen dira. Lege honek ez du berekin ekarri Elkarlehia Defendatzeko Auzitegiak eskatzen zuten liberalizazioa: farmazia bat irekitzeko populazio modulu bat eta gutxieneko distantzia bat finkatzeak berekin dakarren murriztapena dute oinarri, eta horren ondorioz ezar eta baimen daitekeen farmazien gehieneko kopuru baten plangintza egiten da.

Apirilaren 25eko 16/1997 Legea indarrean dagoenetik hiru urte igaro direla, egiaztatu ahal izan da medikamentu erkidegoetako eskumenak erabiltzeko negatiboa izateaz gainera, ez dela baliagarri izan apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretuari egozten zion akatsa, alegia “oztopo gaindiezina izatea zerbitzuak zabaltzeko eskari guztiz logikoarentzat, eta lanbidean gatazkak eta frustrazioak sortzeko iturria izatea”. Alderantziz,

egoera horiek finkatzeko balio izan du, bideraezin bihurtu dituelako alde batetik populazio moduluetan eta distantzietan eta bestetik dentsitate demografikoan, ezaugarri geografikoetan eta populazioaren dispersioan oinarrituriko antolamendu markoa aldatzeko medikamentu erkidegoetan eginko lege ahalegin guztiak.

Beraz, estatuko oinarritzko arauak ezinbesteko tresna dira, farmazi jarduera antolatzeari dagokionez, arlo honi buruz autonomiek dauzkaten eskumenak garatzeko orduan. Horrela, bada, asmo berritzaile guztiak hark mugatutako lekuan baizik ezin dira sartu; bestela, autonomi arauak Konstituzioaren aurkakoak izan daitezke. Estatuko oinarritzko legeek jarduera tarte estuak utzi dizkie autonomia erkidegoei, eta horrek berekin ekarri du erkidegoek ezin egokitu izatea farmazi laguntzaren araubidea eta farmazien antolamendua beren osasun eta gizarte arloko beharrezaneiei eta beharizan ekonomikoiei. Hartara demostratu da nola estatuko oinarritzko legeak erabiltzen diren autonomia erkidegoetako eskumenak xaflatzeko eta autogobernuaren erakundearen erabaki politikoei mugak jartzeko teknika gisa.

Zehazki, Estatuko legedi oinarritzkoak, Farmazien zerbitzua arautzeari buruzko apirilaren 25eko 16/1997 Legearen 2.1, 2.2, 2.5, eta 6. artikuluen bitartez, sektorearen edozein liberalizazio zaildu ezezik, plangintza irizpideak ezartzearekin -hau da, hura erabakitzearekin- oztopoak ere jartzen ditu erkidegoek beharizan kolektiboetarako egokiagoa izan den lurralde antolamendu egokiagoa egin dezaten.

– III –

Arau orrokorren eza, alderdi zehatz batzuei buruzko arauen eskasia eta sistematika falta, farmazien zabaltzeak direla-eta sorturiko interes-aztiak, jarduketa korporatibistak eta profesional berrien ugaltzea arrazoi nahikoak izan dira sektore honetan epaiketa ugari izateko.

Foru Komunitatearen osasun sistemaren eta biztanleen banaketaren ezaugarri bereziak direla eta, berariazko tratamendua eman behar zaio farmazi laguntzari, azkarra eta eraginkorra izan dadin, eta ahal diren baldintza onenetan berma dadin, bai hiri eskualdeetan eta bai landa eskualdeetan ere; hala eginez gero, Administrazioak herritar guztiei berdintasunez atenditzeko daukan betebeharra beteko du. Osasunari buruzko politikak gobernu baten eginkizun nagusia izan behar du, bai eta gizarte osoarena ere, hain zuzen ere osasun laguntza unibertsalagoa egiteko helburu zabalarekin; betiere, laguntza hori biztanle guztientzat bermatuko da, bazterkeriarik gabe.

Hori dela eta, udalerrriaren esparrua gaintu behar da, laguntza hori Famazi Eskualdearen esparruan kokatzeko, osasun eskualde oinarritzkoekin eta osasun barrutiekina batera (Osasun Barrutiak arautzen dituen 22/1985 Legea); izan ere, horiek dira osasun zerbitzuen oinarritzko laguntzaren eremu geografikoa eta populaziokoa, eta osasun laguntza horretan sartu behar da medikamentuen arloan ari diren farmazilari profesional teknikoaren jarduketa.

Helburu hori erdiesteko, Foru Lege honen arabera, farmazi laguntza da farmazien arloko profesionalen erantzukizunaren eta gainbegiradaren menpe, medikamentuak banatzeko eta emateko establezimendu eta zerbitzu berariazkoetan, farmazi laguntza egokia bermatzeko garatzen diren jardueren multzoa da, betiere medikamentuaren behar bezalako erabilera sustatuz.

Antzeman daiteke, beraz, farmazien antolamenduak jarduerarako baimen ematea ere biltzen duela, hasi medikamentua ematearekin –banaketa, kontserbazioa, zainketa, farmakozaintza, publizitatea, hari buruzko informazio objektibo eta zientifikoa– eta bukatu ospitaletako farmazi laguntzarekin, laguntza soziosanitarioarekin, psikiatrikoarekin eta baita penitentziarioarekin ere.

Oinarritzko legediari jarraituz, farmazia interes publikoko osasun establezimendu pribatu bat da; horrek bateragarri egiten ditu bai osasun lanbidearen ariketa librerako eskubidea (Espainiako Konstituzioaren 35. eta 36. art. eta Osasunari buruzko 14/1986 Legearen 88. art.) bai enpretarako askatasuna (Espainiako Konstituzioaren 38. art. eta 14/1986 Legearen 89. art) eta botere publikoen beharrezkoa den esku-sartzea, ikusirik horiek osasun laguntza bermatzeko duten beharra. Administrazio baimenetarako –ez emakidetarako– araubideak farmazi jarduketaren araubidea aitortzea esan nahi du, ekimen profesionalerako eskubidea eta profesionalaren enpresa-ekimena oinarri harturik.

– IV –

Foru lege honen I. titulua, zeinak “Farmazi laguntza” baitu izenburu, printzipio orokor batzuk biltzen ditu: alde batetik, helburua, antolamendua-aren definizioa eta farmazi laguntzaren definizioa, larrialdietarako sistema bat aurreikustea medikamentuak eta osasun produktuak salgai jarri eta erabiltzearen ondorioz osasunerako arriskugarri gerta daitezkeen kasuetarako; bestetik, establezimenduen eta foru lege honek ukitzen dituen farmazi laguntzako zerbitzuen antolamendu sistematikoa, herritarrarentzako banaketa eta ematealdi ezberdinetan sailkatutako, Osasun Publikoari buruz-

ko arauetako oinarritzko printzipioen arabera; horretan sartuko dira, gainera, medikamentuak saltzeari buruzko hainbat debekuri buruzko manu berariazkoak, bai eta aginduzkoak diren eta araututa dauden baimen eta ikuskapen administratiboa ere, alde batetik lege honetan ezarritakoa beteko dela eta bestetik establezimendu eta zerbitzu horien baldintza orokorrak bermatzeko.

– V –

II. tituluak farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzu publiko zein pribatuak arautzen dira; kapitulu bat dago horietako bakoitzari buruz.

Farmazien antolamendua da konplexuena, osasun publikoko eginkizun bat garatzen duten osasun establezimendu pribatuen egoera kontuan hartuta; hala egieztatzen ahal da osasun zerbitzu bat berdintasun, irisgarritasun eta eraginkortasun baldintzetan ematean kalitatea bermatu behar duten arauak artikulatu nahi izan dituzten legeetan.

Farmazi laguntza jarraia, azkarra eta eraginkorra emateko jarduera –betiere osasun berme handienak ematen medikamentuak erosi, zaindu, kontserbatu eta emateari dagokionean–, momentuz, herrialde garatueta dauden sistemetan onena da, farmaziako profesionala bertan dagoelako eta kontrol lana egiten duelako; izan ere, farmazilaria da farmaziaren jabea eta titularra, eta informazioa, aholkuak eta jarraibideak emateko eginkizuna bere gain dituena.

Titulartasun pribatuko establezimendu bat zerbitzu publiko bat ematen aritzearen dikotomia hori gainditzeko, jabetzarako eta erabilpen librerako eskubidearekin batera, administrazio baimenaren eta osasun plangintzaren eta antolamenduaren mepe egotea daude; horrekin, osasunaren babes onena lortu nahi da, herritarrari ahal den eta kalte gutxien eginez, laguntzarako bermeak gabe. Ezin da ahaztu, bestalde, farmazia guztiek eskatzen zaizkien medikamentu guztiak emateko daukaten oinarritzko betebeharra, partikularrek eskatuta nahiz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskatuta.

Plangintza hori, farmazien kopuruari dagokionez, populazio moduluen eta farmazien arteko distantziaren arabera zehazten da Estatuko legedian; medikamentu erkidegoei aitortzen zaizkie modulu horiei buruzko eskumenak, legez gara ditzaten “ezarritako irizpide orokorrei jarraituz”. Horretarako, kontuan hartu behar dira populazioan gertatu diren eraldaketak eta jendegune berriak sortu direla, jendeari arreta hobeagoa emateko beharra eta farmaziarik ez duten farma-

zilariei establezimendu bat edukitzeko aukera eman behar izatea ere bai. Hori guztia herritar guztientzako farmazi laguntza hobetzeko xedez.

Udala, osasun laguntzako unitate integral gisa, gaindituta dagoenez, tratamendu berria eman behar zaie farmazien lekualdatzei, farmazi eskualdeko laguntza beharrak farmazilariak behar horiei erantzuna emateko beharrarekin harmonizatzearen.

Medikamentuen trafikoak ez ditu biltzen bakarrik gizakientzako medikamentuak: animaliekin erabiltzekoak edo albaitaritzan behar direnak ere biltzen ditu. Horiek ere, haiei buruzko legeetan jasotzen den bezala, farmazilariak kontrolatu beharrekoak dira eta farmazietan nahiz lege honetan aurreikusitako bestelako egituretan eman behar dira; bestalde, farmaziak dira maisu formulak emateko ahalmena dutenak, besteak beste gai anabolizanteak, hormonalak edo psikotropikoak kontrolatu ahal izateko.

Azkenik, farmazi laguntza betetzerik ez bada, farmazi jakin bati atxikitako botikinak instalatzeko baimenak emateko aukera aurreikusi da.

III. kapituluak oinarritzko laguntzako farmazi zerbitzuei buruzkoa da; zerbitzu horien eginkizunekin betetzen da maila honetako laguntza integrala, farmazien laguntzaren bitartez.

Bai Ospitale eta zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako zerbitzuek eta bai eta ospitale eta zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako eta espetxeetako medikamentuen gordetegiek lege hau behar dute lokalaren egokitasuna bermatzeko, medikamentua kontrolatzeko eta internoak baizik erabil ez dezan. II. tituluko IV. kapituluak jaso da hori guztia.

Banaketa-biltegiak, ondorio guztietarako osasun establezimendu direnak, V. kapituluak landu dira. Farmaziei eta farmazi zerbitzuei baizik ezin diete medikamenturik saldu. Larrialdi kasuetarako farmazi alertako sistema eraginkor bat izan behar dute.

Azkenik, II. tituluko VI. kapituluak animaliekin erabiltzekoak diren medikamentuen banaketa eta ematea ezartzen ditu, aurretik aipaturiko jarraibideak erabiliz.

– VI –

III. tituluak medikamentuen eta osasun produktuen erabilera zuzena bermatzeari buruzkoa da. Horretarako, beharrezkoa da farmazietako profesionalen prestakuntza etengabea eta farmazilariak produktuen fabrikazioan interesak izateko debekua.

Legearen IV. titulua medikamentuei eta osasun produktuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea arautzen ditu, bai eta hori guztia egiazkotasun irizpidearen arabera izatea ere, gai-
xoak gehiegi edo gaizki erabili ez ditzan.

Azkenik, V. tituluari, Administrazioak legean ezarritakoa behar bezala betetzen dela kontrolatuko duela bermatzeko zehapen araubidea ezartzen da.

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

I. kapitulua **Farmazien antolamendua eta farmazi laguntza**

1. artikulua. Legearen xedea

1. Foru Lege honek Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean herritarrei eman behar zaien farmazi laguntza eta hartatik ondorioztatzen diren betebeharrak arautzea eta antolatzea du helburu.

2. Foru Komunitatearen Administrazioari dago-
kio farmazi zerbitzuak eta establezimenduak anto-
latzea, farmazi laguntza kalitatezkoa, unibertsala,
etengabea, integrala eta biztanleentzako egokia
izan dadin.

2. artikulua. Farmazien antolamendua

Hauxe da farmazien antolamendua: biztanleen osasuna hobetzea eta medikamentuen behar bezalako erabilera –emaitza terapeutiko onenak lortzeko– bermatzea helburu duten osasun laguntzari eta osasun publikoari buruzko arau, baldintza, egitura eta jarduketan multzoa.

3. artikulua. Farmazi laguntza

Hauxe da farmazi laguntza: farmaziaren profesionalek, medikamentuetako establezimenduetan eta banaketarako eta salmentarako zerbitzu berezietan egiten dituzten jardueren multzoa, hain zuzen ere medikamentuen bidezko tratamenduak emaitza terapeutiko onenak sortzea helburu duena.

Horretarako, farmazilarien babes egokia bermatuko da, bai eta tratamenduaren eskuragarritasuna, banaketa, salmenta, kalitatea eta jarraipena ere.

II. kapitulua **Farmazi establezimenduak eta farmazi zerbitzuak**

4. artikulua. Farmazi laguntzako establezimenduak eta zerbitzuak

1. Farmazi laguntza osasun sistemaren maila guztietan emanen da, soilik ondoko farmazi zerbitzu eta establezimenduen bitartez:

A) Oinarrizko osasun laguntzaren mailan:

a) Farmaziak.

b) Botikinak.

c) Oinarrizko osasun laguntzako osasun egiturako farmazi zerbitzuak.

d) Oinarrizko osasun laguntzako osasun egiturako medikamentuen gordetegiak.

B) Ospitale eta zentro soziosanitarioen mailan:

a) Ospitaleetako, osasun etxeetako eta zentro psikiatrikoetako farmazi zerbitzuak.

b) Ospitaleetako, zentro soziosanitarioetako, zentro psikiatrikoetako eta, kasua bada, espetxeetako gordetegiak.

C) Banaketaren mailan:

Medikamentuak eta osasun produktuak banatzeko handizkako biltegiak.

D) Albaitaritzako medikamentuak saltzeko mailan:

Animalientzako medikamentuak saltzeko legez gaitutako establezimenduak.

E) Albaitaritzako medikamentuak banatzeari dagokionez:

Animalientzako medikamentuak banatzeko handizkako biltegiak, behar bezala baimendutakoak.

2. Maila guztietako farmazi establezimenduek eta zerbitzuek era koordinatuan egiten dute lan, biztanleei farmazi laguntza integrala emateko.

5. artikulua. Medikamentuak ematea. Debe-
kuak.

1. Medikamentuen salmenta aurreko artikuluan berariaz ezarritako establezimendu eta zerbitzuetan baizik ezin izanen da egin, horretarako baime-
nean eta Estatuko oinarrizko legedian jasotako baldintzetan, betiere.

2. Berariaz debekatuta gelditzen da herriz herriko salmenta, etxez etxeko salmenta, posta bidezkoa eta gizakien kontsumorako edo albaitaritzako erabilerarako medikamentuak hornitu, saldu, banatu edo saltzeko lege honetaz ezarritakoak besteko edozein modu.

6. artikulua. Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuen baldintzak eta betebeharrak.

Lege honek araututako establezimendu eta zerbitzuek ondoko betebeharrak izanen dituzte:

a) Ezartzeko eta funtzionatzeko, zabaltzeko, aldatzeko, lekuz aldatzeko, ixteko, eteteko, obrak egiteko eta eskualdatzeko Administrazioak emaniko baimena.

b) Indarra duten legeek ezarritako baldintzak betetzeari buruzko kontrola, ikuskapena eta zain-tza.

c) Erregistroa eta katalogazioa.

d) Prestatzea eta Administrazioari igortzea eskatzen zaizkion osasun arloko informazio eta estatistikak.

e) Osasun elkartasun eta integrazio printzipio-tik ondoriztaten diren betebeharrak betetzea, larrialdi kasuetan edo osasu publikorako arriskua dagoenean.

f) Osasun administrazioaren osasun plangintza eta programetan kolaboratzea.

7. artikulua. Baldintza orokorrak.

Foru lege honetan, Estatuko oinarritzako arauetan eta hori garatzeko ematen direnetan ezarritakoari jarraituz, farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuek ondokoak eduki beharko dituzte: farmaziako profesionalak eta farmaziako laguntzaileak edo teknikariak, leku fisikoa, lan atalen banaketa eta ematen duten farmazi laguntzaren kalitatea bermatzeko behar den ekipamendua.

8. artikulua. Larrialdi sistemak

Foru Komunitateko Administrazioaren zuzendaritzaren eta koordinazioaren menpe, larrialdi-erako sistema bat aplikatuko da, merkatuko produktuak erretiratzea barne, farmazi laguntzako zerbitzu eta establezimenduetan eskuragarri dauden medikamentuen eta osasun produktuen erabileraren ondorioz osasunerako arriskurik antzematen den kasuetan.

II. TITULUA

Farmazi laguntzako establezimenduak eta zerbitzuak

I. kapitulua Farmaziak

Lehen atala

Kontzeptua, eginkizunak eta zerbitzuak

9. artikulua. Kontzeptua eta eginkizunak

1. Farmaziak interes publikoko eta titulartasun pribatuko osasun establezimenduak dira, oinarritz-

ko osasun laguntzako sisteman koordinatuta eta Foru Komunitateak ezarritako osasun plangintzari lotuta daudenak. Haietan, farmazilari titular eta jabea denak, bere zerbitzuan lanean ari direnen laguntzarekin, farmazi laguntza bermatuko du, ondoko eginkizunak betez:

a) Medikamentuak eta osasun produktuak erosi, zaindu eta kontserbatzea.

b) Medikamentuak eta osasun produktuak saltzea, preskripzioaren eta indarreko lege arauen arabera.

c) Sendagileek emandako errezetak zaindu, kontrolatu eta babestea.

d) Lan egiten duen barrutiko farmazi laguntza bermatzea, baita farmaziarik ez dagoen herrieta-rako ere.

e) Maisu formulak eta farmazi prestakinak egi-tea, ezarritako kontrol eta prozedurei jarraikiz.

f) Gaixoei medikamentuei buruzko eta farmazi tratamenduen jarraipenari buruzko informazioa ematea.

g) Medikamentuen gizabanakoaren erabilera kontrolatzen laguntzea, gerta daitezkeen erreakzio kaltegarriak antzemateko, eta haien berri ematea farmakozaintzako ardura duten erakundeei.

h) Farmazi laguntzari buruz eta, oro har, lehen laguntzari buruz, osasunaren sustapenari eta babesari buruz, gaixotasunei aurrea hartzeari buruz eta osasun hezkuntzari buruz osasun administrazioek sustatzen dituzten programetan laguntzea.

i) Osasun administrazioarekin edo Farmazilarien Elkargo Ofizialarekin lankidetzan aritzea medikamentuen eta osasun produktuen behar bezalako erabilerari buruzko prestakuntza eta informazio jardueretan.

j) Foru Komunitateko osasun zerbitzuetako laguntza-egiturekin jarduketa koordinatuan aritzea.

k) Farmaziako Lizentziatu titulua lortzeko irakaskuntza lanetan laguntzea, Europako Batasunaren zuzentarauetan nahiz Estatuko arauetan eta unibertsitateetako ikasketa planak ezartzen dituzten arauetan ezarritakoari jarraituz.

l) Medizina substantziei, estupefazienteei eta psikotropikoei eta halakoak dauzkaten medikamentuei buruzko berriazko legedian ezarritako betebeharrak betetzea.

m) Farmazian lanean ari den farmazilariak bete dezakeen beste edozein eginkizun, betiere

titulazioaren arabera eta Administrazioak eskatuta nahiz norberaren ekimenez.

2. Farmaziek, albaitaritzako medikamentuei dagokienez, aurreko idatz-zatian aipaturiko betebeharrak beteko dituzte, baina horrek ez du kenduko indarreko legediaren arabera medikamentuak saltzeko gaitutako establezimenduek bete beharko dituztenak.

10. artikulua. Medikamentuak erostea

1. Medikamentuen hornidura bermatzeko, farmaziek farmazi gai espezializatuak, medikuntza substantziak eta osasun produktuak baimendutako laboratoriei eta banaketa-biltegiei erosiko dizkiete. Horretarako, arauz ezarriko diren gutxienezko izakinak izanen dituzte.

2. Produktu estupefaziante eta psikotropikoak eskuratu, kontserbatu eta saltzeko, berariazko legedian ezarritakoa beteko da.

11. artikulua. Medikamentuak ematea

1. Farmaziek bereko eginkizun dute medikamentuak saltzea eta medikamentu horiek gaixoaren esku jartzea errezetaren bitartez medikuak gauzaturiko preskripzioari jarraituz. Gaixoari, gainera, behar dituen jarraibideak emanen dizkiote medikamentua erabiltzeko. Errezetarik gabe soilik indarreko legeetan halakotzat sailkaturiko eta baimenduriko medikamentuak saldu ahal izanen dira.

2. Farmazi espezialitateak, maisu formulak, efektuak eta osagarriak legez ezarritako farmazi guztietan saldu ahal izanen ditu –betiere, hori debekatzen dien zehapenik ez badute– farmazilari batek edo besteren batek, haren gainbegiradaren pean eta erantzukizun osoz, eta preskripzioari jarraituz, halakorik behar bada.

3. Herritar guztiek eskubidea dute nahi duten farmazia aukeratzeko, bai eta farmaziako profesionalaren laguntza eta aholkularitza zuzena hautatzeko ere. Erabiltzailearentzat isilpekotasun eta pribatutasunaren bermeak egon beharko dute, betiere.

Farmazilariak medikamentuak eta gainerakoak saltzeko betebeharra dute, legez ezarritako baldintzak betetzen direnean.

4. Farmazilariak ez dute medikamenturik salduko aurkeztutako mediku errezetaren balioari buruzko arrazoizko zalantzak badituzte, eta kontu berezia jarri beharko dute estupefazianteak eta psikotropikoak saltzeko; betiere, erabiltzaileen eta haien ahaideen intimitaterako eskubidea errespetatu eta bermatuko da.

5. Farmazilariak medikuarengandik jaso duen aginduan ageri diren dosiak normalki ematen direnez nabarmen bestelakoak direnean edo farmazilariak arrazoizko moduan susmatzen badu medikuaren agindua akastuna dela, erabilera-jarraibide okerrak dituela edo gaixoarentzat kontraindikazio direnak ez direla kontuan hartu, gaixoarekin kontsultatu beharko ditu, bai eta preskripzioa egin zuen medikuarekin ere, haiek zuzendu edo berrets ditzan.

12. artikulua. Maisu formulak eta farmazi prestakinak

Maisu formulen eta farmazi prestakinak egitea eta ematea medikamentuei buruzko legeetan xedatutakoaren arabera egingen da. Farmaziako farmazilari erantzuleak egingen dituzte horiek, edo, bestela, haien zuzendaritzaren eta kontrolaren menpe egingen dira. Bestalde, enbase egokietan emanen dira, haietan argi jasoz zein den haien osaketa kualitatiboa, farmazilari erantzulearen izena eta preskripzioa egiten duenaren kontserbazio eta iraungipen baldintzak.

13. artikulua. Medikamentuei buruzko informazioa

1. Farmazilariari dagokio medikamentuei buruzko informazio egokia ematea osasun arloko langileei, gaixoei eta erabiltzaileei, medikamentuen behar bezalako eta preskribitutako tratamenduen araberrako erabilera sustatzeko.

2. Farmazilariak erabiltzaileei ondokoei buruzko informazioa emanen die: jarraibideak, erabiltzeko era, arreta-neurriak, kontraindikazioak, interakzioak eta kontserbazio baldintzak.

14. artikulua. Jarraipen farmakoterapeutikoa.

Farmazilariari dagokio gaixoen jarraipen farmakoterapeutikoa egitea, tratamenduen ondoriozko eragin kaltegarriak, interakzioak edo kontraindikazioak antzemateko, haiei aurrea hartzeko eta haiek konpontzeko, medikamentuen gizabanakoaren erabilera zaintzeko eta kontrolatzeko prozedura egokiak erabiliz.

Betiere, erabiltzailearen intimitaterako eta datuen konfidentziasunerako eskubidea bermatuko da. Datu horiek, erabiltzailearen baimenarekin, preskripzioa egiten duen fakultatiboari edo kasuan kasuko oinarritzako osasun laguntzako ekipo medikoari eman ahal izanen zaizkio.

15. artikulua. Farmakozaintza

Farmazilaria Espainiako Farmakozaintzako Sistemarekin batera arituko da lanean medikamentuek sorturiko eragin kaltegarriak antzematen,

erregistratzen, jakinarazten eta sistematikoki eba-luatzen, hori arautzen duten arauekin bat.

16. artikulua. Osasunaren prebentzioa eta sustapena

Farmazilarien berezko eginkizuna da osasuna eta gaisotasunari aurre egitea sustatzea, osasunari buruz hezitzea, bizimodu osasungarriak zabaltzea, erabiltzaileei botiken erabilera zuzenari buruzko informazioa ematea eta aktiboki parte hartzea osasun sisteman ezartzen diren informazio eta hezkuntza programetan.

17. artikulua. Osasun barrutiek koordinatzea

Farmazietako farmazilariak lankidetzan arituko dira eta beren ekintzak koordinatuko dituzte oinarritzko osasun laguntzako ekipoekin, eta aktiboki hartuko dute parte osasunari buruzko heziketa, prebentzio eta informazio programetan, farmakozaintzan eta gaixoen jarraipen farmakoterapeutikoan.

Bigarren atala

Baldintza tekniko eta sanitarioak

18. artikulua. Titulartasuna

1. Farmazilariak baizik ezin izanen dira izan farmazietako jabe eta titular, haiei buruz legez ezartzen diren eskubide eta betebeharren baldintzen arabera.

2. Farmazilari titularra da farmazia bat zabal-tzeko baimena lortu duen farmazilaria. Farmazia horretan, farmazilari horren ardurapean, 9. artiku-luan azaltzen diren eginkizunak beteko dira, eta farmazia batek legez ezarritako betebeharrak eta baldintza guztiak beteko ditu, bai eta erabiltzaileen osasun zerbitzua bermatzekoa ere.

3. Farmazilari bakoitza farmazia bakar baten jabe eta titular edo jabeakide eta titularkide izaten ahalko da. Titularkide izateak berekin dakar, ezinbestez, jabeakide izatea; jabeakide izateak, berriz, berekin dakar, ezinbestez, titularkide izatea.

4. Farmazietan osasun zereginetan aritzen diren farmazilariak lanbide elkargo batekoak behar dute izan, legez ezarritako legeei jarraituz, eta Nafarroako Gobernu Osasun Departamen-tuan kreditatu beharko dira, arauz ezarriko den moduan.

19. artikulua. Presentzia eta lanbide-jarduketa

1. Farmazilari baten presentzia eta lanbide-jar-duketa ezinbesteko baldintza da farmazia zabalik egoteko, erabiltzaileei arreta emateko, dauzkan eginkizunak bete ahal izateko eta legez behar litzkeen zerbitzuak eman ditzan. Farmazietako

langile laguntzaileen laguntzak ez du ezertan ken-tzen farmazilari batek farmazian aritzea, irekita dagoen bitartean; bestalde, ez dio farmazilariari daukan lanbide-erantzukizuna kentzen.

2. Farmazilari titular bati beste farmazilari batzuek eta langile laguntzaile teknikoek eman ahal izanen diote behar duen laguntza.

3. Farmazietan lanean aritzen diren langile guztiak identifikazio pertsonala eta profesionala eraman beharko dute.

20. artikulua. Bitarteko farmazilaria

1. Osasun Departamentuak, ondotik zehazten diren kasuetan, bitarteko farmazilari bat izendatu-ko du aldi jakin baterako, eta delako bitarteko farmazilariak farmazilari titularrarentzat adierazten diren eginkizun, erantzukizun eta bateraezintasun profesional berak bereganatuko ditu. Hona bitarte-ko farmazilaria izendatuko den kasuak: farmazilari titularra hiltzen denean; epai bidez kanpoan dago-ela, gai ez dela edo ezinduta dagoela deklaratu denean; epaile batek nahiz administrazioak far-mazilari titularrak baliaezintasun osoa, erabateko baliaezintasuna eta baliaezintasun handia duela deklaratu duenean.

2. Bitarteko farmazilaria libreki izendatuko dute hildako farmazilariaren oinordekoek, ezindutako farmazilariaren legezko ordezkariak edo farmazi-lari titularra kanpoan dagoela deklaratu dadin eska-tu dutenek, farmazilari titularra hil edo kanpoan dagoela nahiz ezinduta dagoela deklaratu eta hilabeteko epean.

21. artikulua. Farmazilarien ordezkioa

1. Farmazilariaren ordezkioa izendatuko da far-mazilari titularrak edo bitarteko farmazilariak kan-pora joan behar duenean, kargu publiko baterako edo korporazio edo lanbide bateko ordezkariak kargu baterako izendatzen denean, lanbidearekin zerikusia duten ikasketetan ari denean, farmazia itxi gabe oporretara joaten denean, aldi baterako ezintasun egoeran edo amatasun egoeran dagoe-nean, edo iraupen laburreko arrazoi propioengatik. Ordezkoa izendatuko da, halaber, farmazilari titularra bere zereginetatik bereizten denean, legez kanpoan dagoela deklaratzeko egoeran ez dagoen kasuetan, eta, betiere, denboraz mugatu-rik dauden inguruabarretan.

Farmazilariaren ordezkioak farmazilari titularrak edo bitarteko farmazilariak dauzkan eginkizun, erantzukizun eta bateraezintasun berberak izanen ditu.

2. Farmazilariaren ordezkioa farmaziako titular-jabeak edo bitarteko farmazilariak izendatuko du,

ezindutako edo kanpoan dagoen farmazilariaren oinordekoak edo ordezkariak ados daudela.

22. artikulua. Farmazilari laguntzaileak

1. Farmazien jarduera-bolumenaren, ordutegiaren eta farmazilari titular edo bitartekoaren adinaren arabera, farmazia horrek farmazilari laguntzaileen gutxienezko kopuru bat edukiko du. Farmazilari horiek arauz ezarriko diren irizpideen arabera emanen dute zerbitzua.

2. Farmazilari laguntzaileak farmazilari titularra edo bitarteko farmazilaria ordezkatu ahal izanen du lege honetako 21. artikuluan ezarritako kasuetan, horretarako baimenen beharrik eduki gabe.

3. Farmazilari laguntzaileak farmazilari titularren edo bitarteko farmazilariaren gainbegiradaren pean arituko dira lanean, eta lege honetan bateraezintasunei buruz ezarritako araubidea izanen dute.

23. artikulua. Bitarteko farmazilariak, farmazilarien ordezkariak eta farmazilari laguntzaileak izendatzeko baldintzak.

1. Bitarteko farmazilari, farmazilari ordezko edo farmazilari laguntzaile izendatzen direnek farmaziako lanbidean aritzeko gaitasuna emanen dien titulazioa eta gaikuntza eduki beharko dute.

2. Haien lanbide harremana farmazilari-jabeak, haren oinordekoek edo ordezkariak ezarriko dute, libreki erabakitzen dituzten baldintzei eta araubideari jarrituz. Aplikatzekoak diren legeen arabera ebaztuko da, eta berehala emanen zaio horren berri Osasun Departamentuari.

3. Bitarteko farmazilaria, farmazilariaren ordezkaria edo farmazilari laguntzailea izendatzeko baimena Osasun Administrazioak emanen du, titularrak edo titularrek, oinordekoek edo legezko ordezkariak izendatzen dutenak behar diren baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

24. artikulua. Farmazietako languntzaile teknikoak.

1. Farmazilarien berezko eginkizun ez direnak betetzeko, beharrezko jotzen dituzten farmaziako langile laguntzaile teknikoen laguntza izanen dute.

2. Farmazilari titularrek, bitartekoek nahiz ordezkariak farmazietako langile laguntzaile teknikoen lanbide prestakuntzaren ardura hartuko dute beren gain.

25. artikulua. Lokalak, instalazioak eta identifikazioa

1. Farmazietako lokalek eta instalazioek farmaziako laguntza zuzena bermatzeko beharrez-

koak diren baldintzak beteko dituzte, honako arloetan: lekua, lan arloen banaketa, ekipamendua, baldintza higienikoak eta osasun baldintzak.

2. Farmazi laguntza emateko, baimentzen diren farmaziek, gutxienez, 70 metro koadro izan behar dituzte, eta haietan, gutxienez, ondoko arloak egonen dira:

a) Erabiltzaileari arreta egiteko eta saltzeko arloa.

b) Medikamentuak eta osasun produktuak jaso, berraztertu eta biltzeko arloa.

c) Maisu formulak, farmazi prestakinak edo prestakuntza propioko bestelako produktuak egiteko arloa.

d) Farmazilariaren bulegoa, edo banakako arreta egiteko arloa.

e) Komuna.

3. Farmazi bulegoek bide publikotik sarrera librekoa, zuzena eta iraunkorra izanen dute, arkitektura-oztoporik gabeak.

4. Arauz ezarriko dira farmaziek eduki beharrekoko baldintza teknikoak, materialak eta tresnak.

5. Farmaziak behar bezala identifikaturik egonen dira, letreroak, lanbidearen sinboloak, gurutze greko batez nahiz Maltako gurutze berde batez eta farmaziaren titularra identifikatzeko plaka batez.

26. artikulua. Ordutegiak eta guardiako zerbitzuak

1. Farmazietako osasun laguntza eragingarria bermatzeko, osasun administrazioak, Farmazilarien Elkargo Ofizialari eta kreditaturiko lanbide elkargoei entzunda, jendaurreko ordutegiei, guardiako zerbitzuei eta farmaziak, borondatez, aldi baterako ixteari buruzko gutxienezko arau batzuk ezarriko ditu, farmazi eskualde bakoitzaren biztanleriaren eta geografiaren ezaugarriak begirata.

2. Farmaziek askatasunez eta malgutasunez emanen dute zerbitzua, aurreko idatz-zatian ezarritako gutxienezko arauak betez, betiere.

Osasun Administrazioak ezarritako gutxienezko lanaldi edo orduz goiti lan egiten duten farmaziek aurretik jakinarazi beharko dute hori, eta araubide hori gutxienez ere urtebetez mantendu beharko dute.

27. artikulua. Farmazien publizitatea

Debekatuta dago farmazietan farmaziei buruzko promozio zuzena nahiz zeharkakoa egitea, edozein dela ere hautatzen den euskarria, bitarte-

koa edo banaketa sarea. Salbuespen bakarra bulego horietan saltzen diren produktuen bilgarriak eta ontziak dira.

Horretarako, bilgarri eta ontzietan, nahi izanez gero, datu orokorrak agertu ahal izanen dira; hala nola, farmaziaren titularrak, helbidea eta ordutegiak. Nahitaez, medikamentuen behar bezalako erabilerari buruzko mezuren bat agertu beharko dute.

Hirugarren atala Farmazien plangintza

28. artikulua. Farmazien plangintza

1. Farmazia berriak irekitzeko plangintza jendeari osasun laguntza onena eta egokiena emanen zaiola bermatzeko irizpideen arabera izanen da, bai eta farmazi lanbidean libreki aritzeko eskubideen, enpresa askatasunaren eta ezartzeko askatasunaren arabera ere.

2. Farmazien plangintzak ondokoak hartu beharko ditu kontuan: dentsitate demografikoa, ezaugarri geografikoak eta biztanleen dispersioa. Horrek ondokoak ditu helburu: biztanleen beharren arabera farmazi laguntza egokia, zerbitzuaren irisgarritasuna eta kalitatea, eta medikamentuen hornidura nahikoa egotea, lurralde bakoitzaren osasun beharren arabera.

3. Farmazi plangintza farmazi eskualdeen arabera eginen da; haien lurralde eta populazio mugaketa egun dauden osasun eskualde batek edo batzuek eginen dute.

4. Farmazi eskualdeak ondoko irizpideen arabera sailkatuko dira:

A) Udal baten lurraldea osasun eskualde oinarritzko bat baino handiagoa bada, farmazi eskualdetzat hartuko da udalaren mugatzea.

B) Oinarritzko Osasun Barruti batek udal bakar bat osorik hartzen duenean, farmazi eskualdea bat etorriko da osasun eskualde oinarritzkoarekin eta udalerrarekin.

C) Osasun Eskualde Oinarritzko batek udal bat baino gehiago hartzen duenean, farmazi eskualdea hartuko da osasun eskualde oinarritzkotzat.

5. Hiri-eskualdeak izanen dira farmazi eskualdea aurreko idatz-zatiko A) eta B) letretako edukiarekin bat datorren kasuak; landa-eskualdeak, berriz, gainerakoak izanen dira.

29. artikulua. Populazio moduluak

1. Hona hiri-eskualdeetan egonen diren farmazien kopuru gehienekoa: farmazi bat 1.500 biztanleko.

Hona landa-eskualdeetan egonen diren farmazien kopuru gehienekoa: farmazi bat 2.000 biztanleko.

2. Lege honetan biztanleei buruz egiten diren aipamen guztiak baimena eskatzeko orduan indarra duen udal errondan dagoen populazioari buruzkoak dira.

30. artikulua. Distantziak.

1. Farmazia berri baten kokalekuak gutxienez ere 200 metroko distantzia gorde beharko du hurbilen dagoen farmaziatik, farmazi barruti berekoak izan ala ez.

2. Berritik ezartzen den farmazia baten edo lekuz aldatutako farmazia baten kokalekuak, gutxienez ere, 150 metroko distantzia gorde beharko du beste edozein ospitale publikotatik nahiz osasun laguntza oinarritzko zentrotatik. Distantzia hori ez da aplikatuko farmazia bakarra duten udaletan.

3. Distantziak neurtzeko oinezkoen ibilbide laburra neurtuko da, araz ezarritako prozedurari jarraituz.

31. artikulua. Irekitzeko baimenerako prozedura

1. Farmazia berriak irekitzeko prozedura publizitate, gardentasun eta parte-hartze printzipioen arabera izanen da, lege honetan eta guttiendako administrazio prozedurari buruzko arau orokorretan ezarritakoari jarraituz.

2. Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak du farmaziak irekitzeko baimenak emateko prozedurak izapidatzeko eta ebazteko eskumena.

3. Farmazia berri bat baimentzeko prozedura Osasun Departamentuak berak has dezake, edo bestela interesa duten farmazilari batek edo gehiagok eskatuta.

4. Espediente bati buruzko ebazpen espresu eta arrazoitua gehienez ere hiru hilabeteko epean eman beharko da. Epe hori eskatzaileari ebazpena jakinarazi gabe iraganik, baimena eman dela ulertuko da.

5. Biztanleen udal erroldak aztertu ondoren, Osasun Departamentuak farmazia berriak irekitzeko baimen berriak eman daitezkeen farmazi barrutien eta udalen zerrenda argitaratuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta zerrenda hori jakinaraziko die Farmazilarien Elkargo Ofizialari eta eta lanbide elkarte kreditatuei. Hortik aurrera, hilabeteko epea hasiko da interesdunek farmaziak irekitzeko baimenen eskariak aurkez ditzaten.

6. Eskariak lehia badaude, farmazilari eskaiztaileen merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera ebatziko dira, arauz ezarriko den baremoa aplikatuta. Baremo horretan, merezimendu akademikoak, lanbideari loturikoak, ikerketari buruzkoak eta irakaskuntzari doazkionak balioetsiko dira, bai eta enplegua sustatzen edo sortzen den eta ezgaitasun egoerak ere.

Baremo horretan, lehentasuna emanen zaie farmaziako lanean egindako lanbide merezimenduei, ikerkuntza eta irakaskuntza lanean egindakoei, enplegua sortzearekin loturikoei, ezgaitasun egoerekin loturikoei eta merezimendu akademikoiei.

7. Farmazia baten adjudikazio hartzaile suertatzen direnek farmazia bat adjudikatze espedienteetan alegatu dituzten merezimenduak ezin izanen dira aurkeztu ez eta zenbatu ere aurkezten diren hurrengo adjudikazio espedienteetan.

8. Prozedura ezin izanen da 65 urtetik gorako farmazilari baten alde edo farmazi barruti bereko farmazilari titularren edo titularkideen alde espediente berean bestelako eskaririk ez dagoenean baizik.

32. artikulua. Lizentziak

1. Farmazia berri bat irekitzeko baimena ematen zaionetik, farmazilariak sei hilabeteko epea izanen du lokal horretan jardueran hasteko behar diren administrazio lizentziak lor ditzan. Lokalak 25. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Lizentziak lortzen dituenean, Osasun Departamentuari jakinaziko dio.

Aipatu epea aurreko baldintza bete gabe iragan bada, adjudikazio-hartzaileari ohartaraziko zaio adjudikazioa iraungi egingen dela, guztiendako administrazio prozedurari buruzko legeetan kasu horietarako ezarritako ondorio guztiekin.

2. Departamentuak 1. idatz-zatiak aipatzen duen lizentzia lortu duelako komunikazioa jaso duenean, Farmazi Ikuskaritzako Zerbitzua farmaziara joanen da, hiru eguneko epean, indarra duen antolamenduak exijitzen dituen baldintzak, instalazioak eta dotazioak daudela egiaztatzen duen akta egitera.

Akats edo ez-beteteren bat ohartu bada, idatziz jasoko da, ebazpena emateko ezarritako hamabost eguneko epean zuzen dadin. Baimenaren titularraren eskuetan ez dauden inguruabarrerekin hori posible ez bada –betiere, behar bezala kreditatu beharko da hori– eta zuzendu beharreko horiek farmaziaren berezko eginkizunak betetzeko ezinbestekoak ez diren elementue-

tan gertatzen badira, baimena eman ahal izanen da, baina gero batean eteteko baldintza duela.

3. Akta egin eta hamabost eguneko epean, Osasun kontseilariak farmazia zabaltzeko baimena ematen edo ukatzen duen ebazpena emanen du; baimen hori betearazi egin ahal izanen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lehenago ere.

Epe hori iragan bada ebazpen espresua jakinarazi gabe, zabaltzeko baimena eman dela ulertuko da.

Laugarren atala Lekualdatzeak

33. artikulua. Lekualdatze motak.

1. Borondatezko lekualdatzeak dira farmaziaren titularraren edo titularren borondate librea oinarritzen direnean eta behin betikoak direnean. Lekualdatzeak hurrengo artikuluan ezarritako baldintzei lotu beharko zaizkie.

2. Ezinbesteko lekualdatzeak izanen dira farmaziak ezin duenean segitu dagoen lokal berean zerbitzua eskaintzen, eta ez dagoenean lokal horretara itzuli eta berkokatzeko aukerarik, edo farmazi laguntza behar bezala ematea bermatzen duten baldintzak betetzeko berregokitzerik ez duenean.

3. Behin-behineko lekualdatzeak dira obrak direla-eta gertatzen direnak, obra horiek farmaziaren lokala aldi baterako ixtea ekartzen badute.

Behin-behineko baimena emanen da beste instalazio batzuetan funtzionatzeko, eta horietarako ez da distantzia eskatuko, osasun zentro publiko batena denean salbu. Titularrak, horretarako emanen zaion epean, farmazia lehen zegoen lekura itzultzeko konpromisoa hartuko du eta behartuta dago itzultzera. Epea ez da baimendutako lanek irauten dutena baino luzeagoa izanen.

Emandako epea igaro eta farmazia ez bada lehengo lekura itzuli, behin-behineko baimendutako lokala itxi egingen da.

4. Farmazia baten behin betiko borondatezko edo ezinbesteko lekualdatzeak baimentzeak lekualdatzen den establezimenduaren baimenetik heldu diren eskubideak galtzea eta establezimendua ixtea ekarriko dio titularrari.

34. artikulua. Borondatezko lekualdatzeak.

1. Farmazia bat haren farmazi eremutik atera gabe borondatez lekualdatzeko baimena eskuratzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

A) Lekualdatzea farmazia dagoen udalerritik bertatik atera gabe egitea eta lege honetan ezarritako gutxieneko distantziak gordetzea.

B) Lekualdatzea beste udalerrira batera egiten bada, xedeko udalerrian farmazia bakoitzeko dagoen biztanle proportzioa ez izatea 29. artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa, 30. artikuluko distantzia araubidea betetzea eta jatorriko udalerrira farmaziarik gabe ez gelditzea, betiere azken honek 800 biztanle baino gutxiago ez badu eta gelditzeko konpromisorik ez badago.

2. Farmazia beste farmazi eremu batera lekualdatzeko baimena eskuratzeko, farmazia hartu behar duen eremu horretan bete beharko da biztanle eta distantziatarako 29 eta 30. artikuluetan ezarritakoa, eta jatorriko eremua farmaziarik gabe ez gelditzea.

35. artikulua. Ezinbesteko lekualdatzeak.

1. Farmazietako titularrek ezinbesteko lekualdatzea eskatu ahal izanen dute farmazien lokaletan lanean jarraitzerik ez dutenean, horiek desgertzea nahitaezko egiten duten jarduketa publiko edo pribatuen ondorioz, lokal horietara itzultzeko edo farmazia berkokatzeko aukerarik gabe, edo medikamentuak behar bezala gorde eta zaintzea bermatzen duten baldintzak eta farmazi laguntza emateko behar direnak betetzeko lokala berregokitzea ezinezkoa denean.

2. Behin-behineko zein behin betiko borondatezko lekualdatzearen kasuan, farmaziak farmazi eremu berean edo udalerrira berean ezarri ahalko dira, hurbilen dagoen farmaziatik 150 metrora.

36. artikulua. Lekualdatzeko baimena.

Farmazien lekualdatze guztiak administrazio baimenaren prozedurari jarraituz egiten dira, eta horretarako eskubidea izanen dute lokal berriak lege honen 25. artikuluan eskatzen den guztia betetzen badu eskaera egiten denean.

Bosgarren atala

Eskualdatzea eta bitartekotasuna

37. artikulua. "Inter vivos" eskualdatzea.

1. Farmazia lekualdatze, salmenta edo lagapen oso edo hein batekoaren bidez eskualdatzeko administrazio baimena beharko da, eta beste farmazilari baten eskuetan uzteko baizik ez da egin ahalko. Beharrezkoa izanen da establezimendua jendearentzat irekirik egon izana, titulartasun berberarekin, bi urtez gutxienez, kasu hauetan izan ezik: heriotza, jubilazioa, desgaitzea edo titularraren edo farmazilari titularraren ez egotearen deklarazio judiziala.

2. Farmazia bat kostubidez besterentzean, osorik edo hein batean, hauek izanen dute eskubidea, lehentasunezko ordena honetan: lehen mailako oinordeko farmazilariak, legez bereizirik ez dagoen ezkonlagun farmazilariak, farmazilari jabeak, farmazilari bitartekoa, ordezkaria edo laguntzailea, antzinatasunaren arabera. Nafarroako Zuzenbide Zibilarri jarraituz baliatu ahal izanen da lehentasunez erosteko eskubideaz eta atzera eskuratzeko eskubideaz.

3. Farmaziaren titularrak edo titularrek farmaziaren gaineko berme errealak edo pertsonalak eratu ahalko dituzte, administrazioaren baimena jaso ondoren. Bermeak betetzearen ondoriozko eskualdatzearen kasuan, artikuluko honen 1. idatzatian ageri diren baldintzak bete beharko dira.

4. Doako nahiz kostu bidezko eskualdatzeak prozedura sumarioaren bidez tramitatuko dira.

38. artikulua. "Mortis causa" eskualdatzea. Bitartekotasuna.

1. Farmazia baten farmazilari titularrak hiltzen bada, oinordekoek beren nahia jakinarazi beharko diote Osasun Departamentuari, farmazia eskualdatzeko asmoa duten ala hura behin betiko itxi nahi duten. Jakinarazpen hori, gehienez ere, hamabost eguneko epean egiten da. Epe eta modu horretan egin ezean, farmazia ixteko espedienteari hasiera emanen zaio ofizioz.

2. Oinordekoek, beren nahia adierazi ondoren, titularrak hil eta hilabeteko epean bitarteko farmazilari izendatzeko proposamena egiten diote Departamentuari. Bitarteko egoerak hamabi hilabete iraunen du gehienez, eta epe horretan hartu beharko dute oinordekoek beren erabakia. Baldin eta epe hori farmazia eskualdatzea edo ixtea eskatu gabe igarotzen bada, administrazio baimena iraungi egiten da, eta farmazia ixteko espedientea tramitatzeari ekinen dio administrazioak bere kabuz.

3. Oinordekoren batek farmaziaren titularrak izateko baldintzak betetzen baditu, horren buru segitu ahalko du; Osasun Departamentuan frogatu beharko da hala dela, behar den baimena luza dezan.

4. Farmazia baten zati hainbanatua besterentzean bada, farmazilari lanbidean aritzeko beharrik ez dutenak betetzen dituztenak lehentasunez erosteko eskubideaz eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatu ahal izanen dira, Nafarroako Zuzenbide Zibilarri ezarritako ordena eta araubidearen arabera.

39. artikulua. Eskualdatzeak dauzkan mugak.

1. Farmaziak ezin izanen dira eskualdatu, titularrak beste farmazia bat irekitzeko baimena eskatzen badu, baimen berria behin betikoa eta irmoa ez den bitartean.

Titularkidetasunaren kasuan, muga honek irekitzeko eskaera berria egin duen titularkidea baidarik ez du hartzen.

2. Farmazia baten titularrak beste farmazia bat irekitzeko baimen irmoa lortzen badu, lehen baimena iraungi eginen da, automatikoki, farmazia eskualdatzeko eskubidea galdu eginen du, eta farmazia itxi eginen da.

Titularkidetasunaren kasuan, baimena galduko du soilik irekitzeko lizentzia berria eskuratu duen titularkideak, eta gainerako titularkideek bestean segituko dute.

3. Titularra lanbiderako desgaitzen duen administrazio edo zigor zehapenaren ondorioz gertatzen bada ezinbesteko ixtea, titularrak ezin izanen du eskualdatu farmaziak itxita segitzen duen bitartean, desgaitzea aldi baterako baldin bada, eta inongo kasutan ere, desgaitzea behin betikoa bada.

4. Farmazia bat irekitzeko baimena baliogabeteak, edozein arrazoi dela ere, ixtea eta bertan betetzen den lanbide jarduera amaitzea dakartza berarekin. Horrek ez du eraginen higiezinaren, instalazioen, ondasunen eta tresnen gaineko eskubideei; horien gaineko egintzak ere eman ahal izanen dira.

40. artikulua. Eskualdatze eta bitartekotasuneko beste kasu batzuk

1. Farmazilari titularra epai batek desgaitzen badu, epaileak edo administrazioak haren ausentzia edo ezintasun iraunkorra deklaratzeko badu, guztizkoa, erabatekoa edo handia graduatan, ezkonlaguna, lehen mailako oinordekoak, desgaituaren legezko ordezkaria edo ausentziaren deklarazioa eskatu dutenak arituko dira 38. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2. Desgaitze kasuetan edo ausentzia deklaratzeko denean bitartekotasun egoerak desgaitu edo ausente deklaraturakoak jubilatzeke adinera ailegatu arte iraunen du. Epea iraganik, sei hilabetetan farmazia eskualdatu edo itxiko da.

3. Jubilazio kasuetan, bitartekotasunak sei hilabeteko gehieneko epea iraunen du, eta epe hori amaiturik farmazia itxi eginen da, eskualdatu ez bada.

Seigarren atala
Instalazioak eta lokalak aldatzea**41. artikulua.** Obrak.

1. Lege honen ondorioetarako, obratzat joko da udalaren baimena behar duen farmazi lokalaren taxukeraren aldaketa oro.

2. Sarbideari, azalerari edo barne antolamenduari eragiten dieten obrek farmaziaren egitura aldatzea badakarte, aldeztu aurretik Osasun Departamentuaren baimena beharko dute. Gainerako obretarako nahikoa izanen da obrak egin ondoren aipaturako departamentuari horien berri ematea.

3. Obren ezaugarriak eta horiek farmazi laguntza ematerakoan duten eragina kontuan hartuz, Osasun Administrazioak farmazia aldi baterako itxeko baimena eman dezake edo behin-behineko lekuz aldatzekoa.

4. Lege hau indarrean sartu baino lehenago ezarritako farmazietako lokalaren taxukera aldatzea dakarten obrek, baldin eta 25. artikuluan ezarritako baldintzetara egokitzeko helburua badute, ez dute 30. artikuluan ezarritako distantzia neurketa berria jarraituko.

5. Artikulu honetan aipatzen diren obrak baimendu eta horien berri emateko prozedurak erregelamendu bidez ezarriko dira. Agindu honetan ezarritako baimenak hilabeteko epean emanen dira; bestela, administrazioaren isiltasuna dela medio, emanik daudela ulertuko da.

Zazpigarren atala
Farmaziak ixtea**42. artikulua.** Ixtea.

1. Farmazia norberaren borondatez aldi baterako edo behin betiko itxeko, nahitaezkoa izanen da administrazioaren baimena.

Baimenaren titularrak lanbidean aritzeko gai gabetzen duen zehapenen bat jasotzen badu, dela administratiboa dela penala, farmazia aldi baterako edo behin betiko itxiko da.

2. Farmaziak aldi baterako itxtea baimenduko duten arrazoiak erregelamendu bidez ezarriko dira. Ixte hori nahitaezkoa edo borondatezkoa izan ahalko da. Azken kasu horretan, itxialdiak ezingo du bi urte baino gehiago iraun.

3. Farmaziak behin betiko edo aldi baterako itxi ahalko dira herritarrei farmazi laguntza bermatzeko eta baita medikamentu eta gainerako osasun produktuen zainketa, kontserbazioa eta itzulketa edo suntsiketa bermatzeko neurri egokiak

hartu ondoren; betiere, erregelamendu bidez ezartzen den prozedurari jarraiki.

II. kapitulua Botikinak

43. artikulua. Botikinak.

1. Botikin bat irekitzea baimendu ahalko da, legeari jarraiki farmazia irekitzeko baimena emateko eskatzen diren baldintzak betetzen ez diren toki entitateetan, eta baita uruntasun arazoak, hurbilen dagoen farmaziarekiko komunikazio zaila, urte-sasoiko kontzentrazio handiak edo larrialdiko bestelako egoerak gertatzen diren etan ere.

2. Botikina hurbilen duen farmaziari lotuko zaio, bere titular edo titularrek berariaz uko egiten ez badiote behintzat. Kasu horretan, hurbiltasunaren arabera hurrengo farmaziari lotuko zaio. Farmazia bakoitzak berorri lotutako botikin bat baino ezingo du izan.

3. Botikinean, farmazilariak eman beharko ditu medikamentuak.

4. Botikina dagoen udalerrian farmazia bat irekitzeak hura ixtea ekarriko du.

5. Botikina instalatzeko betebeharrak eta baldintzak, baimentzeko prozedura eta funtzionamendu araubidea erregelamendu bidez ezarriko dira. Halaber, ixteko prozedura eta hori eragin dezaketen arazoak, izan behar duten medikamentuen eta osasun produktuen oinarritzko gordetegia eta farmazilariaren eginkizunak ere ezarriko dira.

III. kapitulua Oinarritzko osasun laguntzako farmazi zerbitzuak

Lehen atala farmazi zerbitzuak

44. artikulua. Definizioa eta antolamendua.

1. Oinarritzko osasun laguntzako zerbitzuek, bai kuantitatiboki eta kualitatiboki, medikamentuen erabilerarekin zerikusia duten funtzioak eta jarduerak bildu eta egituratuko dituzte. Horien helburua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak oinarritzko osasun laguntzan medikamentuei ahalik eta erabilerara arazoizkoena ematea da, betiere osasun administrazioak ezartzen dituen jarraibideekin bat.

2. Oinarritzko osasun laguntzako osasun zerbitzuak hornitzen dituzten entitateek eta titulartasun publikoa dutenek soilik izan ahalko dituzte farmazi zerbitzu bereziak. Farmazi zerbitzu horiek farma-

zulari baten ardurapean egonen dira; dena den, farmazilari laguntzaileak izendatu ahalko ditu.

3. Farmazi zerbitzua nahitaez behar duten oinarritzko osasun laguntzako zentroak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

45. artikulua. Eginkizunak.

Oinarritzko osasun laguntzako farmazi zerbitzuek ondoko eginkizunak bete beharko dituzte:

a) Oinarritzko osasun laguntzako zentroetan erabili beharreko medikamentuak edo, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorren 103. artikuluan ezarritakoari jarraituz, zainketa, gainbegiratze eta kontrol berezia behar dutenak eskuratu, zaindu, kontserbatu eta ematea, bai eta zentro horietan aplikatu beharreko maisu-formulak eta farmazi prestakinak prestatzea –betiere ezartzen diren kalitate kontrolei jarraituz–. Emate eta prestatze hori farmazilariak eginen du, edo haren gainbegiradapean eta ardurapean eginen da, medikuaren aginduari jarraituz.

b) Medikamentuen erabilera arazoizkoa sustatzeko programak eta jarduerak planifikatu, koordinatu, gauzatu eta ebaluatzea.

c) Patologia jakin batzuen inguruko medikamentuen erabilera aztertu eta ebaluatzea, horien eragite eremuan, eta batez ere, farmakozaintzako sistemarekin medikamentu horien kontrako efektuak antzemateko lanean parte hartzea.

d) Osasun arloko langileei eta sektoreko kudeaketa organoei, medikamentuei, osasun produktuei eta erabilgarri den gai orori buruzko aholkuak ematea.

e) Osasuna sustatzeko, eritasunei aurrea hartzeko eta herritarrei osasun arloko heziketa emateko programak prestatzen eta gauzatzen parte hartzea.

f) Herritarren medikamentuen erabilerari buruzko osasun arloko heziketa, batez ere, laguntza berezia behar duten taldeei zuzenduriko programak eginez.

g) Oinarritzko osasun laguntzaren eremuan, ikerketa programak prestatu eta gauzatzea.

h) Osasun laguntza oinarritzko langileentzako irakaskuntza eta informazio programak egitea eta betearaztea.

i) Osasun laguntza oinarritzko ekipoen eta ospitaleetako, zentro soziosanitarioetako eta zentro psikiatrikoetako farmazi bulego eta farmazi zerbitzuetako ekipoen artean behar den koordinazio erraztea, medikamentuaren behar bezalako erabilera bultzatzeko eta lantzeko jardueretan,

osasunaren sustapen jardueretan, osasun hezkuntzan eta gaixotasunei aurrea hartzeko jardueretan.

j) Estupefaziante eta psikotropoen arloan indarra duen legedia bete dadin begiratzea.

Bigarren atala Medikamentu-gordetegiak

46. artikulua. Medikamentu-gordetegiak

1. Farmazi zerbitzurik ez duten osasun laguntza oinarrizkoko zentro publikoek eta arauz ezarriko diren titulartasun pribatuko zentroek medikamentu-gordetegi bat izanen dute, farmazi barrutiko farmazietako bati lotua.

2. Gordetegiak aipatu zentroarekin duen lotura alde batera utzita, farmazilari batek atendituko du, eta bera izanen da Lege honetako 45. artikuluan ezartzen diren eginkizunen ardura bere gain hartuko duena. Gordetegiaren jabearen menpe egon da, betiere.

IV. kapitulua Farmazi zerbitzuak eta medikamentuen gordetegiak ospitaleko, zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako eta espetxeetako medikamentu-gordetegiak

Lehen atala Farmazi zerbitzuak

47. artikulua. Farmazi zerbitzuak

1. Ospitaleetako, eta, kasua bada, zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako eta espetxeetako farmazi laguntza kasuan kasuko farmazi zerbitzuen edo medikamentu-gordetegien bitartez gauzatuko da.

2. Foru Lege honek ezarritako ondorioetarako, zentro soziosanitariotzat hartuko dira biztanle sektore jakin batzuei –esate baterako, 65 urtetik gorako pertsonak, ezgaituak edo dauzkaten osasun baldintzengatik zentroak ematen dizkien laguntza sozialez gainera osasun laguntza berariazkoak behar duten gainerakoak– barnetegi araubidean laguntza ematen dietenak.

Ondorio horietarako, zentro psikiatrikotzat hartuko dira gaixotasun psikiko eta psikiatrikoen diagnostikoa eta tratamendua helburu dutenak.

Espetxetzat hartuko dira helburu nagusi gisa alde batetik askatasuna kentzeko zigorrak edo zigor neurriak epai bidez jaso dituztenak berriz hezitzea eta birgizarteratzea eta bestetik atxilotuak, presoak eta zigortuak eduki eta zaintzea helburu dutenak.

3. Nahitaezkoa izanen honako hauetan farmazi zerbitzua ezartzea:

a) Ehun edo gehiago ohe dituzten ospitale guztietan.

b) Daukaten ahalmenarengatik edo ematen duten medikuntza laguntza motarengatik nahiz laguntza farmakologiko motarengatik arauz ezarriko diren ehun ohe edo gutxiagoko ospitaleetan.

c) Gaixoen kopuruaren eta egiten diren tratamenduen arabera arauz ezarriko diren zentro psikiatrikoetan.

4. Ospitaleko farmazi zerbitzuaren arduraduna ospitaleko farmaziako espezialitatea egin duen farmazilari bat izanen da. Haren erantzukizunaren menpe garatuko dira lege honetan aurreikusitako eginkizunak. Zentro motaren arabera eta hartan egiten diren jardueren kopuruaren arabera, arauz ezarriko da farmazilari laguntzaileak eta farmaziako langile laguntzaile teknikoak edukitzea beharrezkoa den.

5. Halaber, arauz ezarriko da farmazi zerbitzuak baimentzeko prozedura eta haien kokalekuari loturiko baldintzak eta osasun baldintza teknikoak. Ezin izanen dira inolaz ere izan lege honetan farmazietarako ezarritakoak baino gutxiago.

6. Farmazi zerbitzuen antolamenduak eta funtzionamendu araubideak bidea eman beharko du medikamentuak edukitzeko eguneko hogeita lau orduetan.

48. artikulua. Eginkizunak

Aurreko artikulua aipatzen dituen farmazi zerbitzuek ondoko eginkizunak bete beharko dituzte:

a) Erantzukizun teknikoa bermatu eta bere gain hartzea, ondoko kasuetan: zentroaren barruan aplikatzekoak diren, alde batetik, maisu formulak edo farmazi prestakinak erostea, konterbatzea, haien beharrak betetzea eta haiek zaintzea eta prestatzea, eta, bestetik, behar diren medikamentuak eta osasun produktuak ematea; azkenik, osasun laguntzako disziplina arteko eki-poaren zainketa, gainbegiraketa eta kontrol berezia behar duten medikamentu eta osasun produktuen kasuan.

b) Zentroak eduki behar dituen medikamentuen eta osasun produktuen hautapen prozesuan parte hartzea, eraginkortasuna, segurtasuna, kalitatea eta kostua izanik, betiere, jarduteko irizpideak.

c) Medikamentuak zentroan banatzeko sistema eraginkor eta seguru bat ezartzea, medika-

mentuak banakako dosietan egokiro emanen eta banatuko direla bermatzeko, bai zerbitzua dagoen lokalean bai solairuetan ere; produktuak jaso behar dituzten gaixo guztien izenen zerrenda ere eginen da.

d) Medikamentuen arloan, osasun arloko langile guztientzako –bai eta zentroko gaixoentzako ere– informazio eta prestakuntza sistema bat ezartzea.

e) Zentroko medikamentuen banakako erabilera zaintzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezartzen laguntzea, dauzkaten aurkako eraginak antzeman ahal izateko, eta haien berri emateko farmakozaintzako sistemari.

f) Ospitale barreneko farmakozaintzako programak egitea, Foru Komunitateak ezarritako programekin koordinatuta.

g) Medikamentuaren eraginari ahal den eta eraginkortasun handiena emateko lan guztiak egitea, eta haren erabilera ahal den eta arrazoizkoena izan dadin lortzea.

h) Medikamentuak eta osasun produktuak hautatu eta zientifikoki ebaluatzeko zentroan dauden batzordeetan parte hartzea.

i) Medikamentuen eta osasun produktuen arloan ikerketa lanak egitea eta entseiu klinikoetan parte hartzea, bai eta ikerketa klinikoaren fasean produktuen zaintza eta aplikazioa begiratzea ere.

j) Farmazi zerbitzuekin batera lan egitea osasun laguntza oinarritzkoan.

k) Estupefaziante eta psikotropoei buruzko legeak betetzen direla begiratzea.

Bigarren atala Medikamentu-gordetegiak

49. artikulua. Medikamentu-gordetegiak.

1. Farmazi zerbitzurik ez duten eta horretara beharturik ez dauden ospitale eta zentro psikiatrikoek, bai eta zentro soziosanitarioek ere, farmazi eremu berean dagoen farmazia bati lotutako medikamentu-gordetegia izanen dute.

2. Gaixo mota jakin batzuentzako tratamendu bereziak ematen diren osasun zentroetan, medikamentuen gordetegiak ezarriko dira erregelamendu bidez, baldin eta tratamendu horiek edo laguntzako beharrek hala eskatzen badute.

Halaber, espetxeetan ere medikamentuen gordetegiak ezarriko dira, betiere, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintza eta betebeharrei jarraituz.

3. Era berean, medikamentuen gordetegiak baimentzeko prozedura arautuko da, bai eta beraien betebeharrak, kokapen eta baldintza tekniko eta sanitarioak ere.

4. Gordetegiak 1. puntuan aipatutako zentro horiekin izan dezakeen lotura edozein delarik ere, farmazilari bat arituko da bertan, zentro horien kargura, eta eginkizun hauek bete beharko ditu:

a) Zentroan erabiltzekoak diren medikamentuen kontserbazio, zainketa eta emate zuzena bermatzea.

b) Ditutzen ezaugarri bereziak direla-eta, osasun laguntzako diziplina anitzeko ekipoaren zainketa, gainbegiraketa eta kontrola behar duten medikamentuei dagokienez, horien kontserbazio, zainketa eta ematea bereziki bermatzea.

c) Medikamentuen administrazio zuzena bermatuko duten neurriak ezartzea, horiek banatzeko sistema seguru eta eraginkorra ezarri.

d) Gaixoari eta zentroko langileei medikamentuei buruzko argibideak ematea eta horien erabilerrari buruzko ikerketa sistematikoak egitea.

e) Zentro barruan, gizabanakoek medikamentuei ematen dieten erabilera zaindu eta kontrolatzeko sistema ezartzen laguntzea, izan ditzaketen kontrako efektuak antzeman eta farmazi zainketa-kon sistemari jakinarazteko.

f) Farmaziako titularrarekin edo gordetegiarekin lotura duen farmazi zerbitzuko buruarekin batera, medikamentuak izatearen eta horien mugimenduen gaineko erantzunkizuna hartzea. Helburua, zentroan dauden medikamentu behar guztiei erantzutea da.

g) Estupefaziante eta psikotropoen gaineko legeria betetzen dela zaintzea.

5. Farmazi zerbitzuen antolaketak eta funtzionamendu araubideak eguneko 24 orduetan medikamentuak eskuratzeko bide eman behar du.

V. kapitulua Gizakientzako medikamentuen eta osasun produktuen banaketa

50. artikulua. Farmazi produktuak banatzeko zentroak.

1. Banaketa-biltegiak dira laborategi fabrikatzaileen eta farmazi espezialitateak eta medizina arloko sustantziak inportatzen dituztenen eta legez baimenduriko farmazien eta farmazi zerbitzuen artean, horiek emateko, bitartekotza librean aritzen diren osasun establezimenduak.

2. Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuetan egiten den medikamentu eta osasun produktuen banaketa medikamentu eta farmazi produktuen banaketa-biltegi edo zentroen bidez egin ahalko da.

3. Banaketa-biltegiak, instalatu eta funtzionatu ahal izateko, bai eta lekuz aldatu, handitu edo bestelako aldaketak egiteko, administrazioko osasun arloko baimena beharko dute. Horien instalaziorako, funtzionamendurako eta Foru Komunitatean aritu ahal izateko baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira.

51. artikulua. Funtzionamendu baldintzak.

1. Banaketa-biltegi edo -zentroek medikamentuen kalitatea eta identitatea ziurtatu eta bermatzeko beharrezkoak diren instalazio eta lokalak izanen dituzte.

2. Banaketa-biltegi bakoitzean farmazizuzendari tekniko bat egon beharko da eta berorren buru izateaz gain funtzionamendu egokia bermatu beharko du.

3. Nafarroako Foru Komunitateko banaketa-biltegiak medikamentuen eta farmazi produktuen kopuru nahikoa izan beharko dute, normalean hornitzen dituzten establezimenduen hornikuntza bermatzeko. Horretarako, momentu orotan, Osasun Departamentuak zehaztutako gutxienezkoen zerrendako medikamentu eta produktuak izan beharko dituzte.

52. artikulua. Osasun arloko agintariekiko lan-kidetza

Banaketa-zentroek 8. artikuluan ezarritako larrialdi sisteman parte hartuko dute, farmazi produktuen horniketa edo erretiratzea bermatzeko.

VI. kapitula **Animalientzako medikamentuak** **banatu eta ematea**

53. artikulua. Albaitaritzako medikamentuen banaketa.

1. Legez baimenduriko establezimenduei handizkako banaketa-biltegien bidez banatuko zaizkie albaitaritzako medikamentuak.

Albaitaritzako medikamentuak banatzeko biltegiak horiek berak arautzen dituen legedian aurreikusitako betebeharrak tekniko sanitarioak bete beharko dituzte. Gainera, arduraduna izanen den zuzendari tekniko bat izanen dute eta Foru Komunitateko Osasun Administrazioaren baimena beharko dute.

54. artikulua. Albaitaritzako medikamentuak ematea.

Albaitaritzako medikamentuak eman ahalko dituzte behar bezala baimendutako farmaziek, abeltzaintzako entitate edo elkarteek, beraien kideek soilik erabiltzeko badira, eta txikizkako merkataritza establezimenduek.

55. artikulua. Albaitariek erabiltzeko medikamentuak banatu eta emateko baldintzak

1. Albaitaritzako medikamentuak banatu eta emateko baimena duten zentroek giza baliabide eta baliabide tekniko eta material nahikoak dituzten instalazioak izan beharko dituzte, beraien egitekoak osasun publikorako eta animalien osasunerako berme guztiekin burutu ditzaten.

2. Baimendutako zentroek medikamentuak kontserbatzeko baldintza orokorrak edo partikularak zaindu beharko dituzte.

Halaber, ondoren zehazten diren gutxienezko datuak jasoko dituen dokumentazio zehatza gordeko dute: data, medikamentuaren identifikazio zehatza, lotearen zenbakia, jasotako kopurua eta emandakoa, eta hornitzaile edo hartzailearen izena eta helbidea. Dokumentu hori ikuskaritzaren esku egonen da hiru urtez, gutxienez.

3. Baimendutako zentroek farmazian lizentziaturiko batek zuzendutako farmazi zerbitzua izanen dute. Banaketa zentroak subsidiarioak badira ere, horiek adina farmazi zerbitzu egon beharko da.

4. Jendeari medikamentuak emateko zentroek merkaturatzeko legez eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzten albaitaritzako medikamentuak eta produktu zoosanitarioak izanen dituzte soilik. Farmaziek salbu, jendeari medikamentuak emateko zentroek ezingo dituzte gizakientzako medikamentuak izan, ez eta merkaturatu ere.

5. Baimendutako zentroek albaitariek agindutako albaitaritzako medikamentuak emanen dituzte, soilik dagokion errezeta aurkeztu ondoren.

6. Gai estupefaziante edo psikotropikoak dituzten farmaziako albaitaritza-espezialitateak emateko araudi bereziari jarraituko zaio.

7. Guztiz debekatua dago albaitaritzako medikamentuak saltzea etxez etxe edo, orobat, zeharkako beste edozein modutan. Horrek ez du eragoztiko legez ezarritako entitateei egin ahal zaien banaketa edo hornidura.

56. artikulua. Larrialdietarako botikinak.

1. Aurreko artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak larrialdietarako botikinak jartzea bai-

menu ahalko du, albaitaritzako medikamentuak banatzeko baimendutako zentro hurbilena urrun badago edo horretarako premia bizia badago.

2. Larrialdietarako botikinek Albaitaritzako Medikamentuei buruzko urtarilaren 27ko 109/1995 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz funtzionatuko dute.

III. TITULUA Farmazietako profesionalak

57. artikulua. Prestakuntza etengabea.

Osasun Departamentuak Farmazilarien Elkar-go Ofizialarekin, kreditatutako elkarte profesionalekin eta hezkuntza arlorreko entitate edo erakundeekin eta baita zientifiko sanitarioekin ere, farmaziako profesionalen prestakuntza etengabea bultzatuko du. Helburua da, beraien ezagutzak nahikoak eta eguneratuak direla bermatzea, herri-tarrei zerbitzurik hoberena eman ahal izateko.

58. artikulua. Bateriaezintasunak.

1. Oro har indarrean dauden bateraezintasunak eragotzi gabe, lege honetan araututako establezimendu eta zerbitzuetan farmazilariak egin beharreko jarduera profesionala bateraezina da medikamentuak edo osasun produktuak fabrikatzeko interes ekonomikoak izatearekin.

2. Farmazilariak farmazian egin beharreko jarduera profesionala, edozein modutan gertatzen delarik ere, bateraezina da ondoko hauekin:

a) Farmazi laguntzako gainerako establezimendu eta zerbitzuetan aritzea, botikinetan eta medikamentu-gordetegietan salbu.

b) Medikuntza, odontologia eta albaitaritzako jarduera klinikoak.

c) Jendeari laguntzeko ohiko ordutegian, oro har, farmazilariaren presentzia fisikoa galarazten duen beste edozein jarduera profesional.

IV. TITULUA Medikamentuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea

59. artikulua. Medikamentuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea.

1. Osasun Departamentuak farmaziako profesionaleri edo, oro har, herritarrei zuzendutako medikamentu eta osasun produktuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea benetakoa dela eta kontsumora ez duela bultzatzen zainduko du.

2. Publizitateko objektu izan daitezkeen eta Nafarroan soilik hedatzen diren farmaziako espezialitateen publizitate mezua Osasun Departamentuak baimenduko ditu, ezarritako betebeharreari jarraituz. Baimena eskuratzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

3. Osasun Departamentuak Nafarroan osasun arloko profesionaleri zuzendutako farmaziako espezialitateei buruzko informazio eta sustapena farmaziako espezialitateen erregistroan dauden datuen arabera, zehatza, objektiboa eta okerrik egiteko biderik ematen ez duena dela zainduko du. Beharrezkoa den informazio eta sustapen horren kontrola egiteko, Osasun Departamentuak erabilitako informazio eta sustapen baliabide guztiak eskuratu ahalko ditu, edozein delarik ere horien euskarria.

V. TITULUA Zehapen araubidea

60. artikulua. Arau-haustekak.

1. Lege honetako aginduak eta berori garatzeko emanen diren arauak haustekak administrazioaren zehapenak eragingo ditu, dagokien espedientearen instrukzioa egin ondoren; dena den, honek ez ditu eragotziko egon daitezkeen erantzukizun zibilak, penalak edo beste maila batekoak.

2. Arau-haustekak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, ondorengo irizpide hauei jarraiki: osasunarentzat arriskutsua izatea, lortutako behin-behineko etekinaren zenbatekoa, nahita egin den ala ez, sortutako aldaketak gizartean eta osasunean zenbaiterainoko eragina duen, arau-haustearen orokortasuna eta arau-hausleak lehendik ere halako arau-haustekak egin dituen ala ez.

3. Honako arau-hauste hauek administrazioko hutsegiteak izanen dira eta hurrengo artikuluan ezarri bezala zehatuko dira:

a) Arau-hauste arinak:

1.- Zein baldintzaren arabera eman zen baime-na, baldintza horietako edozein aldatzea titularrak.

2.- Entitateek zein pertsona arduradunek ez ematea ematera behartuta dauden datuak osasun, teknika, ekonomi, administrazio eta finantza-arrazoiak direla medio.

3.- Real Farmacopea Españolaren eta Formulario Nacionalaren alerik ez izatea, horretara behartuta dauden establezimenduetan.

4.- Medikamentuak banatzen eta ematen dituzten entitateek ez izatea behar beste sendagai egoki; alegia, beren ohiko zerbitzuak emateko

behar adina ez izatea; eta ezarrita dauden gutxieneko izakinak ez edukitzea.

5.- Medikamentuen gutxieneko izakinak ez edukitzea larrialdi edo hondamen kasuetarako, horretara beharturik badaude.

6.- Ikuskatzaileen lana oztopatzea, haien lana eragozten duen edo atzeratzen duen edozein egintzaren edo ez-egiteren bidez.

7.- Errezetaren balioaldia igaro eta sendagaiak ematea.

8.- Errezeta normalizatuek izan behar dituzten datuak eta gaztiguak zuzen ez betetzea.

9.- Posible denean, farmaziako espezialitate bat beste batez ordeztzea, baldin eta horretarako ezarritako dauden baldintzak betetzen ez badira.

10.- Merkaturatu aurretik, farmaziako espezialitateen fitxa teknikoa ez ematea jardunean dauden medikuei.

11.- Fitxa teknikoko, prospektuetako eta etiketetako testuak aldatzea, behar den baimenik gabe.

12.- Maisu-formulen edo farmaziako prestakinen publizitatea egitea.

13.- Medikamentuak ebaluatu eta kontrolatzeko, osasun administrazioarekin elkarlanean aritu beharra ez betetzea.

14.- Farmaziako espezialitateen prezioak administrazioak ezarritakora ez egokitzea.

15.- Lege honetan eta hau garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzak, eginbeharrak edo debekuak ez betetzea, baldin eta, artikulua honetan ezarritako irizpideen arabera, arintzat hartzea merezi badu, edo ez bada bidezko arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartzea.

16.- Medikamentuen ekoizpenean, egitean eta merkaturatzean zuzeneko edo zeharkako interesak dituen pertsonak zuzenean edo zeharka edozein pizgarri, hobari edo opari ematea sendagaien preskripzioan, ematean eta administrazioan esku hartzen duten osasun profesionalei, edo bere senide eta beraiekin bizi diren pertsoneri.

b) Arau-hauste larriak:

1.- Nahitaezkoa den baimena izan gabe, pertsona fisiko nahiz juridikoek medikamentuak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu eta banatzea.

2.- Medikamentuak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu eta banatzean ez egitea osasun-legeriak agindutako kalitate-kontrolak, edo baliozkotu

gabeko prozeduren bidez egitea fabrikazioa edo kontrola.

3.- Medikamentuak egin, fabrikatu eta banatzen diharduen entitate batek ez izatea zuzendari tekniko bat, izendatua eta lanean; kasu bakoitzean behar diren gainerako langileak ez edukitzea.

4.- Farmazi zerbitzuek eta farmaziek lanean jardutea farmazilari arduraduna bertan izan eta bertan lan egin gabe.

5.- Zuzendari teknikoak eta gainerako langileek ez betetzea beren karguei dagozkien beharrikunak.

6.- Behar bezala akreditaturiko ikuskatzaileen jarduna eragozte, sendagaiak egin, fabrikatu, banatu eta ematen dituzten zentroetan.

7.- Legez ezarritako baldintzak bete gabe prestatzea maisu-formulak eta farmaziako prestakinek.

8.- Agindutakoak bete gabe banatzea edo kontserbatzea sendagaiak; aldatuta, egoera kaxkarrean edo, balioaldia adierazi denean, hura igarota saltzea sendagaiak.

9.- Ikerketa fasean dagoen produktu bat erabiltzea pertsonengan edo kontsumorako animalien gain, horrela kalifikatzen duen deklarazioa egin aurretik.

10.- Administrazio baimenik izan gabe, entsegu klinikoak egitea.

11.- Fabrikatzaileek, inportatzaileek eta medikamentuen baimenen titularrek osasun arloko agintariei medikamentuek dituzten kontrako efektuen berri ez ematea.

12.- Osasun arloko langileek farmakozaintzarik ez egitea.

13.- Baimena duten establezimenduetan ez beste batzuetan, txertoak eta alergenok banan-banan prestatzea.

14.- Baimena duten establezimenduetan ez beste batzuetan, medikamentuak ematea.

15.- Arrazoi egoki bat izan gabe medikamentuak ukatzea, eta errezetarik gabe ematea preskripzio mota horretan sartzen diren medikamentuak.

16.- Farmaziako espezialitateak ematean ordezkapena egitea Medikamentuei buruzko abenduaren 20ko Legeko 90. artikuluan xedatutako urratuz.

17.- Erabiltzaileak farmazia aukeratzeko duen askatasuna urratzen duen egintza edo ez-egite oro.

18.- Errezetak eta medikuaren aginduak tramitatzean, konfidentzialtasuna eta gaixoen intimitatea ez zaintzea osasun langileek, hori eginbeharrekoa baitute.

19.- Baimendu gabeko medikamentuen sustapena eta publizitatea egin edo informazioa ematea; edo, egintza horiek gauzatzean, ez lotzea merkaturatzeko baimenean ezarritako baldintzei, lege honetan xedatutakoari eta publizitateari buruzko legeri orokorrean araututakoari.

20.- Preskripzio, emate eta administrazio zikloan inplikaturako osasun profesionalen jarduera, baldin eta lanean badira, bisita medikoen delegatuen funtzioarekin, bai eta ordezkarien, batzordekideen edo farmaziako espezialitateetako laborategien agente informatzaileen funtzioarekin ere.

21.- Arau-hauste arinetan berrerortzea; baita arintzat hartu diren arau-hausteetako bat egitea ere, baldin eta artikulu honetako lehenengo idatztatian aipatzen diren inguruabarrak era larrian agertzen badira.

c) Arau-hauste oso larriak:

1.- Medikamentu gisara aurkezten diren arren, legeak halakotzat onartu ez dituen produktu eta prestakinak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu, banatu, merkaturatu, preskribitu eta ematea.

2.- Nahitaezko osasun baimena lortu gaberik, medikamentuak merkaturatzea.

3.- Gizakiaren odola, jariakinak, guruiak zein ehunak, eta horien osagaiak zein deribatuak inportatu eta esportatzea, alde zuzeneko baimena izan gabe.

4.- Osasun agintari eskudunek, osasun publikoaren inguruko arrazoi larria dela-eta, medikamentuei buruz hartutako zehaztasuneko neurriak eta behin betiko neurriak ez betetzea.

5.- Azken bost urteetan arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.

6.- Zein protokolotan oinarritu ziren entsegu klinikoetarako baimena emateko, protokolo horien edukiri ez jarraitzea entsegua burutzean; edo, bestela, entseguko subjektua izanen den pertsonaren edo haren ordezkariaren baiezkorik gabe jardutea, edo subjektu gisara parte hartzen duen horri entsegu klinikoari buruzko informaziorik ia batere ez ematea, informazioa eman beharra baitago.

7.- Sendabide sekretuak prestatzea.

8.- Hobariak, opariak, sariak, lehiaketak edo antzekoak eskaintzea, Medikamentuei buruzko Legean arautzen diren produktuak sustatzeko eta saltzeko metodo gisara.

9.- Arau-hauste larrietan berrerortzea; baita larritzat hartu diren arau-hausteetako bat egitea ere, baldin eta artikulu honetako bigarren idatztatian aipatzen diren inguruabarrak era larrian agertzen badira.

61. artikulua. Zehapenak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako arau-hausteak zehatuko dira mailakatze bat eginez (txikiak, erdikoak eta handiak) arau-hauste mota bakoitzaren baitan, kontuan izanik arduragabekeria, nahita egin den ala ez, elkar hartzea edo emandako gatziguak ez betetzea gertatu den, entitatearen negozioen zerbatekoa, eragindako kaltea, ukitutako pertsonen kopurua, arau-haustearekin lortutako etekinak, eta sortutako arriskuen iraupena.

2. Zehapenen graduazioa.

a) Arau-hauste arinak:

Txikiak: 100.000 pezeta bitarte.

Erdikoak: 100.001 pezetatik 300.000 pezetara bitarte.

Handiak: 300.001 pezetatik 500.000 pezetara bitarte.

b) Arau-hauste larriak:

Txikiak: 500.001 pezetatik 1.150.000 pezetara bitarte.

Erdikoak: 1.150.001 pezetatik 1.800.000 pezetara bitarte.

Handiak: 1.800.001 pezetatik 2.500.000 pezetara bitarte; zerbateko hori gaintu egin daiteke, arau-haustearen xede izan diren produktuen edo zerbitzuen balioaren boskoitzera iritsi arte.

c) Arau-hauste oso larriak:

Txikiak: 2.500.001 pezetatik 35.000.000 pezetara bitarte.

Erdikoak: 35.000.001 pezetatik 65.000.000 pezetara bitarte.

Handiak: 65.000.001 pezetatik 100.000.000 pezetara bitarte; zerbateko hori gaintu egin daiteke, arau-haustearen xede izan diren produktuen edo zerbitzuen balioaren boskoitzera iritsi arte.

3. Zehapenen zerbatekoa bi urtean behin eguneratuko da inflazio tasari jarraituz eta Nafarroako Gobernuaren foru dekretu bidez.

62. artikulua. Zehapenak jartzeko eskudunak diren organoak.

1. Nafarroako Gobernuak du 35.000.000 pezetatik gorako 52. artikuluko zehapenak ezartzeko ahalmena.

2. Osasun Departamentuko kontseilariak gainerako zehapenak, hau da, aurreko lerrokadan ageri ez diren arau-hauste arin, larri eta oso larriak, ezartzeko ahalmena izanen du.

63. artikulua. Kautelazko ixteak.

Osasun Departamentuak farmazi laguntzako establezimenduak eta zerbitzuak ixteko erabakia har dezake —neurri hori ez da zehapena izanen—, baldin eta nahitaezko baimenak edo erregistroak ez badauzkate, edo haien jardunak herritarren osasunari kalte egiteko arriskua badakar; gainera, haien funtzionamendua eten dezake edo jarduerak debekatu, harik eta akatsak zuzendu edo ezarritako beharkizunak bete arte.

64. artikulua. Preskripzioa.

1. Lege honetan arintzat hartu diren arau-hauste eta zehapenen preskripzioa urtebete igaro ondoren etorriko da; larritzat hartu direnen preskripzioa, berriz, bi urte igaro ondoren; eta oso larritzat hartu direnena, hiru urte igarota.

Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenbaituko da arau-haustearen preskripzio-epea, eta eten, prozedura ustezko arau-hauslearengana zuzentzen den unean etengo da.

2. Zehapenaren preskripzio-epea zehatzeko ebazpena irmo bihurtu den egunaren biharamunetik hasiko da kontatzen, eta eten, interesatuak horren berri izanik exekuzio prozedura hasten denean etengo da.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, gehinez ere, berori garatu eta aplikatzeko errege-lamenduzko arauak onetsiko ditu.

Bigarrena. Lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak farmazi eremuei buruzko ikerketa bat burutua izan beharko du, farmazia berriak ezartzeko aukera zehazteko. Hurrengo hilabetean hasiko du foru lege honetako 31. artikuluan ezarritako baimentzeko prozedura.

Hirugarrena. Farmazietarako lokalen ezaugarriak, 25. artikuluan aipatzen direnak, eta horiek garatzen dituzten arauak ez zaizkie eskatuko foru

lege honek indarra hartu baino lehen baimendutako farmaziei, leku aldaketa kasuetan salbu.

Laugarrena. Nafarroako Gobernuak ospitale eta zentro psikiatrikoetan farmazi zerbitzuaren beharra nahitaezkoa izateko muga ehun ohe baino gutxiagotan ezarri ahalko du, osasun sistemako beharrek hala eskatzen badute.

Xedapen iragankorrak

Lehena. 1957ko maiatzaren 31ko Dekretuaren 5.1 b) artikulua eta apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretuaren 3.1 b) artikulua babesean baimendutako farmaziak ezingo dira lekuz aldatu, salbu eta beste farmazia baten lekualdaketa onduz edo berri bat instalatzearen ondorioz ukituta suertatzen badira, betiere, biak araubide orokorrari jarraiki irekita, edo lekualdaketa farmazia baimendu zuteneko nukleo beraren barruan gertatzen bada eta gainerako farmaziekiko bostehun metrotako distantzia gordetzen badu.

Bigarrena. Foru lege honetan populazio moduluei eta distantziei buruz ezarritakoa ez zaie eskatuko lege honek indarra hartu baino lehenago baimendutako farmaziei. Tramitazio bidean diren farmaziak irekitzeko baimenen prozedurei, aldiz, aplikatu egingen zaie.

Hirugarrena. Lege honek indarra hartu baino lehen baimendutako farmazi bulego guztiei legean bertan ezarritako eskualdaketa araubidea aplikatuko zaie. Horretarako, kontuan hartuko da eskualdaketa egiten duen titularrari irekitzeko baimena eman zion erabakia edo akordioa.

Laugarrena. Foru lege honek indarra hartu ondoren ematen bada epaia eta, horren ondorioz, farmazia irekitzeko baimena, horiek ez dute administrazioak argitaratutako deialdien ondorioz, farmaziak berriak sortu edo lekuz aldatzeko baimenetan eraginik izanen.

Bosgarrena. Medikamentuei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legearen seigarren Xedapen Iragankorrari jarraiki, jarduera profesionalean ari diren eta farmazia duten edo ospitaleetako farmazi zerbitzuren batean ari diren farmazilariek, baldin eta lege honek indarra hartzen duenean interes ekonomiko zuzenekoak badituzte baimendutako farmazi laborategietan, interes horiek mantendu ahalko dituzte baimena iraungi edo laborategiak transferitu arte.

Seigarrena. Zilegi izanen da udal farmazilari titularrak izatea, toki osasunaren edo Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzura, eta aldi berean farmazia baten titularrak izatea, baldin eta foru

lege hau argitaratzen den egunean jardunean badago.

Bere eginkizuna egiteak farmaziatik kanpo egotea badakarkio jendearentzako ordutegiaren tarte batean, bertan ordezkaturiko duen ordezeko farmazilari bat izendatu beharko du.

Zazpigarrena. Osasun zentro edo establezimenduek foru lege honek indarra hartu eta bi urteko epean berorri egokitu beharko zaizkio. Salbuespena izanen da farmazietarako Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa.

Xedapen indargabetzailea

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honek agintzen duenari kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenak

Lehena. Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru dekretu bidez zehapenen zenbatekoak eguneratzeko, 61.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa

1. artikuluko testua aldatu eta honako hau jarritzea proposatzen da:

1. artikulua. Legearen xedea

1. Foru Lege honek Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean herritarrei eman behar zaien farmazi laguntza eta hartatik ondorioztatzen diren betebeharrak arautzea eta antolatzea du helburu.

2. Foru Komunitatearen Administrazioari dagoen farmazi zerbitzuak eta establezimenduak anto-

latzea, farmazi laguntza kalitatezkoa, unibertsal, etengabea, integrala eta biztanleentzako egokia izan dadin.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikularen ondotik beste bat gehitzeko proposamena

1. artikularen ondotik beste bat gehitzea proposatzen da. Hona:

1 bis artikulua. Farmazien antolamendua

Haxe da farmazien antolamendua: biztanleen osasuna hobetzea eta medikamentuen behar bezalako erabilera –emaitza terapeutiko onenak lortzeko– bermatzea helburu duten osasun laguntzari eta osasun publikoari buruzko arau, baldintza, egitura eta jarduketan multzoa.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa

2. artikuluko testua aldatu eta honako hau jarritzea proposatzen da:

2. artikulua. Farmazi laguntza

Haxe da farmazi laguntza: farmaziaren profesionalek, medikamentuetako establezimenduetan eta banaketarako eta salmentarako zerbitzu berezietan egiten dituzten jardueren multzoa, hain zuzen ere medikamentuen bidezko tratamenduak emaitza terapeutiko onenak sortzea helburu duena.

Horretarako, farmazilarien babes egokia bermatuko da, bai eta tratamenduaren eskuragarritasuna, banaketa, salmenta, kalitatea eta jarraipena ere.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

8. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ondokoa aldatzeko zuzenketa:

2. artikulua. Farmazi laguntza

2. artikuluko testua ondoko honekin ordeztu bedi:

“1.- Farmazi laguntza da medikamentuak eta farmaziako bestelako produktuak, era egokian, herritarren eskura jartzeko prozesua; ahalegina egiten du osasun arloko profesionalak eta gizabanakoek medikamentuak behar denean eta eragin-korki erabil ditzaten, eta orobat, gaixotasunari aurre hartzen eta pertsonen eta komunitatearen osasuna zein bizi kalitatea sustatzen laguntzen du.

2.- Farmazi laguntzako prozesu honetan, farmazilariak gaixoarekin eta osasun arloko beste profesional batzuekin egiten du lan, gaixoen tratamendu farmakologikoa diseinatu, ezarri eta monitorizatzeko, horren bidez gaixoengan emaitza terapeutiko ahalik eta onenak lor daitezten.

3.- Farmazi laguntza guztion intereseko zerbitzua da, laguntzen eta osasun publikoaren arloko jarduketak biltzen dituena. Jarduketa horiek indarrean dagoen legedian banaketari, medikamentuzko tratamenduaren zainketari eta hornidurari buruz ezartzen diren baldintzei lotu behar zaizkio, betiere farmazilari baten erantzukizunaren pean eta Osasun Departamentuak baimenduriko farmazi establezimendu eta zerbitzuetan.”

Zioak: Farmazi laguntzaren kontzeptua zabaltea esanahi guztiak eta kontzeptuaren norainokoa jasotzeko. Izan ere, foru lege proiektuan txikiagotua zegoen eta hori da, hain zuzen ere, legearen oinarria.

9. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

“Farmazi laguntzaz aditzen da foru lege honek aipatzen dituen establezimendu eta zerbitzuetan,

farmazilari profesional baten ardurapean, egiten diren jardueren multzoa biltzen duen interes publiko zerbitzua...”

“...osasun arloko profesionalak eta gizabanakoek medikamentuak behar denean eta eragin-korki erabil ditzaten, eritasuna aurrez galarazi...”

Zioak: Batetik, farmazi laguntzaren definizioa osatzen du, zerbitzu publikotzat jotzen baitu Farmazietako zerbitzuak arautzeko apirilaren 25eko 16/1997 Legeak (Estatuko oinarrizko legeria) ezarri bezala; bestetik, farmazi laguntzaren xede edo helburua ere osatzen du -16/1997 Legearen 1.8 artikulua-, medikamentuak behar denean eta eragin-korki erabil daitezten bermatzeari garrantzia ematen baitio, eta horixe da, hain zuzen, edozein osasun politikaren helburua.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa

3. artikuluko testua aldatu eta honako hau jaratea proposatzen da:

3. artikulua. Farmazi laguntzako establezimenduak eta zerbitzuak

1. Farmazi laguntza osasun sistemaren maila guztietan emanen da, soilik ondoko farmazi zerbitzu eta establezimenduen bitartez:

A) Oinarrizko osasun laguntzaren mailan:

a) Farmaziak.

b) Botikinak.

c) Oinarrizko osasun laguntzako osasun egiturako farmazi zerbitzuak.

d) Oinarrizko osasun laguntzako osasun egiturako medikamentuen gordetegiak.

B) Ospitale eta zentro soziosanitarioen mailan:

a) Ospitaleetako, osasun etxeetako eta zentro psikiatrikoetako farmazi zerbitzuak.

b) Ospitaleetako, zentro soziosanitarioetako, zentro psikiatrikoetako eta, kasua bada, espetxeetako gordetegiak.

C) Banaketaren mailan:

Medikamentuak eta osasun produktuak banatzeko handizkako biltegiak.

D) Albaitaritzako medikamentuak saltzeko mailan:

Animalientzako medikamentuak saltzeko legez gaitutako establezimenduak.

E) Albaitaritzako medikamentuak banatzeari dagokionez:

Animalientzako medikamentuak banatzeko handizkako biltegiak, behar bezala baimendutakoak.

2. Maila guztietako farmazi establezimenduek eta zerbitzuek era koordinatuan eginen dute lan, biztanleei farmazi laguntza integrala emateko.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

11. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

3. artikuluko –Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuak– edukia ondoko honekin ordeztea:

“Lege honen arabera, honakoak hartzen dira oinarrizko osasun laguntzako establezimendu eta zerbitzutzat:

a)- Oinarrizko osasun laguntzari dagokionez, legeak ezarri bezala jendeari irekita diren farmaziek eta botikinek eginen dute, bai eta oinarrizko osasun laguntzako osasun arloko egituretako farmazi zerbitzuek.

b)- Laguntza espezializatuari dagokionez, ospitale eta zentro psikiatrikoetan eginen da, eta farmazi zerbitzuek eta medikamentu gordetegiek eman beharko dute.

c)- Zentro soziosanitarioetan.

Halaber, foru lege honetan arautzen dira:

a)- Medikamentu eta farmazi produktuak handizka banatzeko farmazi biltegiak.

b)- Albaitaritzako medikamentuak emateko baimena duten establezimenduak.

Zioak: Artikuluaren testua hobetzea eta osatzea, aurkeztutako beste zuzenketei egokitzeko asmoz.

12. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa. 3. artikulua. c) puntuaren testu berria:

c) Ospitaleetako, zentro psikiatrikoetako eta zentro soziosanitarioetako farmazi zerbitzu edo medikamentu gordetegiak.

Zioak: Zentro mota horien errealitateari hobeki egokitzen zaion testua.

13. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa. 3. artikulua.

e) Albaitaritzako medikamentuak emateko baimena duten establezimenduak.

Zioak: Establezimendu mota horiek lege honetan arautzeko beharra.

14. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. kapitulari gehiketa egiteko zuzenketa.

3. artikulua ondotik, honako testua duen artikulua bat gehitzea:

“4. artikulua.- Foru lege honetan honela ulertuko dira kontzeptu hauek:

1.- Ematea: farmazilariak, edo haren ardurapean dagoen batek, bere jardunean jendeari edozein medikamentu ematea, farmazian, botikinean, farmazi zerbitzuan edo medikamentu gordetegian, eta betiere, baimendutako mediku batek agindu ondoren edo farmazilariaren iritzia profesionalari jarraiki, horretarako baimena badu.

2.- Farmazia: interes publikoko eta baimendutako osasun establezimendua. Bertan farmazilari batek zuzendurik, 13. artikuluan zehazten diren funtzioak garatzen dira.

3.- Botikina: farmazia baten menpe dagoen osasun establezimendua, eta foru lege honetan ezartzen diren baldintzekin baimenduta dagoena.

4.- Oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzua: oinarrizko osasun laguntzako egituraren barruan, giza-baliabidez eta baliabide-materialez hornitutako farmazi laguntzarako unitatea. Bertan, atxikitako farmazilariek egotzi zaizkien funtzioak betetzen dituzte.

5.- Laguntza espezializatuko farmazi zerbitzua: ospitaletako edo kontsulta espezializatueta zentroetan, baliabide materialez eta giza-baliabidez hornitutako farmazi laguntzarako unitatea. Bertan, atxikitako farmazilari espezialistek egotzi zaizkien funtzioak betetzen dituzte.

6.- Medikamentu biltegia: farmazia edo farmazi zerbitzu baten menpeko medikamentu erreserba oro. Farmaziaren edo farmazi zerbitzuaren kokagunetik kanpo dago oinarrizko osasun laguntzako zentro batean, laguntza espezializatuko batean, zentro soziosanitarioetan eta enpresa publiko edo pribatueta.

7.- Farmazi laguntza: farmazilariak egiten dituen jardueren multzoa, farmazi zerbitzu zuzena eta medikamentuen erabilera egokia eta segurua bermatzeko. Osasun sistemako maila guztietan eta berori zaindu, kontserbatu eta emateko erantzunkizuna duten farmazi establezimendu eta zerbitzuen bidez ematen da, foru lege honetan ezarritakoari, Osasunari buruzko 14/1986 Lege Orokorren 103. artikuluan ezarritakoari eta Medikamentuei buruzko 25/1990 Legean ezarritakoari jarraituz.

8.- Farmazilarien gomendioa: farmazilari profesional batek, establezimenduko farmazia-kontsultan edo bere jarduera profesionalean aritzen den laguntza zerbitzuan, ematen dituen gomendio teknikoak edo osasunari buruzkoak; betiere, bai gaixoaren bai jasotako edo gaixoari emandako informazioaren konfidentzialtasuna bermatuz.

9.- Zentro soziosanitarioa: zentro publiko, itundu edo pribatua da. Bertan, gizarteko hainbat sektoreri laguntzen zaio, adibidez, zaharrei, minusbaliatuei, adimen gaixotasunak dituztenei, eta orobat, beren gaixotasuna dela-eta, zentroak eskaintzen dien gizarte-laguntzaz gain, osasun laguntza zehatz bat behar duten pertsoneri."

Zioak: Foru lege honek farmazi laguntza osatzen duten elementu nagusi horietako bakoitzarekin zer adierazi nahi duen definitu eta idatzita jasotzea, hobeki interpreta dadin.

4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

15. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. eta 5. artikulua aldatzeko zuzenketa

4. eta 5. artikuluetako testua aldatu eta honako hau jartzea proposatzen da:

4. artikulua. Medikamentuak ematea. Debe-kuak.

1. Medikamentuen salmenta aurreko artikuluan berariaz ezarritako establezimendu eta zerbitzuetan baizik ezin izanen da egin, horretarako baimean eta Estatuko oinarrizko legedian jasotako baldintzetan, betiere.

2. Berariaz debekatuta gelditzen da herriz herriko salmenta, etxez etxeko salmenta, posta bidezkoa eta gizakien kontsumorako edo albaizari-erabilerarako medikamentuak hornitu, saldu, banatu edo saltzeko lege honetaz ezarritakoak besteko edozein modu.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 4. artikulua.

Artikuluaren bukaeran erants bedi:

"eta Farmazietako zerbitzuak arautzen dituen apirilaren 25eko 16/1997 Legearen arabera."

Zioak: Artikulu hori islatzen duten lege eta oinarri juridiko guztiak bildu eta zerrendan ematea.

17. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Aurreko zuzenketa proposatutako 4. artikuluen ondoren artikulua berri bat gehitu bedi.

“5. artikulua. Medikamentuak erostea.

1.- Farmaziek eta farmazi zerbitzuek beharrezkoak diren farmazietako espezialitateak, medikamentuak eta osasun produktuak eskuratu behar dituzte, bai eta beren produktuen kudeaketa eraginkorra burutu, farmazi laguntzaren xede den populazioaren hornidura bermatzeko.

2.- Farmazietako espezialitateak eta medikamentuak legez baimenduriko banaketan aritzen diren laborategi eta biltegietatik eskuratuko dira.

3.- Estupefazianteak eta psikotropoak indarrean dagoen legediaren arabera erosi, kontserbatu eta emango dira. Ezin da inolako medikamenturik erosi bi farmazia edo gehiagoren artean, gerora beraien artean banaketaren bat egiteko asmoz, ezta ere medikamentu estupefaziaterik, psikotroporik, medikuaren kontrol berezia behar duenik eta termolabilik.

4.- Farmaziek arauz ezartzen diren medikamentuen gutxieneko kopuru iraunkor bat izan behar dute nahitaez.

5.- Farmaziek eta farmazi zerbitzuek emanda-ko medikamentu orok Espainian erregistraturik egon beharko du.”

Zioak: Proposatutako testuan generikoki aipatzen diren medikamentuak zein baldintzetan eskuratu behar diren zehaztea, medikamentuen erabilerari dagozkion guztietan segurtasuna hobetzeko.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

18. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa

5. artikulua kentzea.

Zioak: Medikamentuen salmentako debekuei buruzko artikulua hori kentzen dugu, medikamentuak ematearen barruko zati bat baita. Gehiketa egiteko zuzenketa bat aurkeztu dugu “medikamentuak emateari” buruz, eta bertako idatz-zati batek gai hori lantzeaz gain, medikamentuak emateari buruzko beste alderdi batzuk ere, medikamentuen erabilera segurua izateko garrantziak direnak, barneratzen ditu.

19. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezketak egiteko zuzenketa. 5. artikulua. Ondoko testu hau proposatzen dugu:

“1. Saltzaile ibiltariak ezin izanen dituzte saldu pertsonak hartzeko medikamentuak eta albutari-medikamentuak.

2. Farmazilariak emanen ditu medikamentuak edo, bestela, hark gainbegiratuta emanen dira.

3. Foru lege honetan zehazten diren establezimenduetan emanen dituzte farmazi zerbitzuek albutari-medikamentuak.

4. Baimendutako establezimenduek eman behar dizkiote publikoari medikamentuak, eta irabazi asmoa daukaten pertsona, entitate edo enpresek debeku dute bitarteko gisa jardutea.”

Zioak: Artikuluaren testua hobetu da eta albutaritzako medikamentuen ematea arautzen da.

20. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

5. artikulua aldatzea proposatzen dugu, 2. lerrokada bat gehituz. Hona hemen nola gelditzen den:

“5. artikulua. Medikamentuak saltzearen inguruko debekuak.

Debeku da medikamentuak lekuz leku, etxez etxe edo posta bidez saltzea, eta, orobat, hirugarren pertsonak, entitateak edo enpresak irabazi asmoz bitarteko aritzea, baimendutako establezimenduen eta erabiltzailearen arteko medikamentu-emanaldietan.

Aurreko lerrokadan ez dira sartzen farmaziek beraiek etxez etxe egiten dituzten medikamentu-emanaldiak.”

Zioak: Zahar eta ezgaituei medikamentuak eman ahal izatea errazteko.

21. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Aurreko zuzenketa proposatutako 5. artikulua berriaren ondoren artikulua berri bat gehitzea.

“6. artikulua. Sendagaiak zaintzea eta kontserbatzea.

1.- Sendagaiak zaindu, kontserbatu eta ematea ondoko arauotan ezarritakoari jarraiki egiten da: Osasunari buruzko apirilaren 24ko 14/1986 Lege Orokorreko 103. artikuluan, Medikamentuei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legean eta foru lege honetan bertan.

2.- Banaketarako biltegiek, farmaziek eta farmazi zerbitzuek izakinen aldizkako azterketak egiteko prozedurak ezarriko dituzte, iraungitako edo iraungitzeaz dauden medikamentuak edo berrikusi eta kentzeko programaren baten barruan dauden medikamentuak antzemateko.

3.- Narriatuta dauden medikamentuak edo beraien kalitateari edo kontserbazio egoerari buruzko zalantzaren bat ageri dutenak baztertu egiten dira eta hornitzaileari itzuliko zaizkio; hori ezinezkoa bada, atzera bota eta suntsitu egiten dira.”

Zioak: Medikamentuen zainketa eta kontserbaziorako baldintzak zehaztea, medikamentuen erabilera segurtasun handiagoa lortzeko.

**6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK****22. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

6. artikulua. Administrazio baimenak

1. puntua ondoko honekin ordeztu bedi:

“1. Farmazi laguntza eskaintzen duten farmaziak, botikinak, oinarrizko osasun laguntzako zentroetako zerbitzuak, eta baita laguntza espezializatuetakoak, ospitaleetakoak eta zentro soziosanitarioetakoak administrazio baimenari lotuta daude; alegia, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentua da organo eskuduna horietako bat sortu, instalatu, ireki, funtzionamenduan jarri, handitu, aldatu, lekuz aldatu edo itxi aurretiko baimenaren espedientea aztertu, izapidatu eta ebazteko.”

Zioak: Foru lege honetan aipatzen den farmazi laguntzaren tipologia zehaztea.

23. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Aurreko zuzenketa proposatutako 6. artikuluan ondoren artikulua berri bat gehitzea.

“7. artikulua. Sendagaiak ematea.

1.- Farmazilariak emanen ditu sendagaiak edo, bestela, hark gainbegirata emanen dira.

2.- Debeku da giza-kontsumorako edo albaitaritzarako medikamentuak lekuz leku, etxez etxe edo posta bidez saltzea, eta, orobat, hirugarren pertsonak, entitateak edo enpresak irabazi asmoz bitarteko aritzea, baimendutako establezimendu eta zerbitzuen eta erabiltzailearen arteko medikamentu-emanaldietan.

3.- Norberaren edo inoren medikamentuak igorri ahalko dira korreoz nahiz mezulari-zerbitzu baten bidez, baldin eta gaixo kronikoek, egoera bereziak direla medio, sendagai horiek behar badituzte, betiere preskripzioa medikuaren errezeta baten bidez bermatuta dagoenean eta farmazian lehen ere sendagai hori eman bazaie.

4.- Errezetarik gabe eman ahalko dira hala kalifikatuta eta baimenduta dauden medikamentuak soilik, Medikamentuei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legearen 31.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki.

5.- Farmazilari profesionalaren betebeharra da gaixoei medikamentuak ematerakoan horiek egoki kontserbatzeko baldintzen berri ematea.”

Zioak: Medikamentuak emateko baldintzak hobeki zehaztea, horien erabilera segurua izan dadin.

24. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

6. artikuluari idatz-zati berri bat gehitzea, 3. eta 4. lerrokaden artean.

“3.b) Baimena eten edo baliogabetzeko erabakia hartzeko arrazoi zehatzak izan beharko dira. Erabakia interesatuei jakinarazi beharko zaie eta bertan, bidezkoak diren errekursoak, zein organoari aurkeztu behar zaizkion eta horretarako epeak zehaztuko dira.”

Zioak: Artikuluak duen hutsunea betetzea.

25. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 6. artikulua. Bi idatz-zati gehitzea.

“5. Lege honetan ezarritako beharkizunak betetzen ez dituztenean, 3. artikuluan aipatutako establezimendu eta zerbitzuei emandako baimena eten edo baliogabetu ahalko da, baina ez da inoiz ere zehapentzat joko.

6. Baimena eteteko edo baliogabetzeko erabakia zehazki arrazoi beharko da. Erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, azalduz zein diren bidezko errekursoak, eta zer organotan eta zer epetan aurkeztu behar dituen.”

Zioak: Beharrezkoa da arrazoi sendoengatik baimenen etetea edo baliogabetea arautzea.

26. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

6. artikuluari idatz-zati berri bat gehitzea, 4. lerrokadaren ondotik.

“5.- Halaber, 100 langile baino gehiagoko enpresa publiko eta pribatuetan farmazi botikinak instalatu eta handitu aurretik, ikuskatze bisita egiten da, medikamentuen kontserbazio eta zainketa-arako baldintzak frogatzeko, eta ikuskaritza akta eginen.”

Zioak: Langile kopuru handi samarra duten enpresek baldintza egokia izan behar dituzte botikinen instalazioa eta kontserbazioa gutxieneko baldintza batzuekin gerta dadin, betiere, medikamentuen erabilera segurua izan dadin.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

27. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hona hemen artikularen testu berria:

“Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuek behar adina farmazilari, farmazilari laguntzaile eta langile laguntzaile kualifikatuak izanen dituzte, eta baita behar duten eremu fisikoa, lan eremuen banaketa eta ekipoa ere, beren farmazi laguntzaren kalitatea bermatzeko, Estatuaren oinarrizko legeetan, foru lege honetan eta hori garatzeko araudian, hau da, establezimendu zein zerbitzu horien baldintza tekniko-osasunezkoak arautzen dituztenean, ezarritakoari jarraikiz.”

Zioak: Farmaziako laguntzailearen figura kon-tuan hartzea, egungo errealitatearekin bat eginez eta zerbitzu profesional hobea eskaintzearen.

28. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa

7. artikuluko testua aldatu eta honako hau jar-tzea proposatzen da:

7. artikulua. Farmazi laguntzako establezimen-du eta zerbitzuen baldintzak eta betebeharrak.

Lege honek araututako establezimendu eta zerbitzuek ondoko betebeharrak izanen dituzte:

a) Ezartzeko eta funtzionatzeko, zabaltzeko, aldatzeko, lekuz aldatzeko, ixteko, eteteko, obrak egiteko eta eskualdatzeko Administrazioak emani-ko baimena.

b) Indarra duten legeek ezarritako baldintzak betetzeari buruzko kontrola, ikuskapena eta zain-tza.

c) Erregistroa eta katalogazioa.

d) Prestatzea eta Administrazioari igortzea eskatzen zaizkion osasun arloko informazio eta estatistikak.

e) Osasun elkartasun eta integrazio printzipio-tik ondoriztatzen diren betebeharrak betetzea,

larrialdi kasuetan edo osasu publikorako arriskua dagoenean.

f) Osasun administrazioaren osasun plangintza eta programetan kolaboratzea.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten da, osoko zuzenketak jaso den erara.

29. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua. Ondotik beste bi artikulua gehitzeko zuzenketa

7. artikulua. Ondotik beste bi artikulua gehitzea proposatzen da. Hona:

7 bis artikulua. Baldintza orokorrak.

Foru lege honetan, Estatuko oinarriko arautan eta hori garatzeko ematen diren ezarritakoari jarraituz, farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuek ondokoak eduki beharko dituzte: farmaziako profesionalak eta farmaziako laguntzaileak edo teknikariak, leku fisikoa, lan atalen banaketa eta ematen duten farmazi laguntzaren kalitatea bermatzeko behar den ekipamendua.

7 ter artikulua. Larrialdi sistemak

Foru Komunitateko Administrazioaren zuzendaritzaren eta koordinazioaren menpe, larrialdietarako sistema bat aplikatuko da, merkatuko produktuak erretiratzea barne, farmazi laguntzako zerbitzu eta establezimenduetan eskuragarri dauden medikamentuen eta osasun produktuen erabileraren ondorioz osasunerako arriskurik antzematen den kasuetan.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

30. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

II. kapituluak - Farmazi laguntza emateko establezimendu eta zerbitzuen gainean

Kapituluaren bukaeran beste artikulua bat gehitzea.

“8. artikulua. - Farmaziako profesionalaren kontzientzi eragozpenak ez luke mugatu edo baldintzatu behar hiritarren eskubidea –osasuna izateko eskubidea–; osasun administrazioa arduratu egingen da hori gerta ez dadin. Halako egoerarik sortuz gero, Osasun Departamentuak ezohiko neurriak hartu ahalko ditu, osasuna izateko eskubide hori bermatzeko, kontzientzi eragozpenerako eskubidea urratu gabe.”

Zioak: Farmaziako profesionalen kontzientzi eragozpena pertsonen osasunerako duten eskubidearen oztopo ez dadila izan bermatzea.

31. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

7. artikulua. Baldintza orokorrak

Honako idatz-zati hauek gehitzea:

“1. Foru lege honek arautzen dituen establezimenduetako eta zerbitzuetako titularrak behartuta daude eskatzen dizkieten sendagaiak eskuratu edo ematera, legeetan edo erregelamenduetan ezarritakoaren arabera.

2. Orobat, Osasun Departamentuak eskatzen dizkien informazioa zein osasun estatistikak presatu eta eman egin beharko dizkiote.

3. Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuek behar duten farmazilari, farmazietako laguntzaile tekniko eta laguntzaile kualifikatu kopurua zehaztuko da farmazi establezimendu edo zerbitzu bakoitzak ematen dituen medikamentu eta osasun produktuen bolumenaren arabera eta araudi bidez.”

Zioak: Parlamentura igorritako foru lege proiektuan gutxi zehazten diren baldintza orokorrak osatzea.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

32. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

8. artikuluko testua aldatu eta honako hau jarritzea proposatzen da:

8. artikulua. Bateriaezintasunak

1. Oro har indarrean dauden bateraezintasunak eragotzi gabe, lege honetan araututako establezimendu eta zerbitzuetan farmazilariak egin beharreko jarduera profesionala bateraezina da medikamentuak edo osasun produktuak fabrikatzeko interes ekonomikoak izatearekin.

2. Farmazilariak farmazian egin beharreko jarduera profesionala, edozein modutan gertatzen delarik ere, bateraezina da ondoko hauekin:

a) Farmazi laguntzako gainerako establezimendu eta zerbitzuetan aritzea, botikinetan eta medikamentu-gordetegiak salbu.

b) Medikuntza, odontologia eta albaitaritzako jarduera klinikoa.

c) Jendeari laguntzeko ohiko ordutegian, oro har, farmazilariaren presentzia fisikoa galarazten duen beste edozein jarduera profesional.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

33. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

8. artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona hemen testu berria:

“1. Jarduera publikoetan aritzeko oro har indarrean dauden bateraezintasunak ezertan galarazi gabe, farmazilariak foru lege honek arautzen dituen establezimendu eta zerbitzuetan egiten duen jarduera profesionala ezin batera daiteke farmazi laborategien inolako diru-interes zuzenekorekin.”

Zioak: bateraezintasunen esparrua ez mugatzea.

34. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

8.1 artikulua aldatzea proposatzen dugu bertako akats bat saihesteko. Beraz, honela geldituko litzateke:

“8.1 artikulua. Jarduera publikoetan aritzeko jarri diren bateraezintasunak ezertan galarazi

gabe, farmazilariak foru lege honek arautzen dituen establezimendu eta zerbitzuetan egiten duen jarduera profesionala ezin batera daiteke farmazi laborategietako inolako diru-interes zuzenekorekin.”

Zioak: Zuzenketa gramatikala.

35. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

8.2 puntuari azpimarratutako testua gehitzea proposatzen dugu:

2.- Farmaziaren titularra izatea ezin batera daiteke medikuntza, albaitaritzaren edo odontologia klinikokoan aritzearekin, ez eta jendearentzako ordutegian farmazilariari farmazian egotea galarazten dion beste edozein jarduera profesionalekin, irakaskuntza kasu. Halaber, ezingo da bateratu ere, toki-osasunaren zerbitzura udal farmazi baten titular lanpostuan aritzearekin edo foru komunitateko administraziora transferituta haren zerbitzura baldin badago.

Zioak: Jarduera profesional horren ordutegia bateraezina da argi eta garbi farmazilaria farmazian egotearekin irakaskuntzaren kasuan, eta beste zentzuan, bateraezintasun arrazoi logikoenatik.

36. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 3. idatz-zatiari ondoko testua gehituko zaio:

“Txanden banaketa egokia bermatzeko, lerrokada honetan aurreikusi den aukera hori urte natural bakoitzeko eginen da”.

Zioak: Guardiako txanden banaketa egokia bermatzea.

37. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lege proiektuko 8. artikuluari laugarren idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

“4. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa ez zaie aplikatuko farmazilari ordezkoei, ez eta lanaldi partzialeko kontratua duten farmazilari laguntzaileei.”

Zioak: Aipatutako talde horien garapen profesionala ez mugatzea.

38. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

8. bis artikulua. Pestakuntza etengabea.

Osasun Departamentuak Farmazilarien Elkar-go Ofizialarekin, kreditatutako elkarte profesionalekin eta hezkuntza arlorreko entitate edo erakundeekin eta baita zientifiko sanitarioekin ere, farmaziako profesionalen prestakuntza etengabea bultzatuko du. Helburua da, beraien ezagutzak nahikoak eta eguneratuak direla bermatzea, herritarrei zerbitzurik hoberena eman ahal izateko.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK

39. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

9.1.5 artikulua aldatzea proposatzen dugu. Honela geldituko litzateke:

9.1.5 artikulua. Beren osasun egoera eta eman zaizkien medikamentu eta sendagaien gaineko datu guztiak sekretuak izatekoa, salbu osasun arloko interesa dutenak, Datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraituz.

Zioak: Lege honetan, aipatutako lege organikoan horri buruz ezarritakoa jasotzea.

40. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da:

“6. Kasu egiten dien pertsonaren kualifikazio profesionala ezagutzeko, identifikazio bidez, eta kasu egingo dien pertsona hori, hala eskatzen badute, farmazilari bat izateko, farmazi laguntzaren kalitatea bermatzearen.”

Zioak: Farmazi laguntza egokia bermatzea, horretarako gaitasuna duen profesionalaren bidez.

41. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

9. artikulua.- Herritarren eskubide-eginbeharrak

1. idatz-zatia baino lehen ondoko idatz-zati hau gehitzea:

“1. Herritar orok eskubidea du farmazia askatasun osoz aukeratzeko.”

Zioak: Aitortuta dagoen eskubidea bermatzea; izan ere, momentu honetan lortutako helburu bat dugu eta foru lege honetan bermatu beharra dago, Nafarroan dugu farmazi laguntzaren jarraipen gisa, eta orobat, berorren maila hobetzeko.

42. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

9. artikulua.- Herritarren eskubide-eginbeharrak.

1. idatz-zatiari ondoko puntu hauek gehitzea:

“8. Bere historia farmakoterapeutikoan dauden datuen berri izan eta horiek begiratu ahal izateko eskubidea.

9. Farmazilariaren aholkua garbi jasotzekoa, eta, eskatuz gero, idatziz hartzekoa.”

Zioak: Eskubideak osatzea bi puntu garrantzitsu horiekin, ez baitzeuden Biltzarrari igorritako testuan jasota.

43. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 9. artikulua. Ondoko puntu hauek gehitzea:

“8. Farmazilariaren aholkua jasotzekoa, pribatasuna zein konfidentziasuna errespetatuz, dohainik, garbi eta, eskatuz gero, idatziz.”

Zioak: Farmazilariaren aholkua herritarraren eskubide gisa ezartzea.

44. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 9. artikulua.

Ondoko testua gehitzea:

“9. Herritar guztiek dute eskubidea farmazia askatasunez aukeratzeko, bai eta farmaziako profesionalaren laguntza eta aholkuak jasotzeko, betiere konfidentziasuna eta pribatasuna errespetatuz.”

Zioak: Herritarrak aukeratzeko duen askatasuna, dituen gainerako eskubideen artean, bermatu eta jasotzea.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

45. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

10.1.1 artikulua aldatzea proposatzen dugu. Honela gelditzen da:

10.1.1 artikulua. Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuan bere jarduera profesionala egiteko, edozein modalitatetan, baldin eta horretarako baimena badu.

Zioak: Baimenak farmazilariak eskatutakoak eta baimenduta dituenak jasotzen dituela zehaztea.

46. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

10.2 artikulua aldatzea proposatzen dugu, 7. zenbakia duen idatz-zati bat gehituz. Hona hemen:

“7. Osasun Departamentuak ezartzen dituen guardiako txandetan parte hartzea.”

Zioak: Farmazia guztiek egin behar dituzte alde zuzeneko programaturiko guardiak, eta hori legean jaso behar da.

47. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 10 bis artikulua berria:

“10 bis artikulua. Kontzientzi eragozpena

Farmaziako profesionalaren kontzientzi eragozpenak ez luke mugatu edo baldintzatu behar hiritarren eskubidea -osasuna izateko eskubidea-; osasun administrazioa arduratu egingen da hori gerta ez dadin. Halako egoerarik sortuz gero, Osasun Departamentuak ezohiko neurriak hartu ahalko ditu, osasuna izateko eskubide hori bermatzeko, kontzientzi eragozpenerako eskubidea urratu gabe.”

Zioak: Beharrezkoa da kontzientzi eragozpenarako eskubidea arautzea, herritarrak osasunerako duen eskubidea murriztu gabe.

48. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

10. artikulua. Profesionalen eskubide-eginbeharrak.

1. idatz-zatiari ondoko bi puntu hauek gehitzea:

“3. Osasun Departamentutik dagokionean farmazi laguntzan eragina izan dezaketen osasun gaiei buruzko informazioa jasotzekoa, bai eta aurrerapenei, lege aldaketei, medikamentuen erabilera arrazoizko eta seguruari, eta abarrei buruzkoak ere, garapen profesionala eguneratu eta hobetzearen.

4. Informazioa jasotzekoa, programak aplikatzeko eta farmazi eta farmazi zerbitzuetan eman daitezkeen osasun zerbitzu berriak martxan jartzeko.”

Zioak: Farmaziako profesionalen kalitatea hobetzea eta haien ezagutzak eta garapena eguneratzea.

49. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

10. artikulua. Profesionalen eskubide-eginbeharrak

2. idatz-zatiari bi puntu gehitzea.

“7. Herritarrei, inpartzialki eta objetiboki, indarrean dagoen legediak baimendutako medikamentu eta farmazi produktuak eskura jarri eta ematea.

8. Medikamentuen erabilera arrazoizko eta seguruari buruzko prestakuntza egokia eta eguneratua izatea, eta farmaziako laguntzaileen eguneratze eta prestakuntza teknikoa bultzatzea.”

Zioak: Etorkizunean, gaixoei laguntza jasotzeko duten askatasun eta eskubidea murriz dezaketen aurreiritzi pertsonalekin farmazi laguntza murriztua edo oztopatua gerta ez dadin ahaleginak egitea.

50. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 10.2 artikulua.

10.2 puntuan artikulua bat gehitzea.

“2.- Behar bezalako eta egunera jarritako informazioa izatea medikamentuen erabileraren gainean, eta langile laguntzaileen eguneratze eta prestakuntza bultzatzea.”

Zioak: Farmaziako laguntzaileen figura konstante hartzea, egungo errealitatearekin bat eginez eta zerbitzu profesional hobea eskaintzearen.

51. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10.2 artikuluari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

“7. Ezingo da inoiz haurdunaldia eragozteko medikamenturik edo gaixotasun sexualen transmisioa eragozteko metodorik ukatu kontzientzi eragozpenak argudiatuz.”

Zioak: Herritarrek farmazi laguntza jasoko dutela ziurtatzea.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

52. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa.

11. artikulua ordez ondoko testua jartzeko zuzenketa:

11. artikulua. Farmazi produktuak banatzeko zentroak.

1. Banaketa-biltegiak dira laborategi fabrikatzaileen eta farmazi espezialitateak eta medizina arloko sustantziak inportatzen dituztenen eta legez baimenduriko farmazien eta farmazi zerbitzuen artean, horiek emateko, bitartekotza librean aritzen diren osasun establezimenduak.

2. Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuetan egiten den medikamentu eta osasun produktuen banaketa medikamentu eta farmazi produktuen banaketa-biltegi edo zentrozen bidez egin ahalko da.

3. Banaketa-biltegiak, instalatu eta funtzionatu ahal izateko, bai eta lekuz aldatu, handitu edo bestelako aldaketak egiteko, administrazioko osasun arloko baimena beharko dute. Horien instala-

ziorako, funtzionamendurako eta Foru Komunitatean aritu ahal izateko baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

53. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

4. puntuari testu hau gehitzea proposatzen da.

Halaber, banatzen ohi dituzten produktuak eman beharko dituzte, hornidurak estaltzeko bermearekin; farmaziak nonahi daudela ere, zerbitzuaren baldintzak eta entrega epeak berdintsuak izanen dira guztientzat.

Zioak: Horniduren zerbitzuetan, farmazia mota edo haren kokapen geografikoa dela-eta diskriminaziorik gertatzen ez dela bermatzea.

54. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua 5. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko da:

“5. Banaketa biltegiak beharturik daude irits daitezkeen eskaerei erantzutera eta osasun administrazioak jartzen dituen guardia zerbitzuak betetzera”.

Zioak: medikamentuak azkar eta uneoro izatea, urteko edozein garaitan.

55. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua 5. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa.

Puntuaren amaieran testu hau gehitzea proposatzen da:

Guardia zerbitzuak ematea eskatu ahal izanen da, asteburuetan nola jai-egunetan, farmaziak, egin beharreko guardietan, hornidurarik gabe geldi ez daitezkeen bermatzeko.

Zioak: Guardian dauden farmaziendako zerbitzua etenik ez egotea 24 ordu baino gehiago.

56. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

11. artikulua aldatzea proposatzen da, idatz-zati berri bat gehitzeko, 6 zenbakiarekin. Honela geldituko da idatzirik.

“5. Banaketa biltegiak beharturik daude osasun administrazioak jartzen dituen guardia zerbitzuak betetzera.

6. Banaketa biltegiak beharturik daude baimendutako farmazia guztien eskaerei erantzutera.”

Zioak: Banaketa biltegiek, jabe edozein izanik ere (pribatuak, kooperatibak, sozietate anonimoak eta mugatuak, eta abar) ezin diote uko egin baimendutako farmaziei hornidurak emateari.

57. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

11. artikulua 5. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

11. bis artikulua. Funtzionamendu baldintzak.

1. Banaketa-biltegi edo -zentroek medikamentuen kalitatea eta identitatea ziurtatu eta bermatzeko beharrezkoak diren instalazio eta lokalak izanen dituzte.

2. Banaketa-biltegi bakoitzean farmazizuzendari tekniko bat egon beharko da eta berorren buru izateaz gain funtzionamendu egokia bermatu beharko du.

3. Nafarroako Foru Komunitateko banaketa-biltegiek medikamentuen eta farmazi produktuen kopuru nahikoa izan beharko dute, normalean hornitzen dituzten establezimenduen hornikuntza bermatzeko. Horretarako, momentu orotan, Osasun Departamentuak zehaztutako gutxienekoen zerrendako medikamentu eta produktuak izan beharko dituzte.

11. ter artikulua. Osasun arloko agintariekiko lankidetzatza

Banaketa-zentroek 8. artikuluan ezarritako larrialdi sisteman parte hartuko dute, farmazi produktuen horniketa edo erretiratzea bermatzeko.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

13. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

58. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa. 13. artikulua.

13. artikularen g) letra kentzea proposatzen da.

Zioak: SNSk farmazia guztiekin ituntzearen alde gaude.

59. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluari kenketa egiteko zuzenketa.

k) idatz-zatia kentzea.

Zioak: Ez da beharrezkoa. Foru Legea betetzeak berarekin dakar hurrengo zuzenketan proposatzen dugun farmazia laguntza etengaberako bermea.

60. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikuluko testua aldatu eta honako hau jar-tzea proposatzen dugu:

13. artikulua. Kontzeptua eta eginkizunak

1. Farmaziak interes publikoko eta titulartasun pribatuko osasun establezimenduak dira, oinarriko osasun laguntzako sistemak koordinatuta eta Foru Komunitateak ezarritako osasun plangintzari lotuta daudenak. Haietan, farmazilari titular eta jabea denak, bere zerbitzuan lanean ari diren laguntzarekin, farmazi laguntza bermatuko du, ondoko eginkizunak betez:

a) Medikamentuak eta osasun produktuak erosi, zaindu eta kontserbatzea.

b) Medikamentuak eta osasun produktuak saltzea, preskripzioaren eta indarreko lege arauen arabera.

c) Sendagileek emandako errezetak zaindu, kontrolatu eta babestea.

d) Lan egiten duen barrutiko farmazi laguntza bermatzea, baina farmaziarik ez dagoen herrieta-rako ere.

e) Maisu formulak eta farmazi prestakinak egi-tea, ezarritako kontrol eta prozedurei jarraikiz.

f) Gaixoei medikamentuei buruzko eta farmazi tratamenduen jarraipenari buruzko informazioa ematea.

g) Medikamentuen gizabanakoaren erabilera kontrolatzen laguntzea, gerta daitezkeen erreak-zio kaltegarriak antzemateko, eta haien berri ema-tea farmakozaintzako ardura duten erakundeei.

h) Farmazi laguntzari buruz eta, oro har, lehen laguntzari buruz, osasunaren sustapenari eta babesari buruz, gaixotasunei aurrea hartzeari buruz eta osasun hezkuntzari buruz osasun admi-nistrazioek sustatzen dituzten programetan lagun-tzea.

i) Osasun administrazioarekin edo Farmazila-rien Elkargo Ofizialarekin lankidetzan aritzea medikamentuen eta osasun produktuen behar bezalako erabilerari buruzko prestakuntza eta informazio jardueretan.

j) Foru Komunitateko osasun zerbitzuetako laguntza-egiturarekin jarduketa koordinatuan ari-tzea.

k) Farmaziako Lizentziatu titulua lortzeko ira-kaskuntza lanetan laguntzea, Europako Batasu-naren zuzentarauetan nahiz Estatuko arauetan eta unibertsitateetako ikasketa planak ezartzen dituzten arauetan ezarritakoari jarriatuz.

l) Medizina substantziei, estupefaziantei eta psikotropikoei eta halakoak dauzkaten medika-mentuei buruzko berariazko legedian ezarritako betebeharrak betetzea.

m) Farmazian lanean ari den farmazilariak bete dezakeen beste edozein eginkizun, betiere titulazioaren arabera eta Administrazioak eskatuta nahiz norberaren ekimenez.

2. Farmaziek, albaitaritzako medikamentuei dagokienez, aurreko idatz-zatian aipaturiko bete-beharrak beteko dituzte, baina horrek ez du ken-duko indarreko legediaren arabera medikamen-tuak saltzeko gaitutako establezimenduek bete beharko dituztenak.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

61. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua lehenerokada aldatzeko zuzenketa

Proposatzen den testu berria:

“13. artikulua. Definizioa eta eginkizunak.

Farmazia interes publikoko osasun establezimendu pribatua da, zeinetan farmaziaren farmazilari jabe-titularrek, aukeran beste farmazilari eta farmaziako langile batzuk lagun, honako zerbitzuak ematen dizkieten populazioari.”

Zioak: Farmaziako laguntzailearen figura aurreikustea, egungo errealitatearekiko egokiagoa baita, eta zerbitzu profesionala hobetearren.

62. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

13. artikulua c letra aldatzea proposatzen da. Honela geldituko da idatzirik:

c) Maisu formulak eta farmazi prestakinak prestatu eta ematea, farmazi forma horietarako baimendurik badago farmazia eta Prestaketa Ego-kirako Arauei jarraikiz.

Zioak: Eskakizun teknikoa.

63. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

13. artikulua ldatzeko zuzenketa.

g) idatz-zatiaren ordeztu beste hau jartzea:

“g) - Foru Lege honek finkatzen duen farmazi laguntza, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Foru Komunitateko lurraldeko farmazietarako ezartzen duen moduan.”

Zioak: IUN/NEBen abiapuntua da Foru Komunitatean behar bezala baimendutako farmazia guztiak herritarrei farmazi laguntzako zerbitzuak

emateko itunetan sarturik egonen direla, orain arte izan den bezala, Estatu osoan.

64. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 13. artikulua. e) letra gehitzea.

“e) Erabiltzaileei farmazi aholkua ematea”

Zioak: Farmazi aholkua ezartzea, herritarrendako zerbitzua hobetzeko bide gisa.

65. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Farmazietako zerbitzuei buruzko atal bat gehitzeko zuzenketa; zortzi artikulua ditu, eta 13. artikulua ondoan gehitzekoak dira.

14. artikulua. Medikamentuak erostea

1. Medikamentuen hornidura bermatzeko, farmaziek farmazi gai espezializatuak, medikuntza substantziak eta osasun produktuak baimendutako laboratorioei eta banaketa-biltegiei erosiko dizkiete. Horretarako, arauz ezarriko diren gutxieneko izakinak izanen dituzte.

2. Produktu estupefaziante eta psicotropikoak eskuratu, kontserbatu eta saltzeko, berariazko legedian ezarritakoa beteko da.

15. artikulua. Medikamentuak ematea

1. Farmaziek bereko eginkizun dute medikamentuak saltzea eta medikamentu horiek gaixoaren esku jartzea errezetaren bitartez medikuak gauzaturiko preskripzioari jarraituz. Gaixoari, gainera, behar dituen jarraibideak emanen dizkiote medikamentua erabiltzeko. Errezetarik gabe soilik indarreko legeetan halakotzat sailkaturiko eta baimenduriko medikamentuak saldu ahal izanen dira.

2. Farmazi espezialitateak, maisu formulak, efketuak eta osagarriak legez ezarritako farmazi guztietan saldu ahal izanen ditu –betiere, hori debekatzen dien zehapenik ez badute– farmazilari batek edo besteren batek, haren gainbegiradaren pean eta erantzukizun osoz, eta preskripzioari jarraituz, halakorik behar bada.

3. Herritar guztiak eskubidea dute nahi duten farmazia aukeratzeko, bai eta farmaziako profesionalaren laguntza eta aholkularitza zuzena hau-

tatzeko ere. Erabiltzailearentzat isilpekotasun eta pribatutasunaren bermeak egon beharko dute, betiere.

Farmazilariak medikamentuak eta gainerakoak saltzeko betebeharra dute, legez ezarritako baldintzak betetzen direnean.

4. Farmazilariak ez dute medikamenturik salduko aurkeztutako mediku errezetaren balioari buruzko arrazoizko zalantzak badituzte, eta kontu berezia jarri beharko dute estupefazienteak eta psikotropikoak saltzeko; betiere, erabiltzaileen eta haien ahaideen intimitaterako eskubidea errespetatu eta bermatuko da.

5. Farmazilariak medikuarengandik jaso duen aginduan ageri diren dosiak normalki ematen direnez nabarmen bestelakoak direnean edo farmazilariak arrazoizko moduan susmatzen badu medikuaren agindua akastuna dela, erabilera-jarraibide okerrak dituela edo gaixoarentzat kontraindikazio direnak ez direla kontuan hartu, gaixoarekin kontsultatu beharko ditu, bai eta preskripzioa egin zuen medikuarekin ere, haiek zuzendu edo berrets ditzan.

16. artikulua. Maisu formulak eta farmazi prestakinak

Maisu formulen eta farmazi prestakinak egitea eta ematea medikamentuei buruzko legeetan xedatutakoaren arabera egingen da. Farmaziako farmazilari erantzuleak egingen dituzte horiek, edo, bestela, haien zuzendaritzaren eta kontrolaren menpe egingen dira. Bestalde, enbase egokietan emanen dira, haietan argi jasoz zein den haien osaketa kualitatiboa, farmazilari erantzulearen izena eta preskripzioa egiten duenaren kontserbazio eta iraungipen baldintzak.

17. artikulua. Medikamentuei buruzko informazioa

1. Farmazilariari dagokio medikamentuei buruzko informazio egokia ematea osasun arloko langileei, gaixoei eta erabiltzaileei, medikamentuen behar bezalako eta preskribitutako tratamenduaren arabera erabilera sustatzeko.

2. Farmazilariak erabiltzaileei ondokoei buruzko informazioa emanen die: jarraibideak, erabiltzeko era, arreta-neurriak, kontraindikazioak, interakzioak eta kontserbazio baldintzak.

18. artikulua. Jarraipen farmakoterapeutikoa.

Farmazilariari dagokio gaixoen jarraipen farmakoterapeutikoa egitea, tratamenduen ondoriozko eragin kaltegarriak, interakzioak edo kontraindikazioak antzemateko, haiei aurrea hartzeko eta haiek konpontzeko, medikamentuen gizabanakoa-

ren erabilera zaintzeko eta kontrolatzeko prozedura egokiak erabiliz.

Betiere, erabiltzailearen intimitaterako eta datuen konfidentziasunerako eskubidea bermatuko da. Datu horiek, erabiltzailearen baimenarekin, preskripzioa egiten duen fakultatiboari edo kasuan kasuko oinarritzko osasun laguntzako ekipo medikoari eman ahal izanen zaizkio.

19. artikulua. Farmakozaintza

Farmazilaria Espainiako Farmakozaintzako Sistemarekin batera arituko da lanean medikamentuek sorturiko eragin kaltegarriak antzematen, erregistratzen, jakinarazten eta sistematikoki ebaluatzen, hori arautzen duten arauekin bat.

20. artikulua. Osasunaren prebentzioa eta sustapena

Farmazilarien berezko eginkizuna da osasuna eta gaisotasunari aurre egitea sustatzea, osasunari buruz hezitzea, bizimodu osasungarriak zabaltzea, erabiltzaileei botiken erabilera zuzenari buruzko informazioa ematea eta aktiboki parte hartzea osasun sisteman ezartzen diren informazio eta hezkuntza programetan.

21. artikulua. Osasun barrutiek koordinatzea

Farmazietako farmazilariak lankidetzan arituko dira eta beren ekintzak koordinatuko dituzte oinarritzko osasun laguntzako ekipoekin, eta aktiboki hartuko dute parte osasunari buruzko heziketa, prebentzio eta informazio programetan, farmakozaintzan eta gaixoen jarraipen farmakoterapeutikoa.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

66. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

II. titulua - II. kapitulua - Farmaziak

Artikulu berri bat gehitzea 13. artikulua ondotik, eduki honekin:

“14. artikulua. - Farmaziek etengabe eman beharko diete farmazia laguntza herritarrei.

1. Farmaziek askatasuna eta malgutasuna izanen dute ordutegi eta lanaldiei dagokienez, baina herritarrek farmazia laguntza etengabea izan dezaten ziurtatzeko, Osasun Departamentuak

ezarriko du jendeari zerbitzua emateko gutxieneko ordutegia. Farmazia bakoitzak zabaldu eta ixteko izanen duen ordutegia kanpotik ikusteko moduan jarri beharko da.

2. Gutxieneko ordutegi horretatik kanpo, farmazia laguntza larrialdietako araubidean bermatuko da, Osasun Departamentuak ezarriko duen txanda sistema baten bidez.

3. Larrialdietako zerbitzuaren gaineko informazioa farmazia bakoitzean jarriko da, kanpotik ikusteko moduan eta Administrazioak zehazten dituen beste tokietan.

4. Farmaziek aldi baterako itxi ahal izanen dira oporretan, betiere farmazia laguntzaren beharrak betetzen badira. Osasun Departamentuak txandak antolatuko ditu oporrak hartu nahi dituzten farmazilariendako.”

Zioak: Beharrezkoa da farmaziek herritarrei laguntza etengabea eman diezaieten bermatzea.

14. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

67. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko testua aldatu eta honako hau jarritzea proposatzen dugu:

14. artikulua. Titulartasuna

1. Farmazilariak baizik ezin izanen dira izan farmazietako jabe eta titular, haiei buruz legez ezartzen diren eskubide eta betebeharren baldintzen arabera.

2. Farmazilari titularra da farmazia bat zabalteko baimena lortu duen farmazilaria. Farmazia horretan, farmazilari horren ardurapean, 9. artikuluan azaltzen diren eginkizunak beteko dira, eta farmazia batek legez ezarritako betebeharrak eta baldintza guztiak beteko ditu, bai eta erabiltzaileen osasun zerbitzua bermatzekoa ere.

3. Farmazilari bakoitza farmazia bakar baten jabe eta titular edo jabeakide eta titularkide izaten ahalgo da. Titularkide izateak berekin dakar, ezinbestez, jabeakide izatea; jabeakide izateak, berriz, berekin dakar, ezinbestez, titularkide izatea.

4. Farmazietan osasun zereginetan aritzen diren farmazilariak lanbide elkargo batekoak behar dute izan, legez ezarritako legee jarraituz, eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamen-

tuak kreditatu beharko dira, arauz ezarriko den moduan.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

68. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Erredakzio berria.

14.3. Titulartasuna eta giza baliabideak.

“Titularrarekin edo titularrekin farmazilari laguntzaileak eta farmaziako laguntzaileak aritu ahalgo dira lanean.”

Zioak: Farmaziako laguntzailearen figura aurreikustea, egungo errealitatearekiko egokiagoa baita, eta zerbitzu profesionala hobetearren.

69. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikuluko lehendabiziko idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa. Honako hau gehitu behar da:

“Titularkide bihurtzeak berarekin dakar, nahitaez, jabeakide ere bihurtzea, eta alderantziz”.

Zioak: Proposatutako erredakzioa argitzea.

70. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

14. artikulua 3. puntuari.

Esaldiaren amaieran, “laguntzaileak” hitzaren ondotik, koma artean, “farmazilari teknikoak” gehitzea.

Zioak: Laguntzaileen lanbide kalitatea hobetzea, eta garrantzia ematea farmazia laguntzan zerbitzuak ematen dituzten langileen prestakuntzari eta titulazioari.

15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

71. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko testua aldatu eta honako hau jar-
tzea proposatzen dugu:

15. artikulua. Bitarteko farmazilaria

1. Osasun Departamentuak, ondotik zehazten diren kasuetan, bitarteko farmazilari bat izendatuko du aldi jakin baterako, eta delako bitarteko farmazilariak farmazilari titularrarentzat adierazten diren eginkizun, erantzukizun eta bateraezintasun profesional berak bereganatuko ditu. Hona bitarteko farmazilaria izendatuko den kasuak: farmazilari titularra hiltzen denean; epai bidez kanpoan dagoela, gai ez dela edo ezinduta dagoela deklaratu denean; epaile batek nahiz administrazioak farmazilari titularrak baliaezintasun osoa, erabateko baliaezintasuna eta baliaezintasun handia duela deklaratu duenean.

2. Bitarteko farmazilaria libreki izendatuko dute hildako farmazilariaren oinordekoek, ezindutako farmazilariaren legezko ordezkariak edo farmazilari titularra kanpoan dagoela deklaratu dadin eskatu dutenek, farmazilari titularra hil edo kanpoan dagoela nahiz ezinduta dagoela deklaratu eta hilabeteko epean.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

72. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

15. artikulua aldatzea proposatzen da. Honela geldituko da idatzirik:

15. artikulua. Bitarteko farmazilaria

Osasun Departamentuak zilegi izanen du, titularra hil, betirako ezindurik gelditu, epaileak titularra ezgaitu edo epaileak titular hori absente deklaratu duen kasuetan, eta ondorengoek edo legezko ordezkariak hala eskatuta, gehienez ere bost urterako bitarteko farmazilari bat izendatzea, zeinak titularrak dituen eginkizun, erantzukizun eta bateraezintasun berak izanen baititu.

Zioak: Proiektuaren akatsa zuzentzen du. Aldi baterako ezintasunaren egoera ordezkariak betetzen du. Bitirako ezintasunaren egoera, berriz, bitarteko farmazilariak betetzen du.

73. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

Azpimarratuta dagoen testua gehitzea proposatzen da.

... gehienez ere 18 hilabeterako bitarteko farmazilari bat izendatzea, zeinak titularrak dituen eginkizun, erantzukizun eta bateraezintasun berak izanen baititu.

Zioak: Mugatutako denbora gehiago zehaztea, Gizarte Segurantzak aldi baterako ezintasun egoeran egoteko ezarritako epea erreferentziazat hartuta.

16. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

74. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluko testua aldatu eta honako hau jar-
tzea proposatzen dugu:

16. artikulua. Farmazilarien ordezkia

1. Farmazilariaren ordezkia izendatuko da farmazilari titularrak edo bitarteko farmazilariak kanpora joan behar duenean, kargu publiko baterako edo korporazio edo lanbide bateko ordezkari kargu baterako izendatzen denean, lanbidearekin zerikusia duten ikasketetan ari denean, farmazia itxi gabe oportetara joaten denean, aldi baterako ezintasun egoeran edo amatasun egoeran dagoenean, edo iraupen laburreko arrazoi propioengatik. Ordezkoa izendatuko da, halaber, farmazilari titularra bere zereginetatik bereizten denean, legez kanpoan dagoela deklaratzeko egoeran ez dagoen kasuetan, eta, betiere, denboraz mugaturik dauden inguruabarretan.

Farmazilariaren ordezkia farmazilari titularrak edo bitarteko farmazilariak dauzkan eginkizun, erantzukizun eta bateraezintasun berberak izanen ditu.

2. Farmazilarien ordezkoa farmaziako titular-jabeak edo bitarteko farmazilariak izendatuko du, ezindutako edo kanpoan dagoen farmazilariaren oinordekoak edo ordezkariak ados daudela.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste plante-amendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

75. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 16 bis artikulua berria gehitzea:

“16 bis artikulua:

1. Farmaziaren jardunaren bolumena, ordutegiaren araubidea edo jardueren aniztasuna kontuan harturik, beharrezkoa izanen da farmazilari laguntzaile bat edo gehiago izatea. Osasun Departamentuak zehaztuko du, urtero, urteko lehen hiruhilabetean, farmazia bakoitzaren jardunaren bolumena, aurreko urtean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari egindako fakturazioan oinarriturik; farmazia bakoitzak urtean emandako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren hamabost mila errezetako farmazilari laguntzaile bat izan beharko du, gutxienez.

2. Farmazilari laguntzaileak bere lanbide kualifikazioaren eta prestakuntzaren mailari atxikitako eginkizunak beteko ditu.”

Zioak: Emandako errezeten bolumenaren arabera farmaziari laguntzaileen kopuru zehatz bat eduki beharra ezartzea, horren bidez bermatzeko farmazia laguntza, kalitatezkoa eta pertsonalizatua, farmaziako lizentziatu batek ematen duela, Medikamentuei buruzko Legearen 88.2 artikulua aurreikusten duen bezala.

76. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. tituluko II. kapituluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikulu bat gehitzea proposatzen da.

— artikulua. Farmazilari laguntzailea.

1. Beharrezkoa izanen da farmazilari laguntzaile bat edo batzuk egotea, farmaziek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko errezeten kontzeptuan fakturatzen dutenaren arabera.

Jarduera horren bolumena eta horri dagokion farmazilari laguntzaileen kopurua Farmazia Laguntzaren Batzordeak ezarriko ditu.

2. Farmazilari laguntzaileak bere lanbide kualifikazioaren eta prestakuntzaren mailari atxikitako eginkizunak beteko ditu.

Zioak: Farmazia laguntza hobeki ematen dela bermatzea, farmaziako profesionalak farmaziaren jarduerak eskatzen dituenak izan daitezzen bultzatuz.

77. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 16 bis 1 artikulua berria.

“16 bis 1 artikulua: laguntzaileak.

Berariazko titulazioa eskatzen ez duten eginkizunak betetzeko, farmazilariekin batera haiek beharrezkotzat jotzen dituzten laguntzaileak aritu ahal izanen dira lanean, onarturik dauzkaten eginkizunak betetzeko.

Farmaziako laguntzaileei dagokien titulazioa edozein dela ere, farmazilari titularrek izanen dute horien prestakuntzaren ardura.”

Zioak: Laguntzaileen figura arautu beharra dago.

78. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16. artikuluari laugarren idatz-zatia gehitzeko zuzenketa. Erredazioa hauxe izanen litzateke:

“Bitarteko farmazilariak zein ordezkoez zilegi izanen dute farmazilari eta langile laguntzaileak izatea”.

Zioak: Proposatutako erredazkia hobetzea.

6. Farmazia bakoitzak farmazia laguntza eta kalitate plan bat izanen du, farmazi laguntzaren bermagarri, Osasun Departamentuak onetsia. Foru Lege honek indarra hartzean irekita dauden farmaziek hiru urteko epea izanen dute Plan hori osasun arloko administrazioan tramitatzeko.”

Zioak: Farmazien instalazioak eta lokalak lege testuan zehazkiago arautzea beharrezkotzat joko da.

81. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

18. artikulua aldatzeko zuzenketa

18. artikuluko testua aldatu eta honako hau jar-ztea proposatzen dugu:

18. artikulua. Lokalak, instalazioak eta identifi-kazioa

1. Farmazietako lokalek eta instalazioek far-maziako laguntza zuzena bermatzeko beharrez-koak diren baldintzak beteko dituzte, honako arlo-etan: lekua, lan arloen banaketa, ekipamendua, baldintza higienikoak eta osasun baldintzak.

2. Farmazi laguntza emateko, baimentzen diren farmaziek, gutxienez, 70 metro koadro izan-nen dituzte, eta haietan, gutxienez, ondoko arloak egonen dira:

a) Erabiltzaileari arreta egiteko eta saltzeko arloa.

b) Medikamentuak eta osasun produktuak jaso, berraztertu eta biltzeko arloa.

c) Maisu formulak, farmazi prestakinak edo prestakuntza propioko bestelako produktuak egi-teko arloa.

d) Farmazilariaren bulegoa, edo banakako arreta egiteko arloa.

e) Komuna.

3. Farmazi bulegoek bide publikotik sarrera librea, zuzena eta iraunkorra izanen dute, arkitek-tura-oztoporikgabeak.

4. Arauz ezarriko dira farmaziek eduki beharre-ko baldintza teknikoak, materialak eta tresnak.

5. Farmaziak behar bezala identifikaturik ego-nen dira, letreroak, lanbidearen sinboloak, gurutze greko batez nahiz Maltako gurutze berde batez eta farmaziaren titularra identifikatzeko plaka batez.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste plante-amendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

82. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

18. artikuluari: Jendearentzako farmazietako lokalen eta instalazioen gainean.

3. puntuaren ordean, honakoa txertatzea:

“3. Nafarroako Gobernuak Osasun Departa-mentuak ezarriko ditu erregelamendu bidez far-mazia guztiei eskatu ahal zaizkien gutxieneko kalitate baldintzak, herritarrei ematen zaie zerbit-zuari dagokionez; kalitatea ziurtatzen duten alderdi guztiak eta hura neurtzeko parametroak ere zehaztuko dira, farmazia bakoitzak bere Kali-tate Plana diseinatu eta garatu ahal izateko. Plan hori osasun arloko administrazioak onetsi beharko du eta farmazia guzti-guztiei eskatu ahal izanen zaie, funtzionamendu egokiaren berme gisa”.

Zioak: Herritarrendako osasun zerbitzu eten-gabe bati eskatu beharreko kalitateari objektibota-sun eta batasun handiagoa ematea.

83. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

18. artikuluari: Jendearentzako farmazietako lokalen eta instalazioen gainean.

3. puntutik aurrera, puntu hauek gehitzea:

“4. Farmazietako lokal eta instalazioek farma-zia laguntza egokia emateko behar diren osasun eta higiene baldintzak bete beharko dituzte.

5. Foru Lege honek indarra hartu ondoren bai-mentzen diren farmaziek 70 metro karratuko gutxieneko azalera izan beharko dute, eremu edo alde funtzional hauetan banaturik:

– Erabiltzaileari zerbitzua emateko tokia.

– Medikamentuak eta osasun produktuak jaso, gainbegiratu eta biltzeko tokia.

– Analisisetarako eta maisu formulak eta bulego prestakinak egiteko tokia.

– Laguntza pertsonalizatua emateko toki baterako aurreikuspena.

– Bainugela dutzarekin.

Egun dauden farmazietarako hiru urteko epea ezartzen da idatz-zati honetan aurreikusitako baldintzak bete ditzaten.

6. Farmazien aurrealdean eta sarrera nagusian argi ikusiko da “farmazia” hitza.”

Zioak: Farmaziak kokaturik dauden lokalek bete beharreko gutxieneko baldintzak zehaztea.

19. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

84. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua, jendearentzako orduak eta informazioari buruzkoa, kentzeko zuzenketa.

19. artikulua kentzea

Zioak: Orduetgia eta informazioa aurreko zuzenketan aurreikusirik daude, bertan beste artikulua bat gehitu baita, hain zuzen herritarrendako laguntza etengabearen inguruan, hasierako testuan proposatutakoa baino garatuagoa.

85. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua aldatzeko zuzenketa

19. artikuluko testua aldatu eta honako hau jarritza proposatzen dugu:

19. artikulua. Orduetgiak eta guardiako zerbitzuak

1. Farmazietako osasun laguntza eragingarria bermatzeko, osasun administrazioak, Farmazilarien Elkargo Ofizialari eta kreditaturiko lanbide elkargoei entzunda, jendaurreko orduetgiei, guardiako zerbitzuei eta farmaziak, borondatez, aldi baterako itxeari buruzko gutxieneko arau batzuk ezarriko ditu, farmazi eskualde bakoitzaren biztanleriaren eta geografiaren ezaugarriei begiratuta.

2. Farmaziek askatasunez eta malgutasunez emanen dute zerbitzua, aurreko idatz-zatian ezarritako gutxieneko arauak betez, betiere.

Osasun Administrazioak ezarritako gutxieneko lanaldi edo orduz goiti lan egiten duten farmaziek aurretik jakinarazi beharko dute hori, eta araubide hori gutxienez ere urtebetez mantendu beharko dute.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

86. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

19.1 artikuluar aldaketa egitea proposatzen da. Honela geldituko litzateke idatzirik:

Farmaziak libre eta malgu arituko dira lan-orduei dagokienez, baina bete behar dituzte, halarere, orduetgi ofizialak eta guardien, oporren, larrialdien eta zerbitzuak dauzkan nolakotasunak ezartzen dituen beste inguruabarren gaineko arauak, Osasun Departamentuak finkatzen dituen baldintzen arabera, populazioari farmazi laguntza etengabea bermatzeko moduan.

Zioak: eskumena behar bezala egokitzea arloaren arabera.

87. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikuluar zenbait idatz-zati gehitzeko zuzenketa.

“3. Orduetgi horretatik kanpo, farmazia laguntza larrialdiko araubidean baizik ez da emanen, eta ordu horietan errezeta medikoaren bidez agindutako medikamentuak eta osasun produktuak, bai eta farmazilari arduradunaren iritziz une horretan larrialdietakoak edo beharrezkoak direnak ere, izanen dira eskuragai bakarrak.

4. Larrialdietako araubidea txanda sistema baten bidez gauzatuko da. Sistema hori Farmazilarien Elkargo Ofizialak finkatuko du, Osasun Departamentuak ezarritako irizpideekin bat.

5. Farmaziak aldi baterako itxi ahal izanen dira oporretan, betiere Osasun Departamentuak farmazia laguntzarako ezartzen dituen beharrak betetzen badira. Farmazilarien elkarreko Ofizialak

antolatuko ditu txandak oporrak hartu nahi dituzten farmazilariendako.

6. Larrialdietako farmazia zerbitzuaren gaineko informazioa farmazia bakoitzean jarriko da agerian, Nafarroako Foru Komunitateko bi hizkuntzetan idatzirik.”

Zioak: Larrialdietako zerbitzua egokia dela ziurtatzea.

88. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

19. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa

19. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzea proposatzen da, honako testu honekin:

19 bis artikulua. Farmazien publizitatea

Debekatuta dago farmazietan farmaziei buruzko promozio zuzena nahiz zeharkakoa egitea, edozein dela ere hautatzen den euskarria, bitartekoa edo banaketa sarea. Salbuespen bakarra bulego horietan saltzen diren produktuen bilgarriak eta ontziak dira.

Horretarako, bilgarri eta ontzietan, nahi izanez gero, datu orokorrak agertu ahal izanen dira; hala nola, farmaziaren titularrak, helbidea eta ordutegiak. Nahitaez, medikamentuen behar bezalako erabilerari buruzko mezuren bat agertu beharko dute.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

20. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

89. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

20. artikulua aldatzeko zuzenketa

20. artikuluko testua aldatu eta honako hau jarritzea proposatzen dugu:

20. artikulua. Lizentziak

1. Farmazia berri bat irekitzeko baimena ematen zaionetik, farmazilariak sei hilabeteko epea izanen du lokal horretan jardueran hasteko behar diren administrazio lizentziak lor ditzan. Lokalak

25. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Lizentziak lortzen dituztenean, Osasun Departamentuari jakinaziko dio.

Aipatu epea aurreko baldintza bete gabe iragan bada, adjudikazio-hartzaileari ohartaraziko zaio adjudikazioa iraungi egingen dela, guztiendako administrazio prozedurari buruzko legeetan kasu horietarako ezarritako ondorio guztiekin.

2. Departamentuak 1. idatz-zatiak aipatzen duen lizentzia lortu duelako komunikazioa jaso duenean, Farmazi Ikuskaritzako Zerbitzua farmaziara joanen da, hiru eguneko epean, indarra duen antolamenduak exijitzen dituen baldintzak, instalazioak eta dotazioak daudela egiaztatzen duen akta egitera.

Akats edo ez-betetzeren bat ohartu bada, idatziz jasoko da, ebazpena emateko ezarritako hamabost eguneko epean zuzen dadin. Baimenaren titularraren eskuetan ez dauden inguruabarrengatik hori posible ez bada –betiere, behar bezala kreditatu beharko da hori– eta zuzendu beharreko horiek farmaziaren berezko eginkizunak betetzeko ezinbestekoak ez diren elementuetan gertatzen badira, baimena eman ahal izanen da, baina gero batean eteteko baldintza duela.

3. Akta egin eta hamabost eguneko epean, Osasun kontseilariak farmazia zabaltzeko baimena ematen edo ukatzen duen ebazpena emanen du; baimen hori betearazi egin ahal izanen da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baino lehenago ere.

Epe hori iragan bada ebazpen espresua jakinarazi gabe, zabaltzeko baimena eman dela ulertuko da.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

90. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

20. artikulua 1. idatz-zatiaren amaieran lerrokada bat gehitzea proposatzen da, hauxe, alegia:

20. artikulua. Aldez aurreko baimena.

1. Farmaziak irekitzeko ezinbestekoa da Osasun Departamentuak administrazio baimena ematea, aurretiaz konprobaturik bai titularrak eta bai proposatu diren lokalek zein bertako ekipamen-

duak bete egiten dituztela Estatuaren oinarrizko legeek, foru lege honek eta aplikatzeko diren beste arauak eskatzen dituzten baldintzak.

Era berean, Osasun Departamentuaren baimen administratiboa beharko da farmazian farmaziako titulazioari lotutako beste sekzio batzuk irekitzeko.

Zioak: Farmazia batean bete daitezkeen jardueretako bakoitzaren sekzioak berariazko baimena behar du (Analisetako laboratoriora, optika, eta abar.). Tituluari loturik ez dauden sekzioek ez dute baimenik behar.

91. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 2. idatz-zatiari aldaketa egiteko zuzenketa.

2. idatz-zatiaren ordez beste hau txertatzea:

“2. Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak urtero emanen du ezagutzera zein diren farmazia laguntza izateko egun behar diren gutxienezkoak, farmazia bat 1.600 biztanleko, alegia, betetzen ez dituzten eskualde, herri eta populaziorik gabekoak, Nafarroako geografia osoan herritarrei farmazia laguntza ematean irizpide ekitatiboekin jokatzeko; bestalde, osasun administrazioa den aldetik, eskualde defizitarioei lehentasuna emateko eskubidea eta betebeharra izanen du, behar adinako zerbitzua duten eskualdeetan farmazia berriak irekitzeko baimena eman baino lehen.”

Zioak: Bateragarriak egitea lanbidean libre ari zateko eskubidea eta enpresa liberako eskubidea, batetik, eta potere publikoek, kasu honetan, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak, farmazia laguntza behar bestekoa, kalitatezkoa eta hurbilekoa planifikatu eta garatzeko duten eskubidea eta betebeharra, bestetik, bereziki behar bezalako laguntza jasotzen ez duten eskualde, herri eta populaziorik gabekoak, biztanle guzti-guztiek osasun laguntza jasotzeko duten eskubidearen alde.

92. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa. 20. artikulua. Artikulu honen 4. idatz-zatia kentzen da.

Zioak: Ituntzea nahitaezkoa ez izatea kendu nahi dugu legeko testutik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Komunitatean irekita dauden farmazia guztiekin itunak egin ditzan baldintza berberetan, Medikamentei buruzko Legearen 3 eta 88.1a) artikuluekin bat.

93. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 4. idatz-zatia kentzeko zuzenketa

Zioak: baimendutako farmaziak itundu beharra.

94. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

20. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

4. idatz-zatiaren ordez beste hau txertatzea:

“Foru Komunitateko herritar guztiek farmazia libreki aukeratzeko duten eskubidea bermatzeko, Foru Komunitateko herritarrek, Estatuak beste erkidegoetako herritarrekin konparaturik, kalteturik gerta ez daitezzen, Nafarroako Gobernuak farmazia laguntzarako egungo ereduari eutsiko dio, eta horri txertatuko Foru Lege honek farmazia laguntzaren arloan xedatzen dituen hobekuntza guztiak; Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua bidez, itunak eginen ditu jendearentzat egun irekita dauden farmaziekin eta aurrerago irekiko direnekin, haren fakultatiboek agindutako medikamentuak eta osasun produktuak emateko.”

Zioak: Foru lege honen helburua da herritarrei ematen zaien farmazia laguntzaren klitatea hobetzea. Ez dirudi logikoa legea egitea zenbait ezaguri dituen laguntza eredu, alegia, unibertsalizatua, libreki eskura daitekeena eta gutxienezko

kalitatearekin, abiapuntutzat hartu gabe. Ez dirudi bidezkoa Estatuan aurrekari bat ezartzea farmazia laguntzarako bi eredu sortuz, farmazian kasu egiterakoan gaisoak beren ahalmen ekonomikoaren arabera edo errezeta motaren arabera bereizten dituztenak.

95. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

20. artikulua 4. puntua ordeztuko zuzenketa

Orain dagoen testua honakoak ordezteko proposatzen da:

4. Farmazia irekitzeko baimenak berarekin dakar ituna egitea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin, nahitaez erakunde autonomoarentzat, farmazia irekitzeko baimena jaso duenak hala eskatzen badu; betiere kapitulu honen laugarren atalean aurreikusitakoa bete beharko da.

Zioak: Ituna hala nahi duen ororekin egiteko aukera emanez eragozten da Administrazioak bi farmazia mota bultzatzea. Horrela, eskatzaileak berak erabakiko du.

96. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

20. artikulua ondotik beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa

20. artikulua ondotik bese artikulua bat gehitzea proposatzen da, honako testu honekin:

20 bis artikulua. Irekitzeko baimenerako prozedura

1. Farmazia berriak irekitzeko prozedura publikitate, gardentasun eta parte-hartze printzipioen arabera izanen da, lege honetan eta guztientzako administrazio prozedurari buruzko arau orokorrean ezarritakoari jarraituz.

2. Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak du farmaziak irekitzeko baimenak emateko prozedurak izapidatzeko eta ebazteko eskumena.

3. Farmazia berri bat baimentzeko prozedura Osasun Departamentuak berak has dezake, edo bestela interesa duten farmazilari batek edo gehiagok eskatuta.

4. Espediente bati buruzko ebazpen espresu eta arrazoitua gehienez ere hiru hilabeteko epean

eman beharko da. Epe hori eskatzaileari ebazpena jakinarazi gabe iraganik, baimena eman dela ulertuko da.

5. Biztanleen udal erroldak aztertu ondoren, Osasun Departamentuak farmazia berriak irekitzeko baimen berriak eman daitezkeen farmazi barrutien eta udalen zerrenda argitaratuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta zerrenda hori jakinaraziko die Farmazilarien Elkargo Ofizialari eta eta lanbide elkarte kreditatuei. Hortik aurrera, hilabeteko epea hasiko da interesdunek farmaziak irekitzeko baimenen eskariak aurkez ditzaten.

6. Eskariak lehian badaude, farmazilari eskatzaileen merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera ebaztuko dira, arau ezarriko den baremoa aplikatuta. Baremo horretan, merezimendu akademikoak, lanbideari loturikoak, ikerketari buruzkoak eta irakaskuntzari doazkionak balioetsiko dira, bai eta enplegua sustatzen edo sortzen den eta ezgaitasun egoerak ere.

Baremo horretan, lehentasuna emanen zaie farmaziako lanean egindako lanbide merezimenduei, ikerkuntza eta irakaskuntza lanean egindakoei, enplegua sortzearekin loturikoei, ezgaitasun egoerekin loturikoei eta merezimendu akademikoiei.

7. Farmazia baten adjudikazio hartzaile suertatzen direnek farmazia bat adjudikatzeko espedientean alegatu dituzten merezimenduak ezin izanen dira aurkeztu ez eta zenbatu ere aurkezten diren hurrengo adjudikazio espedienteetan.

8. Prozedura ezin izanen da 65 urtetik gorako farmazilari baten alde edo farmazi barruti bereko farmazilari titularren edo titularkideen alde espediente berean bestelako eskaririk ez dagoenean baizik.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

21. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

97. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa

21. artikuluko testua aldatu eta honako hau jarritzea proposatzen dugu:

21. artikulua. Farmazien plangintza

1. Farmazia berriak irekitzeko plangintza jendeari osasun laguntza onena eta egokiena emanen zaiola bermatzeko irizpideen arabera izanen da, bai eta farmazi lanbidean libreki aritzeko eskubideen, enpresa askatasunaren eta ezartzeko askatasunaren arabera ere.

2. Farmazien plangintzak ondokoak hartu beharko ditu kontuan: dentsitate demografikoa, ezaugarri geografikoak eta biztanleen dispersioa. Horrek ondokoak ditu helburu: biztanleen beharren arabera farmazi laguntza egokia, zerbitzuaren irisgarritasuna eta kalitatea, eta medikamentuen hornidura nahikoa egotea, lurralde bakoitzaren osasun beharren arabera.

3. Farmazi plangintza farmazi eskualdeen arabera eginen da; haien lurralde eta populazio mugaketa egun dauden osasun eskualde batek edo batzuek eginen dute.

4. Farmazi eskualdeak ondoko irizpideen arabera sailkatuko dira:

A) Udal baten lurraldea osasun eskualde oinarritzko bat baino handiagoa bada, farmazi eskualdetzat hartuko da udalaren mugatzea.

B) Oinarrizko Osasun Barruti batek udal bakar bat osorik hartzen duenean, farmazi eskualdea bat etorriko da osasun eskualde oinarrizkoarekin eta udalerriarekin.

C) Osasun Eskualde Oinarrizko batek udal bat baino gehiago hartzen duenean, farmazi eskualdea hartuko da osasun eskualde oinarrizkotzat.

5. Hiri-eskualdeak izanen dira farmazi eskualdea aurreko idatz-zatiko A) eta B) letretako edukiarekin bat datorren kasuak; landa-eskualdeak, berriz, gainerakoak izanen dira.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

98. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikulua aldatzeko zuzenketa

21. artikulua ordez honako hau txertatzea:

“Nafarroako geografia osoan farmazia laguntza behar bestekoa dela eta Foru Komunitatean bizi diren guztiei kalitate, eskuragarritasun eta zuzentasunezko irizpide berberekin ematen zaiela aurreikusteko, Osasun Departamentuak lehentasuna emanen dio jendearentzako farmazia berriak

irekitzeari farmazia laguntza hobetu behar den eskualde, herri eta populaziorik gabeko. Behin behar horiek aseturik, farmazia berriak irekitzeko baimena eman ahal izanen da 1.600 biztanleko farmazia bat, gutxienez, duten eskualde, herri edo populaziorik gabeko.”

Zioak: Osasun zerbitzua behar besteko farmazia laguntzarekin planifikatu beharri erantzutea, farmazia berriak irekitzeko eskaerak aintzat hartzerakoan irizpide obehkitiboei jarraikiz lehentasuna duten herrietarako erreserba bat eratuz.

99. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

21. artikuluari hirugarren lerroka gehitzeko zuzenketa. Hauxe izanen da erredakzioa:

“Arreta berezia eskainiko zaio farmaziak egoteari Nafarroako landa eskualdeetan”.

Zioak: lerroka berak arautzen duen bezala, farmazia laguntza egokia ziurtatzeko eskualde horietan”.

22. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

100. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa. 22. artikulua. Hauxe da 22. artikulua berria:

“Foru Komunitatean diren oinarrizko osasun eskualdeetako bakoitzak gutxienez jendearentzako zenbat farmazia eta non izan behar dituen finantzatzeko, honako irizpidea erabiliko da:

Farmazia kopurua izanen da oinarrizko osasun eskualdeko populazioa zati 2.800 egitetik ateratzen den zenbaki osoa.”

Zioak: Nafarroan irekitako farmazia guztiekin ituntzeko aukera ematen denez, zentzugabea da oinarrizko legeetan oro har aurreikusirik dauden irizpide orokorrak ez beste batzuk ezartzea.

101. ZUZENKETA

Oinarrizko osasun eskualdeko populazioa, edo hura osatzen duten herrietako bakoitzeko populazioa, zati 2.800, eta horren emaitza kasuko den faktore zuzentzaileaz biderkatuz. Faktore horiek kasuko oinarrizko osasun eskualdean 65 urtez gorako populazioak duen proportzioaren arabera kalkulatu dira, honela:

– 65 urtez gorako populazioa % 18raino: zuzentze faktorea 1.

– 65 urtez gorako populazioa % 18tik 25era artekoa: zuzentze faktorea 1,5.

– 65 urtez gorako populazioa % 25 baino gehiagokoa: zuzentze faktorea, 2.

Faktore hori kalkulatzeko, farmazia irekitzeko eskaera egiten den egunean indarrean den Udal Erroldak adierazten duena hartuko da oinarrizko osasun eskualde bakoitzeko populaziotzat, eta 65 urtez gorako populazio-zatitza Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratu eta eskaeraren datan indarrean dena.

b) Nolanahi ere, 700 biztanletik gorako herrietan jendearentzat irekitako farmazia bat, gutxienez, egonen da, bai eta biztanle gutxiagoko herrietan ere, Nafarroako Gobernuak hala erabakitzen badu, sakabanaketa geografikoa eta interes publikoa kontuan harturik.

2. Farmazien artean egon beharreko distantzia betiere hauek baino handiagoa izanen da:

– Populazio dentsitatea km²-ko 1000 biztanle baino gutxiagokoa duten oinarrizko osasun eskualdeetan: 250 metro.

– Populazio dentsitatea km²-ko 1.000tik 10.000 biztanle bitartekoa duten oinarrizko osasun eskualdeetan: 150 metro.

– Populazio dentsitatea km²-ko 10.000 biztanle baino gehiagokoa duten oinarrizko osasun eskualdeetan: 100 metro.

Oinarrizko osasun eskualde bakoitzeko populazio dentsitatea finkatzeko, eskaeraren datan Nafarroako Estatistika Institutuan ageri dena hartuko da.

Zioak:

- Osasun eskualde oinarrizkoen artean, batzuk herri bakar batekoak dira (Iruñea eta Tutera) eta beste batzuek, berriz, zenbait herri hartzen dituzte. Mota bakoitzak bere tratamendua behar du.

- Begi bistakoa da zenbaki zatikiak goiti edo beheiti zuzendu behar direla.

- 2.800 biztanletik beherako herrietan justifikaturik dago farmazia bat, eta 700 biztanleren kopu-

ria da bideragarritasuna bermatzen duen gutxienekoa (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako fakturazioak, 20.000.000 milioi pezeta inguru).

- Farmazia zerbitzua bermatu nahi den zenbait eskualde oinarrizkotan, hala nola, Antzin-Ameskotan, Auritzen, Donezteben edo beste batzuetan, populazioa oso sakabanaturik dagoelako.

105. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

22. artikulua ondotik beste bat gehitzeko zuzenketa

22. artikulua ondotik beste bat gehitzea proposatzen dugu, honako testu honekin:

22 bis artikulua. Distantziak.

1. Farmazia berri baten kokalekuak gutxienez ere 200 metroko distantzia gorde beharko du hurbilen dagoen farmaziatik, farmazi barruti berekoak izan ala ez.

2. Berritik ezartzen den farmazia baten edo lekuz aldatutako farmazia baten kokalekuak, gutxienez ere, 150 metroko distantzia gorde beharko du beste edozein ospitale publikotatik nahiz osasun laguntza oinarrizkoko zentrotatik. Distantzia hori ez da aplikatuko farmazia bakarra duten udaletan.

3. Distantziak neurtzeko oinezkoen ibilbide laburrena neurtuko da, arauz ezarritako prozedurari jarraituz.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

23. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

106. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

23, 24, 25, 26 eta 27. artikulua kentzeko zuzenketa

23, 24, 25, 26 eta 27. artikulua kentzea proposatzen dugu:

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

107. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

23. artikulua aldatzeko zuzenketa

23. artikulua ordez beste hau jartzea:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak itunak eginen ditu jendearentzat irekitako farmazien jabe-titularrekin, baita irekiko diren farmazia berriekin, Osasun Sistema Nazionalako fakultiboek agintzen dituzten medikamentu eta sendagaiak emateko, foru lege honek, Osasunari buruzko 10/90 Foru Legeak eta aplikatzekoa den Administrazio Publikoen kontratueterako araudiak agintzen duten moduan.”

Zioak: Foru Lege honen helburua da populazioari ematen zaion farmazia laguntzaren kalitatea hobetzea. Ez daiteke laguntza hori mantendu, eta are gutxiago hobetu, ez bada bermatzen medikamentuak eta osasun produktuak emanen direla orain arteko baldintzekin eta Estatuan egiten den bezala, hau da, itunak eginez farmaziekin Osasun Sistema Nazionalako fakultiboek agindutako medikamentuak emateko.

108. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

23. artikulua ordezteko zuzenketa

Testo honen bidez ordeztea proposatzen da:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak itunak eginen ditu jendearentzat irekitako farmazien jabe-titularrekin, hala eskatzen duten guztiekin, Osasun Sistema Nazionalako fakultiboek agintzen dituzten medikamentu eta sendagaiak emateko, foru lege honek, Osasunari buruzko 10/90 Foru Legeak eta aplikatzekoa den Administrazio Publikoen kontratueterako araudiak agintzen duten moduan.

Zioak: Ituna hala nahi duen ororekin egiteko aukera emanez eragozten da Administrazioak bi farmazia mota bultzatzea. Horrela, eskatzaileak berak erabakiko du.

109. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

23. artikulua ordezteko zuzenketa.

Honakoa dioen tokian: “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zilegi izanen du ituntzea...”, esan behar du “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak itunduko du...”

Zioak: irekitako farmazia guztiekin itunak egin behar dira.

110. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 23. artikulua. 23. artikuluari 2. puntua gehitzen zaio.

“2.- Artikulu honen aurreko puntuan aipatzen den ituntzea unibertsala izanen da Komunitatean irekitako farmazia guztietarako eta berdinekin eginen da guztientzat”.

Zioak: Farmazia guztientzat berdintasun irizpidea ezartzea administrazioarekin duten harremanari dagokionez, Medikamentuei buruzko Legearen 3 eta 88.1a) artikuluekin bat.

24. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

111. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

24. artikulua kentzeko zuzenketa. 24. artikulua kentzen da.

Zioak: Farmazia itunduen eta itundugabekoen arteko bereizketa ezabatzea.

112. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

24. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: irekitako farmazia guztiekin itunak egin behar dira.

113. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

24. artikulua kentzeko zuzenketa.

24. artikulua kentzea.

Zioak: IUN/NEB Taldean uste dugu ezin dela atzerapausurik eman Nafarroan eta Estatu osoan ematen den farmazia laguntzan. Irekitako farmazia guztiek itunak dituzte Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin Gizarte Segurantzaren errezetarekin eskatzen diren medikamentu eta farmazi produktuak emateko. Orain farmazia itunduak eta itundugabeak dituen sistemara jotzeak nahasmena eraginen du populazioarengan, esku-ragarritasuna murrizten du, farmazia libreki hautatzeko herritarren eskubidea mugatzen du eta gizarte zuzentasuna urratzen du. Gure ustez, legeak egiten dira herritar guztien onurarako eta egun dugun eredia, gizartearen lorpena, zalan-tzarik gabe, hobetzeko asmoarekin.

114. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

24.2 artikulua kentzeko zuzenketa.

Kentzea proposatzen da.

Zioak: Legeak itundu beharreko farmazien kopuru gutxienekoa adierazi behar du, eta ez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak itunak egiteko erabil ditzakeen irizpideak, ituna egiteko erabakia eskatzailearena baita.

115. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa

24.2 artikulua d) letraren ordeztatzeko berri bat, 3 zenbakikoa, txertatzea proposatzen da. Honela geldituko da idatzirik:

“3. Foru lege honetan bildutako gutxienekoen plangintzan sartzen diren farmaziek bermaturik izanen dute bideragarritasun ekonomikoa, eta hala ageriko da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin izenpetuko duen kontratuan, betie-

re kokaturik dauden Osasun Eskualde Oinarrikoan Osasunbidea-Nafarroko Osasun Zerbitzuarekin itunduriko farmazien kopurua plangintza horren ondorioz ateratzen dena baino handiagoa ez bada.”

Zioak: Populaziogune txikitako farmaziak, beharrezkoak, halere, bideragarritasun ekonomikorako sostenguen premia izan dezaketenak, itunaren bidez. Egoera hori aurreikustea.

25. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

116. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

25. artikulua kentzeko zuzenketa

25. artikulua kentzea

Zioak: 24. artikulua kentzeko zuzenketan emandakoa, eta horrez gain agertaraztea autonomia erkidegoetako legedi bakar bat ere ez dela mintzatzen itunaren irizpide ekonomikoez. Bideragarritasun ekonomikoa ez daiteke foru lege honen oinarria izan. Osasun Departamentua biztanleen osasuna kudeatzeaz arduratu behar da. Farmaziako faktura SNSko fakultatiboek luzatutako errezeten arabera da eta bi faktorekin dago loturik: populazioan zaharren kopurua handitu dela eta medikamentuen bidezko tratamenduen menpe baizik ez dauden gaiso kronikoen biziraupena handiagoa dela.

Logikoa da kostuak jaitea generikoak erreze-tatuz eta dosi bakarrak emanez, gaiso eta kasu bakoitzari egokitutako tratamenduekin eta, batez ere, laboratoriekin negoziatzeko gaitasuna izatea; horrez gain, ikerketa bultzatzea, gaur egun multinazional handien esku baitago, eta horien interesa merketzea baino saltzea da.

117. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kenketa egiteko zuzenketa. 25. artikulua.

25. artikuluko 3. puntua kentzen dugu.

Zioak: Ez da beharrezkoa, ituntzeko irizpide unibertuala ezarri baita.

118. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

25. artikulua 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: 24. artikulua kentzeko zuzenketarekin bat etortzeko.

119. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

25.3 artikulua aldatzea proposatzen dugu. Hona hemen:

25.3 artikulua. Aurreko atalean aurreikusten denaz gain, honako alderdiak jasoko dituzte osasun eskualde oinarrizko bakoitzeko farmazietako titular-jabeekin itunak egiterakoan:

a) Farmaziaren jendearentzako orduak.

b) Zerbitzuaren kalitatea, hau da, zenbat farmazilari arituko diren farmazi laguntza ematen, ematen diren medikamentu eta sendagaien proportzioan.

c) Baliabide materialak: proportzio egokia izatea farmazian diren medikamentu, efektu zein akzesorioen eta osasun eskualde oinarrizko horretako erabilera profilararen artean.

d) Maisu formulak eta farmazi prestakinak prestatzeko baimena izatea, prestakuntza egokirako araei jarraituz.

e) Oinarrizko osasun eskualde bakoitzak medikamentuak arrazionalki erabili eta populazioa osasunari buruz hezteko antolatzen dituen programe-tan parte hartzea. (Ezabatua)

f) Egin beharreko itunaren peko medikamentuen eta sendagaien onura komertzialaren gainera deskontua egitea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari fakturatzerakoan.

g) Medikamentu generikoen erabilera bultzatzea.

h) Osasun Departamentuak ezartzen dituen guardiako txandak egitea.

i) Osasun administrazioek ondoko gai hauen inguruan bultzatzen dituzten programetan parte hartzea: farmazi laguntza eta, oro har, osasun

laguntzaren kalitatearen bermea, osasuna sustatu eta babestea, eritasunei aurrea hartzea eta osasun arloko hezkuntza.

j) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua- rekin itundutako farmaziaren batean farmazi laguntzan esperientzia izatea.

Zioak: Lehenengo aldiz, ituna ez da alde bakarrekoa; aitzitik, kontratazio arauen eta Osasunari buruzko Foru Legearen menpean ezezik, farmazi laguntzaren berezitasunei ere loturik dago.

120. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

25.3 artikulua ordeztzeko zuzenketa

3. puntua ondoko testu honekin ordeztea proposatzen dugu:

Aurreko atalean aurreikusten denaz gain, itunaren baldintzak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta 27. artikuluari jarraiki sortuko den batzordearen artean negoziatuko dira. Baldintzak plegu batean zehaztuko dituzte eta horri atxikiko zaizkio farmaziak. Itunean osasun eskualde oinarrizko bakoitzerako ezarritako balodintzek ondoko alderdi hauek balioetsiko dituzte:

a) Farmaziaren jendearentzako orduak.

b) Zerbitzuaren kalitatea, hau da, zenbat farmazilari arituko diren farmazi laguntza ematen, ematen diren medikamentu eta sendagaien proportzioan.

c) Baliabide materialak: proportzio egokia izatea farmazian diren medikamentu, efektu zein akzesorioen eta oinarrizko osasun eskualde horretako erabilera profilararen artean.

d) Maisu formulak prestatzeko kreditaturik egotea.

e) Oinarrizko osasun eskualde bakoitzak medikamentuak arrazionalki erabili eta populazioa osasunari buruz hezteko antolatzen dituen programe-tan parte hartzea. Ildo horretatik, arreta berezia emanen zaie medikamentu generikoei.

Zioak: Ituna hala nahi duen ororekin egiteko aukera emanez, administrazioak bi farmazi mota bultzatzea eragozten da. Hala, eskatzaileak berak erabakiko du.

121. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa. 25. artikulua. 3. puntu berri bat gehitzen zaio 25. artikuluari.

“3. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialak Foru Komunitatean irekitako farmazien bidez eman beharreko farmazi laguntza gauzatzeko itunaren baldintzak ezarriko dituzte. Itunaren iraupena bi aldeek ezarriko dute, baina inoiz ez da bost urte baino gutxiagokoa izanen.”

Zioak: Erakunde sinatzaileak zein diren eta itunaren gutxienezko denbora arautzea.

122. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

25. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

Ondoko 4. puntu hau gehitzea proposatzen dugu:

4. Itunaren lurralde eremuan Foru Komunitate osoa sartuko da, osasun eskualde oinarritzko batzuetarako, beraien ezaugarriak eta egoerak kontuan hartuz, egon daitezkeen berezitasunak ezertan eragotzi gabe. Itunean bertan, eta farmazien eta kontsumitzaile edo erabiltzaileen egonkortasuna kontuan hartuz, itundutako eperako izanen da.

Zioak: Proposatutako testuak jasotzen du.

**26. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK****123. ZUZENKETA****EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

26.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona hemen :

“Nafarroan jendearentzako farmaziak dituzten jabe-titularrek, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin ituna egiteko, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 78.1 artiku-

luak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.”

Zioak: Irekitako farmazia guztietan ituna nahitaezkoa izatearen alde egitea.

124. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

26. artikulua aldatzeko zuzenketa.

26. artikuluko 1. puntua ondoko honekin ordezttea.

“Itunak foru lege honetan eta aplikatzekoa den gainerako legedian ezarritako baldintzak betetzen dituzten farmazien jabe-titularrekin eginen dira.”

Zioak: Hurrengo artikuluan zehazten dira argi eta garbi zein diren ituna amaitzeko arrazoiak.

125. ZUZENKETA**UNION DEL PUEBLO NAVARRO****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa

26.2 artikulua a) letra aldatzea eta beste letra bat sartzea proposatzen dugu. Hona hemen:

a) Instalazioak ireki (ezabatu) eta lekualdatu, aldatu edo handitzeko behar den administrazio baimena ez izatea.

f) Farmazia saldu, transferitu edo osoa edo zati bat eskualdatu izana edo farmazilaria hutsegite larri bat egiteagatik edo behin eta berriz hutsegite larriak egiteagatik zehatu izanagatik.

Zioak: Ituna farmazilariarekin sinatzen da pertsonalki, osasun arloko profesionalekin kontratuak egiten direnean bezala.

Kontratua edo ituna ezin da saldu, transferitu edo eskualdatu. Zuzenketa honek horixe azpimarratzen du.

126. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

26. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

2. puntuan ituna amaitzeko beste arrazoi bat gehitzea proposatzen dugu:

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-rekin itundutako farmaziako jabe-titularra erretiro adinera iristea.

Zioak: Farmazilariak jardunean hastea laguntzea.

127. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

26. artikuluari 3 zenbakiko idatz-zati bat gehitzea proposatzen dugu. Hona hemen:

“3. Bitarteko farmazilaria farmaziaren titular-jabeak sinatuta duen itunean subrogatuko da, haren baldintza berberekin eta bitarteko egoerak irauten duen bitartean.”

Zioak: Bitarteko epe hori eta heriotza edo ezigaitasun kasuetan jarraitasuna bermatzea.

27. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

128. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

27. artikulua aldatzea. Honela gelditzen da:

“27. artikulua. Foru dekretu baten bidez Farmazi Laguntzaren gaineko Aholku Batzorde bat eratuko da, farmazi prestazioaren gainean aholku emateko.

Batzorde hori ondoko kideek osatuko dute:

– Osasun Departamentuko Zuzendari Nagusia, lehendakari izanen dena.

– Kontseilariak izendatutako Osasun Departamentuko 3 ordezkari.

– Nafarroako Foru Komunitateko osasun barruti bakoitzeko farmazilari bat, Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialaren eta osasun barruti horretan jendearentzat irekitako farmazien titular-jabe diren farmazilari taldearen artean aukeratutakoa.

– Nafarroako farmazilarien enpresa-elkarteen ordezkari izanen den farmazilari bat.

– Osasun Zerbitzuan aritzen den zuzenbideko lizentziatu bat, idazkari gisa arituko dena.

Batzordeari ondoko eginkizun hauek dagozkie:

- Farmazi prestazioaren jarduera ezagutzea.

- Farmazi laguntza ematen deneko baldintzak ezagutzea; batez ere, guardiako txandak.

- Farmazia bakoitzaren ituneko baldintzak eza-gutu eta horiei buruzko txostena egitea.

- Farmazia berriek ituntzeko dituzten beharrei buruzko txostena egitea.”

Zioak: Aholku Batzordea osatu eta bere eginkizunak zehaztea.

129. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

27. artikulua aldatzeko zuzenketa

Artikulua ondoko honekin ordeztzea:

“Farmazi Laguntzaren gaineko Aholku Batzordea sortuko da zuzenean nahiz zeharka farmazi laguntzan parte hartzen duten eragile guztien bilgune gisa.

1. Batzordea eratuko dute Osasun Departamentuko ordezkariak, Farmazilarien Elkargo Ofizialeko ordezkariak, osasun eskualde oinarritzoko farmazilarien ordezkariak, elkarte profesionalek eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteetako ordezkariak.

2. Batzorde horren eginkizun izanen dira:

a) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-rekin esparru-ituna burutzea.

b) Lege honen eta bere erregelamenduaren garapenean parte hartzea.

c) Farmazi laguntzari buruzko gai guztietan aholkuak ematea.

d) Medikamentuen erabilera hobetzeko aholkuak ematea.

e) Farmazi laguntzari buruz herritarrei zuzendutako programa eta kanpainak abiarazten laguntzea.

f) Zehapen espedienteetan berari entzutea.

Zioak: Farmazi Laguntzaren gaineko Aholku Batzordearen gutxieneko eginkizunak eta eraketa zehaztea.

130. ZUZENKETA**EUSKAL HERRITARROK****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

27. artikulua ordezteko zuzenketa

Ondoko testu honekin ordeztea proposatzen dugu:

Foru dekretu baten bidez Farmazi Laguntzaren gaineko Aholku Batzorde bat eratuko da. Batzorde hori eratuko dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ikuskatzaile delegatuek, erregelamendu bidez ezartzen diren osasun eskualde oinarritzako ordezkariak, Nafarroako Farmaziarien Elkargo Ofizialeko ordezkariak, legez eraturako farmazilar profesionalen elkarteetako ordezkariak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen ordezkariak.

Batzorde horren eginkizunak izanen dira, besteak beste:

– Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidea-rekin esparru-ituna finkatzea.

– Harekin lankidetzan aritzea lege hau eta berori garatzen duten erregelamendu eta itunak bete daitezen.

– Farmazi laguntzaren eta zerbitzuen arloan aholkuak ematea.

– Gutxienekoen arauketan eta berorien planifikazioaren kontrolean parte hartzea.

– Zehapen espedienteetan berorri entzutea.

– Erregelamendu bidez ezartzen diren bestelako eginkizunak.

Zioak: Ordezkaritza handiko organo bat sortzea, aholkularitzara murrizten ez diren zenbait eginkizun dituen.

131. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

27. artikulua ondotik, beste lau atal, hamar artikulurekin, gehitzeko zuzenketa

27. artikulua ondotik, beste lau atal, hamar artikulurekin, gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

**Atala
Lekualdatzeak**

A artikulua. Lekualdatze motak.

1. Borondatezko lekualdatzeak dira farmaziarren titularraren edo titularren borondate librean oinarritzen direnean eta behin betikoak direnean. Lekualdatzeak hurrengo artikuluan ezarritako baldintzei lotu beharko zaizkie.

2. Ezinbesteko lekualdatzeak izanen dira farmaziak ezin duenean segitu dagoen lokal berean zerbitzua eskaintzen, eta ez dagoenean lokal horretara itzuli eta berkokatzeko aukerarik, edo farmazi laguntza behar bezala ematea bermatzen duten baldintzak betetzeko berregokitzerik ez duenean.

3. Behin-behineko lekualdatzeak dira obrak direla-eta gertatzen direnak, obra horiek farmaziarren lokala aldi baterako ixtea ekartzen badute.

Behin-behineko baimena emanen da beste instalazio batzuetan funtzionatzeko, eta horietarako ez da distantzia eskatuko, osasun zentro publiko batena denean salbu. Titularrak, horretarako emanen zaion epean, farmazia lehen zegoen lekura itzultzeko konpromisoa hartuko du eta behartuta dago itzultzera. Epea ez da baimendutako lanek irauten dutena baino luzeagoa izanen.

Emandako epea igaro eta farmazia ez bada lehengo lekura itzuli, behin-behineko baimendutako lokala itxi eginen da.

4. Farmazia baten behin betiko borondatezko edo ezinbesteko lekualdatzeak baimentzeak lekualdatzen den establezimenduaren baimenetik heldu diren eskubideak galtzea eta establezimendua ixtea ekarriko dio titularrari.

B artikulua. Borondatezko lekualdatzeak.

1. Farmazia bat haren farmazi eremutik atera gabe borondatez lekualdatzeko baimena eskuratzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

A) Lekualdatzea farmazia dagoen udalerritik bertatik atera gabe egitea eta lege honetan ezarritako gutxieneko distantziak gordetzea.

B) Lekualdatzea beste udalerrira batera egiten bada, xedeko udalerrira farmazia bakoitzeko dagoen biztanle proportzioa ez izatea 29. artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa, 30. artikuluko distantzia araubidea betetzea eta jatorriko udalerrira farmaziarik gabe ez gelditzea, betiere azken honek 800 biztanle baino gutxiago ez badu eta gelditzeko konpromisorik ez badago.

2. Farmazia beste farmazi eremu batera lekualdatzeko baimena eskuratzeko, farmazia

hartu behar duen eremu horretan bete beharko da biztanle eta distantzietarako 29 eta 30. artikuluetan ezarritakoa, eta jatorriko eremua farmaziarik gabe ez gelditzea.

C artikulua. Ezinbesteko lekualdatzeak.

1. Farmazietako titularrek ezinbesteko lekualdatzea eskatu ahal izanen dute farmazien lokalean lanean jarraitzerik ez dutenean, horiek desgertzea nahitaezko egiten duten jarduketa publiko edo pribatuen ondorioz, lokal horietara itzultzeko edo farmazia berkokatzeko aukerarik gabe, edo medikamentuak behar bezala gorde eta zaintzea bermatzen duten baldintzak eta farmazi laguntza emateko behar direnak betetzeko lokala berregokitzea ezinezkoa denean.

2. Behin-behineko zein behin betiko borondatezko lekualdatzearen kasuan, farmaziak farmazi eremu berean edo udalerrri berean ezarri ahalko dira, hurbilen dagoen farmaziatik 150 metrora.

D artikulua. Lekualdatzeko baimena.

Farmazien lekualdatze guztiak administrazio baimenaren prozedurari jarraikiz egiten dira, eta horretarako eskubidea izanen dute lokal berriak lege honen 25. artikuluan eskatzen den guztia betetzen badu eskaera egiten denean.

Atala

Eskualdatzea eta bitartekotasuna

E artikulua. "Inter vivos" eskualdatzea.

1. Farmazia lekualdatze, salmenta edo lagapen oso edo hein batekoaren bidez eskualdatzeko administrazio baimena beharko da, eta beste farmazilari baten eskuetan uzteko baizik ez da egin ahalko. Beharrezkoa izanen da establezimendua jendearentzat irekirik egon izana, titulartasun berberarekin, bi urtez gutxienez, kasu hauetan izan ezik: heriotza, jubilazioa, desgaitzea edo titularra edo farmazilari titularra ez egotearen deklarazio judiziala.

2. Farmazia bat kostubidez besterentzean, osorik edo hein batean, hauek izanen dute eskubidea, lehentasunezko ordena honetan: lehen mailako oinordeko farmazilaria, legez bereizirik ez dagoen ezkonlagun farmazilaria, farmazilari jabe-kidea, farmazilari bitartekoa, ordezkoa edo laguntzailea, antzinatasunaren arabera. Nafarroako Zuzenbide Zibilari jarraikiz baliatu ahal izanen da lehentasunez erosteko eskubideaz eta atzera eskuratzeko eskubideaz.

3. Farmaziaren titularrak edo titularrek farmaziaren gaineko berme errealak edo pertsonalak eratu ahalko dituzte, administrazioaren baimena

jaso ondoren. Bermeak betetzearen ondoriozko eskualdatzearen kasuan, artikuluko honen 1. idatzatian ageri diren baldintzak bete beharko dira.

4. Doako nahiz kostu bidezko eskualdatzeak prozedura sumarioaren bidez tramitatuko dira.

F artikulua. "Mortis causa" eskualdatzea. Bitartekotasuna.

1. Farmazia baten farmazilari titularra hiltzen bada, oinordekoek beren nahia jakinarazi beharko diote Osasun Departamentuari, farmazia eskualdatzeko asmoa duten ala hura behin betiko itxi nahi duten. Jakinarazpen hori, gehienez ere, hamabost eguneko epean egiten da. Epe eta modu horretan egin ezean, farmazia ixteko espedienteari hasiera emanen zaio ofizioz.

2. Oinordekoek, beren nahia adierazi ondoren, titularra hil eta hilabeteko epean bitarteko farmazilaria izendatzeko proposamena egiten diote Departamentuari. Bitarteko egoerak hamabi hilabete iraunen du gehienez, eta epe horretan hartu beharko dute oinordekoek beren erabakia. Baldin eta epe hori farmazia eskualdatzea edo ixtea eskatu gabe igarotzen bada, administrazio baimena irautsi egiten da, eta farmazia ixteko espedientearen tramitatzeari ekinen dio administrazioak bere kabuz.

3. Oinordekoren batek farmaziaren titularra izateko baldintzak betetzen baditu, horren buru segitu ahalko du; Osasun Departamentuan frogatu beharko da hala dela, behar den baimena luza dezan.

4. Farmazia baten zati hainbanatua besterentzen bada, farmazilari lanbidean aritzeko beharrik ez diren bitartekoek lehentasunez erosteko eskubideaz eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatu ahal izanen dira, Nafarroako Zuzenbide Zibilak ezarritako ordena eta araubidearen arabera.

G artikulua. Eskualdatzeak dauzkan mugak.

1. Farmaziak ezin izanen dira eskualdatu, titularrak beste farmazia bat irekitzeko baimena eskatzen badu, baimen berria behin betikoa eta irmoa ez den bitartean.

Titularkidetasunaren kasuan, muga honek irekitzeko eskaera berria egin duen titularkidea baizik ez du hartzen.

2. Farmazia baten titularrak beste farmazia bat irekitzeko baimen irmoa lortzen badu, lehen baimena irautsi egiten da, automatikoki, farmazia eskualdatzeko eskubidea galdu egiten du, eta farmazia itxi egiten da.

Titularkidetasunaren kasuan, baimena galduko du soilik irekitzeko lizentzia berria eskuratu duen titularkideak, eta gainerako titularkideek bestean segituko dute.

3. Titularra lanbiderako desgaitzen duen administrazio edo zigor zehapenaren ondorioz gertatzen bada ezinbesteko ixtea, titularrak ezin izanen du eskualdatu farmaziak itxita segitzen duen bitartean, desgaitzea aldi baterako baldin bada, eta inongo kasutan ere, desgaitzea behin betikoa bada.

4. Farmazia bat irekitzeko baimena baliogabeteak, edozein arrazoi dela ere, ixtea eta bertan betetzen den lanbide jarduera amaitzea dakartza berarekin. Horrek ez du eraginen higiezinaren, instalazioen, ondasunen eta tresnen gaineko eskubideei; horien gaineko egintzak ere eman ahal izanen dira.

H artikulua. Eskualdatze eta bitartekotasuneko beste kasu batzuk

1. Farmazilari titularra epai batek desgaitzen badu, epaileak edo administrazioak haren ausentzia edo ezintasun iraunkorra deklaratzeko badu, guztizkoa, erabatekoa edo handia graduatan, ezkonlaguna, lehen mailako oinordekoak, desgaituaren legezko ordezkaria edo ausentziaren deklarazioa eskatu dutenak arituko dira 38. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Desgaitze kasuetan edo ausentzia deklaratzeko denean bitartekotasun egoerak desgaitu edo ausente deklaratuak jubilatzeke adinera ailegatu arte iraunen du. Epea iraganik, sei hilabete-tan farmazia eskualdatu edo itxiko da.

3. Jubilazio kasuetan, bitartekotasunak sei hilabeteke gehieneko epea iraunen du, eta epe hori amaiturik farmazia itxi egingen da, eskualdatu ez bada.

Atala

Instalazioak eta lokalak aldatzea

H artikulua. Obrak.

1. Lege honen ondorioetarako, obratzat joko da udalaren baimena behar duen farmazi lokalaren taxukeraren aldaketa oro.

2. Sarbideari, azalerari edo barne antolamenduari eragiten dieten obrek farmaziaren egitura aldatzea badakarte, aldezturik Osasun Departamentuaren baimena beharko dute. Gainerako obretarako nahikoa izanen da obrak egin ondoren aipatutako departamentuari horien berri ematea.

3. Obren ezaugarriak eta horiek farmazi laguntza ematerakoan duten eragina kontuan hartuz,

Osasun Administrazioak farmazia aldi baterako itxeko baimena eman dezake edo behin-behineko lekuz aldatzekoa.

4. Lege hau indarrean sartu baino lehenago ezarritako farmazietako lokalaren taxukera aldatzea dakarten obrek, baldin eta 25. artikuluan ezarritako baldintzetara egokitzeko helburua badute, ez dute 30. artikuluan ezarritako distantzia neurketa berria jarraituko.

5. Artikulu honetan aipatzen diren obrak baimendu eta horien berri emateko prozedurak erregelamendu bidez ezarriko dira. Agindu honetan ezarritako baimenak hilabeteke epean emanen dira; bestela, administrazioaren isiltasuna dela medio, emanik daudela ulertuko da.

Atala

Farmaziak itxtea

I artikulua. Ixtea.

1. Farmazia norberaren borondatez aldi baterako edo behin betiko itxeko, nahitaezkoa izanen da administrazioaren baimena.

Baimenaren titularrak lanbidean aritzeko gaitz gabetzen duen zehapenen bat jasotzen badu, dela administratiboa dela penala, farmazia aldi baterako edo behin betiko itxiko da.

2. Farmaziak aldi baterako itxtea baimenduko duten arrazoiak erregelamendu bidez ezarriko dira. Ixte hori nahitaezkoa edo borondatezkoa izan ahalko da. Azken kasu horretan, itxialdiak ezingo du bi urte baino gehiago iraun.

3. Farmaziak behin betiko edo aldi baterako itxi ahalko dira herritarrei farmazi laguntza bermatzeko eta baita medikamentu eta gainerako osasun produktuen zainketa, kontserbazioa eta itzulketak edo suntsiketak bermatzeko neurri egokiak hartu ondoren; betiere, erregelamendu bidez ezartzen den prozedurari jarraiki.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

28. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

132. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzeko zuzenketa

28. artikuluko testua aldatu eta honako hau jar-
tzea proposatzen dugu:

28. artikulua. Botikinak.

1. Botikin bat irekitzea baimendu ahalko da, legeari jarraiki farmazia irekitzeko baimena emateko eskatzen diren baldintzak betetzen ez diren toki entitateetan, eta baita urruntasun arazoak, hurbilen dagoen farmaziarekiko komunikazio zaila, urte-sasoiko kontzentrazio handiak edo larrialdiko bestelako egoerak gertatzen diren etan ere.

2. Botikina hurbilen duen farmaziari lotuko zaio, bere titular edo titularrek berariaz uko egiten ez badiote behintzat. Kasu horretan, hurbiltasunaren arabera hurrengo farmaziari lotuko zaio. Farmazia bakoitzak berorri lotutako botikin bat baino ezingo du izan.

3. Botikinean, farmazilariak eman beharko ditu medikamentuak.

4. Botikina dagoen udalerrian farmazia bat irekitzeko hura ixtea ekarriko du.

5. Botikina instalatzeko betebeharrak eta baldintzak, baimentzeko prozedura eta funtzionamendu araubidea erregelamendu bidez ezarriko dira. Halaber, ixteko prozedura eta hori eragin dezaketen arazoak, izan behar duten medikamentuen eta osasun produktuen oinarriko gordetegia eta farmazilariaren eginkizunak ere ezarriko dira.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

133. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

28. artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. puntuan "interesatu" hitza ezabatzea (gazte-lerazko testuan).

Zioak: Farmazia herritar orendako irekia egon behar da.

134. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

28. artikuluko bigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Honela gelditzen da:

"Kasu berezi horietan, botikin bat ezartzeko ekimena har dezakete..."

Zioak: Testua artikuluko bereko lehenengo idatz-zatira egokitzea.

135. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ezabatzeko zuzenketa. 28. artikulua.

4. puntutik "botikin bakoitzerako" esamoldea ezabatu da esaldi berean bitan errepika ez dadin.

"4. Botikin bakoitzaren funtzionamendu ordutegia banaka finkatuko da eta ordu horietan..."

Zioak: Esaldi berean, antzeko esamoldeen erabilpena saihestea.

136. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

28. artikuluko 1. lerrokadari gehiketa egiteko zuzenketa.

Honela dioen lekuan: "...Osasun Departamentuak zilegi izanen du botikin bat irekitzeko baimena ematea, farmazia baten mendekoa...", honela beharko luke: "...Osasun Departamentuak zilegi izanen du botikin bat irekitzeko baimena ematea, oinarriko osasun eskualde bereko farmazia baten mendekoa..."

Zioak: Farmaziaren eta eta haren mendeko botikinaren arteko gertutasuna ziurtatzea.

137. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa. 28. artikulua.

Ondoko testua gehitzea:

“6. Botikina gertuen duen farmaziari lotuta egonen da. Farmazi bakoitzak ezingo du botikin bat baino gehiago izan berari lotuta.”

Zioak: Botikinei buruzko 28. artikulua zabaldu eta osatzea.

138. ZUZENKETA**UNION DEL PUEBLO NAVARRO**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa

28. artikuluari 6 zenbakiko idatz-zati bat gehitzea proposatzen dugu. Hona hemen:

“6. Osasun zentroetako botikinetan eta baita ikuskizun publikoetako, mutua eta lantegietako eta antzeko beste zentroetako botikinetan medikamentuak lortu eta erabiltzeko baldintzak erreklamendu bidez ezarriko dira.”

Zioak: Behar hori jasotzea.

**29. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETA****139. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

29, 30, 31, 32, 33, 34 eta 35. artikulua kentzeko zuzenketa

29, 30, 31, 32, 33, 34 eta 35. artikulua kentzea proposatzen dugu:

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

**30. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK****140. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

III. kapituluko bigarren atalean artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona hemen testua:

“Ezinbestekoa da farmazi zerbitzuan farmazilari bat bederen egotea eta aritzea, foru lege honek 31. artikulua ezartzen dituen eginkizunak betetzen.”

Zioak: Artikulu hori falta da III. kapitulan; ustez, oharkabea, 17. artikuluan farmazian farmazilari bat bederen egotea nahitaezkoa dela zehazten baita, egozten zaizkion eginkizunak egiteko. Berdin gertatzen da 28. artikuluko 4. puntuan ere, botikinei dagokienez.

Bestalde, 36. artikuluko 4. idatz-zatiko “d” letran ezartzen denez, hutsegite larria da farmazia zerbitzuak funtzionatzea farmazilaria bertan ez dagoela eta bere jardura profesionalik gabe; baina derrigorrezkotasun hori ez da zehazten farmazia zerbitzuen funtzionamenduari buruz diharduen bigarren atalean.

141. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

30. artikulua 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

30. artikulua 2. idatz-zatiaren ordean honako hau txertatzea:

“2. a) eta b) letretan deskribatutako ospitaleek eta gizarte eta osasun laguntzako zentroek farmazilari titular bat, farmaziako zerbitzuaren arduraduna, izanen dute zentro horietan medikamentuak eman, eta farmakozaintza, zainketa eta kontserbazioa egiteko, eta Medikamentuei buruzko Legearen 25/1990 Legean ezarritako xedapen guztiak betetzeko; horrez gain, beste farmazilari bat egon beharko da 100eko zatiki bakoitzeko, eta halaber, laguntzaileak eta Farmaziako Laguntzaile Teknikoa, zerbitzua 24 orduan bermatzeko, jaieguna barne.”

Zioak: Medikamentuen erabilera arrazoizko eta seguruari berariazko profesionaltasuna eta eran-

tzukizuna atxikitzea, pertsona kopuruak zerbitzu berezia eratzea eskatzen duenean. Zerbitzu hori bat etorriko litzateke, bestalde, gaiso kronikoendako medikamentu tratamenduen konplexutasunarekin, estatistiken arabera tratamendu horiek kostu handia, dirutan nola pertsonatan, ekartzen baitute, medikamentuen erabilera okerraren ondorioz.

Ez dirudi oso segurua zerbitzu batzuk elkartuta ematea, edo hirugarrenen eskuetan uztea erantzukizun handi hori. Medikamentu istripua gertatuz gero, zeinek erantzunen du, zerbitzuen mankomunitateak, hirugarrenek, gertatu den zentroak?

142. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

30.2 artikulua aldatzea proposatzen da. Hone la geldituko litzateke:

30.2 artikulua. Aurreko atalean b) letrako kasurako finkatu den eginbeharra gorabehera, kasuko zentroek zilegi izanen dute farmazi zerbitzua nola eman finkatzea zentroaren ezaugarrientzat egokiena den moduan, dela bere zerbitzu propioak emanaz edo hirugarrenei kontratatuz, dela zentro bakoitzak banaka edo hainbat zentro elkar hartuta.

Zioak: Gizarte laguntzako zentroek, pribatuek zein publikoek (Miserikordia Etxea edo El Vergel), ez dute eskumenik antolatzeke edo erabakiak hartzeke hirugarren ente publiko bati dagokionez, Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokionez, kasu honetan. Farmaziako zerbitzu hori itunaren xedea izanen da, baina langileak eta farmazia edo botikinetako instalazioak zentroak antolatu eta prestatuko ditu Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontrata ditzan. Horrez gain, kontuan hartu behar da gizarte zentro batean dauden guztiak ez direla egon behar Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen esparruan.

143. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

30. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

Testuari beste puntu bat gehitzea proposatzen da:

3. Ospitaleetako farmazi zerbitzuen kasuan, 100 edo 100dik gora ohe dituzten ospitaleek 24 ordutako agerpena, etengabea, izateko behar

diren farmazilariak edukiko dituzte, bai eta farmazi laguntza jarraitutik heldu diren nahitaezko esku-rantza guztiak ere.

Zioak: Farmazi laguntza jarraitua bermatzea.

31. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

144. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa

31. artikulua aldatzea proposatzen da, laugarren idatz-zatia aldatuz, zortzigarren idatz-zatia kenduz eta amaieran beste bi idatz-zati, ondokoak, gehituz:

– Zentroan medikamentuak banatzeko sistema eraginkorra eta segurua ezartzea, behar bezala, ahal bada, unidositan, ematen direla bermatzeko moduko neurriak ezarriz.

– Osasun arloko langileei eta gaisoei beraiei ere informazioa eta prestakuntza ematea medikamentuei buruz, medikamentuen erabilera arrazoizkoa bultzatzeko.

– Farmakozaintzako sistema bat ezartzea, medikamentuek izan ditzaketan ondorio kaltegarriak antzeman eta farmakozaintzako sistemari jakinarazteko.

Zioak: Testuan daude azalduta.

145. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

31. artikuluari ordezteko zuzenketa

Honakoa dioen lerrokada ordeztea proposatzen da:

“Medikamentuen gaineko informazioa emateko sistema bat ezartzea eta ospitale barnean farmakozaintza egiteko sistema bat ere bai.”

Hauxe da berria:

– Osasun arloko langileei eta gaisoei beraiei ere medikamentuei buruzko informazioa eta prestakuntza emateko unitatea ezartzea, medikamentuen erabilera arrazoizkoa bultzatzeko.

– Farmakozaintzako sistema bat ezartzea, medikamentuek izan ditzaketan ondorio kaltegarriak

rriak antzeman eta farmakozaintzako sistemari jakinarazteko.”

Zioak: Farmakozaintzaren jarduerak eta Medikamentuei buruzko Informazioarenak desberdinak dira, eta horregatik egokiagoa da bi eginkizun desberdin gisa azaltzea.

146. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

31. artikuluar aldaketa egiteko zuzenketa

31. artikulua. Eginkizunak.

“Ikerketa programak garatzea, entsegu kliniko-
etan parte hartzea barne” dioten hamargarren
idatz-zatiaren orde bestea hau txertatzea:

“Ez da inolako ikerketa programa edo entsegu
klinikorik eginen Osasun Departamentuak bera-
riaz baimenik eman gabe eta ospitaletako eta
laguntza zentroetako gaisoen eta zuzeneko fami-
liakoen idatzizko onespina izan gabe.”

Zioak: Ospitaleratuek edo instituzioetan dau-
denek kanpoan ezagutzen ez den tratamendua
jaso dezakete, eta pertsona horiek, haien egoera
dela-eta, askotan ezgaitasun psikiko eta fisikoa
dutenez, oso ahulak dira. Izandako esperientziek
frogatzen dute kontu handiz ibili behar dela.

147. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

31. artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa.

9. idatz-zatian:

“Medikamentuei buruzko informazio sistema
bat ezartzea, bai eta ospitaleen arteko farmako-
zaintzako sistema bat ere.”

Zioak: Farmakozaintzaren jarduerak eta Medi-
kamentuei buruzko Informazioarenak desberdinak
dira, eta horregatik egokiagoa da bi eginkizun
desberdin gisa azaltzea.

148. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

31. artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa.

“Osasun arloko langileei eta zentroko gaisoei
beraiei ere medikamentuei buruzko informazioa
eta prestakuntza emateko unitatea ezartzea,
medikamentuen erabilera arrazoizkoa bultzatze-
ko.”

Zioak: Farmakozaintzaren jarduerak eta Medi-
kamentuei buruzko Informazioarenak desberdinak
dira, eta horregatik egokiagoa da bi eginkizun
desberdin gisa azaltzea.

149. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

31. artikuluar gehiketa egiteko zuzenketa

“Farmakozaintzako sistema bat ezartzea,
medikamentuek izan ditzaketen ondorio kaltegar-
riak antzeman eta farmakozaintzako sistemari
jakinarazteko.”

Zioak: Farmakozaintzaren jarduerak eta Medi-
kamentuei buruzko Informazioarenak desberdinak
dira, eta horregatik egokiagoa da bi eginkizun
desberdin gisa azaltzea.

32. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

150. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

32. artikuluar aldaketa egiteko zuzenketa.
Testu berria.

32. artikulua. Farmazilarien betebeharrak.

“Bai ospitaleko farmazi zerbitzuaren arduradu-
nak, bai barnetegi araubidea duten laguntza
sozialeko zentroetakoek eta bai haietan lan egiten
duten beste farmazilariak, eta farmaziako teknika-
riak ere farmazilari espezialistaren titulua bere
izan beharko dute.

Zioak: Farmaziako laguntzailearen figura ager-
taraztea, egungo errealitatearekiko egokiagoa baita,
eta zerbitzu profesionala hobea izan dadin.

151. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

32. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikuluaren azken lerrokadaren amaieran hau gehitzea: "eta beraien lanbide esperientzia egiaz-tatu beharko dute. Laguntza zentro itunduetan aldez aurretik hautaketa prozesu bat egitea eska-tuko da, lan eskaintza publikoan eta proben eta lan espedientearen bidezko balorazio objektiboan oinarritua.

Zioak: Erantzukizuneko lanpostu bat betetzeko modua gardentasunaz, objektibitateaz eta profes-ionaltasunaz hornitzea, titulazioa baino gehiago, alegia. Titulazioak, berez, ez du lanean aritzeko gaitasuna kreditatzen.

**33. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETA****152. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

33. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. lerrotik aurrera, lehendabiziko esaldiaren ondotik, gainerako testua ordeztea, beste testu honekin:

"Biltegi hauek Oinarrizko Osasun Eskualde bereko farmazi zerbitzuari loturik egonen dira."

Zioak: Osasun Eskualde Oinarrizkoetan farma-zi zerbitzu bana eta farmazilaria bana proposatze-ko IUN/NEBek aurkeztu zuen beste zuzenketa batekin dago loturik.

**34. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETA****153. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

34. artikuluari beste puntu bat gehitzeko zuzenketa.

"Zentroan aplikatzeko, medikamentuak behar bezala gorde, zaindu eta ematen direla ziurtatzea,

baita osasun laguntzako diziplinarteko taldeak bereziki zaindu, ikuskatu eta kontrolatu beharre-koak ere; halaber, estupefaziante eta psicotropo- en gaineko legeak betetzen direla zaintzea."

Zioak: Ospitaleen eta barnetegi araubideko gizarte laguntzako zentroyen ezaugarriak mota askotakoak direla kontuan harturik, eta biltegi horien funtzionamendua ona izateko behar izaten diren beharrak ere desberdinak batetik bestera, gure ustez testua egokiagoa izanen litzateke erre-dakzio horrekin.

**35. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK****154. ZUZENKETA****SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Ordezteko zuzenketa. 35. artikulua. Artikulu horren ordeze honako hau:

"35. artikulua. Xedapen orokorrak.

1. Osasun zentroetan eta lehen osasun lagun-tzako egituretan, farmazi laguntza lehen osoasun laguntzako farmazia zerbitzuen bidez beteko da.

2. Osasun Eskualde Oinarrizko bakoitzak lehen osasun laguntzako farmazi zerbitzu bat iza-nen du hari dagizkion eginkizunetarako.

3. Farmazi zerbitzua kokaturik ez dagoen ere-muko osasun zentro guztietan edo lehen osasun laguntzako egituretan medikamentuen gordete-giak izateko baimena emanen da, farmazi zerbi-tzuzaren menpe.

4. Erregelamendu bidez ezarriko dira lehen osasun laguntzako farmazi zerbitzuek bete beha-reko baldintza materialak eta teknikoak.

35 bis artikulua: Eginkizunak.

1. Lehen osasun laguntzako farmazi zerbi-tzuek medikamentuaren erabilera arrazoizkoa bul-tzatzeko eginkizunak eta jarduerak betetzen dituz-te.

2. Lehen osasun laguntzako farmazi zerbi-tzuzen eginkizunak hauexek dira:

a) Haien menpeko gordetegietarako medika-mentuak erosi, zaindu, gorde eta emateako eran-tzukizun teknikoak bere gain hartzea, baita medika-mentuak ematea ere, zerbitzuan bertan edo osasun sistema publikoaren lehen osasun lagun-tzako egituretan aplikatzeko.

b) Maisu formulak edo bulegoko prestakinak egitea lehen osasun laguntzako egituretan edo osasun zentroetan aplikatzeko.

c) Medikamentuak gordetegiei eman, zaindu eta banatzeko sistema eraginkorra ta segurua ezartzea.

d) Oinarrizko eskualdeetako Osasun Kontseiluetan, haien ezagutzak baliagarriak izan daitezkeenean, parte hartzea.

e) Haren osasun barrutiko gida farmako-terapeutikoaren prestaketa, eguneratzea eta zabal-kundeia bultzatzea.

f) Barrutiko osasun arloko profesionalei medikamentuei buruzko informazioa ematea.

g) Medikamentuen gaineko osasun hezkuntza.

h) Haren barrutiko farmazia eta farmazi zerbitzuekin lankidetzan aritzea.

i) Barrutian medikamentuen erabilera aztertzea.

j) Farmakozaintzako sistemarekin lankidetzan aritzea medikamentuen ondorio kaltegarriak antzemateko.

k) Medikamentuen erabilera arrazoizkoa bultzatzea haren osasun barrutian eta zerbitzuan.

l) Haren osasun barrutian medikamentuen erabilera arrazoizkoari buruz ezartzen diren programak sustatzea edo horietan parte hartzea.

m) Osasun arloko administrazioak sustatzen dituen programetan laguntzea.

n) Lehen osasun laguntzako taldeekin batera aritzea osasun programak prestatzen eta beteazten, eta halaber, tratamenduko protokoloak prestatzen eta haien jarraipena egiten.

o) Ikerketa eta entsegu klinikoan programetan parte hartzea.

p) Erregelamendu bidez ezartzen diren beste guztiak.

35 bis artikulua. 1. Giza-baliabideak

1. Lehen osasun laguntzako farmazi zerbitzua-
ren ardura zuzena farmazilari batena izan da,
eta honen presentzia eta jardun profesionala
beharrezkoak dira 45. artikuluan aurreikusiriko
eginkizunak betetzeko.

2. Osasun eskualde oinarrizko bakoitzak far-
mazilari bat izan da, gutxienez. Oinarrizko
eskualdearen populazio kopuru txikia dela-eta,
Osasun Departamentuak, horretarako arrazoiak
emanez, bi osasun eskualde oinarrizkoko edo

gehiagoko lehen osasun laguntzako egituretako
farmazi laguntza elkartu ahal izanen du, betiere
laguntza jasotzen dutenen kopurua 30.000 biztan-
letik gorakoa ez baldin bada.

3. Osasun Departamentuak oposizioetarako
dei egingen du, Osasun Eskualde Oinarrizko bakoit-
zari lege honen 45. artikuluan aurreikusiriko egin-
kizunak betetzeko behar diren langileak atxikitze-
ko."

Zioak: Lehen osasun laguntzako farmazilarien
figura hobeki eta osokiago arautzea.

155. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

35.1 artikulua aldatzea proposatzen da. Hone-
laxe geldituko da idatzirik:

35. artikulua. 1. Lehen osasun laguntzako far-
mazia zerbitzuek medikamentuen erabilera arra-
zoizkoa bultzatzeko eginkizunak eta jarduerak
beteko dituzte.

Zioak: Zuzenketa gramatikala.

156. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluko 1. idatz-zatiari gehiketa egiteko
zuzenketa.

1. idatz-zatian, "medikamentuen erabilera arra-
zoizkoa..." esaldiaren amaieran "eta segurua"
gehitzea.

Zioak: Zenbait ikerketek frogatzen dute garran-
tzia eman behar zaiola segurtasunaren gaiari,
bereziki tratamendu konbinatuetan, medikamen-
tuek eragindako erreakzioen patologia gure arte-
an gero eta zabalduagoa baita; % 3ko hilkortasun
maila du eta zaharren kontsulten % 10-15 eragi-
ten du; baita ospitale kostuaren % 15-16.

157. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluko 2. idatz-zatiari gehiketa egiteko
zuzenketa.

2. idatz-zatiari beste puntu hau gehitzea:

“L) Eraginpeko eremu osoan, osasun barrutietan nola osasun eskualde oinarritzkoetan ematen den farmazi laguntza koordinatzea osasun eskualde oinarritzko bakoitzean dauden farmaziekin, ospitaleekin eta laguntza zentroekin, bai eta botikinekin eta zerbitzuekin ere.”

Zioak: Osasunaren eta gizarte osasunaren arloetan, koordinazio horizontala eta zeharkakoa izatea behar-beharrezkoa bada ere, koordinazioa izan da eta da, oraindik ere, departamentu guztiek kudeaketaren arloan konpondu gabe duten gai bat.

158. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

35. 3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Erredakzio berria.

35.3 artikulua. Eginkizunak.

“Lehen osasun laguntzako farmazi zerbitzuak farmazilari baten ardurapean egonen dira, farmaziako teknikarien laguntzarekin, egokia denean.”

Zioak: Farmaziako laguntzailearen figura agertaraztea, egungo errealitatearekiko egokiagoa baita, eta zerbitzu profesionala hobea izan dadin.

159. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

35.4 artikulua ordezteko zuzenketa.

Testu honek aurrekoa ordeztea proposatzen da:

Osasun barruti bakoitzak, bere lehen osasun laguntzako egituretako farmazi laguntzarako, farmazilari bat izanen du, gutxienez, 25.000 biztanleko, eta beste farmazilari bat 15.000 biztanleren zatiki bakoitzeko.

Zioak: Funtzionamendu egokia eta orientabideak bermatzea lehen osasun laguntzako medikamentuen erabilera arrazoizkoa sustatzerakoan.

160. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

35. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

Artikuluari beste idatz-zati bat gehitzea, 4.aren ondotik, eduki honekin:

“5. Osasun eskualde oinarritzko bakoitzak farmazia zerbitzu bat izanen du eta, gutxienez, farmazilari bat, horren arduradun, eta halaber, behar diren laguntzaileak, 10.000 biztanletik gorako osasun eskualde oinarritzkoetan; eskualde horietan beste farmazialari bat izanen da 7.500 biztanleren zatiki bakoitzeko. Biztanle kopuru horietatik behera, eskualdeak elkartu ahal izanen dira, betiere farmazia zerbitzu bakoitzeko eskualdeak bi baino gehiago ez badira. Tituludunak eta laguntzaile teknikoak osasun eskualde oinarritzko bakoitzaren profesional askotako taldeari atxikiko zaizkio. Farmazia zerbitzuen eginkizunak hauexek izanen dira:

a) Haien menpeko gordetegietarako medikamentuak eta osasun produktuak erosi, zaindu, gorde eta eramateko erantzukizun tekniko bere gain hartzea, baita eta medikamentuak ematea ere zerbitzuan bertan edo osasun sistema publikoaren lehen osasun laguntzako egituretan.

b) Maisu formulak edo bulegoko prestakinak egitea lehen osasun laguntzako egituretan edo osasun zentroetan aplikatzeko.

c) Medikamentuak gordetegiei eman, zaindu eta banatzeko sistema eraginkorra ta segurua ezartzea.

d) Oinarritzko eskualdeetako Osasun Kontseiluetan, haien ezagutzak eta iritziak ezagutarazteko.

e) Osasun eskualde oinarritzko biztanleendako medikamentuen erabilera arrazoizko eta seguruaren inguruko programak eta hezkuntza jarduerak egitea.

f) Gaisoek eta profesionalak tratamendu zehatzetzi buruz egiten dituzten kontsultei erantzutea, bereziki tratamendu konbinatuetan, gaiso kroniko edo alergikoen tratamenduetan.

g) Osasun eskualde oinarritzkoan medikamentuen erabilera ikertu eta aztertzea.

h) Farmakozaintzako sistemarekin lankidetzan aritzea medikamentuen ondorio kaltegarriak atzemateko.

i) Osasun Departamentuak medikamentuen erabilera arrazoizkoaren inguruan haren zerbitzu- an eta osasun eskualdean sustatutako programak bultzatu eta haietan parte hartzea.

j) Lehen osasun laguntzako lanbide askotako taldeekin batera aritzea osasuna hobetzeko programak prestatzen eta betearazten, eta halaber, tratamenduko protokoloak prestatzen eta haien jarraipena egiten.

k) Ezarritako erregistroen ardura hartzea, bai eta haren gain utzitakoena ere.”

Zioak: Osasun eskualde oinarrizkoetan farma- zia zerbitzuak ezartzea, eta horrela, lanbide asko- tako taldeak eraginkorrak izatea, beharrezkotzat jotzeko zenbait arrazoi badira: zientziaren aurrera- penen eta medikamentu berri eta eraginkorren agerpena, tratamenduen konplexutasuna eta aniztasuna, eritasun kroniko edo alergikoak dituz- ten zaharren kopurua geroz eta handiagoa, esate baterako.

161. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa: II. tituluari V. kapituluak gehitzea.

“V. Kapituluak

Albaitaritzako medikamentuak emateko baimena duten establezimenduez

35 bis artikulua. 2. Xedapen orokorrak.

1. Albaitaritzako medikamentuak emateko beharrezkoa da Osasun Departamentuak berariaz luzatutako baimena edukitzea; hori gabe inork ere ezin izanen ditu eduki edo bere kontrolpean izan, industri eta merkataritza helburuetarako, albaitari- tzako medikamentuak edo albaitaritzako medika- mentu gisara erabil daitezkeen substantzia ana- bolizatzaileak, infekzioen kontrakoak, parasitoen kontrakoak, hanturen kontrakoak, hormonalak edo psikotropikoak, edo osasunarentzat arriskutsu izan daitezkeenak. Osasun Departamentuak baimena eman aurretik Nekazaritza Departamentuak alde- ko txostena egin beharko du.

2. Debeku da albaitaritzako medikamentu gisa- ra aurkeztu bai baina legez halakotzat onartuta ez dauden produktu eta prestakinak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu, banatu, merkaturatu, hartze- ko agindu, eman eta erabiltzea.

35 bis artikulua. 3. Albaitaritzako medikamen- tuak.

Lege honetan, albaitaritzako medikamentutzat joko dira Estatuko legediak halakotzat hartzen dituen guztiak.

35 bis artikulua. 4. Medikamentuok ematen dituzten establezimenduak.

1. Nafarroan albaitaritzako medikamentuak emateko baimena duten establezimenduak –betiere dagozkien

farmazi zerbitzuen kontrolpean jardungo dute- nak– ondokoak dira:

- Farmaziak.
- Abeltzaintzako entitateak edo elkarteak.
- Merkataritzako establezimendu xehekariak.
- Larrialdietako botikinak, larrialdietan edo, bestela, urruntasuna dela medio albaitaritzako medikamentuak emanen dituztenak, erregelamen- du bidez zehazten den moduan.

Larrialdetako botikinen funtzionamendua albai- taritzako medikamentuei buruzko urtarrilaren 27ko 109/1995 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren araberakoa izanen da.

45. artikulua. Albaitaritzako medikamentuak banatu eta emateko betebeharrak.

1. Albaitaritzako medikamentuak banatu eta emateko baimena duten zentroen instalazioek, beren egitekoa osasun publikorako eta animalien- dako berme osoarekin betetzeko behar diren baliabide teknikoak, langileenak eta materialak izanen dituzte.

2. Baimendutako zentroek medikamentuen kontserbaziorako baldintza orokorrak edo kasuan kasuak bete beharko dituzte.

3. Deskribaturiko zentro horiek dokumentazio zehaztua gordeko dute, datu hauekin, gutxienez:

- a. Data.
- b. Medikamentuaren identifikazio zehatza.
- c. Lotearen zenbakia.
- d. Jasotako edo emandako kopurua.
- e. Hornitzailearen edo hartzailearen izena eta helbidea.

Dokumentazio hori ikuskaritzaren eskura ego- nen da 3 urteko epean, gutxienez.

4. Baimendutako zentroek farmaziako lizen- tziadun batek zuzendutako farmazi zerbitzua izan- den dute.

5. Jendeari medikamentuak emateko zentroek merkaturatzeko legeak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituzten albaitaritzako medikamentuak eta produktu zoosanitarioak baizik ez dituzte izanen. Jendeari medikamentuak emateko zentroek, farmaziek izan ezik, ez dute pertsonendako medikamenturik izanen, ez eta merkaturatuko ere.

6. Baimendutako zentroek albaitariak agindu beharreko albaitaritzako medikamentuak emanen dituzte.

7. Substantzia estupefazianteak edo psikotropikoak dituzten albaitaritzako farmazia espezialitateak berariazko arautegian ezarritakoari jarraikiz emanen dira.

8. Handizkako biltegiak eta albaitaritzako medikamentuak prestatzen dituzten laborategien gordailuek ez dute ahalmen hau izanen; horien helburua izanen da medikamentuok ematea bai handizkako beste biltegi batzuei bai medikamentuok emateko legezko baimena duten establezimenduei.

9. Albaitaritzako medikamentuak betiere bere hartan emanen dira, hots, jatorrizko ontziak ukitu gabe.”

Zioak: Legean establezimendu mota hau arautu beharra.

162. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste kapitulu bat, hiru artikulurekin, gehitzeko zuzenketa

Beste kapitulu bat, hiru artikulurekin, gehitzea proposatzen dugu.

KAPITULUA:

Oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzuak

Lehen Atala Farmazi zerbitzuak

A artikulua. Definizioa eta antolamendua.

1. Oinarrizko osasun laguntzako zerbitzuek, bai kuantitatiboki eta kualitatiboki, medikamentuen erabilerarekin zerikusia duten funtzioak eta jarduerak bildu eta egituratuko dituzte. Horien helburua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak oinarrizko osasun laguntzan medikamentuei ahalik eta erabilera arrazoizkoena ematea da, betiere

osasun administrazioak ezartzen dituen jarraibideekin bat.

2. Oinarrizko osasun laguntzako osasun zerbitzuak hornitzen dituzten entitateek eta titulartasun publikoa dutenek soilik izan ahaliko dituzte farmazi zerbitzu bereziak. Farmazi zerbitzu horiek farmazilari baten ardurapean egonen dira; dena den, farmazilari laguntzaileak izendatu ahaliko ditu.

3. Farmazi zerbitzua nahitaez behar duten oinarrizko osasun laguntzako zentroak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

B artikulua. Eginkizunak.

Oinarrizko osasun laguntzako farmazi zerbitzuek ondoko eginkizunak bete beharko dituzte:

a) Oinarrizko osasun laguntzako zentroetan erabili beharreko medikamentuak edo, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorren 103. artikuluan ezarritakoari jarraituz, zainketa, gainbegiratze eta kontrol berezia behar dutenak eskuratu, zaindu, kontserbatu eta ematea, bai eta zentro horietan aplikatu beharreko maisu-formulak eta farmazi prestakinak prestatzea –betiere ezartzen diren kalitate kontrolei jarraituz–. Emate eta prestatze hori farmazilariak eginen du, edo haren gainbegiradapean eta ardurapean eginen da, medikuaren aginduari jarraituz.

b) Medikamentuen erabilera arrazoizkoa sustatzeko programak eta jarduerak planifikatu, koordinatu, gauzatu eta ebaluatzea.

c) Patologia jakin batzuen inguruko medikamentuen erabilera aztertu eta ebaluatzea, horien eragite eremuan, eta batez ere, farmakozaintzako sistemarekin medikamentu horien kontrako efektuak antzemateko lanean parte hartzea.

d) Osasun arloko langileei eta sektoreko kudeaketa organoei, medikamentuei, osasun produktuei eta erabilgarri den gai orori buruzko aholkuak ematea.

e) Osasuna sustatzeko, eritasunei aurrea hartzeko eta herritarrei osasun arloko heziketa emateko programak prestatzen eta gauzatzen parte hartzea.

f) Herritarren medikamentuen erabilerari buruzko osasun arloko heziketa, batez ere, laguntza berezia behar duten taldeei zuzenduriko programak eginez.

g) Oinarrizko osasun laguntzaren eremuan, ikerketa programak prestatu eta gauzatzea.

h) Osasun laguntza oinarrizkoko langileentzako irakaskuntza eta informazio programak egitea eta betearaztea.

i) Osasun laguntza oinarritzoko ekipoen eta ospitaleetako, zentro soziosanitarioetako eta zentro psikiatrikoetako farmazi bulego eta farmazi zerbitzuetao ekipoen artean behar den koordinazio erraztea, medikamentuaren behar bezalako erabilera bultzatzeko eta lantzeko jardueretan, osasunaren sustapen jardueretan, osasun hezkuntzan eta gaixotasunei aurrea hartzeko jardueretan.

j) Estupefaziante eta psikotropoen arloan indarra duen legedia bete dadin begiratzea.

Bigarren atala Medikamentu-gordetegiak

C artikulua. Medikamentu-gordetegiak

1. Farmazi zerbitzurik ez duten osasun laguntza oinarritzoko zentro publikoek eta arauz ezarriko diren titulartasun pribatuko zentroek medikamentu-gordetegi bat izanzen dute, farmazi barrutiko farmazietako bati lotua.

2. Gordetegiak aipatu zentroarekin duen lotura alde batera utzita, farmazilari batek atendituko du, eta bera izanzen da Lege honetako 45. artikuluan ezartzen diren eginkizunen ardura bere gain hartuko duena. Gordetegiaren jabearen menpe egonen da, betiere.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

163. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Beste kapitulu bat, hiru artikulurekin, gehitzeko zuzenketa

Beste kapitulu bat, hiru artikulurekin, gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

KAPITULUA

Farmazi zerbitzuak eta medikamentuen gordetegiak ospitaleetako, zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako eta espetzeetako medikamentu-gordetegiak

Lehen atala Farmazi zerbitzuak

A artikulua. Farmazi zerbitzuak

1. Ospitaleetako, eta, kasua bada, zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako eta espetzeetako farmazi laguntza kasuan kasuko farmazi zerbi-

tzuen edo medikamentu-gordetegiaren bitartez gauzatuko da.

2. Foru Lege honek ezarritako ondorioetarako, zentro soziosanitariotzat hartuko dira biztanle sektore jakin batzuei –esate baterako, 65 urtetik gorako pertsonak, ezgaituak edo dauzkaten osasun baldintzengatik zentroak ematen dizkien laguntza sozialez gainera osasun laguntza berariazkoak behar duten gainerakoak– barnetegi araubidean laguntza ematen dietenak.

Ondorio horietarako, zentro psikiatrikotzat hartuko dira gaixotasun psikiko eta psikiatrikoen diagnostikoa eta tratamendua helburu dutenak.

Espetxetzat hartuko dira helburu nagusi gisa alde batetik askatasuna kentzeko zigorrak edo zigor neurriak epai bidez jaso dituztenak berriz hezitzea eta birgizarteratzea eta bestetik atxilotuak, presoak eta zigortuak eduki eta zaintzea helburu dutenak.

3. Nahitaezkoa izanzen honako hauetan farmazi zerbitzua ezartzea:

a) Ehun edo gehiago ohe dituzten ospitale guztietan.

b) Daukaten ahalmenarengatik edo ematen duten medikuntza laguntza motarengatik nahiz laguntza farmakologiko motarengatik arauz ezarriko diren ehun ohe edo gutxiagoko ospitaleetan.

c) Gaixoen kopuruaren eta egiten diren tratamenduen arabera arauz ezarriko diren zentro psikiatrikoetan.

4. Ospitaleko farmazi zerbitzuaren arduraduna ospitaleko farmaziako espezialitate egin duen farmazilari bat izanzen da. Haren erantzukizunaren menpe garatuko dira lege honetan aurreikusitako eginkizunak. Zentro motaren arabera eta hartan egiten diren jardueren kopuruaren arabera, arauz ezarriko da farmazilari laguntzaileak eta farmaziako langile laguntzaile teknikoak edukitzea beharrezkoa den.

5. Halaber, arauz ezarriko da farmazi zerbitzuak baimentzeko prozedura eta haien kokalekuari loturiko baldintzak eta osasun baldintza teknikoak. Ezin izanzen dira inolaz ere izan lege honetan farmazietarako ezarritakoak baino gutxiago.

6. Farmazi zerbitzuen antolamenduak eta funtzionamendu araubideak bidea eman beharko du medikamentuak edukitzeko eguneko hogeita lau orduetan.

B artikulua. Eginkizunak

Aurreko artikulua aipatzen dituen farmazi zerbitzuek ondoko eginkizunak bete beharko dituzte:

a) Erantzukizun teknikoa bermatu eta bere gain hartzea, ondoko kasuetan: zentroaren barruan aplikatzekoak diren, alde batetik, maisu formulak edo farmazi prestakinak erostea, kontserbatzea, haien beharrak betetzea eta haiek zaintzea eta prestatzea, eta, bestetik, behar diren medikamentuak eta osasun produktuak ematea; azkenik, osasun laguntzako disziplina arteko eki-poaren zainketa, gainbegiraketa eta kontrol berezia behar duten medikamentu eta osasun produktuen kasuan.

b) Zentroak eduki behar dituen medikamentuen eta osasun produktuen hautapen prozesuan parte hartzea, eraginkortasuna, segurtasuna, kalitatea eta kostua izanik, betiere, jarduteko irizpideak.

c) Medikamentuak zentroan banatzeko sistema eraginkor eta seguru bat ezartzea, medikamentuak banakako dosietan egokiro emanen eta banatuko direla bermatzeko, bai zerbitzua dagoen lokalean bai solairuetan ere; produktuak jaso behar dituzten gaixo guztien izenen zerrenda ere eginen da.

d) Medikamentuen arloan, osasun arloko langile guztientzako –bai eta zentroko gaixoentzako ere– informazio eta prestakuntza sistema bat ezartzea.

e) Zentroko medikamentuen banakako erabilera zaintzeko eta kontrolatzeko sistema bat ezartzen laguntzea, dauzkaten aurkako eraginak antzeman ahal izateko, eta haien berri emateko farmakozaintzako sistemari.

f) Ospitale barreneko farmakozaintzako programak egitea, Foru Komunitateak ezarritako programekin koordinatuta.

g) Medikamentuaren eraginari ahal den eta eraginkortasun handiena emateko lan guztiak egitea, eta haren erabilera ahal den eta arrazoizkoena izan dadin lortzea.

h) Medikamentuak eta osasun produktuak hautatu eta zientifikoki ebaluatzeko zentroan dau den batzordeetan parte hartzea.

i) Medikamentuen eta osasun produktuen arloan ikerketa lanak egitea eta entseiu klinikoetan parte hartzea, bai eta ikerketa klinikoaren fasean produktuen zaintza eta aplikazioa begiratzea ere.

j) Farmazi zerbitzuekin batera lan egitea osasun laguntza oinarritzekoan.

k) Estupefaziante eta psicotropoei buruzko legeak betetzen direla begiratzea.

Bigarren atala
Medikamentu-gordetegiak

C artikulua. Medikamentu-gordetegiak.

1. Farmazi zerbitzurik ez duten eta horretara beharturik ez dauden ospitale eta zentro psikiatrikoek, bai eta zentro soziosanitarioek ere, farmazi eremu berean dagoen farmazia bati lotutako medikamentu-gordetegia izanen dute.

2. Gaixo mota jakin batzuentzako tratamendu bereziak ematen diren osasun zentroetan, medikamentuen gordetegiak ezarriko dira erregelamendu bidez, baldin eta tratamendu horiek edo laguntzako beharrek hala eskatzen badute.

Halaber, espetxeetan ere medikamentuen gordetegiak ezarriko dira, betiere, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintza eta betebeharrei jarraituz.

3. Era berean, medikamentuen gordetegiak baimentzeko prozedura arautuko da, bai eta beraien betebeharrak, kokapen eta baldintza tekniko eta sanitarioak ere.

4. Gordetegiak 1. puntuari aipatutako zentro horiekin izan dezakeen lotura edozein delarik ere, farmazilari bat arituko da bertan, zentro horien kargura, eta eginkizun hauek bete beharko ditu:

a) Zentroan erabiltzekoak diren medikamentuen kontserbazio, zainketa eta emate zuzena bermatzea.

b) Ditutzen ezaugarri bereziak direla-eta, osasun laguntzako disziplina anitzeko eki-poaren zainketa, gainbegiraketa eta kontrola behar duten medikamentuei dagokienez, horien kontserbazio, zainketa eta ematea bereziki bermatzea.

c) Medikamentuen administrazio zuzena bermatuko duten neurriak ezartzea, horien banatzeko sistema seguru eta eraginkorra ezarri.

d) Gaixoari eta zentroko langileei medikamentuei buruzko argibideak ematea eta horien erabilerrari buruzko ikerketa sistematikoak egitea.

e) Zentro barruan, gizabanakoek medikamentuei ematen dieten erabilera zaindu eta kontrolatzeko sistema ezartzen laguntzea, izan ditzaketen kontrako efektuak antzeman eta farmazi zainketa-ko sistemari jakinarazteko.

f) Farmaziako titularrarekin edo gordetegiarekin lotura duen farmazi zerbitzuko buruarekin batera, medikamentuak izatearen eta horien mugimenduen gaineko erantzukizuna hartzea. Helburua,

zentroan dauden medikamentu behar guztiei erantzutea da.

g) Estupefaziante eta psicotropoen gaineko legeria betetzen dela zaintzea.

5. Farmazi zerbitzuen antolaketak eta funtzio-namendu araubideak eguneko 24 orduetan medikamentuak eskuratzeko bide eman behar du.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste plante-amendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

164. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lau artikuluko kapitulu bat gehitzeko zuzenketa.

Lau artikuluko kapitulu bat gehitzea proposatzen dugu. Hona hemen:

KAPITULUA

Animalientzako medikamentuak banatu eta ematea

A artikulua. Albaitaritzako medikamentuen banaketa.

1. Legez baimenduriko establezimenduei handizkako banaketa-biltegien bidez banatuko zaizkie albaitaritzako medikamentuak.

Albaitaritzako medikamentuak banatzeko biltegiek horiek berak arautzen dituen legedian aurreikusitako betebeharrak tekniko sanitarioak bete beharko dituzte. Gainera, arduraduna izan den zuzendari tekniko bat izanen dute eta Foru Komunitateko Osasun Administrazioaren baimena beharko dute.

B artikulua. Albaitaritzako medikamentuak ematea.

Albaitaritzako medikamentuak eman ahalko dituzte behar bezala baimendutako farmaziek, abeltzaintzako entitate edo elkarteek, beraien kideek soilik erabiltzeko badira, eta txikizkako merkataritza establezimenduek.

C artikulua. Albaitariak erabiltzeko medikamentuak banatu eta emateko baldintzak

1. Albaitaritzako medikamentuak banatu eta emateko baimena duten zentroek giza baliabide eta baliabide tekniko eta material nahikoak dituzten instalazioak izan beharko dituzte, beraien egitekoak osasun publikorako eta animalien osasunerako berme guztiekin burutu ditzaten.

2. Baimendutako zentroek medikamentuak kontserbatzeko baldintza orokorrak edo partikularak zaindu beharko dituzte.

Halaber, ondoren zehazten diren gutxieneko datuak jasoko dituen dokumentazio zehatza gordetako dute: data, medikamentuaren identifikazio zehatza, lotearen zenbakia, jasotako kopurua eta emandakoa, eta hornitzaile edo hartzailearen izena eta helbidea. Dokumentu hori ikuskaritzaren esku egonen da hiru urtez, gutxienez.

3. Baimendutako zentroek farmazian lizentziaturiko batek zuzendutako farmazi zerbitzua izanen dute. Banaketa zentroak subsidiarioak badira ere, horiek adina farmazi zerbitzu egon beharko da.

4. Jendeari medikamentuak emateko zentroek merkaturatzeko legez eskatutako baldintza guztiak betetzen dituzten albaitaritzako medikamentuak eta produktu zoosanitarioak izanen dituzte soilik. Farmaziek salbu, jendeari medikamentuak emateko zentroek ezingo dituzte gizakientzako medikamentuak izan, ez eta merkaturatu ere.

5. Baimendutako zentroek albaitariak agindutako albaitaritzako medikamentuak emanen dituzte, soilik dagokion errezeta aurkeztu ondoren.

6. Gai estupefaziante edo psicotropikoak dituzten farmaziako albaitaritzako espezialitateak emateko araudi bereziari jarraituko zaio.

7. Guztiz debekatua dago albaitaritzako medikamentuak saltzea etxez etxe edo, orobat, zeharkako beste edozein modutan. Horrek ez du eragotziko legez ezarritako entitateei egin ahal zaien banaketa edo hornidura.

D artikulua. Larrialdietarako botikinak.

1. Aurreko artikuluetan ezarritakoa eragotzi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko organo eskudunak larrialdietarako botikinak jartzea baimendu ahalko du, albaitaritzako medikamentuak banatzeko baimendutako zentro hurbilena urrun badago edo horretarako premia bizia badago.

2. Larrialdietarako botikinek Albaitaritzako Medikamentuei buruzko urtarrilaren 27ko 109/1995 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz funtzionatuko dute.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste plante-amendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

165. ZUZENKETA**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bateko titulu bat gehitzeko zuzenketa

Artikulu bateko beste titulu bat gehitzea proposatzen dugu. Hona testua:

TITULUA

Medikamentuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea

A artikulua. Medikamentuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea.

1. Osasun Departamentuak farmaziako profesionalei edo, oro har, herritarrei zuzendutako medikamentu eta osasun produktuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea benetakoa dela eta kontsumora ez duela bultzatzen zainduko du.

2. Publizitateko objektu izan daitezkeen eta Nafarroan soilik hedatzen diren farmaziako espezialitateen publizitate mezuek Osasun Departamentuak baimenduko ditu, ezarritako betebeharrak jarraituz. Baimena eskuratzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da.

3. Osasun Departamentuak Nafarroan osasun arloko profesionalei zuzendutako farmaziako espezialitateei buruzko informazio eta sustapena farmaziako espezialitateen erregistroan dauden datuen arabera, zehatza, objektiboa eta okerrik egiteko biderik ematen ez duena dela zainduko du. Beharrezkoa den informazio eta sustapen horren kontrola egiteko, Osasun Departamentuak erabilitako informazio eta sustapen baliabide guztiak eskuratu ahalko ditu, edozein delarik ere horien euskarria.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

**36. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
ZUZENKETAK****166. ZUZENKETA****NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

36. artikulua aldatzeko zuzenketa

36. artikuluko testua aldatu eta honako hau jarritzea proposatzen dugu:

36. artikulua. Arau-hausteak.

1. Lege honetako aginduak eta berori garatzeko emanen diren arauak hausteak administrazioaren zehapenak eragingo ditu, dagokien espedientearen instrukzioa egin ondoren; dena den, honek ez ditu eragotziko egon daitezkeen erantzukizun zibilak, penalak edo beste maila batekoak.

2. Arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, ondorengo irizpide hauei jarraiki: osasunarentzat arriskutsua izatea, lortutako behin-behineko etekinaren zenbatekoa, nahita egin den ala ez, sortutako aldaketak gizartean eta osasunean zenbaiterainoko eragina duen, arau-haustearen orokortasuna eta arau-hausleak lehendik ere halako arau-hausteak egin dituen ala ez.

3. Honako arau-hauste hauek administrazioko hutsegiteak izanen dira eta hurrengo artikuluan ezarri bezala zehatuko dira:

a) Arau-hauste arinak:

1.- Zein baldintzaren arabera eman zen baimena, baldintza horietako edozein aldatzea titularrak.

2.- Entitateek zein pertsona arduradunek ez ematea ematera behartuta dauden datuak osasun, teknika, ekonomi, administrazio eta finantza-arrazoak direla medio.

3.- Real Farmacopea Españolaren eta Formulario Nacionalaren alerik ez izatea, horretara behartuta dauden establezimenduetan.

4.- Medikamentuak banatzen eta ematen dituzten entitateek ez izatea behar beste sendagai egoki; alegia, beren ohiko zerbitzuak emateko behar adina ez izatea; eta ezarrita dauden gutxieneko izakinak ez edukitzea.

5.- Medikamentuen gutxieneko izakinak ez edukitzea larrialdi edo hondamen kasuetarako, horretara beharturik badaude.

6.- Ikuskatzaileen lana oztopatzea, haien lana eragotzen duen edo atzeratzen duen edozein egintzaren edo ez-egiteren bidez.

7.- Errezetaren balioaldia igaro eta sendagaiak ematea.

8.- Errezeta normalizatuak izan behar dituzten datuak eta gaztiguak zuzen ez betetzea.

9.- Posible denean, farmaziako espezialitate bat beste batez ordeztzea, baldin eta horretarako ezarritako dauden baldintzak betetzen ez badira.

10.- Merkaturatu aurretik, farmaziako espezialitateen fitxa teknikoak ez ematea jardunean dauden medikuei.

11.- Fitxa teknikoko, prospektuetako eta etiketatako testuak aldatzea, behar den baimenik gabe.

12.- Maisu-formulen edo farmaziako prestakinen publizitatea egitea.

13.- Medikamentuak ebaluatu eta kontrolatzeko, osasun administrazioarekin elkarlanean aritu beharra ez betetzea.

14.- Farmaziako espezialitateen prezioak administrazioak ezarritakora ez egokitzea.

15.- Lege honetan eta hau garatzeko xedapenetan ezarritako baldintzak, eginbeharrak edo debekuak ez betetzea, baldin eta, artikuluhonetan ezarritako irizpideen arabera, arintzat hartzea merezi badu, edo ez bada bidezko arau-hauste larritzat edo oso larritzat hartzea.

16.- Medikamentuen ekoizpenean, egitean eta merkaturatzean zuzeneko edo zeharkako interesak dituen pertsonak zuzenean edo zeharka edozein pizgarri, hobari edo opari ematea sendagaien preskripzioan, ematean eta administrazioan esku hartzen duten osasun profesionalei, edo bere senide eta beraiekin bizi diren pertsonen.

b) Arau-hauste larriak:

1.- Nahitaezkoa den baimena izan gabe, pertsona fisiko nahiz juridikoek medikamentuak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu eta banatzea.

2.- Medikamentuak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu eta banatzean ez egitea osasun-legeriak agindutako kalitate-kontrolak, edo baliozkotu gabeko prozeduren bidez egitea fabrikazioa edo kontrola.

3.- Medikamentuak egin, fabrikatu eta banatzen diharduen entitate batek ez izatea zuzendari tekniko bat, izendatua eta lanean; kasu bakoitzean behar diren gainerako langileak ez edukitzea.

4.- Farmazi zerbitzuek eta farmaziek lanean jardutea farmazilari arduraduna bertan izan eta bertan lan egin gabe.

5.- Zuzendari teknikoak eta gainerako langileak ez betetzea beren karguei dagozkien beharrikunak.

6.- Behar bezala akreditaturiko ikuskatzaileen jarduna eragozte, sendagaiak egin, fabrikatu, banatu eta ematen dituzten zentroetan.

7.- Legez ezarritako baldintzak bete gabe prestatzea maisu-formulak eta farmaziako prestakinak.

8.- Agindutakoak bete gabe banatzea edo konterbatzea sendagaiak; aldatuta, egoera kaxkarre-

an edo, balioaldia adierazi denean, hura igarota saltzea sendagaiak.

9.- Ikerketa fasean dagoen produktu bat erabiltzea pertsonengan edo kontsumorako animalienengan, horrela kalifikatzen duen deklarazioa egin aurretik.

10.- Administrazio baimenik izan gabe, entsegu klinikoak egitea.

11.- Fabrikatzaileek, inportatzaileek eta medikamentuen baimenen titularrek osasun arloko agintariei medikamentuek dituzten kontrako efektuen berri ez ematea.

12.- Osasun arloko langileek farmakozaintzarik ez egitea.

13.- Baimena duten establezimenduetan ez beste batzuetan, txertoak eta alergenok banan-banan prestatzea.

14.- Baimena duten establezimenduetan ez beste batzuetan, medikamentuak ematea.

15.- Arrazoi egoki bat izan gabe medikamentuak ukatzea, eta errezetarik gabe ematea preskripzio mota horretan sartzen diren medikamentuak.

16.- Farmaziako espezialitateak ematean ordezkapena egitea Medikamentuei buruzko abenduaren 20ko Legeko 90. artikuluan xedatutakoa urratuz.

17.- Erabiltzaileak farmazia aukeratzeko duen askatasuna urratzen duen egintza edo ez-egite oro.

18.- Errezetak eta medikuaren aginduak tramitatzean, konfidentzialtasuna eta gaixoen intimitatea ez zaintzea osasun langileek, hori eginbeharrekoa baitute.

19.- Baimendu gabeko medikamentuen sustapena eta publizitatea egin edo informazioa ematea; edo, egintza horiek gauzatzean, ez lotzea merkaturatzeko baimenean ezarritako baldintzei, lege honetan xedatutakoari eta publizitateari buruzko legeri orokorrean araututakoari.

20.- Preskripzio, emate eta administrazio zikloan inplikaturako osasun profesionalen jarduera, baldin eta lanean badira, bisita medikoen delegatuen funtzioarekin, bai eta ordezkarien, batzordekideen edo farmaziako espezialitateetako laborategien agente informatzaileen funtzioarekin ere.

21.- Arau-hauste arinetan berrerortzea; baita arintzat hartu diren arau-hausteetako bat egitea ere, baldin eta artikuluhonetako lehenengo idatz-

zatian aipatzen diren inguruabarrak era larrian agertzen badira.

c) Arau-hauste oso larriak:

1.- Medikamentu gisara aurkezten diren arren, legeak halakotzat onartu ez dituen produktu eta prestakinak egin, fabrikatu, inportatu, esportatu, banatu, merkaturatu, preskribitu eta ematea.

2.- Nahitaezko osasun baimena lortu gaberik, medikamentuak merkaturatzea.

3.- Gizakiaren odola, jariakinak, guruinak zein ehunak, eta horien osagaiak zein deribatuek inportatu eta esportatzea, alde zuzeneko baimena izan gabe.

4.- Osasun agintari eskudunek, osasun publikoaren inguruko arrazoi larria dela-eta, medikamentuei buruz hartutako zehaztasuneko neurriak eta behin betiko neurriak ez betetzea.

5.- Azken bost urteetan arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.

6.- Zein protokolutan oinarritu ziren entsegu klinikoetarako baimena emateko, protokolo horien edukiri ez jarraitzea entsegua burutzean; edo, bestela, entseguko subjektua izan den pertsonaren edo haren ordezkariaren baiezkorik gabe jardutea, edo subjektu gisara parte hartzen duen horri entsegu klinikoari buruzko informaziorik ia batere ez ematea, informazioa eman beharra baitago.

7.- Sendabide sekretuak prestatzea.

8.- Hobariak, opariak, sariak, lehiaketak edo antzekoak eskaintzea, Medikamentuei buruzko Legean arautzen diren produktuak sustatzeko eta saltzeko metodo gisara.

9.- Arau-hauste larrietan berrerortzea; baita larritzat hartu diren arau-hausteetako bat egitea ere, baldin eta artikuluko honetako bigarren idatz-zatian aipatzen diren inguruabarrak era larrian agertzen badira.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

167. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA/ EUSKO ALDERDI JELTZALEA- PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

36. artikuluko 3. idatz-zatiari beste letra bat gehitzeko zuzenketa.

“l) Nahitaezko ezaugarri profesionala ez eramatea”.

Zioak: Farmazi laguntza horretarako prestaturiko profesionalak ematen duela ziurtatzea.

168. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Kentzeko zuzenketa.

36. artikuluko 5. idatz-zatiaren c) letra kentzea proposatzen da.

Zioak: Arau-hauste horri zehapena jartzeko eskumena Estatuaren administrazioarena da.

37. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

169. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

37. artikulua aldatzeko zuzenketa

37. artikuluko testua aldatu eta honako hau jarritzea proposatzen dugu:

37. artikulua. Zehapenak.

1. Aurreko artikuluan aipatutako arau-hausteak zehatuko dira mailakatze bat eginez (txikiak, erdikoak eta handiak) arau-hauste mota bakoitzaren baitan, kontuan izanik arduragabekeria, nahita egin den ala ez, elkar hartzea edo emandako gaitziguak ez betetzea gertatu den, entitatearen negozioen zenbatekoa, eragindako kaltea, ukitutako pertsonen kopurua, arau-haustearekin lortutako etekinak, eta sortutako arriskuen iraupena.

2. Zehapenen graduazioa.

a) Arau-hauste arinak:

Txikiak: 100.000 pezeta bitarte.

Erdikoak: 100.001 pezetatik 300.000 pezetara bitarte.

Handiak: 300.001 pezetatik 500.000 pezetara bitarte.

b) Arau-hauste larriak:

Txikiak: 500.001 pezetatik 1.150.000 pezetara bitarte.

Erdikoak: 1.150.001 pezetatik 1.800.000 pezetara bitarte.

Handiak: 1.800.001 pezetatik 2.500.000 peze-tara bitarte; zenbateko hori gainditu egin daiteke, arau-haustearen xede izan diren produktuen edo zerbitzuen balioaren boskoitzera iritsi arte.

c) Arau-hauste oso larriak:

Txikiak: 2.500.001 pezetatik 35.000.000 peze-tara bitarte.

Erdikoak: 35.000.001 pezetatik 65.000.000 pezetara bitarte.

Handiak: 65.000.001 pezetatik 100.000.000 pezetara bitarte; zenbateko hori gainditu egin dai-teke, arau-haustearen xede izan diren produktuen edo zerbitzuen balioaren boskoitzera iritsi arte.

3. Zehapenen zenbatekoa bi urtean behin egu-neratuko da inflazio tasari jarraituz eta Nafarroako Gobernuaren foru dekretu bidez.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste plante-amendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

170. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

37. artikulua ondotik beste artikulua bat jar-tzea proposatzen dugu. Hona testua:

37 bis artikulua. Zehapenak jartzeko eskudu-nak diren organoak.

1. Nafarroako Gobernuak du 35.000.000 peze-tatik gorako 52. artikuluko zehapenak ezartzeko ahalmena.

2. Osasun Departamentuko kontseilariak gai-nerako zehapenak, hau da, aurreko lerrokadan ageri ez diren arau-hauste arin, larri eta oso larriak, ezartzeko ahalmena izanen du.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste plante-amendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

39. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

171. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

39. artikulua aldatzeko proposamena

39. artikuluko testua aldatu eta honako hau jar-tzea proposatzen dugu:

39. artikulua. Preskripzioa.

1. Lege honetan arintzat hartu diren arau-hauste eta zehapenen preskripzioa urtebete igaro ondoren etorriko da; larritzat hartu direnen pres-kripzioa, berriz, bi urte igaro ondoren; eta oso larritzat hartu direnena, hiru urte igarota.

Arau-haustea egin zen egunetik hasita zenba-tuko da arau-haustearen preskripzio-epea, eta eten, prozedura ustezko arau-hauslearengana zuzentzen den unean etengo da.

2. Zehapenaren preskripzio-epea zehatzeko ebazpena irimo bihurtu den egunaren biharamune-tik hasiko da kontatzen, eta eten, interesatuak horren berri izanik exekuzio prozedura hasten denean etengo da.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste plante-amendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

40. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

172. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

40. artikulua aldatzeko proposamena

40. artikuluko testua aldatu eta honako hau jar-tzea proposatzen dugu:

40. artikulua. Kautelazko ixteak.

Osasun Departamentuak farmazi laguntzako establezimenduak eta zerbitzuak ixteko erabakia har dezake —neurri hori ez da zehapena izanen—, baldin eta nahitaezko baimenak edo erregistroak ez badauzkate, edo haien jardunak herritarren osasunari kalte egiteko arriskua badakar; gainera, haien funtzionamendua eten dezake edo jardue-rak debekatu, harik eta akatsak zuzendu edo eza-rritako beharkizunak bete arte.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste plante-amendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

173. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak kentzeko zuzenketa.

Lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

174. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lau xedapen gehigarri gehitzeko zuzenketa.

Lau xedapen gehigarri gehitzea proposatzen dugu:

Lehena. Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, gehinez ere, berori garatu eta aplikatzeko errege-lamenduzko arauak onetsiko ditu.

Bigarrena. Lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak farmazi eremuari buruzko ikerketa bat burutua izan beharko du, farmazia berriak ezartzeko aukera zehazteko. Hurrengo hilabetean hasiko du foru lege honetako 31. artikuluan ezarritako baimentzeko prozedura.

Hirugarrena. Farmazietarako lokalen ezaugarriak, 25. artikuluan aipatzen direnak, eta horiek garatzen dituzten arauak ez zaizkie eskatuko foru lege honek indarra hartu baino lehen baimendutako farmaziei, leku aldaketa kasuetan salbu.

Laugarrena. Nafarroako Gobernuak ospitale eta zentro psikiatrikoetan farmazi zerbitzuaren beharra nahitaezkoa izateko muga ehun ohe baino gutxiagotan ezarri ahalko du, osasun sistemako beharrek hala eskatzen badute.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

175. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Beste xedapen gehigarri bat, Hirugarrena, txertatzea proposatzen da. Hona erredakzioa:

Hirugarrena. Foru lege honek indarra hartzen duenean jendearentzat irekita dauden farmazien titular-jabeek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin duten kontratuari eutsiko diote foru lege honen 26. artikuluan hura amaitzeko aurreikusirik dauden arrazoietakoren bat tartean ez den bitartean.

Zioak: Ezarritako farmaziekiko ituna mantenduko dela ziurtatzea.

176. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Laugarren Xedapen Gehigarria txertatzea, erredakzio honekin:

Laugarrena. Guztira, Nafarroan ezarritako farmazien kopurua, gehienez, 700 biztanleko bat izanen da.

Zioak: Farmazietarako gehieneko kopurua ezarri da, osasun eskualde oinarritutako gutxienekoen planifikazioa dela-eta behar direnak eta libreki ezartzen direnak barne, honako asmo juridiko hau ziurtatzeko: farmaziak kopuruari dagokionez planifikatu behar dira, gutxienekoen gainetik.

Kopurua handia ezarri da askatasun zabala bermatzeko, eta 700 biztanleko batez bestekoak bideragarritasun ekonomikoa ziurta dezan, farmazia guzti-guztiak itunduz gero haien batez besteko fakturazioa 20.000.000 pezeta ingurukoa izanen bailitzateke.

**XEDAPEN IRAGANKORREI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

177. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Lehen xedapen iragankorra kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

178. ZUZENKETA

**EUSKO ALKARTASUNA/
EUSKO ALDERDI JELTZALEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lehendabiziko Xedapen Iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ituntzeari buruz aurkeztutako gainerako zuzenketekin bat etortzeko.

179. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankorretan kenketa egiteko zuzenketa.

Lehen Xedapen Iragankorra kentzea. -Gaur egun jendearentzat irekita dauden farmazietarako araubide iragankorra.

Zioak: Aurreko zuzenketetan bezala, IUN/NEB taldeak Nafarroako farmazia guztiekin urtero berri-tuko beharreko itunen bidezko sistemaren alde egiten du, osasun publikoko medikuek agindutako medikamentuak eta osasun arloko produktuak emateko. Farmazia horiek, betiere, aplikatzekoa den legerian ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte eta Osasun Departamentuaren baimena eduki.

180. ZUZENKETA

**EUSKAL HERRITARROK
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen Xedapen Iragankorra ordeztzeko zuzenketa

Ondoko testuarekin ordeztea:

Lehenbizikoa.- Gaur egun jendearentzat irekita dauden farmazietarako araubidea.

Farmaziek, haien jabe-titularrak diren farmazilarien bidez, foru lege honek indarra hartzen duen momentuan 1999ko maiatzaren 20an Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Farmazilarien

Elkargo Ofizialaren Kontseilu Orokorreko buruak eta Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialaren buruak sinatu zuten "Farmazi laguntza farmazien bidez emateko baldintzak finkatzen dituen hitzarmena" delakoaren menpean badaude, itunak egin ahalko dituzte, gainerako farmazia guztiek bezala, ezartzen den baldintzen pleguari atxikitzea nahi badute, eta betiere, jabe-titularrak edo jabekide eta titularkide guztiek finkatzen diren baldintzak onartzen badituzte.

Zioak: Xedapen hori aurkeztutako beste zuzenketen filosofiara egokitzea.

181. ZUZENKETA

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lehen Xedapen Iragankorra:

Ordezkapena egiteko zuzenketa: xedapenaren testu berria.

"Foru lege honek indarra hartzen duen momentuan, 1999ko maiatzaren 28an Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Farmazilarien Elkargo Ofizialaren Kontseilu Orokorreko buruak eta Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialaren buruak sinatu zuten "Farmazi laguntza farmazien bidez emateko baldintzak finkatzen dituen hitzarmena" delakoaren menpean dauden farmaziek sistema horrekin jarraituko dute indarraldi bat amaitu arte.

Foru lege honek indarra hartu ondoren sortzen diren farmaziak 1999ko maiatzaren 28an Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Farmazilarien Elkargo Ofizialaren Kontseilu Orokorreko buruak eta Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialaren buruak sinatu zuten "Farmazi laguntza farmazien bidez emateko baldintzak finkatzen dituen hitzarmenari" atxikiko zaizkio; beraz, horixe aplikatuko zaie berorren indarraldia amaitu arte."

Zioak: Indarrean dagoen hitzarmena mantentzea eta, aldi berean, farmazi berrien itunarekiko atxikipena arautzeko beharra.

182. ZUZENKETA

**UNION DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Aldaketa egiteko zuzenketa.

Lehen Xedapen Iragankorra aldatzea proposatzen dugu. Hona hemen:

Farmazien jabe-titularren eta Osasunbide-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko kontratazio baldintzak 1999ko maiatzaren 28an Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, Farmazilarien Elkargo Ofizialaren Kontseilu Orokorreko buruak eta Nafarroako Farmazilarien Elkargo Ofizialaren buruak sinatu zuten farmazi laguntza farmazien bidez emateko baldintzak finkatzen dituen hitzarmenean zehaztutakoak izanen dira, indarrean dagoen bitartean. Hura amaituta, berriz, jabe-titularrek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin kontratatzen dituzten baldintzek balioko dute.

Zioak: Gaur egun, farmaziekin egiten den kontratazio orokorreko sistematik, jabe-titular bakoitzarekin egin beharreko kontratazio sistema berri-rako aldaketa aurreikustea.

183. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen Iragankorrei gehiketa egiteko zuzenketa.

Xedapen Iragankor bat gehitzea:

“Lehena- Foru lege honek indarra hartzen duenean, administrazio bidean oraindik behin betiko ebatzi ez diren baimen-prozedurak lege honetan ezarritako prozedura berrietan sartuko dira, baimena eskura dezaten.”

Zioak: Farmazi laguntzan legediaren aldaketa gertatzen denerako, konponbideak aurreikustea.

184. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren Xedapen Iragankorra aldatzeko zuzenketa

Honakoa dioen testu-zatian:

“...zilegi izanen dute interes horiei eustea baimena iraungi edo laborategia transferitu arte.”

Honakoa esan dezala proposatzen dugu:

“...zilegi izanen dute interes horiei eustea, gehienez ere, lege hau indarrean sartu eta ezarritzen den hitzarmenaren epea lehen aldiz amaitzen den arte.”

Zioak: Foru lege proiektuan aipatzen diren bateraezintasunekin kontraesan dago.

185. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Bigarren xedapen iragankorra aldatu eta honako hau jartzea proposatzen dugu:

Bigarrena. Medikamentuei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legearen seigarren Xedapen Iragankorari jarraiki, jarduera profesionalean ari diren eta farmazia duten edo ospitaleetako farmazi zerbitzuren batean ari diren farmazilariek, baldin eta lege honek indarra hartzen duenean interes ekonomiko zuzenekoak badituzte baimendutako farmazi laborategietan, interes horiek mantendu ahalko dituzte baimena iraungi edo laborategiak transferitu arte.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketa jaso den erara.

186. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren Xedapen Iragankorra

Ordezkapena egiteko zuzenketa. “Zilegi izanen da batera izatea...” ordez, jarri “Ez da zilegi izanen batera izatea...”

“Hirugarrena.- Ez da zilegi izanen batera izatea...”

Zioak: Ez dira bateragarriak izan behar bi funtzio horiek eta bata ala bestea hartu aukeratu behar da.

187. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren Xedapen Iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Ondoko testu honekin aldatzea proposatzen dugu:

Toki entitate bateko udal farmazilari titularrek, edo toki osasunaren zerbitzurako Foru Komunitateko Administrazioa transferitutakoek, foru lege hau argitaratzen den egunean jardunean badira eta farmazia baten titularrak baldin badira, euren

egoeraeri eutsi ahal izango diote, gehienez ere, berriz ere hitzarmena egin ahal izateko lege honek indarrean hartuta ezartzen den hitzarmen epea lehen aldiz amaitu arte.

Zioak: Foru lege proiektu honi horren inguruan aurkeztutako zuzenketan aipatzen diren bateraezintasunekin kontraesanean dago.

188. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

Hirugarren xedapen iragankorra aldatu eta honako hau jartzea proposatzen dugu:

Hirugarrena. Zilegi izanen da udal farmazilari titularra izatea, toki osasunaren edo Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzura, eta aldi berean farmazia baten titularra izatea, baldin eta foru lege hau argitaratzen den egunean jardunean badago.

Bere eginkizuna egiteak farmaziatik kanpo egotea badakarkio jendearentzako ordutegiaren tarte batean, bertan ordezkaturako duen ordezko farmazilari bat izendatu beharko du.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

189. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bost xedapen iragankor gehitzeko zuzenketa.

A. 1957ko maiatzaren 31ko Dekretuaren 5.1 b) artikulua eta apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretuaren 3.1 b) artikulua babesean baimendutako farmaziak ezingo dira lekuz aldatu, salbu eta beste farmazia baten lekualdaketa ondoriotz edo berri bat instalatzearen ondoriotz ukituta suertatzen badira, betiere, biak araubide orokorrari jarraiki irekita, edo lekualdaketa farmazia baimendu zuteneko nukleo beraren barruan gertatzen bada eta gainerako farmaziekiko bostehun metrotako distantzia gordetzen badu.

B. Foru lege honetan populazio moduluei eta distantziei buruz ezarritakoa ez zaie eskatuko lege honek indarra hartu baino lehenago baimendutako farmaziei. Tramitazio bidean diren farma-

ziak irekitzeko baimenen prozedurei, aldiz, aplikatu egingen zaie.

C. Lege honek indarra hartu baino lehen baimendutako farmazi bulego guztiei legean bertan ezarritako eskualdaketa araubidea aplikatuko zaie. Horretarako, kontuan hartuko da eskualdaketa egiten duen titularrari irekitzeko baimena eman zion erabakia edo akordioa.

D. Foru lege honek indarra hartu ondoren ematen bada epaia eta, horren ondorioz, farmazia irekitzeko baimena, horiek ez dute administrazioak argitaratutako deialdien ondorioz, farmaziak berriak sortu edo lekuz aldatzeko baimenetan eraginik izanen.

E. Osasun zentro edo establezimenduek foru lege honek indarra hartu eta bi urteko epean berorri egokitu beharko zaizkio. Salbuespena izanen da farmazietarako Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoa.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

190. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Beste Xedapen Iragankor bat, laugarrena, gehitzea. Hona hemen:

Laugarrena.- Farmazia izango dutenen baldintza tekniko eta materialak, azalera eta beronen banaketa eta tresneria erregelamendu bidez ezartzen ez diren arte, foru lege hau indarrean sartu baino lehenagoko baldintzak aplikatuko dira.

Zioak: Farmazia berriak irekitzeko epe iragankor hori saihestearren, eta erregelamendu bidezko baldintza berriak ezartzen badira, Xedapen Iragankor honek ahalbidetzen du: gaur egun indarrean diren arau teknikoekin, legea onetsi eta hurrengo egunean farmazia berriak eskatzea; epai judizialaren zain egon eta jendeari irekita diren farmaziak berretsi eta kreditatzea, lege hau oinarritzat harturik baimen berria eskatu ahal izango bailukete, eta gauza bera egin daiteke aurreko legearen arabera epaileak xedaturik itxita diren farmazien edo indarra du erregelamenduari jarraiki instalatutako parafarmazien kasuan ere.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

**AZKEN XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

191. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen Indargabetzailea kentzeko zuzenketak.

Xedapen Indargabetzailea kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Gizarte Segurantzaren errezetekin medikamentu eta osasun produktuak emateko hitzarmen sistema bermatzearen aplikatu izan den legedia guztia ezabatzen du. Legeria horren bidez, gaur arte, Foru Komunitatean bizi direnek farmazia laguntza eskura izan eta berori berdintasunez jaso ahal izan dute. IUN/NEBrentzat Farmazi laguntzari buruzko Foru Legea herritarrei ematen zaien laguntza orokorra hobetzeko tresna da. Egoera batetik abiatu behar du eta berori hobetu. Gaur egungo hitzarmena hautakorra den beste batez ordeztuz –horixe baita hasierako testuaren helburua– herritarrek izan dituzten eskubiak gutxitu eta ezabatzen dira, adibidez, farmazia aukeratzeko askatasuna eta osasun sistema publikoko errezetak emateko aukera berdina izatea, Estatuko autonomia erkidego guztietan gertatzen den bezala.

192. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzailea aldatzeko zuzenketak.

Xedapen indargabetzailea aldatu eta honako hau jartzea proposatzen dugu:

Xedapen indargabetzaila

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honek agintzen duenari kontra egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

193. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapenetako bigarrena aldatu eta honako hau jartzea proposatzen dugu:

Bigarrena. Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru dekretu bidez zehapenen zenbatekoak eguneratzeko, 61.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

194. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Azken xedapen bat gehitzeko zuzenketak.

Azken xedapen bat gehitzea proposatzen dugu. Hona hemen:

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

195. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Tituluen, kapituluen, atalen eta sistematikaren tituluak eta idazpuruak aldatzeko zuzenketak

Tituluen, kapituluen, atalen eta sistematikaren tituluak eta idazpuruak aldatzea proposatzen da. Hona:

ZIOEN AZALPENA

I. TITULUA
Xedapen orokorrak

I. KAPITULUA
Farmazien antolamendua eta farmazi laguntza
1. artikulua. Legearen xedea

2. artikulua. Farmazien antolamendua

3. artikulua. Farmazi laguntza

II. KAPITULUA

Farmazi establezimenduak eta farmazi zerbitzuak

4. artikulua. Farmazi laguntzako establezimenduak eta zerbitzuak

5. artikulua. Medikamentuak ematea. Debe-kuak.

6. artikulua. Farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzuen baldintzak eta betebeharrak.

7. artikulua. Baldintza orokorrak.

8. artikulua. Larrialdi sistemak

II. TITULUA

Farmazi laguntzako establezimenduak eta zerbitzuak

I. KAPITULUA

Farmaziak

Lehen atala

Kontzeptua. Eginkizunak eta zerbitzuak

9. artikulua. Kontzeptua eta eginkizunak

10. artikulua. Medikamentuak erostea

11. artikulua. Medikamentuak ematea

12. artikulua. Maisu formulak eta farmazi prestakinak

13. artikulua. Medikamentuei buruzko informazioa

14. artikulua. Jarraipen farmakoterapeutikoa

15. artikulua. Farmaziako zainketa

16. artikulua. Osasunaren prebentzioa eta sustapena

17. artikulua. Osasun barrutiek koordinatzea

Bigarren atala

Baldintza tekniko eta sanitarioak

18. artikulua. Titulartasuna

19. artikulua. Presentzia eta lanbide jarduketa

20. artikulua. Bitarteko farmazilaria

21. artikulua. Ordezko farmazilaria

22. artikulua. Farmazilariaren ondokoak

23. artikulua. Farmazietako langileak izendatzeko eta kargutik kentzeko baldintzak

24. artikulua. Farmazietako languntzaile teknikoak.

25. artikulua. Lokalak, instalazioak eta identifikazioa

26. artikulua. Ordutegiak eta guardiako zerbitzuak

27. artikulua. Farmazien publikotasuna

Hirugarren atala

Farmazien plangintza

28. artikulua. Farmazien plangintza

29. artikulua. Populazio moduluak

30. artikulua. Distantziak

31. artikulua. Irekitzeko baimenerako prozedura

32. artikulua. Lizentziak

Laugarren atala

Lekualdatzeak

33. artikulua. Lekualdatze motak

34. artikulua. Borondatezko lekualdatzeak

35. artikulua. Nahitaezko lekualdatzeak

36. artikulua. Lekualdatzeetarako baimenak

Bosgarren atala

Eskualdatzeak eta bitartekotasuna

37. artikulua. Inter vivos eskualdatzea

38. artikulua. Mortis causa eskualdatzea. Bitartekotasuna

39. artikulua. Eskualdatzeetarako eskubidearen mugak

40. artikulua. Eskualdatzei eta bitartekotasunari buruzko bestelako kasuak

Seigarren atala

Lokalak eta instalazioak aldatzea

41. artikulua. Obrak

Zazpigarren atala. Bulegoak ixtea

42. artikulua. Ixtea

II. KAPITULUA

Botikinak

43. artikulua. Botikinak

III. KAPITULUA

Farmazi zerbitzuak eta medikamentuen gordetegiak oinarrizko osasun laguntzako egituretan

Lehen atala
Farmazi zerbitzuak

44. artikulua. Definizioak eta antolamendua
45. artikulua. Eginkizunak

Bigarren atala
Medikamentu-gordetegiak

46. artikulua. Medikamentu-gordetegiak

IV. KAPITULUA

Farmazi zerbitzuak eta medikamentuen gordetegiak ospitaletako, zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako eta espetxeetako medikamentu-gordetegiak.

Lehen atala
Farmazi zerbitzuak

47. artikulua. Farmazi zerbitzuak
48. artikulua. Eginkizunak

Bigarren atala
Medikamentu-gordetegiak

49. artikulua. Medikamentu-gordetegiak

V. KAPITULUA

Gizakientzako medikamentuen eta osasun produktuen banaketa

50. artikulua. Farmazi produktuak banatzeko zentroak
51. artikulua. Funtzionamendu baldintzak
52. artikulua. Osasun arloko agintariekiko lan-kidetza

VI. KAPITULUA

Animaliek erabiltzeko medikamentuak banatu eta ematea

53. artikulua. Albaitaritzako medikamentuen banaketa
54. artikulua. Albaitaritzako medikamentuak ematea
55. artikulua. Albaitariek erabiltzeko medikamentuak banatu eta emateko baldintzak
56. artikulua. Larrialdietarako botikinak

III. TITULUA

Farmazietako profesionalak

57. artikulua. Prestakuntza etengabea
58. artikulua. Bateriaezintasunak

IV. TITULUA

Medikamentuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea

59. artikulua. Medikamentuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea

V. TITULUA

Zehapen araubidea

60. artikulua. Arau-hausteak
61. artikulua. Zehapenak
62. artikulua. Zehapenak jartzeko eskudunak diren organoak
63. artikulua. Kautelazko ixteak
64. artikulua. Iraungipena

Xedapen gehigarriak

Xedapen iragankorrak

Xedapen indargabetzaileak

Azken xedapenak

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

**ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

196. ZUZENKETA

**NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa

Zioen azalpena aldatzea proposatzen dugu. Hona proposatzen dugun testua:

ZIOEN AZALPENA

– I –

Azken urte hauetan Foru Komunitatean izan den bilakaera sozial eta ekonomikoa eragina izan du farmazi laguntzan. Hura lehenbailehen egokitu behar da indarra duten oinarrizko araueta-

ra; ezin gara egon Estatuan egun indarrean dagoen farmazi antolamenduaren eredia legez noiz aldatuko duten zain, ez eta arauetan oinarritu gabeko esperimenduak egiten ere. Ezin da ahaztu farmazi jarduerak eragin zuzena duela medikamentuak erabili beharreko laguntza-zainketak behar dituzten herritar guztiengan.

Europar sartzek berak ere botere publikoak behartu ditu osasuna babestera bideraturiko jarduera guztien araubidea harmonizatzerara, herritar guztiak Konstituzioaren arabera (43. artikulua) duten eskubidea gauzatzeko, osasun publikoa antolatuz eta zainduz prebentzio neurriekin, prestazioekin eta zerbitzuekin, betiere uneoro osasuna kudeatzeko egokienak diren formulak aplikatuz eta inplikatu guztien eskubideak eta betebeharrak ere ezarriko dituzten legeak eginez.

Osasun arloko politikaren barruan, herritar guztiei medikamentuak eta osasun produktuak aukera berdintasunez eskuratzeko modu eraginkor eta arrazionala bermatu beharko da. Medikamentuen eraginkortasuna eta erabilera arrazionala, Osasunaren Mundu Erakundearen iritziz, ondokoetan datza: medikamentu seguru eta eraginkorrak ematean, haiek prezio onean eskuratzeko aukeran eta haiek zuzen ematean. Betiere, medikamentu eraginkorrez eta kalitatekoez ari gara.

Farmazi laguntza osasun politikaren kontzeptu zabalagoaren baitan kokatu behar da, eta garrantzi handiko pauso bat da osasuna babesteko helburuak erdiesteko bidean. Hori dela eta, lege honen bitartez lortu nahi den farmazi antolamenduak helburu du farmazi laguntza zeharo arautzea. Delako laguntza hori Foru Komunitateko Administrazioak bermatu beharko du laguntza-maila eta lurralde guztietan.

Alor honi buruzko araupetzea zeharo atzeraturik geratu da Foru Komunitatean, Estatu osorako oro har ezarri diren oinarritzko araupetze desegokiak ondorioz, bai eta hemen sozioekonomiaren eta osasunaren ikuspuntutik daukagun errealitate propioaren ondorioz ere. Autonomietan arau ugari eman dira farmazi laguntzari eta farmazien antolamenduari lege maila emateko; Nafarroan, berriz, ez da halakorik eman, alor honetako eskumenak edukita ere.

Autonomia erkidegoek farmazien antolamenduaren arloan dauzkaten araugintza-eskumenak estatutuaren ezarritako "barne osasuna" eskuratzan du oinarria, betiere alorrari buruz Estatuak ematen dituen oinarriak begiratuz (149.1.16 art.). Hala aitortu dute oro har Jendearentzako farmazi zerbitzua zabaltzeari buruzko urtarrilaren 17ko

11/1996 Errege Lege-dekretuak, zeina Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legeak indarririk gabe utzi baitzuen. Hori, gainera, osasunaren alorreko eskumen eksklusiboak erabiliz nahiz legegintzako garapena erabiliz farmazi antolamendua arautu duten lege autonomiko ugariak (148.1.21gn artikulua) berretsi dute.

Nafarroako Foru Komunitateak osasun alorrean duen eskumenak —eta hartan sartzen da farmazi antolamendua— arrazoi historiko bat du, legegintzako garapenera eta Estatu oinarritzko legeak betetzera ere zabaltzen dena (LORAFNaren 53.1 artikulua), Gizarte Segurantzarekin gertatzen den bezalaxe (LORAFNaren 54.1 artikulua). Eskumen hori LORAFNaren 58.1.g) artikuluan oinarrituta eztabaidatu da, hain zuzen ere Nafarroaren esku uzten baitu "establezimendu eta farmazi produktuei" buruzko Estatu legeak beteaztea. Hala eta guztiz ere, "barne osasunari" buruzko eskumenari eman zaion zentzu zabalagoan (LORAFNaren 53.1 artikulua), sartu behar da, gainerako erkidegoetan egin den bezala, Estatu oinarritzko legearen legegintzako garapenerako eta betearazteko eskumena. Hori, gainera, ondokoek berretsi dute: abuztuaren 1eko 1697/1985 Errege Dekretuak, zeinak Estatuak Komunitateari egin beharreko transferentzietan sartu baitzuen farmaziak ireki, aldatu eta kentzeko baimenak ematea; Osasun Institutu Nazionalaren zerbitzuak Nafarroari eskualdatu zizkion abenduaren 28ko 1680/1990 Errege Dekretuak; eta farmazi produktuei buruzko Estatu legediaren beteaztearen eskualdatu zuen 1318/1997 Errege Dekretuak.

Nafarroako Foru Komunitateak osasun arloko arauak eta farmazien antolamenduei buruzkoak eman dizkio bere buruari. Horrela, bada, eman zen Osasun Barrutiak arautzen dituen azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legeak Nafarroa Osasun Erregio gisa egituratzen du; erregio hori osasun barrutiek osatuta dago, eta osasun barruti horiek osasun eskualde oinarritzkoek osatzen dituzte. Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, zeinak osasun jarduera publiko eta pribatuak arautu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua sortu baitzuen, hain zuzen ere osasuna babestua izateko konstituzio eskubidea gauzatzeko.

Farmazien antolamenduari dagokionez, irailaren 9ko 321/1996 Foru Dekretuak Foru Komunitatearen farmazi zerbitzuaren behin-behineko araubidea ezarri zuen; haren indarra urriaren 14ko 539/1996 Foru Dekretuak eten zuen. Nafarroako Gobernuaren 1997ko ekainaren 16ko erabakiaz apirilaren 25eko 16/1997 Legea aplikatzeko inter-

pretazio-irizpideak ezarri ziren. Osasun kontseilariaren uztailaren 1eko 92/1997 Foru Aginduak 1993ko ekainaren 16koa aldatu zuen, farmazietan gutxienez eskuragarri egon behar duten medikamentu eta osasun produktuei dagokienez. Kotseilari beraren 93/1997 Foru Angiduak hori bera ezarri zuen farmazi produktuen banaketa-biltegiei dagokienez. Irailaren 1eko 214/1997 Foru Dekretuak osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduak sortu, aldatu eta lekualdatzeko eta haien funtzionamendurako baimenen araubidea ezarri zuen. Irailaren 15eko 252/1997 Foru Dekretuak 4. artikuluan farmaziak osasun zentro gisa sailkatzeten ditu. Irailaren 1eko 258/1998 Foru Dekretuak zenbait medikamenturen Foru Komunitatearen fondoan kargurako prestazio osagarria ezarri zuen.

– II –

Osasun, medikamentu, atentzio eta farmazien antolamenduaren arloko Estatuko oinarriko legeek eskumen-tituluetan dute oinarri (149.1.1, 16 eta 17. art.). Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, “arauen bitartezko erregulazio uniforme bat da, nazio osoan indarra duena; horrexek bermatzen du –autonomia erkidego baten interesen gaineko interes orokorrak erdiestearren– arau-oinarri komun bat izatea. Hortik abiatuta, erkidego bakoitzak, interes orokor propioaren defentsan, nahi dituen berezitasunak ezarri ahal izanzen ditu” (1982-1-28ko epaia). Oinarriko markotik abiatuta, autonomia erkidegoek “erregulazio anitz” (Konstituzio Auzitegiaren 1982-11-4ko epaia) ezar ditzakete, “politika propio baten arabera gobernu jardueran” (Konstituzio Auzitegiaren 1982-6-14ko epaia); betiere, amaierako erregulazioa “Estatuaren eta autonomia erkidegoen baterako jardueraren emaitza izan da” (Konstituzio Auzitegiaren 1982-12-23ko epaia).

Farmazien zerbitzuak arautzeari dagokionez, 1855eko Osasunari buruzko Legeak, Farmaziari buruzko 1860ko Ordenantzek eta 1904ko Osasunari buruzko Instrukzio Orokorrak honela sailkatu zuten farmazi jarduera: medikamentuak ematea monopolio gisa duen osasun lanbidea, askatasunez ezartzeko araubidea duena baina Administrazioaren kontrolaren menpe, hain zuzen ere baimen eta ikuskapenen bitartez.

1941eko urtarrilaren 24ko Dekretuak erabateko aldaketa egin zion aurreko araubideari askatasunez ezartzeari dagokionez. Dekretu hori Farmaziei buruzko 1944ko osasun arloko lege nazional orokorraren XVI. oinarrian jaso zen. Azken horrek “nazioko lurraldean arautu eta mugatu zuen farmazien ezarpena, baita behar diren amortizazioak

eginez ere; betiere, jabearen interesak gordeko dira”. Lege hori 1957ko maiatzaren 31ko Dekretuaren bitartez garatu zen. Geroago, apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretuaren bitartez, indarririk gabe geratu zen dekretu hura. Azkenik, 1979ko azaroaren 21ean gai honi buruzko Ministerio Agindu bat eman zen. Apirilaren 14ko 3/1986 Lege Organikoaren 4. artikulua medikamentuak eta osasun produktuak aipatu zituen. Osasunari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorrak Osasun Sistema Nazionala ezarri zuen oinarri gisa, eta harekin batera partikularren osasun jarduerari, farmazi produktuei eta farmazi laguntzari eta antolamenduari buruzko arauak ere eman zituen. Gizarte Segurantzaren arloan, maiatzaren 30eko 2065/1974 Dekretuak Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bateratua onetsi zuen; lege horren medikuntza eta farmazi prestazioei buruzko 103. artikulutik 108. artikulura bitartekoek indarrean darraite, nahiz eta ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegileak hura indarririk gabe utzi.

Estatuko eskumen tituluen babesean, medikamentuei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legea eman zen. Lege oinarrikoa zen, oro har, eta farmazi laguntza eta farmazien antolamendua, farmazietan medikamentuak ematea, ospitaleetako farmaziak eta beste alderdi asko arautu zituen. Hori dela eta, medikamentuei buruzko eta haiei loturiko osasun jarduerari buruzko araurik garrantzitsuena da. Farmazien antolamenduari buruzko arauak osatzeko, jendearentzako farmazi zerbitzua zabaltzeari buruzko urtarrilaren 17ko 11/1996 Errege Dekretu-Legea eman zen, zeina Farmazien zerbitzua arautzeko apirilaren 25eko 15/1997 Legearen bitartez indarririk gabe geratu baitzen. Azken horretan ezarri ziren farmazien antolamenduari buruzko estatuko oinarriak.

Apirilaren 25eko 16/1997 Legeak farmazien antolamenduaren oinarriak arautzen ditu eta Espainiako Zuzenbidearen plangintzaren eta antolamenduaren sistema tradizionala mantendu du; sistema horrek populazio moduluak, establezimenduen arteko distantzia eta eskualdatu daitezkeen titulartasun pribatuaren jarduerarako administrazio baimena ditu zutabe nagusiak. Autonomia erkidegoen esku uzten zuen osasun unitate oinarrikoak ondokoan arabera antolatzen berariazko irizpideak ezartzeko eskumena: dentsitate demografikoa, ezaugarri geografikoak eta populazioaren dispersioa. Antolamendua egiteko tresnak, berriz, Legeak ezarritako populazioaren oinarriko moduluen kopurua eta zenbaketa, eta farmazien arteko distantzia izan da. Lege honek ez du berekin ekarri Elkarlehia Defendatzeko Auzitegiak eskatzen zuen liberalizazioa: farma-

zia bat irekitzeko populazio modulu bat eta gutxieneko distantzia bat finkatzeak berekin dakarren murriztapena dute oinarri, eta horren ondorioz ezar eta baimen daitekeen farmazien gehieneko kopuru baten plangintza egiten da.

Apirilaren 25eko 16/1997 Legea indarrean dagoenetik hiru urte igaro direla, egiaztatu ahal izan da medikamentu erkidegoetako eskumenak erabiltzeko negatiboa izateaz gainera, ez dela baliagarri izan apirilaren 14ko 909/1978 Errege Dekretuari egozten zion akatsa, alegia "oztopo gaindiezina izatea zerbitzuak zabaltzeko eskari guztiz logikoarentzat, eta lanbidean gatazkak eta frustrazioak sortzeko iturria izatea". Alderantziz, egoera horiek finkatzeko balio izan du, bideraezin bihurtu dituelako alde batetik populazio moduluetan eta distantzietan eta bestetik dentsitate demografikoan, ezaugarri geografikoetan eta populazioaren dispersioan oinarrituriko antolamendu markoa aldatzeko medikamentu erkidegoetan eginko lege ahalegin guztiak.

Beraz, estatuko oinarritzko arauak ezinbesteko tresna dira, farmazi jarduera antolatzeari dagokionez, arlo honi buruz autonomiek dauzkaten eskumenak garatzeko orduan. Horrela, bada, asmo berritzaile guztiak hark mugatutako lekuan baizik ezin dira sartu; bestela, autonomi arauak Konstituzioaren aurkakoak izan daitezke. Estatuko oinarritzko legeek jarduera tarte estuak utzi dizkie autonomia erkidegoei, eta horrek berekin ekarri du erkidegoek ezin egokitu izatea farmazi laguntza-aren araubidea eta farmazien antolamendua beren osasun eta gizarte arloko beharrezaneiei eta beharrian ekonomikoiei. Hartara demostratu da nola estatuko oinarritzko legeak erabiltzen diren autonomia erkidegoetako eskumenak xafatzeko eta autogobernuaren erakundeen erabaki politikoei mugak jartzeko teknika gisa.

Zehazki, Estatuko legedi oinarritzkoak, Farmazien zerbitzua arautzeari buruzko apirilaren 25eko 16/1997 Legearen 2.1, 2.2, 2.5, eta 6. artikuluen bitartez, sektorearen edozein liberalizazio zaildu ezezik, plangintza irizpideak ezartzearekin -hau da, hura erabakitzearekin- oztopoak ere jartzen ditu erkidegoek beharrian kolektiboetarako ego-kiagoa izanen den lurralde antolamendu egokia- goa egin dezaten.

– III –

Arau orrokorren eza, alderdi zehatz batzuei buruzko arauen eskasia eta sistematika falta, farmazien zabaltzeak direla-eta sorturiko interes-aztiak, jarduketa korporatibistak eta profesional berrien ugaltzea arrazoi nahikoak izan dira sekto- re honetan epaiketa ugari izateko.

Foru Komunitatearen osasun sistemaren eta biztanleen banaketaren ezaugarri bereziak direla eta, berariazko tratamendua eman behar zaio farmazi laguntzari, azkarra eta eraginkorra izan dadin, eta ahal diren baldintza onenetan berma dadin, bai hiri eskualdeetan eta bai landa eskualdeetan ere; hala eginez gero, Administrazioak herritar guztiei berdintasunez atenditzeko daukan betebeharra beteko du. Osasunari buruzko politikak gobernu baten eginkizun nagusia izan behar du, bai eta gizarte osoarena ere, hain zuzen ere osasun laguntza unibertsalagoa egiteko helburu zabalarekin; betiere, laguntza hori biztanle guz- tientzat bermatuko da, bazterkeriarik gabe.

Hori dela eta, udalerrriaren esparrua gaintu behar da, laguntza hori Famazi Eskualdearen esparruan kokatzeko, osasun eskualde oinarritzko-ekin eta osasun barrutiekina batera (Osasun Barrutiak arautzen dituen 22/1985 Legea); izan ere, horiek dira osasun zerbitzuen oinarritzko laguntza- ren eremu geografikoa eta populaziokoa, eta osa- sun laguntza horretan sartu behar da medikamen- tuen arloan ari diren farmazilari profesional teknikoek jarduketa.

Helburu hori erdiesteko, Foru Lege honen ara- bera, farmazi laguntza da farmazien arloko profes- ionalen erantzukizunaren eta gainbegiradaren menpe, medikamentuak banatzeko eta emateko establezimendu eta zerbitzu berariazkoetan, far- mazi laguntza egokia bermatzeko garatzen diren jardueren multzoa da, betiere medikamentuaren behar bezalako erabilera sustatuz.

Antzeman daiteke, beraz, farmazien antola- menduak jarduerarako baimen ematea ere biltzen duela, hasi medikamentua ematearekin –banake- ta, kontserbazioa, zainketa, farmaziako zainketa, publizitatea, hari buruzko informazio objektibo eta zientifikoa– eta bukatu ospitaletako farmazi lagun- tzarekin, laguntza soziosanitarioarekin, psikiatriko- arekin eta baita penitentziarioarekin ere.

Oinarritzko legediari jarraituz, farmazia interes publikoko osasun establezimendu pribatu bat da; horrek bateragarri egiten ditu bai osasun lanbide- aren ariketa librerako eskubidea (Espainiako Konstituzioaren 35. eta 36. art. eta Osasunari buruzko 14/1986 Legearen 88. art.) bai enprese- tarako askatasuna (Espainiako Konstituzioaren 38. art. eta 14/1986 Legearen 89. art) eta botere publikoen beharrezkoa den esku-sartzea, ikusirik horiek osasun laguntza bermatzeko duten beha- rra. Administrazio baimenetarako –ez emakideta- rako– araubideak farmazi jarduketaren araubidea aitortzea esan nahi du, ekimen profesionalerako eskubidea eta profesionalaren enpresa-ekimena oinarri harturik.

– IV –

Foru lege honen I. titulua, zeinak “Farmazi laguntza” baitu izenburu, printzipio orokor batzuk biltzen ditu: alde batetik, helburua, antolamendua-ren definizioa eta farmazi laguntzaren definizioa, larrialdietarako sistema bat aurreikustea medikamentuak eta osasun produktuak salgai jarri eta erabiltzearen ondorioz osasunerako arriskugarri gerta daitezkeen kasuetarako; bestetik, establezimenduen eta foru lege honek ukitzen dituen farmazi laguntzako zerbitzuen antolamendu sistematika, herritarrarentzako banaketa eta ematealdi ezberdinetan sailkatu, Osasun Publikoari buruzko arauetako oinarriko printzipioen arabera; horretan sartuko dira, gainera, medikamentuak saltzeari buruzko hainbat debekuri buruzko manu berariazkoak, bai eta aginduzkoak diren eta araututa dauden baimen eta ikuskapen administratibok ere, alde batetik lege honetan ezarritakoa beteko dela eta bestetik establezimendu eta zerbitzu horien baldintza orokorrak bermatzeko.

– V –

II. tituluak farmazi laguntzako establezimendu eta zerbitzu publiko zein pribatuak arautzen dira; kapitulu bat dago horietako bakoitzari buruz.

Farmazien antolamendua da konplexuena, osasun publikoko eginkizun bat garatzen duten osasun establezimendu pribatuen egoera kontuan hartuta; hala egieztatzen ahal da osasun zerbitzu bat berdintasun, irisgarritasun eta eraginkortasun baldintzetan ematean kalitatea bermatu behar duten arauak artikulatu nahi izan dituzten legeetan.

Farmazi laguntza jarraia, azkarra eta eraginkorra emateko jarduera –betiere osasun berme handienak ematen medikamentuak erosi, zaindu, kontserbatu eta emateari dagokionean–, momentuz, herrialde garatueta dauden sistemetan onena da, farmaziako profesionala bertan dagoelako eta kontrol lana egiten duelako; izan ere, farmazilaria da farmaziaren jabea eta titularra, eta informazioa, aholkuak eta jarraibideak emateko eginkizuna bere gain dituen.

Titulartasun pribatuko establezimendu bat zerbitzu publiko bat ematen aritearen dikotomia hori gainditzeko, jabetzarako eta erabilpen librerako eskubidearekin batera, administrazio baimenaren eta osasun plangintzaren eta antolamenduaren mepe egotea daude; horrekin, osasunaren babes onena lortu nahi da, herritarrari ahal den eta kalte gutxien eginez, laguntzarako bermeak gabe. Ezin da ahaztu, bestalde, farmazia guztiek eskatzen zaizkien medikamentu guztiak emateko daukaten

oinarriko betebeharra, partikularrek eskatuta nahiz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskatuta.

Plangintza hori, farmazien kopuruari dagokionez, populazio moduluen eta farmazien arteko distantziaren arabera zehazten da Estatuko legedian; medikamentu erkidegoei aitortzen zaizkie modulu horiei buruzko eskumenak, legez gara ditzaten “ezarritako irizpide orokorrei jarraituz”. Horretarako, kontuan hartu behar dira populazioan gertatu diren eraldaketak eta jendegune berriak sortu direla, jendeari arreta hobea emateko beharra eta farmaziari ez duten farmazilariei establezimendu bat edukitzeko aukera eman behar izatea ere bai. Hori guztia herritar guztientzako farmazi laguntza hobetzeko xedez.

Udala, osasun laguntzako unitate integral gisa, gaindituta dagoenez, tratamendu berria eman behar zaie farmazien lekualdatzei, farmazi eskualdeko laguntza beharrak farmazilariak behar horiei erantzuna emateko beharrarekin harmonizatzearen.

Medikamentuen trafikoak ez ditu biltzen bakarrik gizakientzako medikamentuak: animaliekin erabiltzekoak edo albaitaritzan behar direnak ere biltzen ditu. Horiek ere, haiei buruzko legeetan jasotzen den bezala, farmazilariak kontrolatu beharrekoak dira eta farmazietan nahiz lege honetan aurreikusitako bestelako egituretan eman behar dira; bestalde, farmaziak dira maisu formulak emateko ahalmena dutenak, besteak beste gai anabolizanteak, hormonalak edo psikotropikoak kontrolatu ahal izateko.

Azkenik, farmazi laguntza betetzerik ez bada, farmazi jakin bati atxikitako botikinak instalatzeko baimenak emateko aukera aurreikusi da.

III. kapituluak oinarriko laguntzako farmazi zerbitzuei buruzkoa da; zerbitzu horien eginkizunekin betetzen da maila honetako laguntza integrala, farmazien laguntzaren bitartez.

Bai Ospitale eta zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako zerbitzuek eta bai eta ospitale eta zentro soziosanitario eta psikiatrikoetako eta espetxeetako medikamentuen gordetegiek lege hau behar dute lokalaren egokitasuna bermatzeko, medikamentua kontrolatzeko eta internoak baizik erabil ez dezan. II. tituluko IV. kapitulan jaso da hori guztia.

Banaketa-biltegiak, ondorio guztietarako osasun establezimendu direnak, V. kapitulan landu dira. Farmaziei eta farmazi zerbitzuei baizik ezin diete medikamenturik saldu. Larrialdi kasuetarako

farmazi alertako sistema eraginkor bat izan behar dute.

Azkenik, II. tituluko VI. kapituluak animaliekin erabiltzekoak diren medikamentuen banaketa eta ematea ezartzen ditu, aurretik aipaturiko jarraibideak erabiliz.

– VI –

III. titulua medikamentuen eta osasun produktuen erabilera zuzena bermatzeari buruzkoa da. Horretarako, beharrezkoa da farmazietako profesionalen prestakuntza etengabea eta farmazilariak produktuen fabrikazioan interesak izateko debekua.

Legearen IV. titulua medikamentuei eta osasun produktuei buruzko informazioa, sustapena eta publizitatea arautzen ditu, bai eta hori guztia egiazkotasun irizpidearen arabera izatea ere, gaitxoak gehiegi edo gaizki erabili ez ditzan.

Azkenik, V. tituluari, Administrazioak legean ezarritakoa behar bezala betetzen dela kontrolatuko duela bermatzeko zehapen araubidea ezartzen da.

Zioak: Farmazi laguntza emateko beste planteamendu bat egiten dugu, osoko zuzenketan jaso den erara.

197. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpenei aldaketa egiteko zuzenketa. V. zatia, d) letra.

d) letra ondoko testu honekin ordeztua:

“Autonomia erkidegoei dagokie herritarrentzako farmazia laguntza bermatzea; horretarako, administrazio publiko eskudunak farmazia laguntzaren plangintza egin behar du bere lurraldean, betiere, farmazia laguntza emateko lehentasun geografiko eta sozialak ezarriz eta eskualde eta herri guztietan, baina batez ere landa-eremuetan, laguntzaren kalitateari eta herritarrekiko eskuragarritasunari buruzko baldintza objektiboak erabiliz.

Horretarako beharrezkoak dira: Foru Administrazioak malgutasuna eta interesa handiena izatea osasun zerbitzu hori kalitatez emateko; farmazilarien jarduera profesionalaren askatasuna; enpresa arloko erronka hori onartzeko eta baime-na jasotzeko eskatutako baldintzak eta hitzarmen

bidez eman beharreko zerbitzuak betetzeko gogoia. Hori guztia, bai Foru Komunitateko landa-eremuetan eta baita hirietan ere, herritarrek farmazia zerbitzua berdintasunez eta askatasunez jaso dezaten.

Zioak: Jatorrizko testua nahasgarria da. Liberalizazioaz dihardu, baina gero murriztu eta gutxieneko irizpideak ematera mugatzen da. Gutxienekoak bermatu behar dira, baina jarduera profesionalari ekiteko askatasuna murriztu gabe, farmazia laguntza zabaldu eta unibertsalizatzeko baldintza objektiboak betetzen badira behintzat eta farmazia laguntzaren onuradun diren herritar guztiekiko kalitatea, eskuragarritasuna eta berdintasuna bermatzen.

198. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpenari kenketa egiteko zuzenketa. V. zatia, e) letra.

e) letra kentzea.

Zioak: d) letrari aurkeztutako zuzenketarekin, bai foru legearen artikuluei aurkeztutakoekin ere, kontraesan dago.

199. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko V. kapituluko d) letra kentzeko zuzenketa.

Ondoko testua kentzea proposatzen dugu:

“bertako eskaerak eta baldintzak ikusirik hala komeni bada”

Zioak: Zioen azalpena zuzenketen filosofiara egokitzea.

200. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpenari aldaketa egiteko zuzenketa. V. zatia, f) letra.

Letra horretako testua ondoko honekin ordeztua:

“Farmaziak, bada, bitariko establezimenduak direlarik, herritarrei osasun zerbitzuak ematen dizkieten eta estaldura publikoa duten pribatuak ere bai, foru lege honetan islatzen da, bulegoa zabalteko baimena eskuratzeko ezinbesteko baldintzetan; alegia, langileen profesionaltasunean, zerbitzuen kalitatean eta berariazkoagoko beste baldintza batzuetan, adibidez, itun bidez Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak herritarrei emanen dizkien osasun zerbitzuak, berak baitu osasun arloko prestazioak kudeatzeko ardura Nafarroako Foru Komunitatean.”

Zioak: IUN/NEBek foru legearen artikuluei aurkeztutako zuzenketen filosofia eta edukiari egokitzea.

201. ZUZENKETA

EUSKAL HERRITARROK

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpeneko V. kapituluko g) letra kentzeko zuzenketa.

g) letra kentzea proposatzen dugu.

Zioak: Zioen Azalpeneko testua zuzenketen filosofiara egokitzea.

202. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen Azalpena aldatzeko zuzenketa. V. zatia, g) letra.

Letra horretako testua ondoko honekin ordezttea:

“Aurrekoarekin loturik, foru lege honek ituntzea ezartzen du jendeari irekitako farmazien eta Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak behar bezala baimendutako bestelako farmazi laguntza zerbitzuen jabe-titularrekin. Helburua, honako hauek bermatzea da: Nafarroako herritar guztiei farmazia laguntza jarraitua eta kalitatezkoa ematea; herritar guztiek farmazia aukeratzeko duten askatasuna eta osasun arloko administrazio publikoarekiko lankidetzeta, oinarritzko osasun zerbitzuak ematerakoan eta baita Nafarroako Osasun Zerbitzuak, itunaren barruan, bai orokorki bai zehazki, ezartzen dituen programak garatzerakoan ere.”

Zioak: IUN/NEBren abiapuntua da herritarrei ematen zaien farmazia laguntza hobetzea. Momentu honetan, laguntza hori egokitzeak jotzen da, presentzia handiagoa izan eta herritarrekiko gertuago egoteaz gain, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren koordinaziopean garatu beharreko zerbitzu eta programen zehaztasun argiagoa baitu. Irizpide horiek lehentasuna izan behar dute merkataritza arloko irizpideekiko, izan ere, horietan oinarritzen baita Parlamentura igorritako foru lege proiektua.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--